1949ko udazkenean hasi ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Basarri, Jose Artetxe, Beorlegi, Maria Dolores Agirre, Milagros Bidegain eta talde bat irratsaioak egiten astero; eta hitz egin eta bertsoak kantatzen zituen Basarrik, beti ere bere moralina erantsiz. Zazpi-zortzi urte iraun zuen halaxe.

1957an hasi ziren berriro, Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* irrastian. Aldi hartako lehenengo irratsaioa 1957ko irailaren 13an eman zuten, *Audición de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián* izen ponpoxoarekin, aurrezki kutxa haren babesean, ostiral arratsalde/arratsetan. Eta ordu horretan zain eta adi egoten zen jende asko ezagutu genuen.

Nere Bordatxotik atalean kontakizun eta albisteak eman ohi zituen Basarrik, eta azkenean, bertso bat edo bi kantatuz aipatu zuen gai bakoitzari bere moralina eransten zion.

Lehen esan bezala, ez dago garai hartako irratsaioen grabaketarik –baldin eta zuetako norbaitek gordeta ez baditu–. Hala ere, eskerrak azkenengo urteetan, 1980ko hamarraldian Euskadi Irratian egin zituen saio batzuk ondo gordeta gelditu diren.

Gudako kazetari

Lehenengo Ertzain eta gero Euzko gudarostean ibili zen garaian gudako kazetaritza-lana egin zuen Basarrik, bera bezalaxe etsai askoz indartsuago baten aurka borrokan zebiltzan gudamutilak animatuz:

Jeiki euzkoak, gora Euzkadi

Adar otsa entzun da gure mendietan. Gudara, gerrara deitzen zaio erriari. Goazen guziok, goazen beldur gabe! Geure izen ona nardaskatzen ez dezagula utzi.

Gudara, mutillak, gudara!

Euzkoak gerala konturatu. Lengo edestia bururatu. Lautik iruko sail ederra etsaien zai degu. Alaz ere ez euren egiterik asetzen.

Erabat galdu nai gaituzte; gu galdu ezkerro besteekikoa laister egingo lutekela jabetu dira. Munduaren aurrean gure gobernoak bestek ez bezelako izena dauka, ta orrek neurrigabeko ziztada de-maiote etsai ankerrai.

Dakazkiten gizonak ez dira urre emateko. Gerra irabazpidetzat artuta derriorrean datozen jopuak dira geienak. Emengo mutillak galtzairuzko gorputza dute agerkai. Dana jokutzen ari baitira. Gura-soak, anaiak, etxea, maiteñoa, aideak, aberria... Nor ez benetako gudari ola?

Jeiki, jeiki, etxeukuok
argia da zabala
itxasotik mintzatzen da
zillarrezko trunpeta,
baita ere ikaratzen
Olandresen (?) ibarra.

Jaiki bai aberriaren egal batetik besterañoakoak. Jaiki gogoz, zutindu orok. Izkillua lagunik aundien. Denok gudari, denok euzkotar!

Batu, bildu, alkartu denok! Ez gaur degun aberri zati txiki au zaitzeko bakarrik, paxisten menpe ditugun lur guzietaz jabetzeko baizik.

Onuntz ingura nai duten maltzur ustelak zapaldu, birrindu, ta Araba ta Gipuzkoa bein da betiko geureganatzeko. Orain da garaia, oberik egundo ez. Oraintxe egin bear dira egitekoak.

Errege biak azken burruka iragarrian ikusirik, Dugueschin-ek zion:

«Ni pongo ni quito rey, pero ayudo a mi señor!»

Jaun aren laguntza izan zan aldera erabaki zan burruka.
Gañontzeko uskeri guziak utz ditzagun alde batera.
Euzkadigatik, aberriagatik, erri zar onen askatasun zorionagatik guzia.

Guzia, dena!

Etsaiok iñun artu duten jipoirik ikaragarriena emen artu bear dute.

Ortarako gauza bat palta degu: Goiko laguntza.

Itxurak diranez, laister izango degu berriz.

Jeiki, euzkoak, gora Euzkadi!

Enbeitarekin batera dirautzuek:

Anaiak gara Lapurditarrek,
Zuberotar ta Naparrak;
Anaiak Gipuz-Bizkaitarrak.
Guztion ama Euzkadi da ta
gu bere seme bakarrak.
Mugak kendu ta jarri dezagun
Aberri oso bakar bat.

Eguna, 1937-04-08

Holako idazlanez beteta dago Basarriren garai hartako kazetaritza. Eta harreman ona zuen egunkariko arduradunekin, ikusi bestela *Bidani'tarren poza* idazlanaren ondorengo ohar hau (*Euzkadi*, 1936.09.09):

Uarra: Zure idazki au, eta beste bat be, une onetan ekarri daustez. Emetik aurrera egunoro idazteko asmua dozula diñozu, eta, arren, artuta beriala *Euzkadi*-n argitaratzeko.

Alantxe egingo dogu, eta pozik egin be. Idazki au irakurri dogu-neko irarkolaratu dogu. Eta bigarrena, Goikua lagun, bijar argitaratuko dogu.

Bijar argitaratuko dogun ori, bertso eta guztikua da ixan be, eta idazkiñan edo idazteko makiñan idatzija. Gudari-mutillentzat ori, Basarri, lujo aunditxuba ezta ixango? Beste batzubetan, arkatzagaz eta al ixan dozun eran idatzita bidaltzen ixan dozuz, eta alantxe zure enparauko gudari-lagunak be - L.

«L» hori Estepan Urkiaga *Lauaxeta* zen.

Iparraldera ihes eginda gero urtebete pasatxoko etenaldiaren ostean berriro hasi zen idazten, *Euzko Deya*-n.

Iheshlari garaian idatzi zuen bertso asko, *Euzkadi* eta *Euzko Deya*-n Parisen argitaratu ziren. Eta gero Antonio Zavalak bildu eta egindako *Nere Bordatxotik* bilduman (*Auspoa sail nagusia* – *Sendoa* 1992) daude, besteak beste, honako hauek:

- Landes’ko piñu artean (Paris, 1938-II-03)
- Prantzi’ko alkate bati (Basarriren bertso sorta, Zarautz 1950)
- Euskal Mixioak Ichoux’en (Paris, 1938-VII-9an)
- Ichoux’ko madame Sart’eri (Paris, 1938-VIII-27)
- Ondarrutar gazteeri (Euzkadi, 1938-XI-15)
- Gazte denboran neska bati (Auspoa, 1966)
- Zorionak, Eresoinka (Paris, 1938-V-12)
- Itzaldi bat (Paris, 1938)
- Au duk komeria! (Paris 1938-XI-15)
- Olakorik... (Paris, 1938-XI-15)
- Euskaldun ama (Paris, 1938-XII-15)
- Amerika’ko anaiak, entzun (St. Pierre d’Irube. Paris, 1938-X-16)
- Mussolini ta Hitler (Euzko Deya, Paris 1939-IV-16)
- Udaberrian gera
- Agur, Euskadi! (1939-VI)
- Amerika’ko euskaldunak, entzun.

Trabajadoreen batailoian

Landetako pinudietan basomutil zebilela (1937-1940), inoiz inguratzen zen muga aldera. Eta, batez ere, bere gurasoak, senideak, lagunak, denak etxera etortzeko deika ari zitzaizkion garai hartan. «Gure ama gaixoa etxera

etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan» kontatu zigun, 1980ko apirilean Zarautzen egindako elkarrizketa luze batean. Horrelaxe uste nonbait ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak ere.

1940ko urrian arriskatu ziren, hil edo bizi, Irun-Hendaia *Pausua* pasatu eta herrirantz abiatzeko. Baina amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel gertatu. Zubian bertan hartu eta *trabajadoretara* eraman zituzten zuze-nean.

Adibidea hementxe dago, Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an ondutako hamahiru bertsoko sorta batek dioenez:

Oraintxen dala sei illabete etorri giñan Prantzitik,
guraso maite biotz biguñak deika baigiñun etxetik.
Gure kabiak urre genitun guk Endaiako zubitik...
Irunen zegon sare zabalak artu ginduzen erditik!

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan txerrien gisan, etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

(Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an)

Garai hartako bertso batzuk eskuz eta letra bikainarekin idatzita utzi ziotuen Basarrik, eta Tomas Uriarte lagunak gorde Santimamiñeko (Kortezubi-Bizkaia) Txukene baserrian. Ez dakit Tomas busturiarra zen, baina herri horretan hil zela bai.

Euskal Herritik oso urrutira eraman zituzten Aritxulegitik. Afrikan, Seghangha eta Al-Diedirrera, alajainkoa! Urrun zegoen hura (*Zer urrun dagoen Camerun*). Eta ez dirudi bizitoki berria aurrekoak baino xamurragoa zenik. 1943ko martxoaren 4an bere lagun Tomax Uriarteri bidali zion gutunean hola baitio:

Aztu eziñeko Tomax maitea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak.

Hala ere, bazuen bertsoak/olerkiak idazteko hainbat umore. Gutun horrekin batera zortzi ahapaldiko bertso edo olerki sorta bidali baitzion, «esateko» direla adieraziz:

Bijoaz beingoz laiño zakarrok, ta betor zeru argia!
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua! Mintza zaite gaurkoan.
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak, dan danak zuretzat zeuden.
Ainbat zigor artuta, eztakit bizirik nola zauden!

Etxera!

Joanak joan, libre utzi zuten 1943ko ekainean. San Pelaio festarako bere Zarautz maitera itzuli zen, zazpi urte luzeko amets gaiztoa gaindituta. –1937an etxetik alde egin eta 1943ko ekainaren 26an heldu zen Zarautza–.

Bakarrik etorri zen barkuan, bertso kantari, «itxaso aundi artako katxalote eta arraiak entzule nituala pentsatuta», kontatu zigun.

San Pelaio festak ondo ospatzen ahalegindu zen eta, gero, Tomax adiskideari idatzi zion, ekainaren 29an –Harrigarria, gazteleraz idatzi zion, zehaztasun asko kontatuz. Idatziaren bigarren zatian honelaxe zioen: «... de Málaga a Madrid fue un viaje pésimo. Una calor que achicharraba, y en la misma posición que las anchoas en lata...»

Bitxikeria eta txutxu-mutxu asko kontatu zion bere lagunari; baina, batez ere, inoiz ikusi zuenik Zarautz ederrena aurkitu zuela. Ostatu eta etxe danak udatiarrez beteta zeudela, eta honi *kaixo* eta hari *agur*, aspertu ezinik zebilela.

Bere gutunak amaitzeko, gehienetan, «Jel-baitazko», «Jel'pean», «Jel'en baitan» eta holakoak erabiltzeko ohitura zuen. Baina ez zion horrelakorik ezer ere jarri gazteleraz egindako gutun hartan. Garbi zegoen haren mezua: nola edo hala, gutuna bere lekura hel zedin nahi zuen.

Berriz ere lanera

Ettxera itzuli eta bertsotan hasi herriz herri Basarri. Baina «Kontuz ibili bear izan genduan, zer esaten genduan ondo begiratuta, bestela berriz ere barrura joateko arriskua zegon-da. Edozeñek esaten zizun, *Aizak, kontuz ibili adi, bestela badakik*. Eta gu ikara bizian beti».

Afizioz eta ofizioz, berriz ere idazle eta kazetari lanetan hasi zen, 1946ko udazkenean, Donostiako *La Voz de España* egunkarian, Zarauzko berriemai-le zen Frantzisko Juaristi *Pipe-kalek*, «Zeozer egin bearko uke» eskatu omen zion-eta.

Bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten zituen aldizka, jaien kontuak eta hola, baina artean ez herri kirolen konturik.

1946ko abenduaren 19an, esate baterako, «Santo Tomasko feria txori-xua ta ogia» zela-eta, gazteleraz eta euskaraz egin zuen idazlanak harrera ona izan zuen, itxura danez. Eta hartan jarraitu zuen.

Handik aurrera urte askoan idatzi zuen *La Voz de España*, *El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Goiz-Argi*, *Arantzazu* eta herrietako aldizkarietan. Bere azkenengo idatzia, oker ez bagaude, 1994ko azaroaren bian bidali zuen *El Diario Vasco*-ra. Urteen zamak eta osasunik ezak dena uztera behartu zuten.

Azken urteetako bere bizimoduaren laburpena honela egin zuen, 1962ko abenduaren 30ean, Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa Nagusi hartan, A. Irigoyenek, «hiru bertsotan kontatu behar dezu zure bizitza» aginduta:

Goguan artua det, ai, zer esan duan.
Lan pixkat egiten det periodikuan,
berriketaldi batzuk gero radiuan.
Familiiko goxoan andrian onduan,
antxen bizitzen nazu al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan ibili biarrak,
an azaltzen ditugu dauzkagun indarrak.
Gozatzen dira gazte eta berdin zarrak.
Eman dizkigulako ain doai ederrak,
Jaungoiko altsua, nik biotzez eskerrak.

Jardunaldiak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



XVIII. Jagon jardunaldia: Euskara Nafarroatik

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

ALEMAN, Sagrario
Sustapen batzordeko burua

Euskaltzaindiak Iker eta Jagon sailen bidez egiten die aurre bere eginkizune. Besteak beste, euskara sustatzea eta babestea dagokio Euskaltzaindiari eta lan hori Jagon Sailaren barneko Sustapen batzordeak hartzen du bere gain.

Gizartean hizkuntza normalizazioan ematen diren urratsei eta aldaketei so egoten da bada, Euskaltzaindia, eta euskararen erabileraren nondik norako hori aztertzeke, gogoeta egiteko, urtero, Jagon jardunaldia egiten du. Hainbat urtez arlo edo gai bereziren bat hartu du jardunaldien ardatz – *Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak; Euskararen legeak 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan; Euskara eta etorkinak* eta beste –; azken hiru urte hauetan, ordea, lurralde bat hartu du aztergai. Araban euskarak izan duen suspertze handia zela eta, 2011ko jardunaldiak herrialde hori izan zuen gogoetagai. Hurrengo urtean, Baionan egindakoan, *Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian* izenekoan, lurralde horretan euskarak duen bilakaeraz hausnarketa egin zen.

Euskara Nafarroatik izenburupean gauzatu zen 2013ko Jagon jardunaldia, XVIII.a, Iruñeko Kondestablearen jauregian. Aurreko urteetan bezala, lurralde horretan euskalgintzan lanean ari diren elkarteekin lankidetzan antolatu genituen eta Euskarabidearen eta Iruñeko Udalaren laguntza izan genuen.

Nafarroako jardunaldi, lehenik, joan den 20 urteetako bilakaera begiratu zen azterketa soziolinguistikoen datuak kontuan harturik. Horixe biltzen

du, hain zuzen ere, *Euskera* honetan, hurrengo orrietako Jon Aizpuruaren lanak.

Transmisioa eta motibazioa ere hizpide izan ziren jardunaldi honetan. Transmisioaren inguruan Paula Kasaresek egindako lanaren berri Euskaltzaindiaren Jagon saileko 16. zenbakian aurkituko duzu argitaratua. Motibazioa lantzearen eta dibulgazioaren beharra azpimarratu zuen Juan Carlos Etxegoienek, *Xamarrek*, eta hemen bere idatzirik jaso ez badugu ere, lekuko hor ditugu *Euskara Jendea* bideoak eta liburua.

Hurrengo saioa, maiz landu ez dugun ikuspegitik egindako diskurtsoa izan zen, berritzailea eta arrotza askorendako: hurrengo orrialdeetan irakur dezakegun Xabier Erizeren *Enpresen eremuko kontzeptuak hizkuntzen sustapenean aplikatuak*.

Jardunaldi honetan aurrera begirako ikuspegia ere landu nahi izan zen. Eta horretarako antolatutako mahai-inguruan hizlari izan ziren Sortzen, NIE, Kontseilua eta euskarazko hedabideetako ordezkariak, bakoitzak bere lan arlotik, Nafarroan euskara indarberritzeko zein hizkuntza politika egin beharko litzatekeen adierazi zuten. Hemen, *Euskera* honetan, ez da biltzen mahai-inguru honetan jardundakoen iritzia, moderatzaile lanetan aritu zen Aingeru Epaltzarena baizik.

Azken saioan, Nafarroan azkenaldian, motibazioa, transmisioa, eta erabilera lantzeko eta sustatzeko egiten ari diren zenbait egitasmo ezagutzeko aukera ere izan zen.

Euskaltzaindiaren izenean eskerrik asko jardunaldiak prestatzen aritu ziren guztiei, baita egunean berean beren txostenak eta esperientziak azaldu zizkigutenei eta bertan parte hartu zuten guztiei. Eta, nola ez, baita *Euskera* honetarako beren lanak, idatziz, helarazi dizkigutenei ere.

Hemen ditugu, bada, 2013ko jardunaldietako zenbait txosten bikainki azalduak.

Euskarari buruzko jarrerak eta iritziak Nafarroan, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera

**Actitudes y opiniones sobre el euskera en Navarra, en
base a la Encuesta Sociolingüística**

**Comportements et opinions sur le langue basque en
Navarre, selon l'Enquête Sociolinguistique**

**Attitudes and opinions on Basque in Navarra,
according to the Sociolinguistic Survey**

AIZPURUA, Jon

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlan Zerbitzuko arduraduna

Noiz jaso: 2014-09-01

Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 1. 73-88. Bilbo
ISSN 0210-1564

Nafarren % 37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 27,8 ez alde ez aurka eta % 34,5 aurka dago. Azken 20 urteotan, euskararen alde dauden ehunekoak 16 puntu egin du gora, eta beste horrenbeste egin du behera euskara sustatzearen aurka daudenak. Jarrerari buruzko emaitzetan eragiten duen aldagai nagusietako bat hizkuntza-gaitasuna da. Izan ere, elebidunen artean % 88,7 daude euskararen erabilera sustatzearen alde eta erdaldunen artean % 27,8.

Euskarari buruzko pertzepzioei dagokienez, Nafarroako biztanle gehienek (% 79) uste dute gizartearen bi hizkuntza izatea ez dela arazo iturri eta ona dela umeei eskolan euskara ikastea (% 82).

Hitz-gakoak: Jarrera, pertzepzioa, euskara, erabilera, sustatu, hizkuntza-gaitasuna.

El 37,7% de los navarros esta a favor de impulsar el uso del euskera, el 27,8% ni a favor ni en contra, y el 34,5% esta en contra. En los últimos 20 años, el porcentaje de los que están a favor del euskera ha aumentado un 20%, inversamente proporcional a la disminución del porcentaje de los que estan en contra. Una de las variables que más inciden en este cambio es el de la competencia lingüística. El 88,7% de los bilingües esta a favor de este impulso, por sólo el 27,8% de los castellano parlantes.

En cuanto a la percepción del euskera, la mayoría de los habitantes de Navarra (79%) cree que en una sociedad coexistan dos lenguas no es fuente de conflicto, y que es bueno que los niños aprendan euskera en la escuela (82 %).

Palabras clave: Actitud, percepción, euskera, uso, promoción, competencia lingüística.

37,7 % des Navarrais se disent prêts à favoriser l'usage de la langue basque, 27,8% ne sont ni pour ni contre et 34,5% sont contre. Ces 20 dernières années, le pourcentage de ceux qui se déclarent favorables a augmenté de 20%, cela étant inversement proportionnel à la diminution du pourcentage de ceux qui se déclarent contre. L'une des variables qui joue un grand rôle dans ce changement est la compétence linguistique. 88,7% des bilingues est favorable à ce soutien, pour seulement 27,8% des hispanophones.

En ce qui concerne la façon de percevoir la langue basque, la majorité des habitants de Navarre (79%) croit qu'une société où coexistent deux langues n'est pas une source de conflit et qu'il est bon que les enfants apprennent le basque à l'école (82%).

Mots clés: Attitude, perception, langue basque, usage, promotion, compétence linguistique.

37.7 % of the inhabitants of Spanish Navarre are in favour of promoting the use of Basque, 27.8 % neither for nor against, and 34.5 % are against it. In the last 20 years, the percentage of those in favour of Basque has increased by 20% in inverse proportion to the decrease in the percentage of those against it. One of the variables which have most influenced this change is that of language competence. 88.7 % of bilinguals are in favour of this initiative, as compared to 27.8 % of Spanish speakers.

As for how Basque is perceived, the majority of the inhabitants of Navarre (79 %) believe that the fact that two languages coexist in society is not a source of conflict and that it is a good idea for children to learn Basque at school (82 %)

Keywords: Attitude, perception, Basque, use, promotion, language competence.

Euskarari buruzko jarrerak eta pertzepzioak Nafarroan, inkesta Soziolinguistikoaren arabera.

Saioan zehar erabiliko diren datuak Inkesta Soziolinguistikokoan jasotakoak izango dira. Datu horietan oinarrituta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 1991n, euskara sustatzeari buruzko jarrerak ezagutzeko. Indize horren arabera emaitza nagusiez gain, indizea eratzeko erabilitako galderen emaitzak banan-banan azalduko dira. Hala ere, nafarrek euskarari buruz duten pertzepzioa ere jorratuko da.

Laburbilduz, 16 urte edo gehiagoko nafarren % 37,7 euskararen erabilerara sustatzearen alde dago, % 27,8 ez alde ez aurka eta % 34,5 aurka dago. Azken 20 urteotan, euskararen alde dauden ehunekoak 16 puntu egin du gora, eta beste horrenbeste egin du behera euskara sustatzearen aurka daudenak. Jarrerari buruzko emaitzetan eragiten duen aldagai nagusietako bat hizkuntza-gaitasuna da. Izan ere, elebidunen artean % 88,7 daude euskararen erabilerara sustatzearen alde eta erdaldunen artean % 27,8.

Euskarari buruzko pertzepzioei dagokienez, Nafarroako biztanle gehienek (% 79) uste dute gizartean bi hizkuntza izatea ez dela arazo iturri eta ona dela umeei eskolan euskara ikastea (% 82). Euskara gaztelania bezain aberatsa dela % 43k pentsatzen du. Azkenik, nafarren % 68k uste du euskara ez dagoela galtzeko arriskuan, baina % 59ri irizten zaio euskarak ez duela inoiz gaztelaniak duen indarra izango.

1. Euskararen egoeraren eta bilakaeraren laburpena Nafarroan


Hizkuntza-gaitasuna

V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2011n Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 11,7 elebiduna da, % 7,5 elebidun hartzailea eta % 80,7 erdalduna. Eremu euskalduna da elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena duena (% 59,3 eta 30.000 pertsona, hurrenez hurren). Ere-

mu mistoko elebidunak % 9,8 dira, hau da 29.000 pertsona. Eremu ez euskaldunak du Nafarroako elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (% 2,3 eta 4.000 pertsona, hurrenez hurren).

Atzera begiratzuz gero, hogeitun urtean 2,2 puntuko igoera izan du elebidunen ehunekoak. 1991n Nafarroako elebidunak % 9,5 ziren, eta orain % 11,7 dira. Era berean, elebidun hartzaileek gora egin dute, biztanleen % 4,6 izatetik % 7,6 izatera iritsi baitira azken hogeitun urteotan.

Elebidunen igoera batez ere eremu mistoan gertatu da (% 5,2tik % 9,8ra). Eremu ez euskalduneko elebidunak oso gutxi dira orain, % 2,3, eta duela hogeitun urte % 0,6 ziren. Eremu euskaldunean, aldiz, elebidunen ehunekoa bere horretan dago hogeitun urteotan, % 60 inguruan, alegia.



Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago. Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak % 20,8 dira eta 25 eta 34 urtekoen artean % 14,5. 35 urtetik gorakoen artean, aldiz, elebidunen ehunekoa % 10 edo txikiagoa da.

Erraztasuna

Elebidunen multzorik handiena (% 47,9) hobeto moldatzen da erdaraz euskaraz baino. Erdal elebidun gehienak eremu mistoan bizi dira (% 66). Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek (% 67) erdara izan dute lehen hizkuntza.

Nafarroako elebidunen % 25 euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen da. Euskal elebidun ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza eta ia denak eremu euskaldunean bizi dira (hamarretik bederatzi).

Euskaraz eta erdaraz berdin moldatzen direnak elebidunen % 27,1 dira. Elebidun orekatuak eremu euskaldunean bizi dira gehienak, eta hamarretik lau (% 41) eremu mistoan. Elebidun orekatu ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza (% 81).

Erabilera

Euskararen erabilerari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko nafarren % 10,1ek euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) % 5,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, % 4,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 89,8) erdara erabiltzen dute beti (% 87,4) edo ia beti (% 2,5).


Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak ia ez du gorabeherarik izan Nafarroan. 1991 eta 2011 arteko aldeak puntu eta erdikoak edo txikiagoak izan dira kasu guztietan.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude eremu batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 48,6 dira eremu euskaldunean, % 1,7 mistoan eta % 0,2 eremu ez euskaldunean. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,9 dira eremu euskaldunean, % 6,2 mistoan eta % 1,3 eremu ez euskaldunean.

Nafarroan, etxeko erabilera zertxobait txikiagoa da gaur egun duela 20 urte baino. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak % 6,6 ziren 1991n eta % 5,4 dira 2011n. Hala ere, esan behar da seme-alabekin eta neba-arrebekin erabilerak gora egin duela (1,5 eta 0,8 puntu, hurrenez hurren).

Nafarroako biztanleen % 7,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin eta % 7,1ek lagunekin. Azken 20 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak bere horretan jarraitzen du lagunekin eta hasi egin da lankideekin (1,7 puntu).

Eremu formalari dagokionez, euskara erdara beste edo gehiago % 6,4k egiten dute udal zerbitzuekin eta % 4,9k osasun-zerbitzuekin. Azken 20 urteotan, euskararen erabilera gora egin du eremu formalean. Hala ere, 2001etik hona euskararen erabilera moteldu egin da, eta zenbait esparrutan atzera egin du.



Nafarroako euskaldunaren ezaugarri nagusiak

Orain arte emandako datuak kontuan hartuta, Nafarroako euskaldunen artean gehien nabarmentzen diren ezaugarriak definitzeko saiakera bat egingo dugu jarraian. Horrek ez du esan nahi, inondik inora, Nafarroako euskaldun guztiak jarraian azalduko ditugun bezalakoak direnik. Adinaren edota eremuaren arabera, esaterako, oso bestelakoak diren euskaldunak ere badira Nafarroan, Euskal Herriko gainerako guneeetan gertatzen den bezala.


Nafarroako euskalduna gaztea da (% 41ek 35 urte baino gutxiago), eta Nafarroan bertan jaioakoa (% 88). Hala ere, ez dago argi non bizi den (% 47 eremu euskaldunean eta % 45 eremu mistoan). Goi mailako batxilergoa (% 25) edo unibertsitate mailako ikasketak ditu (% 32). Ikasketak erdaraz egin ditu (% 50etik gora ikasketak maila guztietan), baina lagun asko ditu ikasketak euskarazko ereduetan egin dituztenak (% 40tik gora oinarrizko eta bigarren mailakoetan, eta % 31 goi mailakoetan). Euskara du lehen hizkuntza (% 47,5), baina bere inguruan gero eta gehiago dira lehen hizkuntza erdara duten euskaldunak (25 urtetik beherako gazteen artean % 50etik gora). Erraztasun handiagoa du erdaraz euskaraz baino (% 47,9). Euskarari buruzko interes handia du (% 94), eta euskararen erabilera sustatzearen alde dago (% 89).

2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

Nafarroako euskaldunak argi eta garbi azaltzen dira euskararen erabilera sustatzearen alde. Baina zein da nafarrek oro har euskararen erabilera sustatzearekiko duten jarrera? Galdera horri erantzuten ahaleginduko gara jarraian.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskararekin lotutako hainbat gairi buruz galdetu zaie Nafarroako biztanleei. Emandako erantzunekin tipologia bat eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Tipologia horren arabera, Nafarroako biztanleak hiru


multzotan sailkatu dira: alde daudenak, kontra daudenak eta ez alde ez kontra daudenak.




Nafarren % 37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, % 27,8 ez alde ez aurka eta % 34,5 aurka daude.

Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 16 puntuko igoera izan du hogeiei urtean. Izan ere, 1991n euskal herritarren % 21,6 zegoen euskara sustatzearen alde eta % 37,7 dago gaur egun.

Euskara sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (% 69), eremu mistoan (% 42,5) eta eremu ez euskaldunean (% 22,5) baino. Eremu euskaldunean nagusi dira alde daudenak. Eremu mistoan gehiago dira alde azaltzen direnak eta eremu ez euskaldunean gehiago aurka agertzen direnak.



Adinari dagokionez, zaharren artean zertxobait handiagoa da euskararen alde agertzen direnen portzentajea (% 41,8), gazteen (% 38,9) eta helduen (% 35,3) artean baino. Azken 20 urteotan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du adin-talde guztietan.



Bigarren atal honen hasieran esan bezala, jarrerari buruzko emaitzak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eratutako tipologia baten arabera atera dira. Baina interesgarria iruditu zaigu tipologia hori eratzeko erabili diren galderak zein diren eta bakoitzean jasotako erantzunak nolakoak izan diren azaltzea.

Lau galdera edo baieztapen egin dira, eta bakoitzaren aurrean bere burua kokatzeko eskatu zaio inkestatuari. Galdera edo baieztapenak eta emaitzak honakoak izan dira:

2.1. Ezinbestekoa da haur guztiek euskara jakitea

Nafarroako biztanleen % 48 haur guztiek euskara jakitea ezinbestekoa izatearen aurka azaldu dira eta ia beste horrenbeste (% 43) alde. Eremuaren araberrako aldeak esanguratsuak dira: eremu euskaldunetan % 72 alde azaltzen dira, mistoan parez pare daude aldekoak eta kontrakoak (% 46na), eta ez euskaldunetan erdia baino gehiago kontra dago (% 57). Lau euskaldunetik hiru (% 78) alde agertu dira eta erdaldunen erdia pasatxo (% 55) kontra.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko tipologia (1)

Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea

2011	Nafarroa	Euskalduna	Mistoa	Ez euskalduna	Elebiduna	Erdalduna
Alde	43	72	46	32	78	35
Ez alde ez aurka	9	6	9	10	8	9
Aurka	48	23	46	57	14	55

V. inkesta Soziolinguistikoa 2011

2.2. Administrazio publikoan sartzeko, beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea

Nafarroako biztanleen erdia baino zertxobait gehiago (% 53) Administrazio publikoan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa izatearen alde dago eta % 38 kontra. Eremuari dagokionez, euskaldunean % 77 eta mistoan % 56 alde daude. Ez euskaldunean, aldiz, kontra agertzen dira % 45. Hizkuntza-gaitasunaren arabera, aldea handia da: euskaldunen % 91 alde daude, eta erdaldunen artean parekatuta daude aldekoak eta kontrakoak (% 45 eta % 44, hurrenez hurren).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko tipologia (2)

Administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea

2011	Nafarroa	Euskalduna	Mistoa	Ez euskalduna	Elebiduna	Erdalduna
Alde	53	77	56	39	91	45
Ez alde ez aurka	9	6	6	14	3	10
Aurka	38	16	37	45	6	44

V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011

2.3. Nafarroan ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa gehiago izan beharko lituzkete euskaraz

Nafarroako biztanleen erdiak (% 50) uste du Nafarroan ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa gehiago izan beharko lituzketela euskaraz, eta herenak (% 32) ez du halakorik uste. Eremu euskaldunean eta mistoan gehiengoak dira alde daudenak (% 75 eta % 56, hurrenez hurren). Eremu ez euskaldunean, aldiz, gehiago dira kontra daudenak (% 46). Euskaldunen gehiengo zabala (% 91) alde dago, eta erdaldunen artean aldekoak gutxiago badira ere (% 42), kontra daudenak baino gehiago dira (% 38).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko tipologia (3)

Nafarroan ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa gehiago izan beharko lituzkete euskaraz

2011	Nafarroa	Euskalduna	Mistoa	Ez euskalduna	Elebiduna	Erdalduna
Alde	50	75	56	34	91	42
Ez alde ez aurka	16	14	14	20	6	18
Aurka	32	12	26	46	2	38

V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011

2.4. Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino

Nafarroako biztanleen % 46k uste dute hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino. Aldiz, biztanleen % 36 baieztapen horren kontra daude. Eremu euskaldunean % 61 kontra azaldu dira, mistoan parez pare daude aldekoak (% 40) eta kontrakoak (% 42), eta erdaldunean erdiak baino gehiagok (% 58) hala uste du. Azkenik, euskaldunen % 78 aurka daude eta erdaldunen % 53 alde.

**Euskararen erabilera sustatzeari
buruzko tipologia (4)**

Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino

2011	Nafarroa	Euskalduna	Mistoa	Ez euskalduna	Elebiduna	Erdalduna
Alde	46	25	42	58	9	53
Ez alde ez aurka	18	13	18	19	13	19
Aurka	36	61	40	24	78	28

V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011

3. Laburbilduz

Orain arte esandakoak laburbilduz:

1. Nafarroan, oro har, gehiago dira euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak aurka daudenak baino.
2. Gainera, azken 20 urteotan hazi egin da euskararen erabilera sustatzearen alde dauden nafarren portzentajea.
3. Aldekoen hazkundea adin-talde guztietan eman da.
4. Oso handia da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarreraren eta euskararen ezagutzaren arteko korrelazioa. Euskaldunen gehiengo zabala dago euskara sustatzearen alde eta eremu euskaldunean handia da aldekoen portzentajea. Erdaldunen artean, aldiz, gehienek kontrako jarrera dute eta eremu ez euskaldunean nagusi dira aurka azaltzen direnak.
5. Jarrera nolakoa den ezagutzeko erabilitako baieztapen baten alde ego-teak ez dakar berez gainerakoetan berdin jokatzen denik. Haur guz-

tiek euskara ikasi behar dutela uste duenak, esaterako, ez du ezinbestean agertu behar hedabideetan euskararen presentzia areagotzearen alde, Administrazio publikoan sartzeko euskara eskatzearen alde edo ingelesari euskarari baino lehentasun handiagoa ez ematearen alde. Eta, noski, alderantziz ere ez.

6. Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera ezagutzeko erabilitako baieztapenak banan-banan aztertuz gero, eremu euskaldunean eta eremu ez euskaldunean dagoen jarrera nagusia argia da: aldekoa euskaldunean eta aurkakoa ez euskaldunean. Eremu mistoan, joerak askoz parekatuago daude, baina dagoeneko gehiago dira alde daudenak kontra daudenak baino.

Management-eko kontzeptuak eta hizkuntza-plangintza¹

Conceptos de *Management* y planificación lingüística

Concepts de *Management* et planification linguistique

***Management* concepts and language planning**

ERIZE, Xabier

Soziolinguista

Noiz jaso: 2014-06-05

Noiz onartua: 2014-07-08

¹ Lan hau *Hiznet–Hizkuntza Plangintza* EHU-UPVko graduondoko 2013/2014 ikasturterako irakasle bezala prestatu nuen *Management-eko kontzeptuak hizkuntza plangintzara egokituta* lanean oinarritzen da.

Management edo enpresen alorreko kontzeptuak hizkuntza-plangintzan txertatzeko bideak aztertzen ditu artikulua, euskararen kasutik abiatuta. Gutzitan landu da hori literatura soziolinguistikoan.

Euskararen plangintza bere kausa soziala (aldeko jarrerak, erabilera...) saltzen duen enpresa bat bezala har daiteke. Abantaila konpetitiboa lortzeko, erantzun sendoa eman behar dio herritarren galdera honi: «Zergatik erosi behar dizuet nik euskara?». Management-en ekarpen nagusia da herritarren behar, balio eta hautamen linguistikoak plangintzaren erdigunean jartzea, bezero-orientazioa garatuz.

Hitz-gakoak: Management, hizkuntza-plangintza, bezero-orientazioa, produktu-orientazioa, abantaila konpetitiboa, diferentziazioa, hizkuntza-hautamena.

Partiendo del caso del euskera, el artículo estudia vías para implementar conceptos de *Management* o de empresa en la planificación lingüística. Un tema poco abordado en la literatura sociolingüística.

La planificación lingüística del euskera, se puede equiparar a una empresa que vende su causa social (actitud a favor, utilización de la lengua) para obtener ventaja competitiva ha de dar una respuesta convincente a la siguiente pregunta: «¿Por que he de comprar yo el euskera?». La mayor aportación del *Management* es situar los valores, las necesidades y las elecciones lingüísticas de los ciudadanos en el centro de la planificación lingüística, desarrollando una orientación al cliente.

Palabras clave: Management, planificación lingüística, orientación al cliente, orientación al producto, ventaja competitiva, diferenciación, elección lingüística.

En partant du cas de la langue basque, l'article tente d'ouvrir un chemin vers la mise en oeuvre de concepts propres au *Management* ou à l'entreprise dans la planification linguistique. Un thème peu abordé dans la littérature sociolinguistique.

La planification linguistique de la langue basque peut être comparé à une entreprise qui vendrait sa cause sociale (attitude favorable, utilisation de la langue) pour obtenir un avantage compétitif il faut donner une réponse convaincante à la question suivante: «Pourquoi dois-je vous acheter la langue basque?». Le meilleur apport du *Management* est de placer les valeurs, les besoins et les choix linguistiques des citoyens de la planification linguistique en mettant en place une orientation client.

Mots-clés: Management, planification linguistique, orientation client, orientation produit, avantage compétitif, différenciation, choix linguistique.

Using the case of Basque, the means of introducing management or business concepts into language planning are discussed. This has rarely been treated in the sociolinguistic literature.

One can compare the planning of Basque with a company selling its social objectives (favourable attitude, use of the language...). In order to obtain competitive advantage a convincing reply must be provided for the citizens' question "Why should I buy into Basque?". The principal contribution of management theory lies in placing citizens' values, needs and language options at the heart of language planning, developing a customer-focus.

Keywords: Management, language planning, customer-focus, product-focus, competitive advantage, differentiation, language choice.

Sarrera

Eman dezagun euskalgintza (euskararen sustapenean diharduten erakunde eta pertsona guztien multzoa, herri ekimenekoak zein instituzionalak) merkatuan lehiatzen ari den enpresa (jabetza sozial, publiko zein pribatukoa, berdin dio) bat dela. Euskalgintzak «saltzen» duena euskara da, bere modalitate eta inplikazio maila guztietan.

Euskalgintzak, edo euskararen munduak, erantzun sendoa eman behar dio bezero-pertsona bakoitzaren oinarritzko galdera honi: «Zergatik erosi behar dizuet nik euskara?». Pertsona horrek erantzun sendoa aurkitzen badu, erosiko du euskara edo segituko du erosten; baina erantzuna ahula gertatzen bazaio, ez du erosiko, edo gutxiago erosiko du, edo erosteari utzi-ko dio. Euskara «erostea» horrela hartu da lan honetan: euskaraz edo euskararen alde ematen den edozein urrats: epe luzeko atxikimendu eta hautu iraunkorrak zein eguneroko erabaki eta ekintza txikiak, kolektiboak zein indibidualak: euskara ikastea edo hobetzea, euskara erabiltzea, euskara transmititzea, euskarazko eredueta matrikulatzea, euskarazko produktu edo zerbitzuak kontsumitzea (hedabideak, liburuak, diskoak...).

Hizkuntzen bezeroak herritar guztiak dira (euskaldunak nahiz erdaldu-nak). Horietatik, batzuk euskararen bezero errealak dira (euskaldunak nahiz euskarara nolabait hurbildu direnak), beste batzuk bezero potentzialak dira (euskarara hurbiltzeko interesa eduki lezaketenak), eta beste batzuk ez dira euskararen bezeroak (euskarara hurbildu ez direnak), baina bai beste hizkuntza batzuenak.

Aurrera segitu baino lehen, esan behar da hizkuntzen (eta hiztunen) arteko harremanak merkatuaren terminoetan aztertzeko ideia ezaguna dela prestigiozko literatura soziolinguistikoan: ikus, adibidez, Bourdieu (1982/1985) edo Grin (1999b):

Language can be interpreted as a dimension of consumption, because the *activities* of everyday life can be performed in one or another language... The cost of carrying out an activity in a given language, set against the satisfaction derived from it, makes languages use (as well as patterns of language reproduction...) amenable to

standard microeconomic analysis. That an activity can be conducted in one or another language is the general rule for speakers of minority languages. (Grin 1999b: 36)

Hautapena, ekonomian ez ezik, soziolinguistikan ere erdigunean dago, nahiz eta batzuetan euskal soziolinguistikan ahaztu samar gelditu. Soziolinguistika bakarrik existitzen da diziplina bezala jendeak hautuak egiten dituelako hizkuntzen erabileran, Ralph Fasold-ek esan zuenez: «sociolinguistics only exists as a field of study because there are choices in using language» (Fasold 1984/1992: 180). Eta bere iker-eremua horixe da hain zuzen ere: zergatik aukeratzen duten pertsonak edo taldeek hizkuntza (edo barietate) bat edo beste bat gizarte batean.

Orduan, euskararen munduak jakin beharko luke zein diren *bezeroen nahiak eta beharrak*, eta nola egokitu bere eskaintza bezeroen beharrei; alegia, jakin beharko luke zein diren herritarren behar eta nahi linguistikoa, eta haiei nola erantzun. Horrekin batera, jakin beharko luke bezeroek zer eta zergatik erosten dioten eta zer iritzi duten euskararen munduari buruz eta eskaintzen dituen produktuei buruz. Eta, oro har, jakin beharko luke nolako *harremanak dituen bere bezeroekin*, hau da, honako hau galdetuko lioke bere buruari: *bezero-orientazioa* daramat (bezeroen behar eta nahiek gidatuta egiten ditugu eskaintzen ditugun produktuak, pertsonen behar linguistikoek gidatuta)?; ala *produktu-orientazioa* (gure nahia egiten ditugun produktuak edo zerbitzuak² saltzea da, bezeroen beharrei egokitzen zaizkien ala ez aztertu gabe)?

Halaber, euskararen munduak argi eduki beharko luke zein den bere *merkatu-kuota* eta zer bilakaera daraman: hazkundea, meseta ala jaitsiera.

Zentzu berean, enpresa horrek zehaztu beharko luke zein diren bere *abantaila konpetitiboa* eta bere *diferentziazioa*, hau da, bere enpresa bereizten duena gainerako enpresa lehiakideetatik eta bezeroak berea hobestera eramaten dituen. Era berean, jakin beharko du zein den bere *konpetentzia* edo enpresa lehiakideak (bere hizkuntza lehiakideak kasu honetan), zer eskaintzen duten, zein den bezeroen erantzuna enpresa horiekiko. Eta abar, eta abar.

² Irakurketa errazteko, *produktua* idatzi dut testuan zehar, baina *produktua* edo *zerbitzua* esanahian ulertu behar da oro har


Hala bada, managementeko [=enpresen eta erakundeen zuzendaritzaz arduratzen den diziplina] galdera sakonekin egingo luke topo euskararen munduak. Autore handiak daude nazioarteko managementaren munduan.

Managementak besteekin zer nolako harremanak izaten ditugun galde-terza eramaten gaitu (nola ikusten gaituzten besteek, eta nola ikusten ditugun guk), euskalgintzan kontrako ikuspegia ohikoa den bitartean: zer nahi dugun besteek egitea. Horrek ikuspegi aldaketa ekartzen du, geure buruari begiratzea eta galdetzea, ez bakarrik kanpoko faktoreei.

Managementa, hizkuntza-plangintza bezalaxe, ekintzara orientatuta dago eta balioak eta ekintzak lotzen ditu: desiragarria (balioak) zer den zehaztu eta hori errealitatean gauzatzea (ekintza): «it is management's specific job to make what is desirable first posible and then actual» (Drucker 1955/2004: 12).

Gainera, hizkuntzen sustapeneko lanetan diharduen pertsona oro da «exekutibo», zentzu zabalean hartuta, Peter Drucker-ek azaldu zuenez: «Every knowledge worker in modern organization is an 'executive' if, by virtue of his position or knowledge, he is responsible for a contribution that materially affects the capacity of the organization to perform and to obtain results» (Drucker 1967/2002: 5).

Aldi berean, management jakintza propioak garatu dituen zientzia edo diziplina da. Begira dezagun enpresa baten eskema tipikoa:



Enpresa baten eskema tipiko bat: Managementa (Zuzendaritza) eta hainbat arlo.

Batzuetan, *management* esan eta jendeak *marketing* ulertu ohi du, baina, ikusi denez, ez da horrela ulertu behar. Ikus daitekeenez, managementa oso arlo zabala da eta atal edo diziplina asko biltzen ditu bere baitan (Crane, et

al. 2008: 7, 11, 63, 87-91), hala nola erakundeen zuzendaritza, ekoizpena, komertziala, finantzak, marketina, giza baliabideak, berrikuntza, komunikazioa, irudia eta marka... Era berean, azpidiziplina edo kontzeptu asko ditu: lidergoa, pentsamendu estrategikoa, kalitatea, berrikuntza, motibazioa, gizarte erantzukizun korporatiboa (CSR ingelesez), aldaketa, erreputazioa, etab. Management orokorreko gaiak dira horiek, ez bakarrik bere diziplina jakin batzuetakoak. Alegia, adibide sinple bat jarrita: zuzendari nagusiak eta arloz arloko arduradunek partekatzen dituzten jakintza esparruak dira lan honen abiapuntua, ez bakarrik arlo jakin bati dagozkionak.

Managementeko kontzeptuetatik, batzuk oso gertu daude soziolinguistikaren edo hizkuntza-plangintzaren kezketatik, batez ere bezeroekin, pertsonekin eta giza taldeen hautapen prozesuekin zerikusia dutenak. Oso garatuak eta zorrotzuak izan dira enpresa munduan eta aberasgarriak gerta daitezke hizkuntza-plangintzara ekarri gero. Azken finean, kontua euskararen erakundeen eta hiztunen arteko harremanak managementeko kontzeptuen argitara birpentsatzea izango litzateke. Noraino? Esperientziak eta denborak esango dute. Planteamendurik hoberenek ere, haiek bakarrik ez dute enpresa baten etorkizuna bermatzen. Hizkuntza-plangintzara egokituta, errezetarik ez da aurkituko, baina bai, ordea, gogoetak egiteko iradokizun pizgarriak.

Lanaren egitura hau da:

1. Helburua.
2. Metodologia.
3. Gaiari buruzko lanen egoera.
4. Emaitzak: managementeko kontzeptu hautatuak, hizkuntza-plangintzara ekartzeko egokiak izan daitezkeenak.
5. Ondorioak eta eztabaida.
6. Bibliografia.

1. Helburua

Lanaren helburua management diziplinako kontzeptuak hizkuntza-plangintzan aplikatzeko bideak aztertzea da.

2. Metodologia

Metodologia nagusia literaturaren azterketa kritikoa (*literature review*) izan da: managementeko literatura orokorra, nazioarteko soziolinguistika eta euskal soziolinguistika.

3. Gaiari buruzko lanen egoera

Gaiari buruzko lanen egoera hiru multzotan aurkeztuko da:

- Managementeko literatura: management orokorra eta kausa sozialak elkartzeko gonbita.
- Nazioarteko soziolinguistika eta managementa.
- Euskal soziolinguistika eta managementa.

3.1. Managementeko literatura: management orokorra eta kausa sozialak elkartzeko gonbita

Managementeko printzipioak eta praktikak gizarte erakundeetara hedatzeko eta egokitze beharra nabarmendu zuen Peter Drucker-ek:

The nonprofit social sector is where management is today most needed and where systematic, principled, theory-based management can yield the greatest results fastest. Just think of the enormous problems facing the world – poverty, health care, education, international tension – and the need for managed solutions becomes loud and clear. (Drucker 1998: 5)

Eta erantzun moduan *Managing the non-profit organization: practices and principles* (Drucker: 1990) liburua argitaratu zuen. Ikus, halaber, Drucker (1989).

Drucker-ek esan zuenez, managementa ez da bakarrik negozioa bilatzen duten enpresen zuzendaritza, edozein erakunderen zuzendaritza baizik, baita irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeena ere, denek pertsonen arazoe-kin lan egiten baitute.

Zentzu berean mintzatu da Alfonso Durán-Pich (2010: 505): «Pobreza, salud, educación, justicia necesitan Management. ... El Management (el arte y la ciencia de dirigir) es una disciplina que se puede aplicar a cualquier organización social».

Halaber, marketineko nazioarteko autoritatea den Philip Kotler-ek gizar-te-marketinaren lan ildo osoa garatu zuen marketinaren arloan: «Social Marketing: An Approach to Planned Social Change» (Kotler eta Zaltman: 1971/2012). Artikulu horrez gain, zentzu berean ikus, adibidez, Kotler eta Levy, 1969/2012; Fox eta Kotler, 1980/2012; Kotler, 1987/2012; Kotler eta Andreasen, 1995/2012; edo Kotler eta Andreasen, 1996/2012.

Beraz, managementeko literaturak bere kontzeptuak kausa sozialetara eramateko gonbita egiten du eta, ondorioz, baita soziolinguistikara ere. Ikus lan honen «Kausa sozialen marketina» atala.

3.2. Nazioarteko soziolinguistika eta managementa

Lehen esan bezala, hizkuntzen (eta hiztunen) arteko harremanak merkatuaren terminoetan aztertzeke ideia ezaguna da prestigiozko literatura soziolinguistikoan (adibidez: Bourdieu 1982/1985 edo Grin 1999b). Baina, hala ere, soziolinguistikak ez du edan management orokorretik. Egoera hori nabarmendu zuten Baker-ek eta Jones-ek (1998: 221) 1998. urtean, eta gaur egun ere gauzak ez dira asko aldatu.

Dena den, gutxi badira ere, egon badaude enpresako edo ekonomiako diziplinetan arreta jarri duten autoreak edo lanak, hizkuntza-plangintzako planteamenduak aberasteko asmoz. Managementetik ekarritako kontzeptuak pixkanaka bidea egiten ari dira soziolinguistikan, batez ere diziplina jakin batzuetakoak (marketina, komunikazioa, plangintza...), baina oraindik ez management orokorrekoak.

Nazioarteko soziolinguistikan, marketina eta hizkuntza-plangintza uztartzeko proposamenak plazaratu dira han-hemenka azkeneko 20-25 urtetan. Bidea erakutsi izana aitortzen zaiona Robert L. Cooper (1989) da. Ildo horretatik, saiakera sendoenetako bat Baker-en eta Jones-en «Language Mar-

keting» (1998) lana dugu. Interesgarriak dira maorierari buruzko «Marketing the Maori Language» (Nicholson 1997) eta galesari buruzko «Marketing Welsh in an ambivalent context» (Williams 2007) bezalako artikulak. Ikus, halaber, Domínguez (1998).

Bestalde, hizkuntza ekonomia orokorrarekin lotzen dituzten lanak ditugu, hauek ere oso sakabanatuta. Ekonomia eta managementa jakintza esparru desberdinak dira, baina, noski, ez daude elkarrengandik oso urruti... Hizkuntza eta ekonomiaren alorrean, autore nagusia, agian, François Grin da (1990, 1996, 1999a, 1999b, 2002, 2003, 2004) eta oso ekarpen sendoak eta aberasgarriak egin ditu. Zhang-ek eta Grenier-ek (2012) lan arlo horretako garapenen sintesia egin dute. Interesgarria da Dhira eta Savage-ren (2002) artikulua.

3.3. Euskal soziolinguistika eta managementa

Euskal soziolinguistikan ere ez da management orokorretik edan, baina, nazioarteko soziolinguistikan bezala, halako hurbilketa batzuk egin dira. Zenbaitetan lan akademiko formalak aurkeztu dira, baina beste askotan esperientzia praktikoen sintesiak edo dibulgazio lanak izan dira. Lan horietako batzuk aipatuko dira hemen, baina ziur askoz gehiago daudela eta oso onak. Hiru multzo edo lan ildo nabarmendu daitezke:

– Hizkuntza eta komunikazioa eta marketina:

- Jaione Ogiza (1992), publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuak gaiari buruz.
- Iñigo Fernandez Ostolazak (2006a, 2006b, 2007, 2008, 2013) euskararen merkaturatzearen kezkak landu ditu komunikazioaren eta marketinaren ikuspegitik.
- Ana Urkizak (2007) argitaratutako lanean «Enpresa komunikazioari buruzko 1. hitzaldi-zikloa»-n profesionalek eskainitako hitzaldiak bildu ziren.
- *Euskara komunikatu? Nor-Nori-Nork* (Kaltzada eta Uranga, Zuz., 2010), arloko profesionalen (Igor Calzada, Joxerra Garzia, Iñaki

Iurrebaso, Pilar Kaltzada, Joseba Kamio eta Belen Uranga) ekarpenekin.

- Joseba Kamioaren artikuluak edo gogoetak. Adibidez, Kamio (2011).
 - Iñaki Martínez de Lunaren (2013) «Euskarak duen *Framing* Berri baten premia asetzeko proposamena» lanean erabilitako hainbat kontzeptu.
- Hizkuntza eta lan mundua. Lan handia egin da lan mundua euskalduntzeari begira, praktikoa eta kontzeptuala (marketina, kalitatea, gizarte erantzukizun korporatiboa, lidergoa edo motibazioa bezalako kontzeptuetan oinarrituta), eta horren inguruan ikerlan zein lan praktikoko asko plazaratu dira:
- Joxpi Irastorzak (2009) bere doktorego-tesian enpresa eta hizkuntzak gaia landu du modu sakonean, euskara-planei begira, lan munduko langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioen ikuspegitik aztertuta.
 - Iñaki Markok (2009), enpresen eta erakundeen hizkuntzaren alde-katarako interbentzio-programak abiapuntutzat hartuta, enpresaren eta hizkuntzen arteko harremanen dimentsio asko sakonki jorratu ditu bere doktorego-tesian.
 - EraLan2 ikerketa proiektuan (Goikoetxea, Zuz., 2010) hizkuntza normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundee-tan euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak lidergoaren kontzeptutik landu dira.
 - Soziolinguistika Klusterraren (2011) *Aldahitz* ikerketan hau aztertu zen: euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan.
Abantaila konpetitiboaren kontzeptua praktikarekin lotzen da: nola eraman estrategiak praktikara? Nola lortu kostuen abantaila iraunkor bat? Zertan oinarritu enpresaren diferentziazioa? Nola aukeratu segmentu bat estrategia segmentu horretan fokalizatzeko? (Porter 1985: xvi).

Kontzeptuaren erabilgarritasuna euskal soziolinguistikan

- Zein motatako abantaila konpetitiboa du euskarak? Zein da euskarak bere bezeroei sortzen dien balio berezia, besteek sortzen ez dutena? Kostu baxuak? Diferentziazioa?:
 - Euskararen abantaila konpetitiboa, normalean, ez dago kostuetan –euskaraz aritzea zein ikastea neketsuagoa edo «garestiagoa» izaten baita kasu gehienetan erdaraz baino–, diferentziazioan baizik.
- Noiz eta zergatik izango du euskarak diferentziazioaren lidergoa?:
 - Erdarak eskaintzen ez duen balioa sortzen duenean hiztunentzat.
 - Nagusiki diferentziazioaren lidergoa izango eta landuko du euskarak: euskalduna izatearen onura bereziak, prezio altuagoa ordaintzea mezezi dutenak.
- Zenbat daude bezeroak ordaintzeko prest euskararengatik?:

- Normalean asko, bai diruz bai energia pertsonalez. Euskararen eskaria gehienetan ez da prezio baxuekin lotzen (*price-insensitive* da); baina jende multzo batzuentzat, ordea, bai, kostu txikiekin lotzen da (*price-sensitive*), euskara nahi dute, bai, baina diru asko edo energia psikiko asko gastatu gabe.
- Noiz eta zergatik izango du euskarak kostu baxuen lidergoa?:
 - Zenbait kasutan euskarak du kostu baxuen lidergoa: euskara lehen hizkuntza eta guztiz berezkoa den pertsonen edo guneen kasuetan.
 - Baina normalean kostu baxuen (prezioen) lidergoa erdarak izaten du: gehienetan prezio edo kostu txikiagoa du, «merkeagoa» da.
- Noiz eta zergatik izango du euskarak fokalizazioaren lidergoa?:
 - Gaur egun hori du: lidergo fokalizatua du euskararen aldekoen segmentoan (herritarren %55 inguru).
 - Baina, trukean, populazioaren gainerako segmentuak (herritarren %45 inguru) fokutik kanpo geratzen zaizkio euskarari.
 - Fokalizazioarekin, arazo kontzeptual bat sortzen zaio euskararen munduari: fokalizazioaren estrategia darama praktikan, nahiz eta teorian merkatu osoko estrategia eraman nahi duela esan («euskara denona da»). Baina praktikan, euskararen aldekoen segmentuan funtzionatzen du, segmentu horretan funtzionatzen duten estilo eta helburuekin; baina populazioaren gainerako segmentuetan funtzionatzen ez dutenak.

4.12. Diferentziazioa

Kontzeptuaren azalpena

Enpresa baten diferentziazioa hau da: bakarra izatea bere lehiakideek egiten ez duten eta bezeroek baloratzen duten zerbait desberdina eskaintzen: «A firm differentiates itself from its competitors if it can be unique at something that is valuable to buyers» (Porter 1985: 119).

Desberdina eta baloratua, biak batera. Bakarrik desberdina bada, baina ez baloratua, orduan ez dago diferentziaziorik. Gakoa erosleek baloratzea da,

bere beharrak asetzen dituelako: «Firms are also often different but not differentiated, because they pursue forms of uniqueness that buyers do not value. ... uniqueness in meeting buyer needs... . Uniqueness does not lead to differentiation unless it is valuable to the buyer» (Porter 1985: 119, 125 eta 130).

Michael Porter-en ideiaaren laburpen hau oso egokia da:

Hallar aquel elemento diferencial (servicio, calidad, asistencia técnica, etc.) que daba un valor añadido al comprador/consumidor. No se trataba simplemente de hacer algo diferente, sino de que esa diferencia fuera percibida por el mercado como un plus por el que merecía la pena pagar un precio mayor. (Durán-Pich 2010: 242)

Kontzeptuaren erabilgarritasun orokorra edozein enpresa edo erakundetan

Gizarte erakundeek ere diferentziazioa behar dute, ez bakarrik enpresek: «We need product differentiation in the non-profit institution as much we need it in business» (Kotler, in Drucker 1990: 60).

Diferentziazioaren onurak: (a) prezio altuagoan saltzea, (b) gehiago saltzea prezio jakin batean, edo (c) bezeroen leialtasuna handitzea (Porter 1985: 120).

Diferentziazioa berrikuntza, nortasuna eta arriskuak hartzea sustatzen dituen enpresa-kultura jakin batekin lortu daiteke: «Differentiation may be facilitated by a culture encouraging innovation, individuality, and risk-taking» (Porter 1985: 24).

Baina diferentziazioa ere galdu liteke: lehiakideek imitatzen dutenean; edo diferentziazioaren ezaugarriek garrantzia galtzen dutenean erosleentzat (Porter 1985: 21).

Diferentziazioari eusteko bi gauza behar dira, (a) erosleek produktua baloratzen jarraitzea, eta (b) enpresa lehiakideek ez imitatzea. Beti egoten da bezeroen beharrak eta pertzepzioak aldatzearen arriskua, eta horrekin faktore bereizlearen balioa galduko litzateke (Porter 1985: 158).

Diferentziazioan gerta daitezkeen arazoak edo arriskuak (Porter 1985: 160-162):

- Gehiegizko diferentziazioa, batez ere bezeroen balio-katearekin eta pertzepzioekin bat ez datozen gauzetan.
- Prezio garestiegiak jartzea.
- Produktuan zentratzea bakarrik, eta ez bezeroen balio-kate osoan.
- Bezeroen segmentu desberdinak ongi ez identifikatzea eta, beraz, haien behar desberdinak ase gabe uztea.

Kontzeptuaren erabilgarritasuna euskal soziolinguistikan

Euskararen abantaila konpetitibo nagusia (ikus «Abantaila konpetitiboa» atala) diferentziazioa da, ez kostua. Euskararen diferentziaziorako gakoa herritarren, bezeroen, balorazio positiboa lortzea da. Baina kontuan hartu behar da euskarak ez duela lortu herritar guztien balorazio positiboa, «Merkatu-kuota» atalean ikusi denez. Alde batetik, biztanleen ia erdiek, oro har, ez dute euskara erosten, ez dute baloratzen, beraz. Eta, bestetik, euskara baloratzen dutenen artean ere, erosketa maila geratu egin da.

Diferentziazioari esker saltzen da euskara prezio altuagoan, edo gehiago saltzen da prezio berean, edo erosleen leialtasuna lortzen da. Leialtasuna oso nabarmena izan da beti euskararen kasuan, baina ez erabatekoa, eta 1960-2000 bitarteko hamarkadetan asko igo ondoren, adierazle batzuk hitz egiten hasiak dira. Hala ere, euskalgintzaren diferentziazioari buruzko gogoeta, oro har, egiteko dago: zein da euskarak bere erosleei eskaintzen dien balio desberdina, euskara erostea eta, gainera, erdara baino garestiago, mezezi izateko?

José M^a Sánchez Carrión «Txepetx» (1999) aritu zen gai horiei buruz, beste terminologia batekin: euskarak erdarak eskaintzen ez duen zerbait berezia eskaini behar du, eta hori balioen mundu berri bat da: Berdintasunaren Diskurtsoa. Halaber, Jon Sarasua (2013).

Euskararen kostuak jaitea, baina diferentziazioa galdu gabe, hori da diferentziazioak jartzen duen beste erronka bat. Adibidez, euskara erostea «merkeagoa» edo erakargarriagoa izan liteke hauek bezalako kasuetan:

- Diskurtso zabal eta lagunkoiekin lagunduta.
- Euskararen gune igorleetan kalitatea bermatuta: profesional onak, hiztun onak, kalitate intelektuala...
- Euskara bateragarria eginez erdararekin (gaztelania zein frantsesa), euskalduna izateko erdarari uko egiteko eskatzen bazaie herritarrei kostua askoz garestiagoa baita.
- Euskara bateragarria eginez kanpoko hizkuntzekin, ingelesarekin batez ere.
- Administrazioak euskararen aldeko giroa sortuz gizartean, eta bere erakundeetan gauzatuta.

Euskararen munduan badago berrikuntza, pertsonen nortasun propioa eta arriskuak hartzea sustatzen dituen kultura? Batzuetan bai, noski; baina beste batzuetan kontrakoa gertatzen da, espero den ildotik, ortodoxiatik ateratzen denari ez zaio begi onez begiratzen. Baina horrela erakargarritasuna eta diferentziazioa galtzen dira...

Diferentziazioan gerta daitezkeen beste arazo edo arrisku batzuk:

- «Bezeroen pertzepzio eta behar linguistikoak aldatzea».
 - Herritarren beharrak edo pertzepzioak ari dira aldatzen, ez dira orain dela 30 urtekoak bezalakoak.
- «Gehiegizko diferentziazioa bezeroen balio-katearekin eta pertzepzioekin bat ez datozen gauzetan».
 - Adibidez: euskara bizi-estilo jakin batzuekin lotzen denean, edo politika jakinekin...
- «Produktuan zentratzea bakarrik, eta ez bezeroen balio-kate osoan».
 - Euskararen diferentziazioa herritarren balio-kate osoan oinarritu behar da, eguneroko jarduera mota guztietan erabilgarri bihurtu euskara.

- «Bezeroen segmentu desberdinak ongi ez identifikatzea eta, beraz, haien behar desberdinak ase gabe uztea».
- Euskararen bezeroen segmentoak zehaztu, eta segmentu bakoitzari eskaintza berezia egin. Oso garrantzitsua. Segmentu posibleak: euskaldunak; ia-euskaldunak; euskaltzale erdaldunak; eta gainerako erdaldunak. Antzeko beste segmentazio posible bat: Txepetxen tipo linguistikoak (Sánchez Carrión 1987).

4.13. Misioa eta bisioa

Kontzeptuaren azalpena

Misioa erakundearen oinarritzko helburua da, bere izateko arrazoia: «the basic rationale for the organization» (Drucker 1990: 33). Erakundea zertarako existitzen den esaten digu misioak (Drucker 1990: 3). Bisioa erakundeak nahi duen etorkizuneko mundua da, nolakoa nahi duen mundua izatea etorkizunean.

Kontzeptuaren erabilgarritasun orokorra edozein enpresa edo erakundetan

Bisioak jarraitzaile asko eta gogotsuak sortzeko gaitasuna izan behar du. Enpresa batean, jarraitzaileak bere bezeroak eta langileak dira, eta enpresak bere burua bezeroen sortzaile eta bezeroen zerbitzari bezala (bezero-orientazioa, azken finean) ikusi behar du (Levitt, 1960/1975, 12. or.).

Gizarte erakundeetan ere ezinbestekoa da misio egoki bat izatea: «Actually, mission comes first. Non-profit organizations exist for the sake of their mission. ... The first task of the leader is to make sure that everybody sees the mission, hears it, lives it» (Drucker 1990: 33).

Misioa aldatu eta berregokitu behar izaten da denborarekin, aldaketa demografikoak gertatzen direlako, jarduera batzuek ez dutelako emaitzarik ematen eta erakundearen energia alferrik kontsumitzen dutelako, edo helburuak bete direlako (Drucker 1990: 33).

Gaizki planteatutako helburu edo misioek, ordea, enpresaren edo erakundearen etorkizuna kaltetu dezakete: «Examples of industries that have been and are now endangering their futures by improperly defining their purposes» (Levitt 1960/1975: 3).

Norbaitek pentsa lezake, agian, misioa eta bisioa kontzeptuak, erabiliaren erabiliaz higituegiak daudela, baina, ikusten denez, indartsuak dira eta badute zer esana.

Kontzeptuaren erabilgarritasuna euskal soziolinguistikan

– «Misioa aldatu eta berregokitu behar izaten da denborarekin, aldaketa demografikoak gertatzen direlako, jarduera batzuek ez dutelako emaitzarik ematen eta erakundearen energia alferrik kontsumitzen dutelako, helburuak bete direlako...».

- Euskalgintzak egokitzen du bere misioa, aztertzen du funtzionatzen duen ala ez, indarrak alferrik gastarazten dizkion? Batzuetan bai eta beste batzuetan ez...
- Adibidez, Arturo Campionek eta Nafarroako «Asociación Euskara»-k XIX. mendearen amaieran formulatu zuten misioak –euskara zaintzea eta bultzatzea: «gordetcea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euscarazco mintzairoa» (jasoa in Erize 1997: 477)– luzaroan iraun zuen; eta 1960-1970ko hamarkadetan beste misio bat nagusitu zen –Euskal Herri osoa euskalduntzea («Herri bat, nazio bat, hizkuntza bat», Frantziako Iraultzaren ereduari jarraituz, nonbait)–, oraintsu arte iraun duena. Baina ongi funtzionatzen du Euskal Herri osoa euskalduntzeko misio horrek ala jendea erakartzeko energiak alferrik kontsumitzen dizkio euskalgintzari?
- «Gaizki planteatutako helburu edo misioek, ordea, enpresaren edo erakundearen etorkizuna kaltetu dezakete».
- Euskararen munduak ere, zein helburu finkatzen duen, bere etorkizuna kaltetu lezake.

Iñaki Martínez de Lunak (2013) eta Jon Sarasuak (2013) guztiz gogoeta eta proposamen esanguratsuak egin dituzte gai orokor hauen inguruan.

5. Ondorioak eta Eztabaida

Managementeko diziplinak (enpresen eta erakundeen zuzendaritzaz arduratzen den diziplina orokorra, ez bakarrik erakundeen arlo desberdinei buruz aritzen diren komunikazioa, marketina edo bestelako diziplinak) ekarpen bereziak egiten ahal dizkio euskararen eta, oro har, hainbat hizkuntzaren hizkuntza-plangintzari. Bide hori gutxi jorratu da orain arteko literatura soziolinguistikoan.

Managementa ekintzara bideratutako diziplina da, hizkuntza-plangintza bezala, eta balioak eta praktika lotzen ditu: desiragarria (balioak) dena errealitatera eramatea bilatzen du. Managementaren ekarpen nagusia da bezeroa/herritarra erdigunean jartzea: bere nahiak, bere beharrak eta bere erabakimena. Managementak besteekin zer nolako harremanak izaten ditugun galdetzeraz eramaten gaitu (nola ikusten gaituzten besteek, eta nola ikusten ditugun guk), euskalgintzan kontrako ikuspegia ohikoa den bitartean: zer nahi dugun besteek egitea. Horrek ikuspegi aldaketa ekartzen du, geure buruari begiratzea eta galdetzea, ez bakarrik kanpoko faktoreei.

Euskalgintza euskararen kausa edo ideia soziala saltzen duen enpresa edo erakunde bat bezala har daiteke. Herritarrek euskalgintzaren bezero bihurtzen badira eta euskara erosten badiote (euskararen aldeko jarrerak, euskararen ezagutza edo euskararen erabilera) arrakasta izango du euskalgintzak. Bezeroek euskara erosiko dute, edo segituko dute erosten, edo ez dute segituko erosten, edo ez dira hasiko erosten, beren nahi, balioen eta kostuen/onuren balantzearen arabera. Erabakimena, euskararen kausa erosteko edo ez erosteko, bezeroek, herritarrek dute, unean uneko zein iraupen luzeko prozesu indibidual eta kolektiboen bitartez.

Bezero-orientazioa *versus* produktu-orientazioa euskararen sustapenean: managementeko kontzeptuen egokitzapen guztia funtsean bi polo horien inguruan laburbiltzen da. Alegia, zein dago euskara sustatzeko helburuen

eta ekimenen erdigunean: herritarrak eta haien behar eta nahi linguistikoak, ala erakunde sustatzaileak eta haien interpretazioak eta nahiak?

Irakaspen nagusietako bat da estrategia bezeroen nahien inguruan antolatutako behar dela: «Strategy must be customer-centred, visionary, differentiating, sustainable, easily communicated, motivating and flexible» (Kotler eta Andreasen 1995/2012: 128):

- Herritarren nahi eta balio linguistikoak aztertuz eta ikasiz, euskararen onurak herritar guztiek onartzen dituztela suposatutzat eman gabe.
- Nahi horiek betetzen saiatuz.
- Pentsatu gabe euskalgintzako erakundeen nahiak, berez, herritar guztientzat egokiak izan behar direnik.
- Euskalgintzak orain arteko estrategien azpian izan dituen usteak eta iritziak berraztertuz.

Bestalde, euskalgintzako hainbat arlo edo erakundetan, zuzenean bezero errealekin aritzen diren eta bezero kopuruen edo salmenten gorabeherak ulertu eta neurtu behar dituzten horietan (irakaskuntza, helduen euskalduntze/alfabetatzea, komunikabideak, kultur produkzioa...) oraindik ere beharrezkoagoak eta erabilgarriagoak dira managementeko kontzeptuak; eta dagoeneko erabiltzen ari dira.

Hizkuntza-hautapena ekonomiaren edo managementeko kontzeptuen argitara aztertzea bereziki interesgarria da: hizkuntza helburu bat lortzeko egiten diren hautapenen objektu bezala azter daiteke, pertsonen erabaki ekonomikoek hautapen baldintzatu bat azaltzen duten bezalaxe. Zergatik, jendeak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko aukera duenean, nahiago du bata ala bestea erabili? Hautaketa horrek, ziur asko, ondorioak izango ditu hizkuntzen iraupen edo ordezkapen prozesuetan. Herritarrek bata ala bestea erabiliko dute haien lehentasun, nahi, balio eta beharren arabera, kontuan hartuta, bestalde, aukera bakoitzaren onurak eta kostuak (materialak eta ez-materialak), hautaketen baldintzak direnak, azken finean.

Managementak hainbat galdera egiten dizkio euskararen hizkuntza-plangintzari:

- «Zergatik ‘erosi’ behar dizuet euskara?» (herriar baten galdera izan daitekeena).
- Zer da nagusi euskararen munduan: produktu-orientazioa ala bezero-orientazioa?
- Zer baloratzen dute bezeroek? Zer nahi dute euskara erosten dutenean?
- Zein dira herriarren behar eta nahi linguistikoak?
- Zergatik ez dute erosten euskararen bezero ez direnek?
- Zein da euskararen abantaila konpetitiboa: prezioen lidergoa ala diferentziazioa?
- Zein da euskararen diferentziazioa, bere erosleei eskaintzen dien balio desberdina, euskara erostea eta, oro har, erdara baino garestiago, mezezi izateko?
- Merkatu orokorra ala fokalizazioa?
- Zer egin euskararen merkatu-kuota berriro hazkunde zikloan jartzeko?

Mugak: managementeko ekarpenak hizkuntza-plangintzara egokitze ahaleginak baditu mugak ere:

- Managementeko kontzeptuak inspirazio iturri indartsuak dira, baina ez dute errezetarik ematen. Ezin dira modu estuegian ekarri hizkuntza-plangintzara, baina neurrian erabilia oso emankorrak gerta daitezke.
- Enpresen alde finantzario edo ekonomiko hutsekin erlazionatuta dauden kontzeptuak hizkuntza-plangintzaren kezketatik urruti geratzen dira eta, itxura batean, ez dira soziolinguistikan oso erabilgarriak gertatzen, ezta analogiaz ere.

Proposamenak aurrera begira eta lan berriarako ildoak:

- Managementaren eta soziolinguistikaren arteko elkarlana zabaltzea, bi norabide hauetan:

- Hizkuntza-plangintzatik managementera:
 - Managementa ikasi, beste arlo batzuetako profesionalek egiten duten bezala: osasungintzan, hezkuntzan, bestelako gizarte erakundee-tan... edo enpresetako gainerako arduradunek ikasten duten bezala.
 - Managementeko kontzeptuak soziolinguistikan erabili eta bezeroa/herritarra erdigunean jarri.
- Managementetik hizkuntza-plangintzara: managementeko adituek, batez ere berezko hizkuntzak dituzten herrietakoek, euskararen ka-suan bezala, ekarpenak egitea hizkuntza-plangintzari, managemente-ko kontzeptuei eta teknikei erabilgarritasuna ematen hizkuntza-plan-gintzan.
- Soziolinguistikan jadanik zeuden antzeko kontzeptuak berreskuratu edo berrindartu: hizkuntza-hautapena (*language choice*); euskarak abantaila kualitatiboa bilatzea erdararekiko: berdintasunaren balioak (Txepetx); tipo linguistikoen optimizazioa (Txepetx)...

6. Bibliografia

BAKER, C. eta JONES, S. P., 1998, «Language Marketing», C. Baker eta S. P. Jo-nes, *Encyclopedia of Bilingualism and Bilingual Education* (221-227). Clevedon (UK): Multilingual Matters. Hemen eskuratua: <http://books.google.es/books?id=YgtSqB9oqDIC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false>

BARANDIARAN, J., 2010, «Ekonomia k-z ere idazten da», *Bat Soziolinguistika al-dizkaria*, 75, 107-114.

BOURDIEU, P., 1985, *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísti-cos*. Torrejón de Ardoz: Akal. (Jatorrizko edizioa frantsesez: 1982).

COOPER, R. L., 1989, *Language planning and social change*. Cambridge (UK): Cambridge University Press.

CRANE, A., McWILLIAMS, A., MATTEN, D., MOON, J. eta SIEGEL, D. S. (Ed), 2008, *The Oxford Handbook of Corporate Social Responsibility*. Oxford (UK): Oxford University Press.

DHIR, K. S. eta SAVAGE, T., 2002, «The value of a working language», *International Journal of the Sociology of Language*, 158, 1-35.

DOMÍNGUEZ, F., 1998, «Toward a language-marketing model», *International Journal of the Sociology of Language*, 134, 1-13.

DRUCKER, P. F., 1989, uztaila, «What Business Can Learn from Nonprofits», *Harvard Business Review*. Hemen eskuratua: <http://hbr.org/1989/07/what-business-can-learn-from-nonprofits/ar/1>

———, 1990, *Managing the non-profit organization: practices and principles*. London: Butterworth-Heinemann.

———, 1998, *Management's New Paradigms*. Hemen eskuratua: http://www.aom-iaom.org/article_drucker.pdf

———, 2002, *The Effective Executive*. New York: HarperCollins. Hemen eskuratua: http://www.amazon.com/The-Effective-Executive-Peter-Drucker/dp/0887306128#reader_0887306128 (Jatorrizko argitalpena: 1967).

———, 2004, *The Practice of Management*. New Delhi: Allied Publishers Private Limited. Hemen eskuratua: <http://books.google.es/books?id=Lo87o08b8GQC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false> (Jatorrizko argitalpena: 1955).

———, 2006, *Reflexiones para un director*. L. g.: Asociación para el Progreso de la Dirección. (Jatorrizko argitalpena: 1973).

DURÁN-PICH, A., 2010, *El canon del Management*. Bartzelona: Ediciones Deusto.

ERIZE, X., 1997, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

———, 2012, *Management eta hizkuntza-plangintza elkartzeko proposamena*. IMHk antolatutako 30+10 mintegiaren 7. edizioan egindako aurkezpena, Elgoibar. Link: <http://www.imh.es/eu/albisteak/30-10-mintegiaren-7-edizioko-bideo-eta-edukiak>

———, 2013, «Zergatik erosi beharko nuke euskara?», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 86, 99-109.

ETXEZARRETA, E. eta ZENDOIA, J. M., 2011, *Euskarazko kultur industrien lokalizazioa berrikuntza sozialaren ikuspegitik*. Martin Ugalde kultur parkearen kasua (Documento de Trabajo 2011-06 Lantze-bidean). Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea. Enpresa Ikasketen U.E.

EUROPEAN COMMISSION, 2011, *A renewed EU strategy 2011-14 for Corporate Social Responsibility*. Hemen eskuratua: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0681:FIN:EN:PDF>

EUSKO JAURLARITZA, 2013a, *euskadi.net* webgunea.

———, 2013b, V. *Inkesta Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: egilea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html#ikerketak

FASOLD, R., 1992, *The Sociolinguistics of Society*. Oxford (EB)-Cambridge (AEB): Blackwell. (Lehenengo argitalpena: 1984).

FERNÁNDEZ OSTOLAZA, I., 2006a, otsailaren 6a, «Euskara nola saldu», *Erabili.com*. Hemen eskuratua: http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1138379396

———, 2006b, irailaren 17a, «Zertarako behar du euskarak marketina?», *Argia*. Hemen eskuratua: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2054/zertarako-behar-du-euskarak-marketina>

———, 2007, abendua, «La comunicación sobre el euskara debe diseñarse desde los intereses del receptor, no desde los intereses del emisor [elkarriketa]», *Ze Berri?*, 68, 6-7. Hemen eskuratua: http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&src=s&source=web&cd=14&ved=0CHUQFjAN&url=http%3A%2F%2Fwww.euskosare.org%2Feuskara%2Fze_berri_aldizkaria%2Fze_berri_68%2Fat_download%2Ffile&ei=rQFSUKEaCIiIhQfW5IGICQ&usq=AFQjCNEUJpkn6XVN8t5YNVimfDIRKKwRUw&sig2=-9CwuAqfAmhXzeqtH6795g

———, 2008, «Euskalgintzaren modernizazioa, abertzaletasunaren modernizazioa», *Hermes*, 25, 82-86. Hemen eskuratua: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3003771>

———, 2013, «Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan. Euskararen kasua EAEn», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85, 11-73.

FOX, K. F. A. eta KOTLER, P., 2012, «The Marketing of Social Causes: The First 10 Years». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 9, 92-107). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *Journal of Marketing*, 44 (4), 24-33, 1980)

FREEMAN, R. E., (d.g.), *Stakeholder Theory of the Modern Corporation*. Hemen eskuratua: <http://academic.udayton.edu/lawrenceulrich/Stakeholder%20Theory.pdf>

GLOBAL REPORTING INITIATIVE, 2013, *G4 Sustainability Reporting Guidelines*. Hemen eskuratua: <https://www.globalreporting.org/reporting/g4/Pages/default.aspx>

GOIKOETXEA, N., (zuz.), 2010, *EraLan2 ikerketa-proiektua: hizkuntza lidergoa aztergai*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. Hemen eskuratua: <http://www.soziolinguistika.org/eu/eralan>

GORRINDO, K., 2012, irailaren 30a, «Ezin amore eman», *Argia*, 2.338, 24.

GRIN, F., 1990, «The Economic Approach to Minority Languages». In D. GORTER, et al. (Ed.), *Fourth International Conference on Minority Languages* (153-174). Clevedon: Multilingual Matters. Hemen eskuratua: <http://books.google.es/books?id=HYShm6Q-lkEC&pg=PA153&lpg=PA153&dq=The+economic+approach+to+minority+languages+grin&source=bl&ots=NR3KUQPcLy&sig=VCxO-M-rSGXAY8qUIJbYen1xFsrM&hl=es&sa=X&ei=mxwhUNeuCYqF-hQePioC4Cg&ved=0CFgQ6AEwAQ#v=onepage&q=The%20economic%20approach%20to%20minority%20languages%20grin&f=false>

———, (Ed.), 1996, «Economic Approaches to Language and Language Planning». *International Journal of the Sociology of Language*, 121 (zenbaki monografikoa).

———, 1999a, «Economics». In J. A. FISHMAN (Ed.), *Handbook of Language and Ethnic Identity* (9-24). New York: Oxford University Press.

———, 1999b, «Supply and Demand as analytical Tools in Language Policy». In A. BRETON, (Ed.), *Exploring the Economics of Language* (31-61). Ottawa: Canadian Heritage/Patrimoine canadien.

———, 2002, *Using Language Economics and Education Economics in Language Education Policy* (Reference Study). Estrasburgo: Council of Europe. Hemen eskuratua: <http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/source/grinen.pdf>

———, 2003, «Language Planning and Economics», *Current Issues in Language Planning*, 4(1), 1-66. Hemen eskuratua: <http://uk-online.uni-koeln.de/remarks/d5134/rm2169321.pdf>

———, 2004, *Do the Concepts of Resource Allocation and Resource Distribution Constitute Useful Paradigms for Language Policy?* Geneva: University of Geneva. Hemen eskuratua: http://unige.academia.edu/FrancoisGRIN/Papers/1011854/DO_THE_CONCEPTS_OF_RESOURCE_ALLOCATION_AND_RESOURCE_DISTRIBUTION_CONSTITUTE_USEFUL_PARADIGMS_FOR_LANGUAGE_POLICY

IBORRA, M., DASÍ, À., DOLZ, C. eta FERRER, C., 2011, *Fundamentos de Dirección de Empresas*. Madril: Paraninfo.

IRASTORTZA, J., 2009, *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatzetik helburuak lortzera* (Doktorego-tesi argitaragabea). L.g.: Mondragon Unibertsitatea-Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

IRIBERRI, N. eta URIARTE, J. R., 2012, «Gutxiengoaren hizkuntza eta elebitasunaren orekaren egonkortasuna», *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 185-206.

KALTZADA, P. eta URANGA, B., (Zuz.), 2010, *Euskara komunikatu? Nor-Nori-Nork*. Euskal Herriko Unibertsitatea, XXIX. Uda ikastaroak (online bertsioa). Hemen eskuratuta: <http://www.sociolinguistika.org/eu/node/5113>

KAMIO, J., 2011ko ekainaren 6koa, «Ostegunez salbatu genuen euskera» [neurehegitik blogeko artikulua]. Hemen eskuratua: <http://neurehegitik.wordpress.com/2011/06/06/ostegunez-salbatu-genuen-euskera/>

KOTLER, P., 1990, «Defining the Market [elkarriketa]», In P.F. DRUCKER, *Managing the non-profit organization* (55-63). London: Butterworth-Heinemann.

———, 2003, *Marketing Management* (11. ed.). Upper Saddle River, NJ: Pearson Education.

———, 2012, «Humanistic Marketing: Beyond the Marketing Concept». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 1, 132-148). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *Philosophical and Radical Thought in Marketing*, 271-288, A. Fuat Firat, N. DHOLAKIA eta R. BAGOZZI, Ed., 1987).

KOTLER, P. eta ANDREASEN, A. R., 2012, «Not-for-Profit Marketing». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 9, 144-160). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *International Encyclopedia of Business and Marketing*, 3.696-3.707, M. WARNER, Ed., 1996).

———, 2012, «Strategic Marketing for Non-Profit Organizations». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 9, 123-143). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *Companion Encyclopedia of Marketing*, 930-950, M. J. BAKER, Ed., 1995).

KOTLER, P. eta LEVY, S. J., 2012, «Broadening the Concept of Marketing». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 8, 1-11). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *Journal of Marketing*, 33, 10-15, 1969).

KOTLER, P. eta ZALTMAN, G., 2012, «Social Marketing: An Approach to Planned Social Change». In J. N. SHETH (Ed.), *Legends in Marketing. Philip Kotler* (Vol. 9, 19-35). New Delhi: Sage Publications. (Lehen aldiz hemen argitaratua: *Journal of Marketing*, 35 (3), 3-12, 1971).

KRUGMAN, P. eta WELLS, R., 2007, *Microeconomía*. Bartzelona: Editorial Reverté. (Jatorrizko argitalpena ingelesez: 2006).

LERTXUNDI, A., 1995eko maiatzaren 21a, «Oinaren neurriko», *Egunkaria*, 33. or.

LÉVI-STRAUSS, C., 1993, *Raza y cultura*. Madril: Cátedra.

LEVITT, TH., 1975, Marketing Myopia. *Harvard Business Review* (iraila-urria). Hemen eskuratua: <http://www.casadogalo.com/marketingmyopia.pdf> (Lehen argitalpena: 1960).

MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTOA (IMH), 2006-2013, 30+10 mintegia: hizkuntza-kudeaketa enpresan (edizio guztietako materialen bilduma). Hemen eskuratua: <http://www.imh.es/informazio-korporatiboa/politika-hizkuntza>

MARKO, I., 2009, *Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa* (Doktorego-tesi argitaragabea). Euskal Herriko Unibertsitatea-Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, l.g.

MARTÍNEZ DE LUNA, I., 2013, «Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena», *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-83.

MARX, K. eta ENGELS, F., 1977, *Correspondencia*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.

NICHOLSON, R., 1997, «Marketing the Maori Language». In J. REYHNER (Ed.), *Teaching Indigenous Languages* (206-213). Flagstaff, AZ: Northern Arizona University. Hemen eskuratua: http://jan.ucc.nau.edu/~jar/TIL_16.html

OGIZA, J., 1992, «Nazioarteko Publikuntza 1. kongresua. Publizitatea eta hizkuntza ez normalizatuak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 6, 123-129.

PORTER, M. E., 1980, *Competitive Strategy: Techniques for Analyzing Industries and Competitors*. New York: The Free Press.

———, 1985, *Competitive Advantage: Creating and Sustaining Superior Performance*. New York: The Free Press.

———, 1996, azaroa, «What is Strategy?», *Harvard Business Review*. Hemen eskuratua: <http://hbr.org/1996/11/what-is-strategy/ar/1>

ROCHER, G., 1990, *Introducción a la sociología general* (11. ed.). Bartzelona: Herder.

SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. «Txepetx», 1987, *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: egilea.

———, 1999, *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara*. Bilbo: Ayuntamiento de Bilbao.

SARASUA, J., 2013, *Hiztunpolisa*. Iruñea: Pamiela.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2011, *Aldahitz ikerketa 2011. Euskara ikasi duten hizkuntza-ohituren aldaketak lan-munduan*. Hemen eskuratua: http://www.sozio-linguistika.org/files/Aldahitz_2011-Ondorio_nagusien_txostena.pdf

STERN, S., 2011ko urriaren 10a, «The importance of creating and keeping a customer», *Financial Times*. Hemen eskuratua: <http://www.ft.com/intl/cms/s/2/88803a36-f108-11e0-b56f-00144feab49a.html#axzz22BvzjHvO>

URKIZA, A. (arg.). (2007). *Enpresa komunikazioa profesionalen ikuspegitik*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).

WILLIAMS, C. H., 2007, «Marketing Welsh in an ambivalent context», *Noves SL* (udazkena-negua). Hemen eskuratua: <http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm-07tardor-hivern/docs/williams.pdf>

ZARRAGA, A., COYOS, J.-B., HERNÁNDEZ, J.M., JOLY, L., LARREA, I., MARTÍNEZ, L.V., URANGA, B. eta BILBAO, P., 2010, *Soziolingüistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Soziolingüistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.

ZENDOIA, J. M., 2010, «Teoria ekonomikoaren ekarpenak soziolingüistika orokorrean», *Bat Soziolingüistika aldizkaria*, 74, 43-55.

———, 2011, *Gaelic and the economy: socio-economic status of Gaelic speakers and the cost-effectiveness of language policies* (Documento de Trabajo 2011-05 Lantze-bidean). Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea. Enpresa Ikasketen U.E.

ZHANG, W. eta GRENIER, G., 2012, *How can Language be linked to Economics? A Survey of Two Strands of Research* (Working Paper 1206E). Ottawa: University of Ottawa/Université d'Ottawa. Hemen eskuratua: <http://www.socialsciences.uottawa.ca/eco/eng/documents/1206E.pdf>

Aurrera begira (eta pixka bat atzera ere bai)

EPALTZA, Aingeru
Idazlea eta euskaltzain urgazlea

Eztabaida politikoari ihes egitea da Euskaltzaindiaren arau idatzi gabetariko bat. Oraingoan, alabaina, Akademiak hizkuntza politika jarri digu solasgai. Nafarroak behar lukeen hizkuntza politika, hain zuzen ere. Horrek berez dakar hizkuntzaz bezainbat politikaz mintzatzeko gonbita. Funtsez ariko bagara, inguru-mingururik eta hitz-estalarik gabe egitea dugu legezkoena.

Gainerako euskal herrietan bezala, zain luzeak ditu gure mintzairak Nafarroan bizi duen egoerak. Haren desagerpena bururatu ez bada, gaur egungo euskaltzaleen izerdiari ez ezik, mendez mendeko belaunaldien atxikimenduari diogu zor. Hala berean, desagertzeko arriskutik urruntzeko euskarak nafar gizartean kaustitzen dituen oztopo eta trabak ez dira kontu berria. Euskarafobia aspaldi eta sakon sustraitua dago herrialdeko aginteguneetan. Joera horren ondokotzat har daiteke UPN, baita, hein handi batean, PSN ere.

Bi indar politiko horien eskutan egon dira, 1979tik hona, frankismoaren ondoko nafar erakunde publiko nagusiak. Haien ardurapean egon da –badago oraino–, hizkuntza arloan instituzioetatik bultzatu den politika. Politika hori, alabaina, beren botoekin benedikatu dute, hauteskunderaz hauteskunde, nafar herritarrek.

Euskararen herriko hiru administrazioen mendeko lurraldeetako bakar batean ere ez dago euskara eztabaida politikotik kanpo. Noizbehinkako aldarrikapen erretorikoengatik ere, adostasunik ez da gure mintzairak behar

duen gerizpe instituzionalaren gainean. Iparraldean, hizkuntzari buruzko erabakiak kanpoan hartzen dira nagusiki, berezko egitura ezak horretaraturik. Hegoaldean, Espainiar estatuaren izaera deszentralizatuaren ondorioz, hizkuntza politika tokian tokiko gehiengo eta gutxiengoen jokoak arabertzen du, hein handi batean. Halaxe da Euskadiko Erkidego Autonomoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean. Erresuma zaharrean, ondikoz, euskararen garapenari haize ematea premiagabetzat, kaltegarritzat edo arrisku-tsutzat jotzen duten indar politikoen alde egin dute nafar gehienek.

Ikusmena lausotuko zaigu hori begitik galtzen badugu.

Legeak eta mirariak

Lerro zuzenik gabe, aitzin-gibel handiak ditu azken 30 urteko hizkuntza politikak Nafarroan. 1986an onetsi zelarik, «Ley del Vascuence» delakoak gutxiengo euskaltzalearen ukoa jaso zuen. Ez zuten guztiek kontrakotasuna suhertasun maila berean agertu, baina denek laidogarritzat jo zuten haren testua, izenetik beretik haste. Harritzekorik ez. Herrialdea hiru hizkuntza eremutan banatu zuten legegileek eta euskararen ofizialtasuna ipar-mendebaldeko ibarretara mugatu (eremu euskalduna). Nafarroako zatirik handiena (eremu ez-euskalduna) gure hizkuntzatik behin betiko urruntzeko borondatearen ispilu zen legea. Iruñean, Iruñerrian, ipar-ekialdeko ibarretan eta Estellerriko zati batean (eremu mistoa) aitortutako sasi-ofizialtasuna sobera xuhurra zen kontsolamendutako balio izateko.

Mirariak, ordea, deabruak obratzen ditu zenbaitetan. Urralburu sozialista zen urte haietan Nafarroako lehendakaria, eta hark abertzale epelen botoak behar hainbat proiektu aitzina eramateko. Trukean, euskararen inguruko kontzesioak egiteko prest zegoen gobernuburua. Legearen aplikazio zabala ahalbidetu zuten PSNk lehenbizi EAJrekin eta gero EARekin egindako akordioek. Haien itzalpean etorri ziren azken hiru hamarraldietan euskarak Nafarroako bizi publikoan egin dituen aurrerapauso nagusiak: Hizkuntza Politikorako Zuzendaritza Nagusiaren sorrera, euskararen sarrera irakaskuntza publikoan eta udal administrazioan, diru-laguntza politika, euskararen aldeko kontzientziazio kanpainak, hizkuntzaren balorazioa foru administra-

zioan sartzeko, Euskal Herriko gainerako herrialdeekiko lankidetza politikoa etab. Guztia, diskretuki, harrabots handirik gabe. Mende berriaren bueltan, egoera euskaltzaileen ametsetatik urrun egonagatik, nabarmena zen hoberako aldaketa. Horren lekuko genuen D (eta A) ereduko matrikulazioen urtez urteko gorakada, are euskaltzaletasunak bizi ez zituen gizarte sektoreetan ere.

Dena ez zen urrea izan, bistan dena. Sozialistek, konparaziorako, ez zuten Euskal Herria Irratia legeztatu nahi izan. Mende laurden bat geroago baimenik gabe segitzen du Iruñerriko irrati euskaldunak. Halaber, euskara Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpo atxikitze borondatea agertu zuen, hasieratik, PSNk, gero, jarrera hori malgutu behar izan bazuen ere. Kontuak kontu, urte haietako bertze ikaskizun bat da euskara truka-gai gerta daitekeela. Hain justu ere, adostasunik ez izatearen ondorioz, ordezkari politikoez, koiuntura politikoaren arabera, alderdien arteko harreman eta tirabiren subjektu bilakatzen dute euskara, bertze edozein salgai baten gisara politikaren merkatuan. Egitate horri etekina ateratzen jakin zen garai hartan.

Autogolak

Euskaltzaletasun politikoaren zati batek hondatu zuen arestian aipatu datuak are hobeak izateko aukera. 1995ean aurkeztu zen Foru Parlamentuan delako legea aldatzeko proiektua. Xedea, euskarazko irakaskuntza posible izatea Nafarroako eremu ez-euskalduneko sistema publikoan. PSNk eta EAK adostua zuten proposamena. Ez zuen aitzina egin, HBk bere botoak UPNkoei gehitu baitzizkien hura zakarrontzira bidaltzeko. 20 urte geroago, irabazi gabeko bataila izaten jarraitzen du. Urtero-urtero, eremu ez-euskaldunetan beren seme-alabendako euskarazko irakaskuntza nahi duten aita-amek besta egiten dute, orduan esku-eskura egon zena erreibindikatu beharrez.

«Autogol politika». Horrela definitu izan du so-egileren batek euskaltzaileen sektore handi batek –eta haren ordezkari politikoez– Nafarroan euskararen gainean eraman duena. Hoberenaren peskizan, hobe lortzeko bideak tratatzen ari izan da bat baino gehiago, euskararen izenean. Harrigarriki, joera horren jarraitzaileetariko batzuk euskarazko irakaskun-

tzan, helduen euskalduntze-alfabetatzen edo kulturgintzan lanean beltz ari ziren aldi berean, epe luzeko etekinen eske.

Hau ez da plaza aproposa jokamolde hori zerk eragin duen sakon aztertzeko. Berehalako aldaketa goitik beherakoaren esperantza ez zen azken arrazoiatarik izanen. Urte horietan guztietan, Nafarroako euskal *intelligentiaren* zatirik mardulenak gutxietsi zituen erdibideak, posibilismoak eta lorpen tikiak, bete-betean sinetsirik «zerbaitek» (bakoitzak para dezala hor nahi duen izena) egora goitik beheiti itzulipurdikatuko zuela eta horrek nahi genituen guztiak erdiesteko bidean behin betiko jarriko gintuela. Logika horri jarraikiz, zertarako 5 eskatu, 3 lortzeko (edo gutiago), luze gabe 20 eskuratzeko maneran egonen baginen?

Historiak, bistan dena, ez du bidezidor hori hartu.

1998ko udazkenean, Kontseiluak euskararen alde inoiz izan den mobilizaziorik handiena bulkatu zuen. «Bai euskarari» kanpainan Nafarroa ez zen azken-putz gelditu. Sadar futbol-zelaia mukuru bete zen abenduaren 26ko arrats gogoangarrian, Euskal Herriko bertze bazterretan –Agileran, Mendi-zorrotzan, San Mamesen, Anoetan– gertatu zen gisa berean. Urtebete geroago, orduko arrakastaren abiada profitaturik, euskararendako lege berria eskatzeko kanpainari lotu zitzaizkion euskaigintzako eragile nagusiak. Eskatu ez ezik, testu berri bat ere proposatu zuten, hainbat hilabetetako bilera eta batzarren emaitza. Erdaltzale uzten zuen Euskadin 1982az geroztik indarrean zegoen legea. 2000ko udaberrian, 50.000 sinadura bildu ziren testu horren alde. Sanzek, Nafarroako orduko lehendakariak, minutu bat ere ez zuen galdu haren azterketan: «50.000 sinadura bildu dituzte oraingo legea gutxiegi dela diotenak –adierazi zuen–. Nik 125.000 boto ditut, eta horiek legeari gehiegizkoa irizten».

Urrunegi, nonbait

1986ko legea UPNrekin identifikatzeko joera dago egungo euskaldunen artean. Egiazki, haren aitatasuna PSNri dagokio gehienbat. Atera, Urralburu sozialistaren Gobernuak atera zuen aitzina, eta haren bozketan eskuin

nabarrista abstenitu egin zen, testua abertzaleen tesietara sobera lerratua zegoelakoan. Hala ere, 1991z geroztik, UPN gobernuaz jabetzeak –Allirekin lehenbizi, eta Sanzekin berarekin gero– ez zuen funtsezko aldaketarik ekarri. Legearen testua ez zen ukitu, ezta kanbiamendu handirik jasan ere sustapen epeleko hizkuntza politikak.

2000ko ekainean zerbait hautsi zen. Orduan gertatu zirenak ezin daitezke noski uler testuinguru politikoari so egin gabe. ETA 1997az geroztik zebilen zinegotziak hiltzen. 1998ko Lizarra-Garaziko itunak eta horren ondoriozko su-etenak ez zuten giroa baretu, akordioa beren aurkako azpilan baten itxuran hartu baitzuten hango eta hemengo indar ez-abertzaleek. Bai Euskarari kanpaina multzo berean ikusi zuten aunitzek, Lizarraren bertsio linguistikoa. 1999an, ETA bere ekintza armatuei berriz ere lotzeak are gehiago mindu zituen bazterrak. ETArek eta abertzaleetasunaren aitzakian euskarari erasotzea ez zen gauza berria, baina orduan hasi zen gailurra jotzen Espainiako hedabideetan. Nafarroan, garai hartakoa da euskararendako lege berriaren inguruko sinadura bilketa. Euskaltzaleek ondutako testuaren haritik idatzi ziren, *Diario de Navarra*-n, kontrako lehenbiziko artikulua. Laster gorpuztu zen tesia: «euskara kontuan urrunegi joan gara», «gauza gehiegitan eman dugu amore», «sobera utzi diegu». Kanpaina antolatua izan ez bazen, halaxe ematen zuen. Sanzek bere egin zuen mezua, eta Sanzekin batera UPN guztiak. PSNk sostengu eman zion.

Euskaltzaleoi ahanzia zitzaigun guk botila erdi hutsik ikusten genuen tokian bertze batzuk erdi betea ikusten hasiak zirela. Hauek, gainera, gu baino gehiago ez dakit, baina bai bederen gu baino indartsuago izaki politikoki. Ez zuten legea aldatu behar izan. Aski izan zuten haren interpretazio zekenena bulkatzea. Eta horrekin, euskara isolatu, mugatu, bazterreratu, geografikoki nahiz sozialki, hazteko aukera guztiak moztu.

Handik hona, sendotutzat jotzen genituen lorpenak erortzen ikusi ditugu, 14 urte hauetan, bata bertzearen ondotik. Hizkuntza Politikorako Zuzendaritza Nagusia desegin zuten. Euskadirekiko harremanak eten. Kontzientiazio kanpainak baztertu. Seinaleak eta txartelak erdaldundu. Administrazio lanpostuetan euskararen balorazioa hutsaren hurrengo

bilakatu. Kulturarako, euskalduntze-alfabetatzerako edo hedabideetarako diru-laguntzak deuseztatu. D ereduaren kontra ingeles ereduak asmatu.

Lehenagotik heldu zen gure hizkuntza eta haren hiztunak kriminalizatzeko ahalegina. Handik goiti ezagutu ditugu saiorik zitalenak euskara ETArekin nahasteko. Dena erratera, parekatze hori berariaz eragin nahi balute bezala jokatu dute, maiz, erakunde armatuaren aldeko talde eta alderdiek.

Hori guztia aski ez, bere suntsitze lanean, ustekabeko lagunak agertu izan zaizkio UPNri. Globalizazioaren testuinguruan, nekeza gertatzen da ez estatistik ez lanposturik segurtatzen ez dizun hizkuntza lehenestea, lan merkaturako hobeki kokatzen zaituen bertze bat(zu)en aldean. Bertzalde, krisi ekonomikoa estakuru, dirua kentzen ari dira, modu basatian, osasunetik eta gizarte-zerbitzuetatik. Giro horretan, ez da politikoki hain zuzena euskararendako baliabide gehiago eskatzea. Guztiak, gainera, makaltze egoera batean harrapatu du euskararen aldeko mugimendua, belaunaldi berrien segida segurtatu gabe eta diskurtsoa berritzeko zailtasunekin.

Hil ala biziko apustua

Dena alde zuten, eta hala ere ez dituzte beren helburuak bete-betean bete. Nolatan ez? Noski, euskararen aldeko atxikimendua haiek uste baino sustraituagoa dago nafar gizartearen sektore handi batean. Noski, euskararenganako gorrotoa ez dago haiek nahi bezain hedatua nafar gizartean. Hondamenak, nolanahi den, begi bistakoak dira, alderdi guzti-guztietan. Atzerakada ez da alimalekoa izan, baina bai nabarmena. UPNk setio egoeran dauka euskara eta euskal kultura. Sektore batzuk mugan daude, hatsari ezin lotuz.

Bizkitartean, arruntik lurrundu da 80ko eta 90eko hamarkadetan hainbertze euskaltzale nafarrek espero zuten «hori» (bakoitzak para dezala...) etortzeko itxaropena.

Euskaltzaleen bulkada ez da urruti ibili 2004az geroztik UPN gobernutik kentzeko xedez Nafarroako bizi politikari inarrosaldi bat emateko gauzatu diren ekimenetatik. Konbentzimendu batek bizi ditu haietariko aunitz: Nafarroan, euskararen garapena –beharbada ezta biziraupena ere– bateraezina

da UPNk agintean segitzearekin. UPN Nafarroako Jauregitik bidaltzea hil ala biziko apustua da euskaltzaleendako. Edozein eszenategi –edozein– hobe dugu UPN gobernuan betikotzea baino.

Gauza jakina denez, bertzelako gobernu bat eratzeke saioek porrot egin dute orain arte. UPN alderdi indartsua da. PPren laguntzaz nahiz hura gabe, Nafarroako hautesleriaren zati bat bere egin nahirik lehiatzen diren gaineko talde guztien oso aurretik agertu izan da beti azken mende laurdenean. Gauzak beren horretan dauden bitartean, bertze indar politikoen elkar hartzeak baizik ezin dio gaina hartu. Abertzaleena eta ez abertzaleena. Ezkerrekoena eta ez (hain) ezkerrekoena. Bi-hiru aldiz iduri izan du helburua lortuko zela. Guztietan, PSNk egin du huts azken beltzean, batzuetan berak erabakita, bertzeetan PSOEek Madrildik behartuta.

Zer aldatu da 2014 honetan? Lehen-lehenik, UPNren –eta PPren– ahultzea, krisi ekonomikoari buru emateko moduagatik eta ustelkeria kasuenagatik. Horren ondotik, PSNren gainbehera, bertzeak bertze, UPNri azken urte guztietan eman dion sostenguagatik. Inkestek eta azken hauteskundee-tako emaitzek diote posible dela –posible, ez segurua– Nafarroan bertzelako gobernu bat eraikitzea.

Egokiera honetan, barrenak ametsak gauzatzeko eskatuko digu. Buruak, berriz, zuhur jokatzeke eta zangoak lur gainean atxikitzeke.

Bi printzipio

Euskarak zer leku izan behar luke gobernu berrian? Bi printzipio edo arau iruditzen zaizkit ezinbertzeke. Lehenbizikoa, euskarak ez luke traba izan behar gobernua osatzeko. Bigarrena, euskarak ez luke arma izan behar gobernua higatzeko.

Banan-banan aztertuko ditugu.

1. Euskarak ez luke traba izan behar gobernua osatzeko.

Errana da: alderdi bi edo gehiagoren koalizioak baizik ez du biltzen ahal behar bezainbat indar UPN ordezteko. Koalizioetan, ohikoena izaten da guztiek bazter utzi behar izatea puska handi bat beren programetarik,

minimoetako programa bateratu eta adostua osatu ahal izateko. Euskararen inguruan ikusmolde epel eta beroagoak dituen jendeen bilgune izanen da, izatekotan, gobernu hori. Halako ataka batean, inozokeria litzateke beroenen ikuspegia gailentzen ahal dela pentsatzea. Euskararen kontrako politikak zeharka baizik ez du UPNren eraispena ekarriko. Bertzelako faktoreek –denen diruaren erabilera bidegabea, krisiaren kudeaketa negargarria– hagitzez eragin zuzenagoa izanen dute euskararenak baino. Normaltzat hartu behar dugu krisi ekonomikoak zigortu dituen sektoreen aldeko politikak gaina hartzea, puskaz, gure mintzairaren aldekoari. Bertzela erranda: euskaltzaleok ezin izanen dugu gure maximoen programa eraman gobernu horretara. Ez litzateke ona izanen, gainera, bigarren printzipio edo araua konplutuko bada

2. Euskarak ez luke arma izan behar gobernua higatzeko.

2011n, Jaurilaritzaren inkesta soziolinguistikoak zioen nafarren %35 euskararen aurka daudela, bertze %37, berriz, alde eta %28 ez alde ez kontra. Datuok urruti daude Euskadiko Erkidego Autonomokoetatik. Han aldekoak %60 baino gehiago dira, eta kontrakoek, aldiz, doi-doi egiten dute %10etik goiti. Bertze datu bat, berriagoa: 2014 honetan Nafarroako haurretan D ereduan matrikulatu direnak ez dira %30era ailegatu. Halakoxea da 2015ean gobernu berriaren aldeko hautua egin lezakeen Nafarroa. Soziologia hori aldatzea izan behar luke gobernu berriak egin-kizun, baina ez du halakorik erdietsiko soziologia hori bera kontuan hartzen ez duenak. Balizko gobernu berria bere hilobia zulatzen ibiliko litzateke nafar gizartearen zati handi batek erasotzat har litzakeen neurriak hartuz gero. Eta orobat bere kohesioa ahulduz gero, gauza jakina delarik kohesioa izaten dela koalizio gobernuen arazo nagusietarik. Euskarak hats luzeko gobernua behar du, iraunen duena, ez lau urteko legeintzaldiaren ondotik UPNren itzulera triumfala posible eginen duena.

Legea nork aplikatzen duen

Hori guztia zertan mamitzen da? Nire iritziz, 2000 urteko egoerara itzultzen ere lanak izanen ditu gobernu berriak, ez nahi izanen ez duelako, hain-

bat urtetan aurrekontuek bertzelako lehentasunak markatuko dituztelako baizik. Gauzak hala izanik, gizartearentzat iresgarrienak direnei lehentasuna ematea litzateke zuhurrena. Ez da asmatzen ibili beharrik. UPNren politikak gupidagabeen zigortu dituen sektoreei berea ematen hasteak ez luke zertan saltzen zaila izanik arras euskaltzale ez diren sektoreetan ere. Hedabideei, haur eskolei, IKArri eta AEKri, euskara teknikarien sareari, kultur alorrari eta abarri kendu zaiena itzultzen ez da lana eskas izanen. Hori guztia bideratzeko, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia berpiztea lehen neurrietarik izan behar luke gobernu berriak. Euskararen herriko bertze administrazioekiko elkarlanari berriz ere lotzea, horra erakunde horren bertze eginkizunetarikoa bat. Horrekin batera, foru administrazio elebidun bateranzko lehen urratsak abiatzea. Lanpostu publikoen arloan bada zer berreskuratua 2000. urteko *kontraerreforma*n Sanzen gobernuak indargabetu zituen araudietan.

Oraino ez gara legeaz mintzatu. Legea bezain inportantea da hura nork aplikatzen duen. Nafarroako azken 30 urteetako historiak garbi erakutsi digu: testu berarekin –edo bertsuarekin– arras politika desberdinak bultzatu dituzte hemengo erakundeek, agintarien eta koiuntura politikoaren arabera. Ez dugu, nolana ere, legearen garrantzia ukatuko. Agerian da oraingo testuak ez digula balio. Lege berria behar dugu, bertzelakoa. Zenbateraino bertzelakoa, ordea?

Arestian aipatu ditudan bi printzipioek balio behar lukete lege berrirako. Batez ere bigarrenak. Legeak ez luke izan behar gobernuaren kohesioa zangotrabatzeko tresna, ezta hura higitzeko arma ere. Legeak euskararendako bertzelako etorkizun bat marrazten lagundu behar luke, garbi izanik hori ez dela egunetik arrats etorriko. Iraunen duen –eta modu positiboan aplikatzen segituko den– testuak baizik ez lezake halakorik ahalbidetu.

Euskaltzaleen katiximan hagitz txertatua dago euskarak Nafarroa osoan izan behar duela hizkuntza ofiziala. Herrialde honetako sektore aunitzetan ideia horrek sortzen duen ezinegona kontuan hartuta, gutienez ere eztabaidatzekoa da horren egokitasuna. Goizuetako medikua euskalduna izatea eta Iruñeko pediatria zerbitzuan espezialista euskaldunak egote(n haste)a posible ginen duen legea –eta administrazioa– interesatzen zaigu. Fiteron

sendagilea euskalduna izatea ederra litzateke, baina hutsala, batik bat horren kontura jendearen ezinikusiari haize ematen bazaio. Erdibideak posible dira. Egungo euskal eremua eremu mistora zabaltzea, eta egungo erdal eremua misto bilakatzea ez litzateke aurrerapauso makala. Hori, euskarazko irakaskuntza herrialde osoan ofizialduta, jakina. Hori, bederen, zor zaiagu, 20 urte geroago.

Euskara Nafarroatik

XVIII. Jagon jardunaldiaren ondorioak

OSA, Erramun
Sustapen batzordeko idazkaria

Euskaltzaindiaren Jagon saileko Sustapen batzordeak, azken urteetako il-
doari segida emanez, XVIII. Jagon jardunaldia antolatu du Iruñeko Kondesta-
blearen Jauregian, 2013ko azaroaren 15ean. Jardunaldiotan Nafarroan euska-
raren zabalkundean, bai eta sentiberatzean ere ari diren elkarte eta
erakundeetako ordezkariak parte hartu dute. Era berean, euskararen eremuan
ari diren hainbat lagunek ere jardunaldiko saio desberdinetan parte hartu dute.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Jose Iribas Nafarroako Gobernu-
ko Hezkuntza kontseilariak eta Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak hasiera
eman diote jardunaldiari. Lehenbizikoak, Euskaltzaindia sortuz geroztik,
Iker eta Jagon sailak barruratu dituela aipatu du, gutxiengo batek darabilen
hizkuntza gutxiagotu baten kasuan, bi eremuok besarkatzeak daukan ga-
rrantzia azpimarratuz. Euskaltzaindiaren kezka eta izateko arrazoi nagusia
euskara normalizatzea dela azpimarratu du, corpusaren (arauak emanez eta
hizkuntza bera eguneroko erabilerarako eguneratuz) nola baita estatusaren
(euskara nonahi baliatu ahal izateko, ofizialtasuna eta erabilera-eremuak
aldarrikatuz) ikuspegitik.

Jose Iribas Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza kontseilariak, aldiz, Nafa-
rroako Gobernuak euskararekiko duen jarrera, bai eta eginiko ibilbidea ere
deskribatu ditu. Halaber, Euskaltzaindiak eginiko gonbita eskertu eta Aka-
demiaren lana ere azpimarratu du.

Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak Sustapen batzordeak azkenaldi ho-
netan eginiko jardunaldiak aipatu ditu, besteak beste, 2011. urtean Gas-

teizen, Araban euskarak izan duen bilakaerari buruzkoa (*Arabatik Arabara euskaraz*) eta, 2012. urtean, Baionan, Ipar Euskal Herrian euskararen bilakaera aztergai (*Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian*) izan zutenak. Halaber, gaurko jardunaldiaren aurkezpena ere egin du.

Ondoren, Jon Aizpurua Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako Ikerketa zerbitzuburuak eta, aldi berean, Sustapen batzordekide ere badenak eta Julen Calvo Nafarroako Euskarabideko Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako zerbitzuburuak, *Hurbilpen soziolinguistikoa: euskaldunen ezaugarriak eta jarreraren bilakaera, 1991-2011* izenburua izan duen hitzaldia eman dute.

16 urtez gorako biztanleria aztertuz, egin diren azterketa soziolinguistikoetan ikus daitekeenez, eremuen eta hizkuntza gaitasunaren arabera, euskaldunen ezaugarrietan eta jarretan desberdintasunak ikusten dira. Nolanahi ere, 1991-2011 aldian, hots, orain arte egin diren inkesta soziolinguistikoetako bilakaera aztertuz gero, euskara sustatzeari buruzko jarrerak bilakaera baikorra izan du Nafarroan. Bilakaera hau adin-tarte guztietan gertatu da, adinez aurreratuenak eta gazteenak izanik aldeko bilakaerarik indartsuena erakutsi dutenak.

Era berean, bi-biek Nafarroako elebidunen argazkia egin dute, adinean zaharragoak izan ahala lehen hizkuntza euskara dutela, eremu euskaldunetan bizi direla eta, aldiz, gazteagoak izan ahala, euskara bigarren hizkuntza dutela, eremu erdaldunetan, herri eta hiriguneetan bizi direla azpimarratuz. Elebidunen ezaugarriek eragina dute, bai eta bizitokiak ere, euskararekiko duten gaitasun erlatiboan eta euskara erabiltzeko izan dezaketen egiazko aukeretan ere.

Iritziei dagokienez, elebidunen artean bi hizkuntza izateak ez du berariaz arazorik sortzen. Amaitzeko, euskararekiko duten interesean desberdintasunak daude eremuen eta hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Mintzaldiaren ondoren, hitza Paula Kasares euskaltzain urgazleak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak hartu du. Honek *Euskaraz hazi egungo Nafarroan* izenburua daraman hitzaldia eman du. Aurkeztutakoak, hain zuzen, Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkezturiko doktorego tesia du oinarritzat. P. Kasares, Irurita eta Iruñeko Amaiur ikastolako

haurrak oinarritzat harturik, euskararen belaunez belauneko jarraipena nola gauzatu den eta egun haurrak zein egoeratan bilakatzen diren euskaldun argitzen saiatu da. Horrexetarako, gaira nola hurreratu erabaki behar izan du. Izan ere, hizkuntza gertaera soziala den neurrian, ikuspegi soziologikotik, soziolinguistikotik edo antropologikotik aztertzea komeni da?

Era berean, jarraipena denboran zehar aztertzeke, alderdi teorikoak, epistemologikoak eta metodologikoak eraiki behar izan ditu. Gauzak horrela, Iruritan sasoi batean gertaturiko jarraipenaren etena nola berrosatu den eta euskarak atzera egitetik berreskuratzera nola igaro den aztertu ditu, besteak beste, gizabanako bakoitzaren harreman-sareetan izaniko bilakaera, era berritzaile batean, aztertuz. Iruñean, ordea, euskarazko sozializazioak izaniko hutsarteak aztertu du, bai eta egoerari buelta emateko, gurasoen jarrerak izan duen garrantzia nabarmendu ere.

Ondorioei dagokienez, hurbilketa teorikoan eginikoaren eta erabiliriko metodologiaren balioa berretsi dituela azpimarratu du. Halaber, bere esanetan, euskararen jarraipena ez da lineala, gorabeheratsua da eta askotariko faktoreek (kanpokoek eta barrukoek) eragiten dute horretan.

Juan Karlos Etxegoien *Xamar* Sustapen batzordeko aholkulariak *Euskara jendea dokumentala: dibulgazioaren beharra* izenburua izan duen mintzaldia eman du. Honetan, topikoak ezabatzeko asmoz, motibazioa eta dibulgazioa uztartzeko xedez, *Euskara jendea* dokumental-sortaren nondik norakoak aurkeztu ditu, jardunaldian zenbait adibide erakutsiz.

Xabier Erize soziolinguistak eta Sustapen batzordeko aholkulariak, beste hari-mutur bati heldu dio, enpresen eremuko kontzeptuak hizkuntzen sustapenari aplikatuz. Horiek horrela, honako galdera egin du: zergatik erosi beharko nuke/genuke euskara? Enpresen eremuan baliatzen diren kontzeptuak euskararen eremura eraman ditu, aurrera egin ahal izateko proposamenak ere egin ditu. Horrexetarako, enpresen eremuko kontzeptuak eta soziolinguistikaren arloan erabiltzen direnak uztartu beharraz eta soziolinguistikaren zenbait kontzeptu berreskuratu beharraz jardun du.

XVIII. Jagon jardunaldiaren arratsaldeko saioa *Aurrera begira, Nafarroan euskara indarberritzeko zein hizkuntza politika?* izenburua izan duen mahai-

inguruarekin hasi da. Aingeru Epaltza euskaltzain urgazleak eta Sustapen batzordeko kideak gidaturik, Nafarroan euskararen indarberritzea gertatzeko jarraitu beharreko hizkuntza-politikaz, bai eta egin beharreko aldaketez ere, jardun dute, hedabideetan, hezkuntzan edo euskararen sustapenean ari diren elkarte eta erakundeetako ordezkariak. Horiek horrela, araubide ego kiaren beharra, bitarteko juridikoak eta diru-laguntzak, aldeko borondatea, atxikimendua, ahulenaren aldeko hizkuntza politika eta abar izan dituzte aipagai.

Jagon jardunaldiarekin amaitzeko, hezkuntzan, merkataritzan, adminis trazioan, euskararen sustapenean, aisialdian eta abar garabidean dauden hainbat egitasmo aurkeztu dute eragile desberdinek jendaurrean, besteak beste, hurreratutakoei zenbait azalpen eta argibide emanez.

Agiriak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindia. Batzar agiriak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Osoko bilkura

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, Jagon
sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose, *B. Atxaga*,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel

Erramun Osa, idazkariordea, Joseba
Zabaleta, kudeatzailea eta Alfontso
Mujika, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Oñederra, Mi-
ren Lourdes, ahala Aurelia Arkotxari; Sa-
laberri, Patxi, ahala A. Iñigori; Torrealdei,
Joan Mari, ahala A. Sagarnari; Zabaleta,
Patxi, ahala A. Iñigori. M. Zalbide euskal-
tzainak hasierako gaietan esku hartu du,
gero, tarte batean atera behar izan duenez
gero, ahala A. Urrutiari eman dio.

Batzarra goizeko 09:30ean hasi da Do-
nostiako Diputazioaren Jauregian, ez-
kerreko zutabean ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko
euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondo-
ren batzarrari hasiera emateko.

1. Ageriko bilkurako (2012-09-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

E. Osak aurkeztu du, ez da oharrik jaso
eta, beraz, bilera-agiria ontzat eman da.

2. Ageriko bilkurako (2012-10-05) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

E. Osak aurkeztu du, eta oharrik jaso ez denez, ontzat eman da.

3. Osoko bilkurako (2012-12-14) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik jaso eta, idazkera eta puntuazio zuzenketa batzuk eginda, bilera-agiria ontzat eman da.

4. Exonomastika

4.1. Astronimia (II): sateliteen izenak onartu, hala erabakiko balitz. Hitzak J. L. Lizundiari eman dio euskaltzainburuak. J. Haritschelharren ohar bat heldu dela azaldu du, proposaturiko hitzak kasu batzuetan c-rekin eta beste batzuetan k-rekin zergatik transkribatu diren galdetuz. A. Mujikak erantzun dio txosten idatzi batekin. Hor, mitologia klasikoaren izendegiaren arabera jokatu dela argitu zaio, greko eta latin hitzetarako transkripzioa bera erabiliz, eta **k** grafia erabili dela **Ka-listo**, **Kupido** edo **Karon** hitzetan bezala. Ordea, beste izen batzuetan, hala nola **Caliban**, **Cordelia** edo **Cressida** modukoak, William Shakespeareren eta Alexander Poperen idazlanetako pertsonaien izenak hautatu dira, eta beraz, hor ez dago izen mitologikoen jatorririk, eta halaxe utzi dira. I. Sarasolak uste du bide zuzena erabili duela batzordeak.

A. Sagarnak, horren gainean, pertsonak deitzeko modutik helduriko izenek batzuetan kasuistika zaila agertzen dutela gogoratu du, eta lehen ere horrelako kasuak izan ditugula azpimarratu du.

Astronomiako hitz batzuk **v** ala **b**-az idazten diren jakiteko, P. Uribarrenek izen horiekin zerrenda bakarra aurkeztea proposatu du. A. Mujikak halaxe egingo dela esan du. J. L. Davantek ere zailegi deritzo kasu bakoitzaren azalpena eman beharri. J. Haritschelharrek bilera-agirian bere desadostasuna espresuki agertzea eskatu du, euskaraz hitz horiek guztiak **b** grafiaz nahiago lituzkeelako.

B. Atxagak ere iruzkina egin du: ekonomian diruaren balioaz flotazioa egoten den bezala, era berean, bere ustez, hizkuntzetan ere gorabeherak izaten baitira nazioarteko izen batzuen grafian.

Euskaltzainen oharrak eta iritziak jaso ondoren, Exonomastikako batzordeak «Astronimia (II): sateliteen izenak» txostenean aurkezturiko zerrendak ontzat hartu dira.

4.2. «Astronimia (III) izarren eta konstelazioen izenak» aurkeztea. Zerrenda honen aurkezpen laburra X. Kintanak egin du, eta ondoren hitza A. Mujikari pasatu dio. Beronek azalpen xehatua eman du historian zehar izarrei izena emateko tradizio ezberdinez: Greziakoaz, Indiakoaz, arabiarraz, etab. Gurean XVI. mendean hasi zen euskal tradizioa ere kontuan izan da: Leizarraga, Larramendi, Arana-Goiri, Ibiñagabeitia, Berazadi... eta latinezko izenak eta horien euskarazko ohiko itzulpenak gogorarazi ditu. J. L. Lizundiak A. Mujikak egindako lan bikaina goraipatu du, eskainiriko datu argigarri ugari eta zehatzengatik.

P. Goenagak proposamenetan forma bi ematen direla ohartarazi du, latinezkoa eta itzulia, eta beti hola jokatu behar den galdetu du. Hor idazkien maila jasoa edota dibulgaziokoa kontuan hartu beharko liratekeela azaldu dio A. Mujikak. Bestalde, latinezko izenak euskaraz nola irakurri beharko liratekeen galdetu du. I. Sarasolak uste du irakurtzeko eraz aukera eta tradizio ezberdinak daudela, eta oraingoz horiek libre utzi beharko liratekeela.

X. Videgainek izen horietako batzuk Atlasean ere badirela gogoan hartzea eskatu du, eta horietan inoiz kontraesan batzuk gerta daitezkeela biologiako eta astronomiako izen arrunt batzuen artean: *arrabio* eta *lupu* modukoekin, adibidez, batzuetan ‘salamandra’tzat eta beste batzuetan ‘eskorpioi’tzat hartzen direlako.

Aurkezturiko idatziari oharrak otsailaren 15rako bidaltzea eskatu da.

5. Euskaltzain urgazleen proposamena –batzordekideei dagokienez– aurkeztu

2012ko abenduaren 14ko Osoko Batzarrean jada finkaturikoari jarraituz, Euskaltzaindiko urgazle berriak izendatzea aztertu zuen Zuzendaritzak. Horrela, 2005etik Euskaltzaindian lankide eta batzordekide izandakoak aztertu eta, horietatik oraindik izendapenik gabe zeudenekin, zerrenda prestatu zuen, lagun horiek, beren batzordeburuekin mintzatu eta adostu ondoren, urgazle-hautagaitzat proposatzeko. Guztira 14 pertsona izan dira. E. Osa idazkariordeak azaldu duenez, hautagaiak, banan-banan, beren batzordeburuaren onespina izan dute. Bestetik, proposaturiko lagun guztiek ere hautagai izateko onespina emana dute. Euskaltzainei guztien curriculumak banatuko zaizkie. Orain aurkeztu den zerrenda otsaileko Osoko bilkuran onartzeko da. Zerrenda osoa irakurri da, bakoitzaren lotura Euskaltzaindiarekin noizdanikoa den azalduz.

J. L. Lizundiak eragozpen batzuk adierazi ditu, zerrenda horretan exonomastikako proposamena falta delako. Oraingo zerrendan agertu ez arren, hori ez dagoela ahanztirik erantzun dio A. Urrutiak, orain ekarri den zerrendaz gainera, aurreko bilkuran

jada garbi utzi zenez, irail-urrian, Zuzendaritzak beste zerrenda osagarri bat aurkeztuko duelako, horrelako proposamenak bertan sartzeko. Gainera, Exonomastika batzordekiderik ez dago egoera horretan, aholkulariak baino, eta, abenduaren hamalauko Osoko bilkurak erabaki zuen batzordekideak lehenestea deialdi honetan.

J. Haritschelharrek hitza eskatu du, Isaak Atutxaz mintzatzeko. Ez daki zenbat denboraz egon den kide, baina urgazle-izendatzea merezi duela uste du. Berori ere bigarren txandarako utziko dela erantzun dio Euskaltzainburuak. A. Urrutiak azaldu duenez, aurreko Osoko bilkurak erabaki zuenaren arabera egin du Zuzendaritzak oraingo proposamena, alegia batzordekide izan eta batzorde lana epe jakin batetik aurrera egin dutenena. Bestalde, hautagaien zerrenda hau lankidetzaren denboraren arabera eratua eta adostua izan den aldetik, bera onartzeko bozketa multzo osoari egitea proposatu du euskaltzainburuak, banan-banan jardun gabe. Horrela onartu da eta, beraz, botazioa otsailaren 22an egingo da, Osoko bilkuran, zerrenda bakar batean eta Zuzendaritzako kide guztiek zerrenda bakar hori izenpetu dutela.

6. Euskaltzaindiaren Batzordeen, Lantaldeen, Egitasmoen eta Zerbitzuen 2013. urteko planak

Idazkariordeak azaldu duenez, aste honetan txertatu dira jasoriko azken plangintzak. Ondorioz, Zuzendaritzak ez du plana aztertzeo aukerarik izan. Horiek horrela, puntu hau datorren Osoko bilkurara, otsailaren 22kora, atzeratzea proposatu da. Halaxe egitea erabaki da.

7. 2013. urteko aurrekontuak, informazioa eman

Joseba Zabaleta Kudeatzaileak, ahoz, 2013ko aurrekontuei buruzko azkeneko berriak eman ditu. Azken informazioen arabera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Euskaltzaindiari 100.000 euro gehiago ematea erabaki dute, EAJ, Bildu eta PSE alderdiek adosturiko erdibideko zuzenketa baten bidez. Araban alderdien arteko elkarriketak ez dira amaitu, eta beraz, ikuskizun dago zer gertatuko den. Bizkaiak iazko kopurua mantenduko luke eta Nafarroak ere iazkoaren antzeko ekarpena egingo duela dirudi. Estatuak, aldiz, % 50 gutxiago bideratuko dizkio Euskaltzaindiari. Iparraldeaz den bezainbatean, ez dago informazio berririk. EAEko Aurrekontu Orokorrekin zer gertatuko den ez dakigu, murrizketak egon daitezke, prentsan zabaldurikoaren arabera. Nolanahi ere, hainbat zehaztapen falta direnez, itxaron egin beharko da.

Euskaltzainburuak 2012ko itxiera-egoeraz galdetuta, J. Zabaletak erantzun du ez dagoela defizitik eta ez duela uste datozen hiletan ere bankuko kontuetan mentsaizango denik, oraindik gelditzen den diruarekin martxora arte jarduteko finantzia-

zioa baitago. Ordutik aurrera, diru berririk ez baletor, kreditu-lerroak baliatu behar-ko lituzke Euskaltzaindiak.

8. Eskuarteakoak

8.1. Hilberri txostenak

Gaur 12:00etan hasita, Gipuzkoako Foru-Aldundiaren Jauregiko tronu-aretoan, iaz zendu ziren Euskaltzaindiko hiru kideen omenez, Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi' eta Josu Arenaza Lekerikabeaskoa euskaltzain urgazleen eta Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostenak irakurriko direla gogorarazi zaie euskaltzainei. Ekitaldia nolako protokoloaz egingen den ere azaldu du idazkariordeak.

8.2. Gaur euskaltzainek jasoko dituzten liburuak

Aiora Jaka Irizarren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrioina*ndiaren lanetan (Iker, 28). Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren emaitza da. Liburu hau urtarrilaren 17an aurkeztu zen Bilbon, Unibertsitatearen Abandoibarrako eraikinean. Ekitaldi berean, III. Koldo Mitxelena sariak banatu ziren.

Txomin Peillenen *Jon Mirande, olerkaria* (Euskaltzainak bilduma). Liburu hau Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz argitaratu da. Obra hau Maulen aurkeztu zen urtarrilaren 19an, udal-etxean.

8.3. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren, Blanca Urgellen, urriaren 19ko Agindua dela eta, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaz azken berriak

Eusko Jaurlaritzako aurreko Kultura sailburuak 2012ko EAEko Aurrekontu Orokorren Legean jasoriko eta Euskaltzaindiari bideratu beharreko 190.000 euro atxiki zituela-eta, Euskaltzaindiak aurkezturiko errekurtsoa edo helegitea Blanca Urgell Kultura sailburuak ezetsi egin zuen. Horiek horrela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu zuen Zuzendaritzak 2012ko azaroaren 7an, Oiartzunen eginiko bilkuran. Ondorioz, euskaltzainei jakinarazten zaie EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak Euskaltzaindiak aurkezturiko errekurtsoa tramitera onartu duela 2013 urtarrilaren 23an. Hor zerbait erabaki bezain laster, euskaltzainei jakinaraziko zaie.

8.4. Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren arteko bileraren berri

Eusko Ikaskuntzako Zuzendaritza izendatu berriak gure Akademiarekin elkarren arteko harreman aspaldian motelduak berriz indartu nahi lituzkeela adierazita,

2013ko urtarrilaren 10ean Euskaltzaindira bisita egin eta euskaltzainburuarekin, idazkariarekin, idazkariordearekin eta kudeatzailearekin bilera bat egin zen. Iñaki Dorronsoro presidenteak, Rosa Miren Pagola buruordeak eta Arrate Arín zuzendariak parte hartu zuten, Eusko Ikaskuntzaren izen eta ordezkaritzan. Bileran, beren proiektuak azaldu eta Euskaltzaindiarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko gogoia adierazi zuten. Bilera horretan, erakunde bien artean inoiz izandako arazoak hizpide izan zituen A. Urrutiak, batez ere, Euskaltzaindiak, oinarritz bere-berea duen arloan, hots, hizkuntzarenean, besteek deus esan gabe, izandako parte hartzeagatik. Euskaltzainburuak, gainera, argiro adierazi zien, oinarritz, begi onez dakusala Euskaltzaindiak beste kultura erakundeekin batera jardutea, baina, nori bere esparru propioa hertsiki errespetatzeko baldintzapean. Ez zen inolako erabakirik hartu eta, Osoko bilkuran gaia azaldu eta eztabaidatu ondoren, berriz ere beste bilera bat egitea pentsatu zen, xede konkretuagoetara iristeko.

B. Atxagak hitza eskatu eta berak Eusko Ikaskuntzarekin izandako harreman eta esperientzia txarrak azaldu ditu, erakunde horren antolamendu desagoki eta trake-tsagatik.

Ondoren J. L. Lizundiak hitz egin du. Bere ustez bidezkoa da Euskaltzaindiak Eusko Ikaskuntzaren Zuzendaritza berriarekin harremanak leundu eta normaldu nahi izatea, baina aurretik ongi gogoratu behar da bai Mitxelenaekin eta bai Villasanterekin ere oso harreman txarrak izan zituztela erakunde horretakoek. Argi gelditu behar zen Literatura batzordea Euskaltzaindiarena zela. Tx. Peillenek ere esperientzia txarra ukan zuela adierazi zuen, berak heriotzaren inguruko errituei buruz lan bat euskaraz bidali eta, aurretik ezer erran gabe, erdaraz publikatu zioten eta.

A. Arejitaren ustez oso urrun dago gaurko Eusko Ikaskuntza gerra aurreko erakunde hartatik. Halere, gauzak hobetuz gero, interesgarri litzateke elkarren arteko harremanak berriz izatea. J. Haritschelharrek esan du Abadiaren inguruan ere antzeko problemak izan zituztela Hendaian. Bere ustez Euskal arloa Euskaltzaindiarentzat utzi eta Euskal Herriko erdal (frantses-espainol) literaturak aztertzea nahi dute. Dena den, Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako kideekin ongi konpontzen dela aitortu du.

Beste zenbait euskaltzainen iritziak ere entzun ondoren, guztiak bat etorri dira, badela guztientzako lekua, eta garai bateko tirabirak alde batera utzita, komenigarria dela bi entitateen arteko lankidetzaren sustatzea, betiere, Euskaltzaindiari euskararen arautzea eta euskarazko literaturaren ikerketa errespetatuz gero. Oinarri horren gainetik, ikerketa arlo batzuetan, hizkuntza, soziolinguistika edo literaturan,

adibidez, badukete elkarlanerako eremu zabala erakunde bien artean lantzeko. Baldintza horiek gordez gero, eta nori berea aitortu ondoren, ez legoke gaizki aldizka elkarrekin lanean jardutea.

Areago, Euskaltzainburuak galdetu du ea oinarri horiek aintzat hartuta eta bakoitzaren egitura eta eginkizunak gordez, ondo ikusten den Zuzendaritzak Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanerako lankidetza-hitzarmena gauzatzeko urratsak ematea. Ontzat eman da eta hala egingo da.

8.5. Euskaltzaindiko Zuzendaritza Eusko Legebiltzarrean. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 22an, Eusko Legebiltzarrean egindako bilkuraren berri eman du Euskaltzainburuak. Era berean, Bakartxo Tejeria andreak, Eusko Legebiltzarreko presidente izendatu berriak, eginiko harrera ona eta berarekin izandako elkarriketa nola joan zen azaldu du. Ekonomian pairatzen den krisi larria gorabehera, Eusko Legebiltzarra Euskaltzaindiari laguntza ematen aha-legenduko dela adierazi zuen, erakunde bien arteko harreman onak aurrerantzean ere bultzatzeko asmoa agertuz. Euskaltzainburuak harrera eta orain arteko laguntza eskertu zizkion eta orain arteko lankidetza-bidean jarraitzeko borondatea adierazi ere bai.

9. Euskaltzaindiak Joseba Lakarrari doluminak eta beronen eskerrak

Joseba Lakarra euskaltzainaren amaren heriotza dela eta, euskaltzainburuak Akademia osoaren izenean doluminak adierazi dizkio. Arratzuko euskaltzainak, halaber, eskerrak eman dizkio Akademiari bere amaren hileta-egunean herriko elizan izandako partaidetasun eta erakutsiriko atsekabeagatik.

10. Azken ordukoak

Hurrengo bilkura. Hurrengo Osoko bilkura otsailaren 22an egingo da, goizeko 10:00etan, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 11:45 direnean. Bilkuraren ostean, Ageriko bilkura hasi da eguerdiko 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Hilberri txostenak

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak, aurreko urtean hil diren Karmele Esnal ohorezko euskaltzainaren, eta Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» eta Josu Arenaza euskaltzain urgazleen hilberri-txostenak irakurtzeko, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Lakarra, Emile Larre, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola.

Euskaltzain urgazleak: Joxe Austin Arrieta.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Jose Luis Alvarez Enparantza, Karmele Esnal eta Josu Arenazaren hainbat senide.

Mahaiburuan, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia ere izan da.

Euskera. 2013, 58, 1. 172-175. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ekitaldian zehar, musika izan dute lagun hurreratu direnek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek ere hartu dute parte omenaldian eta Bitoriano Gandiagak, Beñat Sarasolak eta Xabier Letek idatzitako poema musika-tuak interpretatu dituzte. Nemesio Etxanizen eta Maurice Ravelen kanta bana ere jo dute.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren guztiei ongi etorria eman die, bereziki gaurko ekitaldian gogoan hartuko diren euskaltzainen senideei. Ondoren, ekitaldiaren aribidea aurkeztu du. Gaurko Ageriko bilkuran, honako hilberri txosten hauek irakurri dira:

- Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia» (1929-2012) euskaltzain urgazlea. Jean-Louis Davant euskaltzain osoak eta Joxe Austin Arrieta euskaltzain urgazleak txosten bana irakurri dute.
- Karmele Esnal (1932-2012) ohorezko euskaltzaina. Miren Azkarate euskaltzain osoak irakurri du.
- Josu Arenaza (1930-2012) euskaltzain urgazlea. Xabier Kintana euskaltzain osoak irakurri du.

Jean Louis Davant-ek gogora ekarri du Txillardegia ez zutela inoiz euskaltzain oso izendatu, eta aitortu zuen hutsune larria izan zela «euskara batuaren aita euskaltzain osoen artean ez egotea». Izan ere, Zuberoako euskaltzainak meritu hori aitortzen dio, hurbiletik jarraitu baitzuen Txillardegia zenak batuaren alde egindako lana, Ipar Euskal Herrian abiatuta.

Euskaltzale talde batek landutako proposamenak 1964ko Baionako Biltzarrean taxutu zirelarik, «hor onartu ziren euskara batuari buruzko lehen neurriak: grafia eta deklinabidea bereziki, baita oinarritzko hiztegi labur bat ere. Aitzineko bilkuretan, aditza ere landua genuen, baina hori Baionako Biltzarrak ez zuen onartu, adostasun osorik ez baitzegoen biltzarkideen artean: Txillardegik batuko aditza gipuzkeran oinarritua zuen, baina lapurterak itzal handia bazuen oraino, euskal literaturaren historian ukan zuen toki handiari esker. Haatik berantago, Euskaltzaindia Txillardegiren ildotik joango zen aditzari dagokiola ere». Handik lau urtera Txillardegik Arantzazura igorritako txostena ia osorik onartu zela nabarmendu zuen.

Hortaz, J. L. Davanten aburuz, «Txillardegiren obra nagusia, euskara batuaren sorrerakoa da», hain zuzen ere, bere nortasunarekin bat datorrena. Aitzindaria izan baitzen bizitzan hainbat arlotan: «Frankismo denborako abertzale berria, sozialista librea, Iparraldekoen lagun goiztiarra, idazle polifazetikoa, bide berrien urratzailea».

Ondoren, omenduaren testu batzuk aukeratu eta aurkeztu ditu Joxe Austin Arrietak bere mintzaldian, hilberri txostena paratzean, haietan argi asko islatzen baita profeta, filosofo zein olerkari lanetan darion estiloa: «Idazle grinatsurik inor izatekotan, Jose Luis dela horretan txapeldun. Bere estiloaren ezaugarriak behar-bada nabariena horixe du: dena ematen duela denean». Baita politika-eragile bezala ere.

J. A. Arrietak esan duenez, «osorik euskarari emana» bizi izan zela eta oraindik ere bizirik dirauela Txillardegi, utzi duen lan emankorrari esker. Horixe da, hain zuzen ere, gerora geratuko den ekarpena. Eta horregatik, Euskaltzaindia eta Txillardegi lotzen dituen «tirabira mingarrien zauria behar bezala sendatu eta ixteko» garaia delako ustea du, eta bide batez hari zor zaion guztia nolabait ordaintzeko. Horretarako, proposamen zehatza bota zuen: «Euskaltzaindiari, Unibertsitateari, Jaurlaritzari, Aldundiari, Udalarari eta legokiekeen instantzia guztiei helarazi: «Txillardegi Katedra» edo «Txillardegi Ikerkuntza Gunea» edo, sinpleki, «Txillardegi Enea» deituko litzatekeen proiektu bat diseinatzea,...». Hori euskaltzain oso izan ez zen «Euskara-Zain Osoa» gogoan izateko.

Segidan, Miren Azkarate euskaltzainak Karmele Esnalen hilberri txostena irakurri du. Bere iritziz, 1955etik 1997. urtera arte, 42 urteko ibilbide luzean andereñoen lana inork gutxi bezala hezurramitu zuen emakumea da Karmele Esnal. «Andereño», hala zen Esnal, Andereño Karmele. Bere kemenak, bere ametsak eta bere lana gogora ekarri ditu M. Azkaratek: «Datu hotzen atzean bizitza emankorra dago, egitasmo bati eskainitako bizitza, irakaskuntzan 42 urte jardutea baino askoz harago doan bizitza».

Esnalek, eta bere lankideek irakasletzan egindako lana aski ezaguna da gaur egun, eta euskal gizartean badu aitortza, baina hasierak ez ziren errazak izan. Zailtasunak zailtasun baina, frankismo garaian lan egin zuten andereño guztien irakaskuntzaren kalitatea aldarrikatu du M. Azkaratek, baita gudan utzitako ondarearen balioa ere. «Gerora –esan du– jakin dugu nolako ondarea pasatu diguten ere: abesti eta olerkietan gerraurrekoen ahalegina, Euskaltzaleak mugimenduaren ondarea zegoen, eta Iparraldeak. Euskal Herria, iragana eta oraina».

Xabier Kintanak Josu Arenazari eskainitako soaldian, haren bizitzaren joan-etorrien kontu emateaz batera, bere izaeraren ezaugarriak eta egindako hainbat kultura- eta gizarte-lan azpimarratu ditu, egokitu zitzaion askatasunik gabeko garaian erakutsi zuen inplikazioaren lekuko. Borroka sindikalean izan zuen protagonismoa –ELA sindikatua sortzen lagundu zuen– eta euskarari egin zion ekarpena ere gogora ekarri ditu.

X. Kintanaren arabera, Arenazak bizkaieraren defentsa sutsua egin zuen. Era berean, hizkuntzaren garbitasunaren alde lanean ekin zuen atsedetik gabe –«euskal tradizioko berba jatorragoak aldarrikatzen zituen eta, euskarak bere erroetatik hitz berriak sortzeko daukan eskubidea ere»– eta hastapenetako euskara batuaren erai-kuntzari egin zizkion kritikak garapen prozesua hobetzen lagundu zuten. Izan ere, «Behartu egin gintuzten batasunaren aldekoak gauzak sakonago aztertzer», X. Kintanaren arabera. Hain zuzen ere, gaur egun ezagutzen dugun euskara «gauza-tzen eta aberasten lagundu zuten eragileetako bat izan zen».

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak, aurreko urtean hil diren euskal-tzainak gogoan hartu ditu, eta, bakoitzak bere arloan edota euskararen mesedetan egindako ekarpenak zein merezimenduak nabarmendu ditu. Ondoren A. Urrutiak hitza hartu du eta gure aurrekoek, joan direnek, bakoitzak bere arloan, eginiko ekarria gogoan hartu du, bai eta euskarak une zail zein errazagoetan izaniko aurre-rabideak halakoei zor diela azpimarratu ere.

Bukatzeko, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikarien kanta batekin amaiera eman zaio ekitaldiari, 13:40ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko otsailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi
Haritschelhar, Jean,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, Joseba
Zabaleta, kudeatzailea, Alfontso Mujika,
euskaltzain urgazlea, Jon Artza Euskaltzaindiko
Argitalpen zerbitziburua eta Aritz Abaroa, Ahozko Tradizioko

Hizkeren Corpora egitasmoaren teknikaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Irazu, Jose «B. Atxaga», ahala A. Urrutiari; Zabaleta, Patxi, ahala A. Iñigori; Zalbide, Mikel, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Agurra eta hasierako oharra: Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, etorritakoen zerrenda irakurri eta jasoriko ahalak adierazi ditu. Ondoren, batzarraren erdian, 11:30ean, etena izango dela oroitarazi du, Akademiaren Egoitzaren beheko solairuko aretoan Agurtzane Azpeitiaren *Koldo Mitxelena*ren *zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (IKER, 29) liburuaren aurkezpena egiteko, Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzan argitaratua.

1. Osoko bilkurako (2013-01-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. Helduriko oharrak seinalatu ditu E. Osa idazkariordeak. Horiek eta beste zuzenketa puntual batzuk zuzendu ondoren, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Exonomastika

2.1. Astronomia (III): izarren eta konstelazioen izenak onartu, hala erabakiko balitz

Exonomastika batzordearen buru den J. L. Lizundiak hitza A. Mujikari eman dio. Azalpen idatziak euskaltzainen artean banatu ondoren, jasoriko oharrei erantzun die A. Mujikak. J. Haritschelharrek latinezko formen alde egin du, eta *Arcturus* eta *Sirius* gelditu dira. P. Goenaga eta X. Videgainen oharrak ere kontuan hartu dira, eta, latinezko jatorrizko grafiaz idatziriko berbetan, lehendik onarturiko irizpide bera erabili dela gogorarazi da. Horrelako hitzetan, Euskaltzaindian jada euskal ahoskera zaindurako erabakia gogoratzeko oharra sartuko da. Edonola ere, latin alfabetorako transkripzioaren taula Gidor

Bilbaori pasatuko zaio, berorrek berrikus dezan.

2.2. Astronomia (IV): asteroideen eta nebulosen izenak aurkeztu

J. L. Lizundiak hitza berriz ere A. Mujikari pasatu dio. Beronek azaldu du asteroide eta nebulosa handienen izenak besterik ez direla aurkezten, hots, nagusiak. Izenak itzultzerakoan, Exonomastika batzordea, Euskaltzaindiak jada onartua daukan mitologia klasikoaz baliatu dela gogorarazi du, bai eta beste hizkuntza nagusietako irizpideez ere, batez ere izen batzuk euskarara itzultzerakoan.

J. L. Lizundiak oharrak martxoaren 15erako bidali behar direla gogorarazi du. Ondoren, Exonomastikan daukan buru-kargua uzten duela adierazi du.

3. Euskera agerkaria hobetzeko inkesta aurkeztu

Euskaltzainburuak, aurkezpenean, Euskaltzaindiak *Euskera* agerkariarekin azken urteetan egin den ibilbidea gogora ekarri du. Inguruabar horretan, agerkaria hobetzen jarraitzeko, galdetegi bat prestatu da. Gaur inkesta horren emaitzen berri eman eta zer-nolako aldaketak egin daitezkeen azalduko dira. Horretarako, hitza Jon Artzari, Argitalpen zerbitzuburuari eman dio.

J. Artzak, bilduak agurtu ondoan, inkestan jasoriko erantzunak azaldu ditu. Oro har, erantzun gutxi jaso direla esan du, 21 guztira. Inkesta betetzeko epea otsailaren 28an bukatzen dela gogorarazi du eta erantzun gehiagoren beharraz mintzatu da. Esan duenez, hau ez da azterketa zientifiko bat, baliabide informatikoa erabiliz, egin

den hurbilketa bat baizik. Horrela, jasotako iritziak joera batzuk adierazten dituztela argudiatu du. Galderak, edukiei, euskarriei, prezioei eta bilatzaileari buruzkoak izan dira. Behin betiko emaitzak *Euskera* agerkariaren idazketa batzordean aurkeztuko badira ere, J. Artzak behin-behineko emaitza batzuk grafikoen bidez erakutsi ditu pantailan.

E. Osak hitza eskatu du eta ondorioei buruz mintzatu da. Erantzun dutenen iritziz aldizkarian kendu behar diren atalen artean hitzarmenen testuak aipatu izan dira, eta azken aldian horiek laburtzeko ahalegina ere egin da, hitzarmenekin zer lortu nahi den kontuan izanda. Antzeko beste aldizkari batzuk ere aztertu beharko liratekeela gaineratu du, hortik ideiak atera eta Euskaltzaindikoa hobetzeko. A. Urrutiak azaldu duenez, *Euskera* euskarri informatikoan argitaratzeko ahalbidea ere aztertzen hasi da. Era berean, aurrerantzean paperezko edizioak pixkanaka urritzearen alde egin du euskaltzainburuak. M. L. Oñederrak ere argitalpen digitalen alde hitz egin du. Nolanahi ere, paperezko inprimaketa ere egin beharko litzatekeela uste du, hala nahi dutenen nahia bideratzeko.

4. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoak emanikoa aurkeztu

A. Arejita euskaltzainak aurkeztu ditu proiektu horren hasiera eta aurrerabidea. Aurkezpenean, 2008ko azaroan proiektu horretan teknikari gisa lanean hasi zen Aritz Abaroaren laguntza izan du. Ondoren, lan horretan erabiliriko metodologia ere azaldu du. Lana, hurbiltasunagatik, Bizkaian egin da batez ere. Material horiek transkribatu, ordenatu eta ustiatzeko bideak ere azaldu dira. A. Arejitak gogorarazi duenez, egitasmoa 2007ko apirilean aurkeztu zen Etxalarko Barne Jardunaldietan eta harrezkero beste zenbait lekutan ere erakutsi eta azaldu izan da. Azkenean, ekonomia krisia dela eta, egitasmoa geroratzea erabaki da, egoera hobetu arte behintzat. Egitasmoak emanikoaren transferentzia Azkue bibliotekara iraganarazi da, hots, dokumentuak, multimedia materialak eta Ahozko Ondare Bilduma, bertan artxibatu eta gordetzeko.

Era berean, egitasmoa burutzen izandako laguntzaileen zerrenda ere aipatu du. Hasieran xedetzat pentsaturiko helburuei dagokienez, horiek zein neurritan bete diren erakusteko, emaitzak honako hauek izan dira: 60 grabazio baino gehiago egin dira. Materialen kudeaketari dagokionez, 1400 pasarteraino etiketatu dira jada. Bestetik, 500 pasarte transkribatu dira. Era berean, soinuak artxiboa ere sortu da, eta 50 herritan bilduriko 1400 pasartez osaturiko artxibo sailkatua ere prestatu da. Horrela, material kontsultagarria sortzea lortu da: ahozko ondare bilduma sortu eta osatu da.

Ahozko ondare bildumari dagokionez, atarikoa, audioak eta testuak bildu dira, guztira 41 herritan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldea). Materialen mamiaren ideia emateko, Aramaioko pasarteen transkripzioa entzun ahal izan da. Halere, lanak oraingoz bere mugak ditu eta A. Arejitak materialetan egon litezkeen akatsak oraindik jorratzeko daudela esan du.

X. Videgainek zorianak eman dizkio A. Abaroari, egindako lan onagatik. P. Uribarrenek ere txalotu du lana eta ahaleginak egitea eskatu du, lan hori gorderik gera ez dadin, lehenbailehen argitaraturik baizik. Euskaltzainburuak berak ere bere poza erakutsi du A. Abaroak egindako lan bikainagatik, eta aurrerantzean ere Euskaltzaindiak berarekin lanean segitzeko asmoa dagoela aurreratu du.

Eginiko lanari buruz, P. Goenagak webgunean jarriko ote den galdetu du. A. Urrutiak baietz erantzun dio. Lan horretan grabaturikoak zenbat ordu biltzen duen galderari, A. Abaroak erantzun du 200 ordu baino gehiago jaso direla.

Osoko batzarraren etena. Batzarraren hasieran Euskaltzainburuak iragarri bezala, 11:20 direnean Osoko batzarra eten egin da. Ondoren, euskaltzainak Akademiaren egoitzaren beheko solairuko Aretora jaitsi dira, Agurtzane Azpeitiaren doktorego-tesia, hots, *Koldo Mitxelenaren zinema-eta liburu-kritiketako diskurtso estrategikoak: enuntziatu parentetikoak* (IKER 29) liburuaren aurkezpena egiteko, Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren emaitza dena. Aurkezpena egin eta gero, Osoko batzarrak lanean segitu du.

5. Euskaltzain urgazleak –batzordekideei dagokienez– izendatu

Aurreko batzarrean erabaki zen bezala, euskaltzain urgazle izateko hautagaien zerrenda lankidetzaren arabera eratua eta adostua izan den aldetik, bera onartzeko bozketa multzo osoa kontuan hartuz egingo da.

J. L. Lizundiak kontrako oharra egin du, arautegiaren arabera, hautagaiak banan-banan izendatu behar direla argudiatuz. Nolanahi ere, dagoen adostasun zabalak kontuan hartuz eta, bereziki, hautatze-denbora laburtzeko, hautagai guztiak batera hautatzea erabaki zen aurreko Osoko Batzarrean. Beraz, J. L. Lizundiak bestela baderitzo, eta halaxe agertzea nahi badu, idatziz egitea daukala erantzun dio A. Urrutiak. Ondorioz, euskaltzain urgazleak onartzeko bozketa, multzo osoa kontuan hartuta egin da.

Bozketara eraman den zerrenda, ondoko hau da:

1. Aldekoa, Iñaki
2. Alkorta, Kaxildo

3. Amundarain, Iñaki
4. Etxebarria, Nagore.
5. Fernandez, Beatriz
6. Garzia, Juan.
7. Gurrutxaga, Antton.
8. Juaristi, Patxi
9. Luzuriaga, Gerardo.
10. Martinez de Madina, Elena
11. Mugurutza, Felix
12. Ormazabal, Manu
13. Osa, Erramun
14. Retolaza, Iratxe

Bozketako emaitzak honakoak izan dira: emaniko botoak 23. Horietatik, 21 boto baieztakoak, ezeztako bat eta boto zuri bat egon da. Horiek horrela, aurkezturiko zerrenda onartu da eta hautagaiak euskaltzain urgazle izendatu dira.

6. XVIII. Barne Jardunaldiak, gidoia aurkeztu

Aurten Euskaltzaindiak bere XVIII. Barne Jardunaldiak egingo ditu Bilbon, egoitzan martxoaren 21 eta 22an. Zuzendaritzak jada bertarako programa eta materialak prestatzen dihardu. Hitza idazkariordeari eman dio euskaltzainburuak, horren antolaketa nongorakoak azal ditzan.

E. Osak Barne Jardunaldietarako ibilbidea gogoratu eta bertan aritzeko prozedura azaldu du xeheki. Horiek horrela, 2013-2016 aldian batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek izango dituzten jarraibideak martxoaren 8an aurkeztu beharko dira, beranduekin. Jarraibide guztiak aurkeztu ahal izango dira XVIII. Barne Jardunaldietan.

Era berean, aldirako batzordeetako eta lantaldeetako kideak ere izendatu behar direnez gero, proposamenak martxoaren hamabosterako eskatu dira. J. Lakarrak galdetu du ea batzorde berriak antola ote daitezkeen. Euskaltzainburuak azaldu dio oraingo kontua ez dela batzorde berriak sortzea, jada daudenak kide berriekin osatzea baizik.

J. L. Lizundiak arlo iraunkorreko Batzordeak zeintzuk diren argitzeko azalpenak eman ditu. Euskaltzainburuak eta idazkariak ere bestelako argibideak eskaini dituzte, batzorde suntsikor eta iraunkorrez.

Batzordeek gehienez eduki behar dituzten kideez J. Haritschelharrek galdera egin du. Hamabikoa da gehienezko kopurua, XVII. Barne Jardunaldietan erabakirikoaren arabera. A. Urrutiak gainerakoak aholkulari izenda daitezkeela adierazi du.

7. Euskaltzaindiaren batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2013. urteko planak aurkeztu

Pantailan proiektatu dira batzordeek, lantaldeek eta zerbitzuek bidaliriko plan-gintzak. Nolanahi ere, batzorde, lantalde eta zerbitzu batzuetako 2013. urteko planek aldaketak izan ditzakete, XVIII. Barne Jardunaldietan erabakitzen denaren arabera. Ondorioz, XVIII. Barne Jardunaldietako txostenekin batera aztertzea komeni da. Halaxe egitea hobetsi du Osoko bilkurak.

8. Eskuartekoak

8.1. Banatuko diren liburuak

Hona hemen gaur euskaltzainen artean banatuko direnak:

- Agurtzane Azpeitiaren *Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (Iker 29). Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren emaitza.
- *Ahozko Ondare Bilduma*. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoak emanikoa.

8.2. Hitzarmenak

8.2.1. Elizbarrutietako apezpikuekiko hitzarmena. Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutien eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetu da, 2013ko otsailaren 7an. Mario Izeta Bilboko apezpikuak, Jose Ignacio Munnilla Donostiako apezpikuak, Miguel Azurmendi Gasteizko apezpikuak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute hitzarmena.

Horren bitartez, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiek 1900. urtera arteko Bataio, Ezkontza eta Heriotza liburuen aurkibideetan oinarriturik, Elizbarruti hauek Euskaltzaindiari jabetzan emango diote, euskarri informatikoan, liburuotan ageri diren deiturak biltzen dituen zerrenda. Euskaltzaindiak, arautze lana bukatzean, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegiaren kopia emango die Elizbarrutiei jabetzan, beren ikerketarako eta difusio lanetarako hartaz balia daitezen.

Lan horrek bi epe ukanen ditu: lehenbizikoan hiru Elizbarrutiek 1700. urtera arteko deituren erlazioak emango dizkiote Akademiari, beranduenik 2013ko uztailaren 31rako, deiturak arautu ditzan. Euskaltzaindiak, berriz, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegi bana emango die Elizbarrutiei 2014ko abenduaren 31rako. Behin lan hori amaitzean, bi aldeek ongi iritziz gero, 1700etik 1900era arteko deituren erlazioak ematea bideratuko da.

8.2.1. Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko lankidetzaren hitzarmena. 2013ko martxoaren 6an izenpetuko da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

8.3. Aurkezpena

Martxoaren 6an, halaber, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean Hiztegi Batua (2. itzulia) aurkeztuko da hedabideen aurrean. Egun horretatik aurrera Euskaltzaindiaren webgunean egongo da erabilgarri.

8.4. EITBko administrazio-kontseilurako Euskaltzaindiaren proposamena

EITBren Administrazio Kontseilua hautatzea dela eta, 5/1982ko Legearen 7. artikularen 2. puntuari men eginez, Euskaltzaindiak EITBren Administrazio Kontseilurako hautagaia proposa dezan Eusko Legebiltzarraren idatzia jaso da. Hortaz, Arautegiak eta Barne-erregelak ezarritako prozedura eta arauak betez, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarrari Adolfo Arejita euskaltzaina eta Iker Sailburua proposatu dio EITBren Administrazio Kontseilurako. Hala onartuko balu, izendapen hori 2013ko otsailaren 28an egingo luke Eusko Legebiltzarrak.

Era berean, euskaltzainburuak J. L. Lizundiari eskerrak eman dizkio orain arte EITBn egindako lanagatik.

J. L. Lizundiak eskerrak eman ditu egin zaion esker-aipamenagatik. Bere garaian H. Knörrek bezala, berak ere EITBn egondako denboraren txostena aurkeztu nahiko lukeela adierazi du, bertan egon den artean egindako lorpenak azaltzeko.

8.5. Hurrengo bilkurak

Hona hemen:

- Martxoaren 21-22an Euskaltzaindiaren XVIII. Barne Jardunaldiak egingo dira Bilbon, egoitzan.
- Era berean, martxoaren 22an Osoko bilkura laburra egingo da Bilbon, berau ere egoitzan.

9. Azken ordukoak

9.1. Emile Larrereren istripuaz informazioa

Emile Larrek etxe aurreko mailetatik erori eta istripu aski larria ukan du. Ospitalean dago eta oraindik ez dago bisitak hartzeko moduan. Datozen asteetan ebakuntza egingo diote.

9.2. Elixabete Perez Gaztelu euskaltzain urgazlearen ama hil dela jakinarazi da
Batzarrak bere doluminak bidaltzea erabaki du.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 13:40 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko martxoaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Haritschelhar, Jean,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea, Zabaleta,
Joseba, kudeatzailea, Gurrutxaga, Ant-
ton eta Mujika, Alfontso, euskaltzain
urgazleak, zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Arejita,
Adolfo, ahala Patxi Uribarreni; Arko-
txa, Aurelia, ahala Sagrario Alemani;
Irazu, Jose «B. Atxaga», ahala Andres
Urrutiari; Oihartzabal, Beñat, ahala
Xarles Videgaini; Zalbide, Mikel, ahala
A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 12:00etan hasi da
Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ez-
kerreko zutabearen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

**1. Osoko bilkurako (2013-02-22)
bilera-agiria onartzea, hala erabakiko
balitz.** Ez da ohar idatzirik heldu, baina
J. L. Lizundiak bi ohar egin ditu ahoz;
batetik, 6. puntuan –XVIII. Barne Jar-
dunaldiak, gidoia aurkeztu–, «funtsez-
ko batzordeak» ordez, «arlo iraunkorre-
ko batzordeak» jartzeko; bestetik, 8.4
puntuan –EITBko Administrazio-kon-
tseilurako Euskaltzaindiaren proposa-
mena–, «oroitzapen-idazkia»ren ordez,
«txostena aurkeztu nahiko lukeela»
jartzeko eskatuz. Holaxe onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Astronimia (IV): asteroideen eta nebulosen izenak onartu, hala erabakiko balitz

X. Kintanak hitza Alfontso Mujikari eman eta beronek adierazi duenez, ez da oharririk heldu eta, beraz, proposamena ontzat eman da.

2.2. Astronimia (V): kometak, izar iheskorak eta galaxiak aurkeztu

Exonomastika batzordeak prestaturiko zerrenda berriak A. Mujikak aurkeztu ditu. Txosten idatzian termino horietako batzuk itzuli edota egokitze orduan kontuan izandako irizpideak ere azaldu dizkie euskaltzainei. Era berean, astronimia izenetako batzuetan letra grekoak erabiltzen direnez gero, *Greziar alfabetoko letren izenak arautzeko proposamena* ere aurkeztu du. Euskaltzain batzuek ahoz iruzkin batzuk egin dituzte *dz/z*, *kh*, *th* eta *y* letren izen eta ahoskerei buruz. A. Mujikak eginiko oharrak zein iruzkinak batzordeak aztertuko dituela esan du. Ondoren, aurkezturiko txostenei oharrak-eta egiteko epea apirilaren 15era artekoa dela erabaki da.

2.3. Planetetako jatorri-adjektiboak

Exonomastika batzordean aztertutik, beste zerrenda bat aurkeztu du A. Mujikak, planetei erreferentzia egiten dieten adjektiboena. Orain arte euskaraz arlo horretan izandako tradizioa eta inguruko hizkuntzena ere azaldu du. Hauekiko oharrak bidaltzeko epea apirilaren 15a finkatu da.

3. Zientzia eta Teknika Hiztegia

Antton Gurrutxagak aurkeztu ditu txostenak.

3.1. Izen Berezia + (en) izen(a) egiturako terminoak

Ondoren, aurkeztuko diren zerrenden aitzindaritzat, horietan, *izen berezia + (-en) izena(a)* egitura maiz agertzen denez gero, hasteko, A. Gurrutxagak 17 orrialdeko txosten bat aurkeztu eta azaldu du euskaltzainen aurrean, egitura berezi horretan, inguruko kultura-hizkuntzetan zer-nolako irtenbideak eskaintzen zaizkien xeheki erakusteko. Bide berean, kasu bakoitzean euskararako hobetsi edota aukeraturiko bidea azpimarratu da.

3.2. Matematika: oinarrizko hiztegia aurkeztu. Horren hurrengo, A. Gurrutxagak Batzordeak Matematikarako hautaturiko gutxienezko lexikoaren zerrenda aurkeztu du, ingeles, espainiera eta frantsesezko baliokideekin xeheki osatua. Hitz guztiak orain arteko matematika-testuetatik jasoak izan dira eta Unibertsitateko matematikari aholkulariekin adostu dira.

3.3. Fisika: oinarrizko hiztegia aurkeztu

Gauza bera egin du A. Gurrutxagak Fisika hiztegi oinarrizkoarekin ere, prozedura bera erabiliz.

I. Sarasolak eta A. Sagarnak aurkezturiko lanei, oinarriz, ongi deritzete, baina Euskaltzaindiarentzat oro har egiten ari diren beste antzeko lexiko-bilduma batzuekin koordinatu beharko liratekeela azpimarratu dute.

A. Sagarnak proposamena, euskaltzainek azertu ondoren, Akademiak onarpen orokorra eman eta eskegirik utzi beharko lukeela uste du. X. Kintanak ere onarpen normala eman baina Euskaltzaindiaren hiztegian oraingoz ez sartzea proposatu du, zientzia eta teknologia arloko bestelako terminoekin multzo handiago eta orekatuagoa lotu arte behintzat. P. Uribarrenek hitz horiek guztiak, behin onartuz gero, hiztegi lehenbailehen iragatea ona litzatekeela adierazi du, horretan interesa dutenek nola jokatu jakin dezaten.

A. Urrutiak Euskaltzaindiaren izenean A. Gurrutxagari eta Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoan ari direnei zorionak eta eskerrak eman dizkie. Oharrak egiteko epeak honako hauek izanen dira: Matematika lexikorako, maiatzak 15. Fisikarako, ordea, ekainak 19. Oharrik gabeko hitzak, besterik gabe, onartuak izanen dira.

4. Eskuartekoak

4.1. Izendapenak

4.1.1. Adolfo Arejita EITBko Administrazio Kontseiluko kide

Eusko Legebiltzarrak 2013ko otsailaren 28an eginiko bilkuran, A. Arejita euskaltzaina eta Iker sailburua, izendatu du EITBko Administrazio Kontseiluko kide.

4.1.2. Jon Casenave Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saileko zuzendari

Jon Casenave euskaltzain urgazlea Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saileko zuzendari izendatu berri dute.

4.2. Azokak eta aurkezpenak

4.2.1. Euskaltzaindia Mauleko II. Liburu Azokan

Euskaltzaindiak aurreko martxoaren 16an egin zen Mauleko II. Liburu Azokan gun bat ukan zuen eta Akademiak aspaldion argitaraturiko liburu ugari egon dira ikusgai.

4.2.2. Euskaltzaindia Sarako Liburu Azokan

Aurten apirilaren 1ean Saran egingo den Liburu Azokan Euskaltzaindiak parte hartuko du. Bertan hiru liburu berri aurkeztuko ditu:

- *Jon Mirande, olerkaria*. Txomin Peillenek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 18).
- *Antoine d'Abbadie, Abbadiaz*. Jean-Louis Davantek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 19).
- *Gratien Adema 'Zaldubi': Gaineratikoen bilduma*. Henri Duhauk paratua (Euskaltzainak bilduma, 20).

Hiru liburuok Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean 2012an izenpetu zen lankidetzaz hitzarmenaren bidez kaleratu dira. Liburuok euskaltzainei apirilaren 26ko Osoko bilkuran eskuraziko zaizkie.

4.2.3. J. Haritschelharri omenaldia

Sarako Liburu Azokan bertan J. Haritschelharri omenaldia eskainiko zaio, bere bizitzan zehar euskararen alde egindako lan baliosagatik.

4.3. 2013. urteko egutegia berritu da

Idazkariordeak 2013ko egutegian eginiko aldaketak aurkeztu ditu. Hona hemen:

- **Urtarrilak 25.** Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian:
 - Osoko Bilkura.
 - Ageriko bilkura (hilberri txostenak).
- **Otsailak 22.** Bilbon, egoitzan: Osoko bilkura.
- **Martxoak 21-22.** Bilbon, egoitzan:
 - XVIII. Barne Jardunaldiak.
 - Osoko bilkura.
- **Apirilak 26.** Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian: Osoko bilkura.
- **Maiatzak 31.** Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean: Osoko bilkura.
- **Ekainak 28.** Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean: Osoko bilkura
- **Uztailak 19.** Bilbon, egoitzan: Osoko bilkura.
- **Irailak 27.** Iruñean (lekua zehazteko): Osoko bilkura.

- **Urriak 4.** Tuteran, Nafarroa Oinez dela eta, Ageriko bilkura. Urrian ez da Osoko bilkurarik aurreikusi.
- **Azaroak:**
 - **15.** Iruñean. XVIII. Jagon Jardunaldia.
 - **29.** Zarautzen. Goizean zehar: Osoko bilkura. Arratsaldean, Ageriko bilkura: Ignazio Eizmendi *Basarriren* jaiotzaren lehen mendeurrena.
- **Abenduak 20:** Baionan (lekua zehazteko): Osoko bilkura.

4.4. RAEren 300. urteurrena

Real Academia Españòlaren 300. urteurrena dela eta, antolaturiko ospakizunak direla eta, ohorezko batzordean parte hartzeko gonbita egin zaio Euskaltzaindiaren buruari. Zuzendaritzan gonbita onartu egin da.

4.5. Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria

Hautagaiak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 30ean amaitzen dela esan zaie euskaltzainei. Iaz, Euskaltzaindiak Joxe Azurmendi euskaltzain ohorezkoa aurkeztu zuen.

4.6. Hurrengo bilkura

Gorago aipatu bezala, Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura Donostian egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian, apirilaren 26an, goizeko 10:00etan hasita.

5. Azken ordukoak

5.1. Emile Larreren osasunaz

Emile Larre euskaltzaina bere etxe aitzinean izandako erorketa dela eta, larriki eritu dela jakinarazi da. Pixkanaka onera egiten duen arren, oraingoz bisitekin ez nekatzea gomendatu zaie gainerako euskaltzainei.

5.2. Korrika Euskaltzaindiaren kilometroa

Korrika Baionan amaituko da. Horiek horrela, AEK erakundeak azken kilometroetako bat egin dezan proposatu dio Euskaltzaindiari. J. B. *Battittu* Coyos eta Xarles Videgain euskaltzainek egingen dute kilometroa, Euskaltzaindiaren izenean.

5.3. Jaurlaritzari jarritako errekursoaz

Aurreko Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrak onarturiko EAEko Aurrekontu Legean Euskaltzaindiari esleitu beharreko laguntza izendunetik 190.000 euro

atxiki zituela eta, Jaurilaritza berriak arazo hori konpontzeko asmoa adierazi dutela esan du euskaltzainburuak. Horretarako, alde biek laster bilera bat egingen dute. Berri gehiago izan bezain laster, Osoko batzarrari jakinaraziko zaio.

5.4. Hilberriak

5.4.1. Lutxi Alberdiren ama hil da

Zezilia Arruabarrena andrea, Lutxi Alberdi Euskaltzaindiko langilearen ama hil berri dela jakinarazi da. Alabari doluminak adieraztea erabaki da, Euskaltzaindiaren izenean.

M. L. Oñederrak bere kezka agertu du eta era horretako berriak euskaltzainei lehenago zergatik ez zaizkien helarazten galdetu du. E. Osa idazkariordeak arrazoa eman dio eta horren arrazoa ere argitu du. Izan ere, Euskaltzaindiak ezarririk dauka protokolo bat zeinak ezartzen duen Akademiarekin lotura dutenekin (euskaltzain oso, ohorezko, urgazle, batzordekide zein langile) nola jokatu behar den (nori jakinarazi, eta abar).

5.4.2. Javier Oleaga hil da

1941-1961 artean Euskaltzaindiko idazkaria izandako Nazario Oleaga jaunaren semea hil delako berria eman zaie euskaltzainei. Haren senideei Euskaltzaindiaren dolumin adierazpena bidaltzea erabaki da.

5.5. Rikardo Badiolaren erretiroa

Bilera amaitu baino lehen, Rikardo Badiola jauna, azken hamarkadetan Euskaltzaindiko argitalpenen arduraduna izandakoa, bere emazteak lagundurik, batzar aretora sartu da. Euskaltzainburuak harrera egin dio eta berrogei urteotan Akademiaren alde egindako lan handi eta bikaina goraipatu du, hemendik aurrera ongi merezitako atsedena gozatzea desiratu dio. Ondoren, R. Badiolak hitza hartu eta eskerrak eman dizkie, bai euskaltzainburuari eta bai gainerako akademikoei ere. Erakundean elkarrekin izandako harremanak eta eginiko lanak gogorarazi ditu, bai eta bidean izan dituen bidelagunak ere, horietako zenbait hil direnak (Rosa Mari Artza, Juanjo Zearreta, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martija). Bertan bilduriko euskaltzain guztiekin oroitzapen-argazkiak egin ondoren, Osoko bilkura bukatutzat eman da 14:15ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, 2013ko apirilaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi.

Osa, Erramun, idazkariordea eta Zabaleta, Joseba, kudeatzailea.

Ezin etorriak eta ahalak: Arkotxa, Aureliak, ahala Miren Lourdes Oñederrari; Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»k, ahala Andres Urrutiari; Salaburu, Pellok, ahala Miren Azkarateri; Zabaleta, Patxik, ahala Andres Iñigori; Zalbide, Mikelek, ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Gipuzkoako Diputazioaren Batzar Aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Agurra eta hasierako oharra: Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, etorritakoen zerrenda irakurri eta jasoriko ahalak adierazi ditu.

1. XVIII. Barne Jardunaldietako (2013-03-21/22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Hiru ohar egin dira; batetik, J. M. Torrealdaik 5. orrialdeko «... edukia Pruden Gartzia...» jartzen duen tokian «... proposamen nagusiak Pruden Gartzia» jasotzea proposatu du; bestetik, A. To-

ledok dio 11. orrialdeko Literatura Ikerketa batzordearen egitekoak ez direla ondo jaso. Ondorioz, atal hori, behin betiko bilera-agirian berridatzi da; azkenik, Corpus batzordearen txostenaren aldian, akats bat antzeman da, 2016-2016 jartzen baitu, 2013-2016 jarri beharrean.

Hiru zuzenketak onartu dira. Horiek horrela, bestelako iruzkinik ez dagoenez gero, bilera-agiria onartu da.

2. Osoko bilkurarako (2013-03-22) bilera agiria onartzea, hala erabakiko balitz. J. L. Lizundiak ohar bat aurkeztu du, R. Badiolak bere erretiroko agur-ekitaldian aipatu zituen lau lankideak (Rosa Mari Artza, Juanjo Zearreta, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martija) ez direlako bilera-agirian jaso. Jasotzea hobetsi da. Ondorioz, bestelako oharrik ez dagoenez gero, bilera-agiria ontzat eman da.

3. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeke proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

XVIII. Barne Jardunaldietan erabiliriko aurkibidea banatu da. Aurkibide honean zerrendatu dira XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenek jaso dituzten ekarpenak, oharrak edota iruzkinak, bai eta nork eginak diren ere. Horiek horrela, ekarpenik, iruzkinik edo zuzenketarik jaso ez duten txostenak onartu dira, Barne Jardunaldietan erabakitakoaren arabera.

Ondorioz, «Aldirako (2013-2014 / 2016) ikuspegia eta helburu orokorrak» atala dela eta: euskaltzainburuak aurkezturiko «Abiapuntua (2013-2016)» txostenak ez du inolako ekarpenik jaso, beraz, onartu egin da; diruzaintzak aurkezturiko «Diruzaintza» atalak ere ez du oharrik jaso, beraz, hori ere onartu egin da; beste horrenbeste gertatu da X. Videgainek aurkezturiko «Euskaltzaindia Ipar Euskal Herrian (etorkizunerako abiapuntuak eta erabakiak)» txostenarekin ere.

Idazkaritzak aurkezturiko txostenak ekarpen bat jaso du, M. Azkaratek egina. Horiek horrela, euskaltzainburuak hitza M. Azkarateri eman dio, ekarpena azal dezan. Honek, sei hilean behin batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen jarduna eta plangintzarekin alderatzea eta horren berri Osoko bilkurari ematea proposatu du. Euskaltzainburuak erantzun dio eskerrak emanez, eta hori bideratzeko prozeduraz mintzatu da. Konforme agertu da eta batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen erantzukizuna eskatu du.

M. Azkaratek informazioa aldizka jasotzea ere eskatu du, ibilian dabiltzan proiektuen berri jakiteko. Bidezkoa iruditzen zaio A. Urrutiari baina, aldi berean,

horiek aldean izan dezaketen konfidentziasuna hausteko arriskuaz ere ohartarazi du.

X. Videgainek ea nolako txostenez ari garen galdetu du. Lehenago, aldizka berderen, arratsaldeko batzarrak egiten zirela aipatu du, hor gainerako euskaltzainei horien berri emateko. J. L. Lizundiak, X. Videgainen bidetik, zuzendaritzari, gehienbat, kontrol administratiboa dagokiola gogoratu du, baina bada ezaguera akademiakoaren eremua ere, kontuan hartu behar dena.

P. Uribarreni ondo iruditzen zaio, aldizka behintzat, batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuek beren lanen berri eskaintzea. A. Urrutiak galdetu du ea noraino azaldu beharko lirатеkeen martxan dauden lan bakoitzaren nondik norakoak. Bere ustez, ez betetze larriak behintzat jakinarazi beharko lirатеke.

I. Sarasolak horien kontrola zuzendaritzari dagokiola uste du eta, gaizki joaten ahalko balira, interesatuei lehenik abisu partikularrak eman beharko litzaizkiekeela pentsatzen du, eta kasurik txarrean, horien egoera Osoko bilkurari azaldu.

Kontua, E. Osaren aburuz, lanen jarraipena egitea da, ez kontrolatzea. Gainera, beharrezkoa da desberdintzea, alde batetik, egitasmoak eta zerbitzuak, eta bestetik, batzordeak eta lantaldeak. Izan ere, egitasmoetan eta zerbitzuetan pertsona batzuk lan horretarako liberaturik daude; beste batzuk, aldiz, kontratuak dituzte; batzorde eta lantaldeen kasuan, ordea, parte hartzen duten pertsonak ez daude hain baldintza estuekin lotuak.

A. Arejitak jarraipena aldizka egiteari ondo deritzo, baina ez kontrol hertsiegiaz, hori Zuzendaritzari baitagokio. Alde horretatik, besteren artean, egitasmoen berri izateko arratsaldeko jarduna, praktikoa izan daiteke.

Euskaltzainburuak M. Azkarateri honako proposamena egin dio: aurren azaroko eta abenduko bi Osoko bilkurak horrexetarako baliatzea. Batean, egitasmoak eta zerbitzuak aztertuko lirатеke. Bestean, batzordeak eta lantaldeak. Ontzat eman da M. Azkarateren oharra.

Ondoren, «Arreta bereziko arloak (2013-2014/2016)» atala dela eta: J. M. Torrealdaik aurkezturiko «Azkie Biblioteka eta Euskaltzaindiaren Artxiboa» txostenak ez du inolako oharrik jaso, beraz, bere horretan onartu da.

P. Salaberrik aurkezturiko «Onomastika arloa» txostenak J. L. Lizundiaren oharra jaso du. Txosten honen 9. orrialdeko esaldi bat ondoko honekin ordeztzea proposatu du: «Gasteizko toponimia egitasmoaren teknikaria den Elena Martinez de

Madina eta Onomastika zerbitzuaren arduraduna den Mikel Gorrotxategi». P. Salaberri txostengileak onartu du.

A. Sagarnak azalduriko «*Jagonet* eta hizkuntzaren kalitatea» txostenak, M. Azkarateren iruzkina jaso duenez gero, euskaltzainburuak hitza M. Azkarateri eman dio, azal dezan. Honek, *Jagonet* zerbitzuak gaika jaso dituen galderak eta emaniko erantzunak oinarritzat hartuz, *Jagonet* zerbitzua Corpus Batzordearen ardurapeko izan arren, HIZBEAk ukitzen dituen sailen artean Gramatika batzordea ere bada-goela azpimarratu du.

I. Sarasolak, bere aldetik, galdetu du ea behatokia noraino izango den arauemaile, eta noraino lotzen duen zerbitzu horrek Euskaltzaindia. HIZBEA arauemailea ez dela izango eta, Euskaltzaindiak onarturiko arauak zabaltzeaz, gizarteratzeaz eta hizkuntzaren erabiltzaileek dituzten beharrak bideratzeaz arduratuko dela esan da. Jarrera proaktiboa izango du zerbitzuak. Beharrak antzematen direnean, batzordeekin, lantaldeekin, egitasmoekin eta zerbitzuekin lan eginez.

A. Urrutiak HIZBEAk Gramatika batzordea ez ezik beste batzorde, egitasmo eta zerbitzu batzuk ukitzen dituela nabarmendu du. Hori horrela izanik, ukituriko batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen arteko koordinazioa ezinbestekoa dela azaldu du.

A. Sagarnak batzuen eta besteen ekarpenak ondo ikusi eta HIZBEAren diziplinartekotasuna izan du hizpide.

I. Sarasolak uste du aukera garbi dagoela, hots, berez datorrenari erantzun edo zer behar den pentsatzen hastea, horri erantzuteko. A. Urrutiak esan du Euskaltzaindiak orain arte sistema klasikoari segitu diola, eta galderak etorri ahala, horiek batzordeetara bidali eta hor erabaki eta erantzun direla, baina horrek argi erakutsi du lorturiko emaitzak ez direla hain onak, eta kalitatea jaitsi egin dela.

Aspaldian egin eta metatuz doazen erabakiak kontuan izanda, P. Uribarrenen ustez, lexiko eta onomastikaz gero eta galdera gutxiago etorriko dira Euskaltzaindian, baina gramatikan, ordea, kontsultak, segur aski, ugaltu egingo dira. Eta, galdera horietarako, jendeari kontsulta egiteko tokia eskaini behar zaio. Bide horrexetatik abiatuz, M. Azkaratek pentsatzen du horrelako zalantzak estilo-liburu batean jarri eta argitu beharko liratekeela.

I. Sarasolak esan du begi-belarriak erne eduki behar direla eta kalean zer dabilen entzun eta ikusi behar dela. X. Kintana ere iritzi berekoa da.

B. Oihartzabalek pentsatzen du lehenago gauzak ongi aztertu beharra dagoela, hortik gero arauak ateratzeko. Gogoan izan behar da, gainera, beste teknikari eta profesionalek ere Euskaltzaindia aintzat hartzen dutela, eta beroriek ere erabilera batzuk zuzentzen dihardutela.

A. Sagarnaren iritziz jendeak ez ditu aspaldian erabakiak eguneratu. Horretarako beharrezkoa iruditzen zaio komunikabideekin harreman hurrekoak izatea. A. Urrutiak konforme dagoela esan du eta «koordinazioa» hitza azpimarratu du berriro.

Zuzendu beharrekoen artean, X. Kintanak euskara gaizki tratatzen duten erdal erabilera nabarmen batzuk salatu ditu (*de sus aitas y aities...*), euskararen oinarrituriko erdal egitura horiekiko kutsadurak gure hizkuntzari kalte handia egiten diolako. Erdarakada horiek baztertzeko, erdal prentsaren arduradun batzuekin mintzatu beharra aipatu du. Halere, I. Sarasolak uste du erdal testuetako euskarakada okerrak zuzentzen ibiltzea ez dela Euskaltzaindiaren zeregina.

A. Arejitak, I. Sarasolak lehen aipatu duen kezka bera dauka: nola erantzun behar dien Euskaltzaindiak heltzen zaizkion galderei, Akademiak kanpoan lehiakide batzuk dituenean. *Jagoneten* bidez zer bait ezberdin eskaini beharko luke Euskaltzaindiak.

Elkarriketaren ondoren, batzordeak, lantaldeak, egitasmoak eta zerbitzuak jarzteza hobetsi da, «Gramatika batzorde» soila beharrean.

Segidan, «Aldirako (2013-2014/2016) ikuspegia eta helburuak, arloka» atala dela eta: I. Sarasolak aurkezturiko «Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak)»; X. Kintanak irakurririko «Zientzia eta Teknika Hiztegia»; A. Sagarnak azalduko «Lexikoaren Behatokia»; J. Lakarrak jorratutako «Euskal Hiztegi Etimologikoa»; P. Rekaldek paraturiko «Euskalkien lantaldea»; M. Urkiak landuriko «Hiztegi Batuko lantaldea»; A. Arejitak aurkezturiko «Euskararen Herri Hizkeren Atlas» eta X. Kintanaren «Exonomastika» txostenek inolako oharrik jaso ez dutenez gero, guztiak onartu dira.

P. Salaburuk XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu zuen «Gramatika» txostenak oharra jaso du, A. Urrutiak idatzia. Azken honek, P. Salaburuk etortzerik izan ez duenez gero, maiatzeko Osoko bilkuran gaia aztertzea eskatu du. Osoko bilkurak onartu du eskaria. Era berean, M. Azkaratek eskatu du oharra alde zuzenetik bidaltzeko Gramatika batzordeko buruari. Hala egiteko ahaleginak egingo direla esan da.

Atal bereko gainerako txostenei dagokienez: P. Esnalen «Herri Literatura batzordea»; J. Haritschelharren «Literatura Ikerketa batzordea»; A. Urrutiaren «Cor-

pus batzordea»; S. Alemanen «Sustapen batzordea»; M. Zalbideren «Euskararen Historia Soziala» eta A. Urrutiaren «Argitalpen batzordea eta *Euskera* agerkariaren Idazketa kontseilua» txostenek oharrik jaso ez dutenez gero, horiek ere onartu dira.

M. L. Oñederrak aurkezturiko «Ahoskera lantalde suntsikorra» txostenak, ekarpen bat jaso du A. Urrutiaren aldetik. Aldian zehar garatu nahi den plangintza nola gauzatuko den galdetu du, hots, lantaldea izaten segitzea edo batzorde baten izaera hartzea ez ote den komeni. Era berean, batzordea izanez gero, osaketa ere zein izan daitekeen galdetu du.

Hari horri tira eginez, M. L. Oñederrak azaldu du zergatik Ahoskerarena lantaldea den, eta ez batzordea. A. Urrutiak gehitu dio Urkiolako Barne Jardunaldietan halaxe eratzea erabaki zela. Horren inguruan, historia eta gogoetak ere egin ditu. M. L. Oñederrak A. Urrutiak eginiko galderei erantzuteko tarte bat behar duela adierazi du. Izan ere, gaur jaso du A. Urrutiaren ekarpenaren berri, beraz, ez du izan astirik galdera horiei buruz gogoeta egiteko.

A. Arejitak uste du M. L. Oñederrari denbora eman behar zaiola, hori erabaki dezan. Berak batzorde baten izaera ikusten dio, baina erabakia haren esku utzi behar dela uste du.

A. Arejitak hitz egin ondoren, Osoko bilkuran atsedena hartzeko eten laburra egin da.

Ordu erdiko etenaren ondoren, elkarrizketari segida eman zaio. P. Goenagak hartu du hitza. Honek, A. Arejitaren proposamenari jarraikiz, uste du gauzak egiteko denbora eman behar dela, inprobisatzen aritu gabe, eta galdera bat egin du: zer arrazoi dago euskaltzain osoei galderak egiteko epe bat jartzeko eta Osoko Bilkura arte horien berri ez izateko?

J. L. Lizundiak ere, A. Arejitak esandakoaren bidetik, hurrengo baterako, maiatzarako, edo geroagorako utz daitekeela esan du. A. Urrutiak bere harridura adierazi du, baina ontzat ematen du, eta ez dauka ezer hurrengorako, maiatzeko batzarrrerako uztearen kontra. Proposamena nola ekarriko duen galdetu du.

Azkenean M. L. Oñederraren esku uztea erabaki da, berak Osoko bilkuran aurkez dezan bere proposamena.

Gai honen ondoren, «Batzordeak eta lantaldeak: 2013-2016 aldirako osaketa» atala landu da Osoko bilkuran. Aurkitegiko «Hiztegigintza» dela eta, M. Azkaratek egin duen ekarpenean, adierazi du hasieratik parte hartu duela Euskaltzaindiaren

Hiztegi Batuan, bai eta oraintsu arteko Batzorde ahaldunduan ere. Horiek horrela, hurrengo urteetan Hiztegitzinta gaiak landuko dituen Batzorde ahaldunduko kide izan nahi duela adierazi du. A. Urrutiak esan du Idazkaritzak aurkezturiko txostenean «Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak (2. itzulua)» dela batzorde horren izenburua, ez, «Euskaltzaindiaren hiztegia (2. itzulua) batzorde ahaldundua». Era berean, hor jaso beharreko hiru euskaltzainen izenak X. Videgain, J-B Battittu Coyos eta A. Sagarna direla gaineratu du. Idazkaritzak eginiko okerra onartu eta zuzenduko duela esan du.

A. Sagarnak bere aldetik, «Hiztegi Batuko lantaldearen» osaketa aztertzen ari direla eta maiatzeko Osoko bilkurara behin betiko zerrenda ekarriko dutela esan du.

«Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko egitasmoa», «Lexikoaren Behatokia egitasmoa» eta «Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologikoa egitasmoa» dauden-daude-nean utzi dira. Gramatika batzordearen osaketari buruz jaso diren ekarpenak maiatzeko Osoko bilkurarako, hots, 2013-2016 aldirako proposamena eztabaidatzen denerako utzi dira. «Euskararen Herri Hizkeren Atlas» dagoen horretan utzi da.

Onomastika batzorde ahaldundua dela eta, J. L. Lizundiak idatzi dituen oharrak irakurri ditu; batetik, Batzorde ahaldunduak onomastika arloko kontuen programazioa Zuzendaritzari aurkeztea eta, honek onartu ondoren, berresteko Osoko bilkuran azaltzea proposatu du; bestetik, 4.1. puntuan, Batzorde ahaldunduko idazkaria Onomastika zerbitziburua izatea eskatu du (beste horrenbeste Onomastika batzordeari buruz); azkenik, 6. puntuan, lanei buruzko jarraipenari dagokion atalean, alderdi akademikoaren arta Iker sailburuak egitea eta, antolakuntzaren ikuspegitik, idazkariordeak koordinatzea proposatu du. Era berean, Batzorde ahaldunduko zerrendari beste bi euskaltzain osoen izenak gehitzea proposatu du: P. Uribarren eta A. Iñigo.

Lehenbizikoari buruz, batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzu guztiekin hala egiten dela esan du euskaltzainburuak; bigarrena, ordea, Idazkaritzaren hutsa izan da. Izan ere, P. Salaberrik halaxe aurkeztu zuen. Idazkaritzak barkamenak eskatu dizkio P. Salaberriri; hirugarrenari buruz, koordinazioa idazkariordeak eta P. Rekaldek elkarrekin egiten dutela esan da.

Batzorde ahaldunduaren osaketa dela eta, P. Salaberrik ez deritzo ongi batzorde ahaldundukoa ez den batek proposamenak, buruarekin kontsultatu gabe, egiteari. Inguruabar horretan, P. Uribarrenek zalantzak ditu. Izan ere, beste batzorde batzuetan ere badago eta, aurrerantzean, Euskalkien lantaldeko burugoa ere hartuko du. Horiek horrela, izatekotan, aholkularia izan daitekeela eta batzordeburuak eska

diezaionean bere ekarpena egingo duela adierazi du. A. Iñigok, bere aldetik, iaz, Gasteizen, Arabako Foru Aldundian izaniko Osoko bilkuran batzordea uzteko pizuzko arrazoiak eman zituela gogora ekarri du, orduko hartan esanikoetan atzera egiteko arrazoirik ez du ikusten. J. L. Lizundiak ohar-proposamenak egitea euskaltzain baten eskubidea eta obligazioa ere izan daitekeela argitu ondoren, oharrok erretiratu egin ditu.

Batzorde ahaldunduko idazkariak ahotsa bai baina botorik ez izatea dela eta, elkarrikketa egon da. X. Kintanak pentsatzen du ez dela bidezkoa batzordeko inor botorik gabe uztea. I. Sarasolak, bere aldetik, ez ditu ulertzen botodunen eta botogabeen bereizketa horiek. Izan ere, bera egon den batzorde eta lantaldeetan erabakiak luze-zabal eztabaidatu ondoren, adostasunez hartu ohi dira. M. Azkarate I. Sarasolarekin bat dator.

P. Salaberrik erabakia interesatuarekin adostua izan dela esan du. X. Kintanaren ustez, era horretako salbuespenak arautegian sartu beharko lirateke. Elkarrikketarekin amaitzeko, neurri hori ez dela hain ezohikoa gogoratu du Euskaltzainburuak. Ondorioz, gaia batzordeburuak proposatu duen eran geratu da.

E. Osak segitu du sail eta batzorde guztiak nola osaturik gelditu diren azaltzen. Ondokoak dira aldaketa izan duten batzordeak: Herri Literatura batzordean Xabier Itzainaren izena gehitu da, X. Videgainek proposaturik; Corpus batzordean Eneko Barrutiaren eta Juan Jose Zubiriren izenak gehitu behar dira, A. Urrutiak eta A. Iñigok proposaturik, hurrenez hurren. Batzorde honetatik A. Iñigoren izena kendu behar da, aspaldi bideratu baitzuen eskabidea; Euskalkien lantaldean, burua P. Uribarren euskaltzaina izango da, idazkaria, berriz, Paskual Rekalde. Era berean, Juan Jose Zubiriren izena gehitu behar da, A. Iñigoren proposamenez. Aholkularien artean Allande Socarrosen izena gehitu da, J-B Battittu Coyosek proposatuta. Batzorde honetatik, A. Iñigoren izena kendu behar da, aspaldi bideratu baitzuen eskabidea; Sustapen batzordean Ibon Usarralderen izena gehitu behar da, S. Alemanek proposatuta; Egiturazko batzorde eta egitasmoen kasuan eguneratu dira. R. M. Azkue Biblioteka batzordean Marie-Andrée Ouret-en izena gehitu behar da, X. Videgainek proposaturik. Nolanahi ere, azken kontu hau ez da ziurra baimena eskuratu behar baitu. Horiek horrela, aholkulari izendatzea iradoki du A. Urrutiak.

Laburbilduz, maiatzerako utzi dira Hiztegi Batuko lantaldearen, Gramatika batzordearen eta Ahoskera lantalde suntsikorraren behin betiko osaketa. Era berean, batzordekide izendatu berri diren guztien curriculumak eskuratu ditu Idazkaritzak, proposamenak egin dituztenek hala bidalita. Ondorioz, norbaitek curriculumak

eskuratu nahi baditu Idazkaritzari eskatzea eta euskarri informatikoan bidaltzea erabaki da.

«Barne-erregelen egokitzapenak» atala dela eta, XVIII. Barne Jardunaldietan M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak eginiko proposamenei J. L. Lizundiaren eta A. Urrutiaren iruzkinak eta oharra jaso dira Idazkaritzan. Horiek horrela, Zuzendaritzaren osaera dela eta, M. Azkaratek gehitzeko proposatzen duen puntua (13.3) azaldu du (onartuz gero, orain arteko puntuen hurrenkera berridatzi behar da). Hona zer dioten: «Bi hilabeteko aurretiaz iragarriko da Osoko bilkuran hautaketa noiz izango den. Iragarri eta hurrengo hilabetean jakingo da nor diren hautagaiak eta zein programa duten hurrengo lau urteetarako. Euskaltzainburu izateko hautagai bat baino gehiago balego, bakoitzak adierazi beharko du nor diren Zuzendaritza osatzeko proposatzen dituen euskaltzainak».

J. L. Lizundiak M. Azkarateren proposamena oinarritzat harturik bi zuzenketa egin ditu; batetik, Arautegiak 30. artikuluan dioena eta M. Azkaratek eginiko proposamena uztartzen saiatu da, karguak berritzeko ezarritako epeei dagokienez; bestetik, Zuzendaritza osatzeko bozketa dela eta, karguak banan-banan, ez, taldean, bozkatzea jaso dadin eskatu du. A. Urrutiak M. Azkaratek eginiko proposamenak goragoko maila duen Arautegiaren 28., 29., 30., 31. eta 32. xedapenekin bateragarria ez dela esan du. Era berean, sistema horren bitartez, hautagai guzti-guztiak lurralde jakin batekoak izatea litekeena dela ere esan du. Horiek horrela, halako aldaketak adostasun zabalez egin behar direla azpimarratu du. Halaber, gogora ekarri du, iaz halako prozesu bati ekiteko eginiko proposamena.

Horiek horrela, hurrengo batean Zuzendaritzak gaia aztertzea eta Osoko Bilkurara ekartzea hobetsi da, euskaltzainekin iritzi-truke zabala egin ondoren.

Segidan, Barne-erregeletan 14.7 xedapenean jasorikoa aldatzera datorren proposamena aurkeztu du M. Azkaratek. Hona hemen aldaketa-proposamena: «Zuzendaritzari dagokio, dagokion batzordeko euskaltzain osoen proposamenak kontuan harturik, batzordekide izan daitezkeenak, dagokion batzarrean aurkeztea». Puntu honetan, A. Urrutiak Arautegiaren 8. xedapena gogora ekarri du, bere iruzkinean.

Eztabaida izan da, batetik, komeni ote den batzorde jakin bateko euskaltzain osoen eta gainerako batzordekideen arteko bereizketa egitea. M. Azkaratek adierazi du berdina izan daitekeela «batzordekideen» edo «batzordeburuaren» jartzea. Bestetik, «kontuan harturik» aditz esapidearen esanahiak ere zalantza sortu du; horren ordez, «entzunik» jar daitekeela onartu du M. Azkaratek. Azkenik, 14.7 xedape-

nean egin litezkeen aldaketak batzordeei bakarrik ote dagozkien ala lantalde eta egitasmoezin ere berdin jokatu behar litzatekeen galdetu du A. Urrutiak. Barne-erregelen artikulua horretan Batzordeak baino aipatzen ez direnez, horretara mugatu duela proposamena erantzun du M. Azkaratek. Baina aipatu da Barne-erregelen beharko dutela irakurketa patxadazkoa horrelako kontraesanak saihesteko. Beraz, gaia onbideratzeko hurrengo Osoko Bilkuretara proposamen bat ekartzeko erabakia hartu da.

14.7 xedapena jorratu ostean, Barne-erregelen egokitzapenei buruzko elkarrizketa eten eta hurrengo Osoko Bilkuran jarraitzea erabaki da.

4. Eskuartekoak

4.1. Sariak eta aitormenak. Europako parlamentari talde batek Euskaltzaindiak Europako Herritarra saria jasotzeko proposamena egin duela jakinarazi du euskaltzainburuak.

Era berean, jakinarazi da, Ramon Saizarbitoria idazle eta euskaltzain urgazleak irabazi duela Espainiako Kritikaren Saria, euskararen arloan, narratibaren atalean, *Martutene* liburuagatik. Euskaltzaindiak, aho batez, R. Saizarbitoriari bere zorionak helaraztea erabaki du.

4.2. J. L. Lizundia euskaltzain emeritu. J. L. Lizundia euskaltzain osoa, 75 urte bete dituela eta, Euskaltzaindiaren Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1. xedapenaren arabera, euskaltzain emeritua izatera igaro da, 2013ko apirilaren 9an. Hortaz, hutsarte iragarri da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsarte hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango direla (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3. xedapena) eta Arautegiaren 34. artikulua dioena («Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz») gogora ekarri dira.

4.3. Euskaltzaindiak eta AEK-k lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute. Apirilaren 17an, AEK-k eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. AEKren izenean Mertxe Mujika koordinatzaile nagusiak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eñaut Mitxelena AEK-k kaleratzen duen *Aizu!* aldizkariaren zuzendaria eta Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria ere izan ziren ekitaldian.

Besteren artean, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, argitaraturikoaren euskarazko testu multzoa, *Aizu!* aldizkarian sorturikoa batez ere, Akademiaren eskuetan jarriko du AEK-k.

4.4. Gaur banatuko diren liburuak. Ondoko hauek banatuko dira:

- *Antoine d'Abbadie, Abbadiaz*, Jean-Louis Davantek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 19).
- *Gratien Adema 'Zaldubi'*: *Gaineratikoen bilduma*, Henri Duhauk paratua (Euskaltzainak bilduma, 20).
- *Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Amaia Apalauzak egina (Mendaur bilduma, X).
- *El paraíso y los gatos*, Bernardo Atxagak paratua. Iaz, Madrilén Etxeparek, RSBAP eta Euskaltzaindiak antolaturiko *Euskarari Gorazarre* jardunaldietan aurkezturiko ikuskizuna jasotzen duen liburua eta CDa (Madrilgo Círculo de Bellas Artes-ekin batera argitaraturikoa).

4.5. Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria. Euskaltzainei sari honetarako hautagaiak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 30ean amaitzen dela jakinarazi zaie.

5. Azken ordukoak

5.1. Hurrengo Osoko bilkura Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo da. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo da maiatzaren 31n, ohi bezala, goizeko 10:00etatik aurrera.

5.2. M. Zalbide aitona. Jakin berri denez, Mikel Zalbide euskaltzaina aitona izan da. Euskaltzainek zorionak bidaltzea erabaki dute.

5.3. Nafarroako gobernuarekiko hitzarmena. Euskaltzainburuak azaldu dueenez, 2013ko apirilaren 10ean, Iruñean, Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko urteko lankidetza-hitzarmena izenpetu zen. Lankidetza Hitzarmenak 2013. urteko lan arloak zehazten ditu. Hala, hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurten 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan egiten dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko. Era berean, Nafarroako Gobernuak bestelako konpromisoak hartu ditu: Akademiaren Hiztegi Batua osatuko duela, Nafarroako euskalkietako

hitzak sartuz; hizkuntza kalitateko zerbitzua abian jartzen lagunduko duela; eta Akademiak eskatutako testuak gaztelaniatik euskarara itzuliko dituela. Euskarabideko langileak arituko dira zeregin horretan.

Sinadura-ekitaldiaren ondoren, Amaia Apaulazaren *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa* (Mendaur bilduma) aurkeztu da Euskarabidean.

5.4. J. L. Lizundiak zuzentzen duen Euskaltzaindiaren historia egitasmoa. J. L. Lizundiak galdetu du martxoko XVIII. Barne Jardunaldietan «Egitasmo Instituzionalak» aztertzea hurrengorako utzi zenez gero, gaur aztertuko ote diren. A. Urrutiak adierazi du Zuzendaritza J. L. Lizundiarekin hitz egiten ari dela, egitasmo horren zuzendaritza eramateko baldintzak adosteko asmoz. Adostasuna lortu ondoren, gaia Osoko bilkurara ekarriko duela esan du. Gauzak horrela, J. L. Lizundiak orain arte izan duen zuzendaritza zereginean desistitzen duela adierazi du. Honi buruzko argibideak aurrerago azaltzeko asmoa daukala ere gaineratu du.

5.5. Emile Larrereren osasunaz. A. Urrutiak Iparraldeko euskaltzainei E. Larrereren osasunaz galdetu die. X. Videgainek erantzun dio eta, astiro bada ere, onera egiten ari dela azaldu du.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 14:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, 2013ko maiatzaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.
Osa, Erramun, Zabaleta, Joseba, Mujika, Alfontso eta Gurrutxaga, Antton, zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Arejita, Adolfo ahala X. Kintanari; Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»k, ahala A. Urrutiari; Salaburu, Pellok ahala M. Azkarateri.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Donostiako Luis Villasante Euskararen ikergunean, ezkerreko zutabea ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko euskaltzain guztiak agurtu ditu, eta ondoren maiatzeko Osoko batzarrari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordena ezarriz.

1. Osoko bilkurako (2013-04-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Iritsi diren oharrak erantsita, behin-behineko bilera-agiria banatu da. Ondoren, M. Azkaratek egin dituen oharrak irakurri ditu. Horiek horrela, laugarren orrialdeko «P. Salaburuk XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu zuen ...» pasartearen amaiera era hone-

tara geratzea onartu da: «Era berean, M. Azkaratek eskatu du oharra alde z aurretik bidaltzeko Gramatika batzordeko buruari. Hala egiteko ahaleginak egingo direla esan da.»

Era berean, 7. orrialdean 14.7 xedapena dela eta, M. Azkaratek adierazi du komeni dela eztabaidaren nondik norakoak zehaztea. Ondorioz, pasartea honela geratu da: «Eztabaida izan da, batetik, komeni ote den batzorde jakin bateko euskaltzain osoen eta gainerako batzordekideen arteko bereizketa egitea. M. Azkaratek adierazi du berdin izan daitekeela «batzordekideen» edo «batzordeburuaren» jar-tzea. Bestetik, «kontuan harturik» aditz esapiderearen esanahiak ere zalantza sortu du; horren ordez, «entzunik» jar daitekeela onartu du M. Azkaratek. Azkenik, 14.7 xedapenean egin litezkeen aldaketak batzordeei bakarrik ote dagozkien ala lantalde eta egitasmoekin ere berdin jokatu behar litzatekeen galdetu du A. Urrutiak. Bar-ne-erregelen artikulua horretan batzordeak baino aipatzen ez direnez, horretara mu-gatu duela proposamena erantzun du M. Azkaratek. Baina aipatu da Barne-erregel-ek beharko dutela irakurketa patxadazkoa horrelako kontraesanak saihesteko. Beraz, gaia onbideratzeko hurrengo Osoko Bilkuretar a proposamen bat ekartzeko erabakia hartu da.»

J. L. Lizundiak bi ohar egin ditu; batetik, 6. orrialdeko «Batzorde ahaldunduaren osaketa dela eta...» paragrafoaren azken esaldiaren harira; eta bestetik, 9. orrialdeko 5.4 puntuari. Horiek horrela, lehenbiziko iruzkina honela geratu da: «J. L. Li-zundiak ohar-proposamenak egitea euskaltzain baten eskubidea eta obligazioa ere izan daitekeela argitu ondoren, oharrok erretiratu egin ditu». 5.4. puntua, ordea, honela idatzirik geratu da: «5.4. J. L. Lizundiak zuzentzen duen Euskaltzaindiaren historia egitasmoa. J. L. Lizundiak galdetu du martxoko XVIII. Barne Jardunaldi-etan «Egitasmo In-tituzionalak» aztertzea hurrengorako utzi zenez gero, gaur azter-tuko ote diren. A. Urrutiak adierazi du Zuzendaritza J. L. Lizundiarekin hitz egiten ari dela, egitasmo horren zuzendaritza eramateko baldintzak adosteko asmoz. Ados-tasuna lortu ondoren, gaia Osoko bilkurara ekarriko duela esan du. Gauzak horre-la, J. L. Lizundiak orain arte izan duen zuzendaritza zereginetan desistitzen duela adierazi du. Honi buruzko argibideak aurrerago azaltzeko asmoa daukala ere gaine-ratu du».

M. L. Oñederrak ere, ahoz, 5. orrialdearen hasierako bi lerroak egokitzeko eska-tu du. Horiek horrela, honetara geratu da pasartea: «Hari horri tira eginez, M. L. Oñederrak azaldu du zergatik Aho-skerarena lantaldea den, eta ez batzordea. A. Urrutiak gehitu dio Urkiolako Barne Jardunaldietan halaxe eratzea erabaki zela.»

Ohar horiek jaso dira eta bilera-agiria ontzat eman da.

Exonomastika batzordeko idazkaria den Alfontso Mujika eta Zientzia eta Teknika hiztegiko Antton Gurrutxaga beranduago etorriko direnez gero, aztergaien laugarren puntua jorratu da.

4. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

Hasteko, M. Azkaratek eta A. Urrutiak Barne-erregeletako 14.7 xedapenari buruz eginiko eztabaidari, aurreko Osoko bilkuratik datorrenari segida eman zaio. Puntu honi dagokionez, proposatu dena aurretiaz oharrik jaso ez duten Barne-erregeletako zenbait artikuluekin kontraesanean dagoela adierazi da, hala nola, 29.10, 47 eta 48 artikuluekin. Ondorioz, halakoa onartuz gero, orrazketa orokorra egin beharko litza-tekeela esan da. Oro har, ondo ikusi da Osoko bilkuran batzordeetan, lantaldeetan edo egitasmoetan ari diren euskaltzain osoen eta gainerako kideen iritzia entzun ondoren, Zuzendaritzak horiek Osoko bilkurara eramatea. Nolanahi ere den, J. L. Larrak adierazi du batzorde, lantalde eta egitasmo guztiak ez direla maila berekoak.

J. L. Lizundiak esan du horrek ukituriko artikulua hurrengo batean berrikusi beharko litzaitekeela, kontraesanak baztertu edo zehaztapen ezberdinak ekarri eta erabakitzeke. A. Urrutiak, bere aldetik, Barne-erregeletan jasorikoa *de iure* horrela izan arren, *de facto* prozedura bestelakoa izan dela gaineratu du. B. Oihartzabalek batzordeetatik helduriko proposamenak Zuzendaritzak tramitatu eta aurrera ekartzeko dituela eta, prozedura hori izkribuz finkatzea eskatu du.

M. Azkaratek 14.7 xedapenari dagokion testua finkatu nahiko luke. Beste horrenbeste adierazi du P. Goenagak *ad kalendas graecas*-erako utzi gabe. J. L. Lizundiak ere puntu hori aditu batzuekin (B. Oihartzabal, P. Zabaleta...) tratatu nahi luke, udazkenean edo, Zuzendaritzaren ponentziarekin adosteko. X. Videgainek beharrezkoa dakusa batzorde horretan M. Azkarate, J. L. Lizundia, B. Oihartzabal eta P. Zabaleta izatea.

A. Urrutiak adierazi du, Zuzendaritzari zor zaion errespetuagatik, berorri utzi behar zaiola horretan gogoeta egiten. P. Uribarrenek uste du koordinazioa Zuzendaritzari dagokiola, gramatika, hiztegitik edo dialektologian zeinek bere kontutik jokatu gabe. Koordinazioa Zuzendaritzak hartu behar duela esan du.

M. Azkaratek galdetu du ea onartzen den 14.7 xedapenean batzordeetan, lantaldeetan eta egitasmoetan ari diren euskaltzain osoekin kontsultatzeko borondatea

idatziz jartzea. A. Urrutia bat dator irizpide horrekin, baldin eta batzorde, lantalde eta egitasmoen kideak ere aintzat hartzen badira.

14.7 artikuluari eginiko oharra eztabaidatu ondoren, Barne-erregelaren 45. artikuluari eginikoak aurkeztu eta eztabaidatu dira. «Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunek osatuko dute eta gehienez, hamabik» izan da eztabaidatu dena. Gehienezko hamabiko kopurua dela eta, M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak egin dizkiote oharra. P. Goenagak eskatu du aldatzea, hots, XVII. Barne Jardunaldiak egin aurretik zegoen eran uztea, gutxieneko kopurua jarritz baino gehienezko kopurua zehaztu gabe. A. Urrutiak proposatu du Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunekin eratzea eta gehienez hamabost lagun izatera iristea. Hori proposatzeko, ekonomia izan du hizpide. J. L. Lizundiak gogoratu du lehen ere ez zela onartu kopuruak mugatzea.

Iritzi-trukearekin amaitzeko, irizpide ekonomikoak eta akademikoak kontuan hartuz, Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunekin eratzea eta gehienez hamabost lagunekin mugatzea hobetsi da.

Barne-erregelaren 45. artikulua eztabaidatu ondoren, Osoko bilkuran etena egin da. Izan ere, Herri Literatura batzordeak antolaturiko jardunaldietako txostenak eta gaurtik aurrera Euskaltzaindiaren webgunean eskainiko direnez gero, eginiko lanaren aurkezpena egingo da. Euskaltzainen eta hedabideen aurrean egingo den agerraldian, A. Urrutia euskaltzainburuak eta Pello Esnal batzordeburuak parte hartuko dute.

Aurkezpenaren ondoren, 12:15 direnean Osoko bilkurari segida eman zaio.

M. Azkaratek eta A. Urrutiak Barne-erregelaren 49. artikuluari eginiko oharra aurkeztu dira. Euskaltzainburuak galdetu du ea horrek zer-nolako planteamendua behar duen, ez baitago inon arauturik. M. Azkaratek ulertzen du horren prozedura eta antolamendua arautu beharko litzatekeela geroko batean.

I. Sarasolak ez dakusa horren beharrik eta era horretako figura berriak sartzea konplikazioa dela iruditzen zaio. B. Oihartzabalek uste du batzorde bakoitzak badiela bere barne ibilbidea egiteko eskubidea, eta hor autonomiaz jokatzeko askatasuna utzi beharko litzatekeela. Horren harira, A. Urrutiak gogorarazi du autonomia ez dela anarkia, eta koordinazioa eta ekonomia ere hartu behar direla kontuan, besteren artean, kudeatzailearekin hitz eginez.

M. Azkarateren arabera talde-eragile ere izan daiteke, batzorde eragilearena. I. Sarasolak uste du hobe litzatekeela izenik ez ipintzea. A. Sagarnak, bere aldetik,

oharra egin du, gehiegizko erreglamentismoaren arriskuan ez erortzeko. P. Uribarenen iritziz ez da halakorik behar.

Iritzi-trukearen amaieran M. Azkaratek hitza hartu du eta adierazi du proposamena erretiratzeko duela. Nolanahi ere den, onartu zaio gisa horretako talde antolaketa Gramatika batzordean zein bestelakoetan izatea, Barne-erregelaetan adierazten duten bezalaxe..

Horren segidan, 64. artikuluari P. Goenagak, M. Azkaratek, J. L. Lizundiak eta A. Urrutiak eginiko oharra aurkeztu eta eztabaidatu dira.

A. Urrutiak, Kataluniako *Institut d'Estudis Catalans*-eko *Secció Filològica*-ren antzera, hautagaien profila aurretik zehaztu beharko litzatekeela esan du, bai osoentzat, bai eta urgazleentzat ere. Hor gogoeta sakona beharko da, Euskaltzaindiaren etorkizunari buruz. M. Azkarate bat dator iritzi horrekin, gaiak patxadazko gogoeta sakona merezi du eta. Bere aldetik, J. Lakarrak hautagaien merezimenduak azaldu eta aurkeztu beharko liratekeela esan du. J. L. Lizundiak azpimarratu du Euskaltzaindiaren beharrak, komenentziak eta hautagaien merezimenduak azaltzeko aukera ere eskaini beharko litzaikeela hautagaiak aurkeztu dituztenei.

Gai beraren inguruan, euskaltzainburuak esan du gustatuko litzaikeela J. M. Torrealdaik Azkue Bibliotekari buruz prestatu duen bezalako txostena izatea, hor Euskaltzaindiaren egoera eta premia nagusiak ager daitezen, Euskaltzaindiaren etorkizuna baita jokoan.

P. Zabaleta bat dator J. Lakarra eta J. L. Lizundiarekin, hautagaien merezimenduen azalpena eta aurkezpene egiteko aukerarekin, baina ez gehiagorekin. X. Videgainek horretarako askatasuna erabiltzea eskatu du, baina ez unibertsitateko merezimendu-eskala hertsia erabera jokatzeko. Horren ondorioz, merezimenduak agertzeko aukera eskaintzea erabaki da, berorrez baliatzea aukeran utzirik, Barne-erregela behar duten patxadazko idazketa horretan puntu hau jasoz.

M. Azkaratek, A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67. artikuluari eginiko oharra aurkeztu dituzte. M. Azkaratek Osoko bilkuraren eskubide-egin-beharrak zehaztu/jaso egin beharko liratekeela esan du, hori zehazteko gogoeta irekiz. Euskaltzainburuak gogorarazi du erakunde baten aginte-organismo gorenaren Osoko batzarra dela, erakundearen osotasuna gogoan izanda. J. L. Lizundiak egin duen ekarpenean 67.5 xedapena osatzera datorren iruzkina egin du. Iruzkinean, Osoko bilkurari legezkiokien egitekoak proposatzen ditu.

J. Lakarrak araudietan banaketak nola egiten diren gogorarazi du, eta, organo bakoitzak dituen ahalmenez kanpokoak delegatzea dagoela gaineratu du. J. L. Lizundiak subiranotasuna Osoko batzarrari dagokion arren, proposamenak aztertzeko eta kritikatzeko epeak ematea eskatu du. P. Zabaletaren ustez, Osoko batzarrari dagokio erabakitzeak azken hitza, eta hori ez litzateke mugatu behar. Bestalde, galdetu du zeintzuk diren munta handiko gaiak. Ondorioz, 67. artikulua orain arte egon den eran uztea proposatu du. M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak egin dituzten ekarpenak kontuan hartzea eskatu dute. Nolanahi ere, Barne- erregelek behar duten patxadazko gogoeta horretan puntu hau ere jorratzea hobetsi da.

Aurrekoaren ondoren, Barne-erregelei eginiko oharrei buruzko eztabaida etetea eta hurrengo Osoko bilkuran segida ematea erabaki da.

XVIII. Barne Jardunaldiari segida emanez, Aurkitegiko Hiztegi Batuko lantaldearen osaketa aurkeztu du A. Sagarnak. Ondorioz, Hiztegi Batuko lantaldearen 2013-2016 aldirako osaketa honela geratu da:

Arduraduna: Urkia, Miriam.

Kideak:

- Aduriz, Jose Antonio
- Arrarats, Irene
- Arregi, Ainhoa
- Baraiazarra, Luis
- Dufau, Aines
- Gurrutxaga, Antton
- Rekalde, Paskual
- Sagarna, Andoni

Aholkularia:

- Davant, Jean-Louis

P. Salaberrik, bere aldetik, XVIII. Barne Jardunaldietan Onomastikaren eremuan egin behar dituen koordinazio zereginak betetzeko, P. Rekalde Onomastika batzordeko kide izatea komeni dela esan du. Onartu da, beraz, eta haren izena gehituko da.

Puntu honekin amaitzeko, I. Sarasolak honelako gaiak tratatzeko era luzeegiagatik protesta egin du, Osoko batzarraren gainerako arazoei denbora kentzen dietelako.

Aztergaietan aurreikusiriko laugarren puntua aztertu ondoren, bilera-deiko 2. gaia aztertu da Osoko bilkuran.

2. Exonomastika

2.1. Astronimia (V); kometak, izar iheskorak, galaxiak eta beste. Onartze-ko, hala erabakiko balitz. Ordu bat eta hamarrean sartu da batzar aretoan Alfonso Mujika, Exonomastika batzordeko idazkaria, eta euskaltzainak agurtu ditu. X. Kintana batzorde bereko arduradunak hitza eskaini dio. Azaldu duenez, proposamenari oharrik ez zaio egin. Nolanahi ere den, martxoaren 22ko Osoko bilkuran Astronimiako araugaiaren azken atala aurkeztu zenean, euskaltzain batzuek aipatu zuten ezen, galaxien izenei dagokienez, **Xren galaxia** moldearen ordezkari egokiagoa izango zela aposizioak erabiltzea **X galaxia**, ikusirik kometekin eta beste objektu batzuekin hala proposatu dela. Ondorioz, *Astronimia. Galaxiak eta nebulosak. Aposizioak ala eraikuntza sintagmatikoak* txostena aurkeztu da. Txostenean, Exonomastika batzordeak aurkezturiko autozuzenketa hobetsi da Osoko bilkuran.

2.2. Planeten jatorri-adjektiboak. Onartu, hala erabakiko balitz. Planeten izenetatik sorturiko adjektiboen zerrendaz ez da oharrik aurkeztu. Horiek horrela, martxoaren 22an aurkeztutakoa bere horretan onartu da.

2.3. Greziar alfabetoko letren izenak arautzeko proposamena onartu, hala erabakiko balitz. I. Sarasolak eta X. Videgainek egin dituzte oharrak. Ohar horiek kontuan izanda Exonomastika batzordeak letra batzuen izenen grafiak birkontsideratu eta ahoskerak egokitu ditu. Era berean, kh-rako jarritako oin-oharra kentzea erabaki da. Ondorioz, greziar alfabetoko letren izenen zerrenda ontzat eman da.

3. Zientzia eta teknika hiztegia

3.1. «Izen berezia + (-en) izena(a) egiturako terminoak» onartu, hala erabakiko balitz. Biltzar aretora sartu eta bilduak agurtu ditu Antton Gurrutxagak. Aztertzeko gaia dela eta, beste hizkuntzetako adibideak eta jokabideak azaldu ditu xeheki. Euskarazko testuen lekukotasunaren arabera, halako proposamenak egin ditu, gisa bereko kasuetan jarraibide berbera eredutzat harturik. M. Azkaratek aurkezturiko txostena ere horrekin bat datorrela ikusita, proposamena ontzat eman da.

3.2. «Matematika: oinarritzko hiztegia» onartu. Hala erabakiz gero. Era berean, A. Gurrutxagak *Matematikaren oinarritzko hiztegiaren* proposamenari, aurreko hilean aurkeztuari inork ez diola oharrik aurkeztu esan du. Beraz, onarturik gelditu da.

Euskaltzainburuak, M. Azkaraterekin bat etorritik, lexiko-material hauek testuingintzan eta irakaskuntzan izan ditzaketen ondorioengatik, lehenbailehen jakinarazi eta barreiatzea komeni dela esan du.

5. Eskuarteakoak

5.1. Euskaltzaindiaren Iparraldeko urteko batzarra. Maiatzaren 22an egin zen Ipar Euskal Herriko euskaltzainen bilkura, Baionako ordezkarietan. Frantziako Estatuko Elkarre-legeak dioena betetzeko, bilera hau urtero egiten da, eta hor Ipar Euskal Herriko euskaltzainek –oso, ohorezko eta urgazleek– parte hartzen dute. Horiez gainera, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak ere izan ziren.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman zion bilerari. Ondoren, 2012ko ekitaldien txostena aurkeztu zuen Xarles Videgain iparraldeko ordezkariak. Bestalde, Joseba Zabaleta kudeatzaileak 2012ko kontuen txostena eta 2013ko aurrekontua aurkeztu zituen. Azkenik, 2012. urteari zegokion Aditegi txostena ere aurkeztu zen.

5.2. Euskaltzaindiak Frantziako Kultura eta Hedabideen ministroari bidaliriko gutunaren berri eman, 2012ko ekainaren 23an igorriarena. Europar Estatuetan mintzatzen diren eskualdeetako hizkuntzen eskubideen alde karta bat sinatua dute Europar Batasunaren kide gehientsuenek, Frantziako Estatuaren salbuespenarekin. Horrek hainbat hitzunen eskubideak urratzen ditu, Iparraldeko euskaldunenak bereziki. Hortaz, eta iparraldeko hautetsi, kultura eta irakaskuntza arloetako lagun askoren protestari atxikiz, Euskaltzaindiak gutun bat bidali dio Hezkuntza-ministroari, besteren artean, euskararen eta Frantziako beste hizkuntzen ofizialtasuna onar dezan.

5.3. Eusko Jaurlaritzari jarritako helegitea kendu da. Aurreko legealdian, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiarentzat onartu zuen diru-laguntzaren zati bat (190.000 euro) Eusko Jaurlaritzak atxiki zuela eta, Akademiak helegite bat jarri zuen epaitegian. Harrezkero, Eusko Jaurlaritza berriak arazo hori konpontzeko, 2013. urtearen barruan, ohiko diru-laguntzatik aparte, Euskaltzaindiarentzat 190.000 euroko laguntza bideratzeko prozesua hasi duenez gero, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak helegitea kentzea erabaki duela jakinarazi da.

5.4. Euskadi Literatura saria, itzulpen arlorako epaimahairako Euskaltzaindiaren ordezkaria. Jose Austin Arrieta euskaltzain urgazlea izatea proposatu du Zuzendaritzak, 2013ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran.

5.5. Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena. K. Rotaetxe euskaltzain ohorezkoa, gaixotasun luze baten ondorioz, 2013ko maiatzaren 2an hil dela jakinarazi da. Haren hileta-elizkizunak Bilboko Done Bikendiko elizan egin eta hara Euskaltzaindiko Zuzendaritzako zein gainerako kide ugari joan ziren.

Haren hilberri txostena Xabier Altzibar euskaltzain urgazleak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak, 2013ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran. Onartu da Osoko bilkuran.

5.6. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra. Euskaltzaindiaren ekaineko batzarra Eusko Legebiltzarrean egingo da hilaren 28an. Egun berean, Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio elektroniko berritua ere aurkeztuko da, Eusko Legebiltzarreko Tomas Moro gelan.

6. Azken ordukoak

6.1. Ahoskera Lantaldea Batzordea bihurtzeko proposamena banatu da. M. L. Oñederrak proposamen idatzi bat banatu du, horren helburuak, egitekoak, eta osakideak proposatuz. Idatzia 4. puntuari dagokio eta aurreko Osoko bilkuran eskaturikoa da. Nolanahi ere, denbora faltaz ez da ahoz aurkeztu. Horiek horrela, txostenari ekarpenak egiteko tarte ireki da, ekainaren 19an amaitzen dena. Hurrengo Osoko bilkuran txostena eta iristen diren oharak aurkeztu eta eztabaidatuko dira.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 14:05 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola, Ibon,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun eta Zabaleta, Joseba.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkarete ahala Patxi Goenagari; José Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Patxi Goenagari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura goizeko 10:05ean hasi da Gasteizen, Eusko Legebiltzarraren egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak bilduriko euskaltzain guztiak agurtu ditu, etorri-rikoen zerrenda eta ahalak irakurri eta, quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko batzarrari hasiera eman dio, eguneko gai-ordena jarraituz.

Idazkariordeak eguneko egitarauari buruzko ohar batzuk egin ditu.

1. Osoko bilkurako (2013-05-31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ahoskerari buruzko txostena dela eta (Azken ordukoetako 6.1. puntua), M. L. Oñederrak adierazi du denbora faltaz zegokion unean aurkezteko modurik izan ez bazuen ere, euskaltzainen artean azken orduan banaturiko idatzia laugarren puntuari, hots, «XVIII. Bar-

ne Jardunaldiei» dagokiola, eta beraz, han jaso beharko litzatekeela aipamena. Izan ere, aparteko kontua dela ematen du.

A. Urrutiak adierazi du kronologikoki halaxe egin zela eta ondo jasota dagoela bilera-agiri proposamenean. Nolanahi dela ere, txosten hori laugarren puntuarekin lotzeko esaldi bat gehitzea iradoki du. Horiek horrela, honela uztea onartu da: «... proposatuz. Idatzia 4. puntuari dagokio eta aurreko Osoko bilkuran eskaturikoa da. Nolanahi ere, denbora faltaz ez da ahoz aurkeztu. Horiek horrela...».

P. Goenagak adierazi du ez daukala zuzenketa zehatzik egiteko. Alabaina, laugarren puntuan azaltzen diren «hobetsi» eta gisakoek zer adierazi nahi duten galdetu du. Barne-erregelak atal batzuetan erabaki zehatzak hartu ote ziren ez baitago garbi.

J. L. Lizundiak proposatu du bilera-agiriko 4. puntua erabakitzea hurrengo baterako uztea, berak beste modu batera formulatu nahiko lukeelako eta Idazkaritzari laguntza eskaini dio zeregin horretarako. Era berean, batzuetan ohargileek oharrak nori egin dizkioten ez dela jartzen aktan azpimarratu du.

A. Urrutiak J. L. Lizundiari erantzun dio, esanez oharrak garaiz eta idatziz egitea komeni dela, besteren artean, bilera-agiriaren onarpena arindu ahal izateko. P. Goenagari ere erantzun dio, esanez 2015. urtean ere Barne Jardunaldiak egingo direla, eta Barne-erregelak orduan ere eguneratu edo aldatu daitezkeela. Ondorioz, Barne-erregelen moldaketa egin ahal izateko, Zuzendaritzari denbora ematea eskatu du. Hori ez da epemugarik gabe kontuak bere horretan uztea, Zuzendaritzak konpromisoa hartu baitu Osoko bilkuran prozesu horri buruz pentsatzeko eta udazkenean abian jartzeko. «Hobetsi» eta gisako idazketak direla eta, A. Urrutiak esan du M. Azkaratek proposamen zehatz batzuk egin zituela, eta horietako hainbat irizpide gisa onartu zirela Osoko bilkuran. Beste batzuk, oster, zehaztu gabe zeudenez gero, aurrerago hausnartzeko eta zehazteko utzi ziren.

P. Goenagak esaera batzuen esangura argitzea besterik ez duela nahi izan argitu du.

Idazkariordeak bilera-agiriei buruz egon daitezkeen oharrak, iruzkinak edo zuzenketak idatziz egitea ona litzatekeela esan du, proposatzen diren aldaketen aurrean euskaltzainen iritzia zein den jakiteko, eta horiek kontuan izanik, zuzenketak ganoraz eta denboraz egin ahal izateko. Era berean, bilera-agiriko puntuen hurrenkera gaizki dagoela esan du (4. zenbakiarekin bi puntu azaltzen dira eta. Era berean, 2. puntuko azpi-atal bat, 3.2. zenbakiarekin ageri da), beraz, behin betiko bilera-agirian konponduko da.

Amaitzeko, euskaltzainburuak ea bilera-agiria onartzen den galdetu du. J. L. Lizundiak 4. puntuari, hots, «XVIII. Barne Jardunaldiei» buruzko atalari erreserba egiten diola eta bilera-agirian espresuki jaso dadin eskatu du. Era berean, gainerako puntuei buruzkoa onartzen duela dio. Ondorioz, ohar horiek jasota, bilera-agiria ontzat eman da.

2. «Zientzia eta Teknika Hiztegia»

2.1. «Fisika: oinarrizko hiztegia» onartu, hala erabakiko balitz. Ez da oharrik etorri eta, beraz, onartu egin da. Zerrenda horren erabilera dela eta, aparteko tokian barik, I. Sarasolak eskatu du zerrenda onartu hori berehalaxe Hiztegi Batuan txertatzeko. X. Kintanak bestela argitaratzea hobetsiko luke, zientzien zerrenda horiek hiztegi orokorraren osotasuna, hasiera honetan behintzat, desoreka ez dezaten. Hitz horien estatusa zein den, hots, jada onarturik daudela, argi uzteko eskatu du J. Lakarrak, eta A. Arejita berarekin bat etorri da. A. Sagarnak esan du hitz zerrenda onartuei estatusa Euskaltzaindiaren batzarrak ematen diela, eta, erabiltzaileen erraztasunerako, bai Hiztegi Batuan eta bai zerrenda berezietan argitaratzea komeniko litzatekeela.

Idazkariordeak erabiltzaile potentzialen (unibertsitateak, argitaletxeak, irakasleak eta abar) onerako, zerrendak, Euskaltzaindian onartu ondoren, ahalik lasterren aurkeztea eta zabaltzea proposatu du.

I. Sarasolak uste du esplizitatu behar dela hitzen estatusa zein den, bai eta ea onarturiko guztiak maila berean dauden ere. A. Urrutiak aspaldi hori idatzirik dagoela gogorarazi du: bakoitza arau, gomendio edo zer den xehatuz. Hala komeniko balitz, hori berrikusi beharko litzatekeela ere esan du. Era berean, Informatika zerbitzuburuari zerrendak erabiltzaileei eskuratzeko zenbat denbora beharko den aurreikuspena egin dezan eskatuko zaio.

Tx. Peillenek galdetu du nolakoak diren IVAP-HAEE deiturikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak. Horri buruz, A. Urrutiak erantzun dio esanez lan-kidetza-hitza-ermentu dutela Euskaltzaindiak eta IVAP-HAEE erakundeak. Horren barruan, egiteko zegoen jardunaldia ez da oraindik egin, asmoak bai, baina eragozpenak ere egon direlako.

3. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

3.1. Barne-erregelak. Atal honetan, A. Urrutiaren zenbait ohar, aurrekoetan aurkeztu eta eztabaidatu ez direnak, eta ohar hauetako batzuei J. L. Lizundiak egi-

niko iruzkinak gelditzen dira. Atal honi ekitean, eztabaida egon da erabili beharreko prozedurari buruz. J. L. Lizundiak proposatu du oharrik jaso ez duten A. Urrutiaren ekarpenak bere horretan onartzea. Era berean, bere oharren harira, A. Urrutiari eskatu dio proposamenak erretiratzea, besteren artean, Barne-erregelen eztabaida gehiegi ez luzatzeko. Halaber, euskaltzainburuari esan dio beren arteko desadostasunak berek telefonoz edo ados ditzaketela.

A. Urrutiak adierazi du bere ekarpenak aurkeztu eta eztabaidatu nahiko lituzkeela, gainerako guzti-guztiek egin ahal izan duten moduan. Era berean, Barne-erregelak direla eta, J. L. Lizundiarekin idatzizko testuak trukatu behar baditu, prest dagoela eta idatzitakoaren zuzeneko berria Zuzendaritzari eta Osoko bilkurari emango diela gaineratu du, berak ez baitu ezer ezkutuan egin gura.

P. Salaberri pribatuki edo erdi ezkutuan egindako tratu horiek direla eta, egin den proposamenarekin ez dator bat, Osoko batzarraren onespentetik iragan gabeak liratekeelako. Aurretik, gainera, gutxienez Zuzendaritzatik pasatu beharko lukete, iritzia jasotzeko. A. Urrutiak berretsi du P. Salaberrik esandakoa eta azpimarratu du horrexegatik egin duela bere proposamena.

Ondoren, Barne-erregeletako 16. artikuluari eginiko zuzenketak aurkeztu dira. Oharra A. Urrutiak egin du, eta honek eginikoari J. L. Lizundiak iruzkina egin dio. 16. artikuluari buruzko eztabaida hurrengorako utzi da.

Segidan, 43. artikuluari eginiko gehitzea aurkeztu du A. Urrutiak. Zuzenketa honen bidez, Egiturazko batzordeetan Azkue Bibliotekari «Azkue Biblioteka eta Artxiboa» deitzea proposatu du. Onartu da.

Barne-erregeletako 51. xedapenari A. Urrutiak eginiko iruzkina aurkeztu da. Proposatutakoaren harira, eztabaida egon da idatziaren hizkuntza-zuzentasuna dela eta. Azkenean, honela geratu da: «Batzordeek beren langintza garatzeko eskubidea dute, betiere Euskaltzaindiak onarturiko plan estrategikoaren arabera, eta emaitzen kontua, Osoko bilkurari emango diote, honek, hala legokiokeenean, azter eta berrets dezan».

Barne-erregeletako 62. artikuluari A. Urrutiak eginiko ekarpena eta azken honi J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketa hurrengorako utzi dira.

83. artikulua dela eta, 16. artikuluan eginiko zuzenketarekin (Artxiboa gehitzea) bat datorrenez gero, onartu da. 85. artikuluari A. Urrutiak eginiko oharra onartu da aldaketa txiki batekin. Hona hemen: «...laguntza ematea eta Euskaltzaindiaren ondare akademikoaren gizarteratze lana sustatzea dira, Azkue Bibliotekaren...». 87. artikulua eztabaida hurrengorako utzi da.

88. artikuluari A. Urrutiak eginiko oharra onartu da, aldaketa txiki batekin: «Azkue Bibliotekaren eta Artxiboaren kontabilitatea erakundearen kontabilitate orokorraren barruan eramango da». Puntu honi dagokionez, J. L. Lizundiak adostasuna erakustez gain, iraganean halaxe ez izateak arazoak sortu zituela gaineratu du.

Ondoren, Barne-erregeletako 92. artikuluari A. Urrutiak eginiko iruzkinak eta oharra aztertu dira. Artikulu honi eginiko oharra hiru izan dira; batetik, 92.2 xedapenaren akabuan esaldi bat gehitzea onartu da («Batzorde honek aholkuak emango ditu, Zuzendaritzaren edo Osoko bilkuraren eskariz, Azkue Bibliotekari eta Artxiboari buruzko gaitan»); bestetik, 92.3 idatzian «Bibliotekako eta Artxiboko» testua jartzea onartu da; azkenik, 92.6 puntua gehitzea proposatu du A. Urrutiak. Testuak ondorengo hau dio: «Artxiboaren ibilbidea atontzeko batzordeño suntsikorra, Zuzendaritzak izendatua, Bibliotekako eta Artxiboko batzordeari adierazita». 92.6 puntua gehitzea ez dela beharrezko iritzi da Osoko bilkuran. Ondorioz, erretiratu egin du A. Urrutiak.

93. artikuluari A. Urrutiak eginiko ekarpena eta azken honi J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketa hurrengorako utzi dira.

94. artikuluan bi ekarpen egin ditu A. Urrutiak; «Azkue Bibliotekako eta Artxiboko langileak...» eta paragrafoaren bukaeran «plan estrategikoaren arabera». Biak onartu dira Osoko bilkuran.

95. eta 96. artikuluei A. Urrutiak eginiko ekarpenak eta hauei J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketak hurrengorako utzi dira.

97. artikuluararen amaierako esaldia moldatzea proposatu du A. Urrutiak. Hona hemen: «Idazkari lanak, Argitalpenen zerbitzuaren arduradunak egingo ditu eta bereziki zainduko da Akademiaren argitalpenen hizkuntza-kalitatea». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

98. artikulua eguneratzeko zenbait proposamen egin du A. Urrutiak; hirugarren paragrafoko «Argitalpen zerbitzuaren arduraduna...» onartu da Osoko bilkuran, bai eta 98.3 eta 98.4 xedapenei eginikoak ere. 98.6 xedapena gehitzea onartu da, idazkeraren aldetik zuzenketaren bat egin ondoren. Ondorengo da gehituriko pasartea: «Idazkariordearen agindupean argitalpenaren ikusgarritasuna eta gizarteratzea zehaztea eta argitalpenaren jarraipena egitea, euskalgintzaren barruan».

102. artikulua eguneratzea proposatu du A. Urrutiak amaierako esaldian «... honetan, argitalpen zerbitzuaren arduradunaren laguntza izango du». Onartu da.

103. artikulua dela eta, ordea, bigarren paragrafoaren hasiera honela gera dadin proposatu du euskaltzainburuak: «Idazkariordeak koordinatuko ditu, lantalde horren barruan, prentsa eta komunikazio zerbitzuaren arduraduna, argitalpen zerbitzuaren arduraduna eta Informatika...». Azken ohar hau ere onartu da Osoko bilkuran.

Amaitzeko, 105. artikulua 105.5 xedapenari esaldi bat gehitzea proposatu du A. Urrutiak, zera dioena: «Idazkariordeak koordinatu eta lagunduko ditu lan honetan». Azken hau ere onartu da.

3.2. Ahoskera Lantaldea Batzorde bihurtzeko proposamena. Barne-erregelak eztabaidatu ondoren, aurreko Osoko bilkuran M. L. Oñederrak aurkezturiko proposamena eta azken honi egin zaizkion oharak aurkeztu dira. Bi ohar egin zaizkio, gutun bidez Euskaltzaindira helaraziak. Bata X. Kintanarena, eta bestea, A. Urrutiarena.

Xabier Kintanak berea irakurri du, eta Euskaltzaindiaren batzordeetan orain arte ohiko araubidea batzordea euskaltzain osoz zein urgazleaz osatzea izan dela gogorazti du. Hori dela eta, ez deritzo zuzen, fonologian lehendik ere urgazle adituak izanda, horien ordeztu pertsona berriak osakide izendatzeari, lehenagoko urgazleak bazterrean aholkulari gisa utzirik, eta dio hori interesatuak bigarren mailara zokoratzeatzat uler daitekeela.

A. Urrutiak ere berea irakurri du eta galdetu du M. L. Oñederraren proposamenaren aholkulari izateko aurkeztu diren pertsona horiekin aldeztu aurretik mintzatu den. Ez dio egoki iritzi, halaber, urgazle diren aholkulariak, beraiei kontsulta egin gabe, kide proposatzen direnekin batera ez jartzea, guztiak Ahoskera batzordekide izan daitezen, Euskaltzaindiaren tradizio anitza jasoz.

M. L. Oñederrak bieie erantzun die, beste testu bat irakurriz. Horretan batzorde hori eratzeke bere gaitasuna zalantzan jartzen dela deitoratu du. Ukatu egin du bere proposatuetarik inor beheratu duenik, eta bere jendearekin kontatzeko eskubidea duela azpimarratu du. Izenak zerrendan jarri baino lehenago guztien adostasuna izan duela gaineratu du. Bestalde, batzordekide zein aholkulari izatean ez dagoela inolako mailaketa edo hobespen asmorik azpimarratu du. Halaber, M. L. Oñederrak, bere proposamenari forma arazoak egotzi zaizkionez, galdetu du zer gertatu den duela bi urte Ahoskera lantaldeak Zuzendaritzari aurkezturiko txostenarekin.

A. Urrutiak aholkulari izateko adostasuna aholkulariengandik lortu dela aktan jarri beharra dagoela esan du, eta horretaz bere erreserba daukala gaineratu du,

Euskaltzaindiari inork egotzi ez diezaion berez ez duen erantzukizuna. M. L. Oñederrak gaineratu du, aholkularien adostasuna badela aholkulari izateko. A. Urrutiak gaineratu du M. L. Oñederrak bere erantzunean erabili duen esamoldea «*nire jendea behar dut*», oso esanguratsua dela, bertara biltzen baita, ziur asko, Euskaltzaindiaren kontzeptu jakina eta hurbileko irizkideak soil-soilean batzen dituen. Era berean, azpimarratu du Euskaltzaindia Euskal Herriko guztiena dela, eta iritzi eta jatorri desberdinetako euskaltzaleak biltzen dituela. Gaineratu du, bere proposamenean M. L. Oñederrak aurkeztutako kide eta aholkulariak batzordekide ikusten dituela, alor horretako aditu esanguratsuak direlako.

X. Kintanak ere erantzun du, eta, M. L. Oñederrak bere erantzunaren testuan dioenaren aurka, azpimarratu nahi izan du berak bere idazkian ez duela deus esan M. L. Oñederraren gaitasunaren aurka. Kritikatu duen bakarra prozedura izan da, batzorde batean osakideak eta aholkulariak ez baitira inoiz jo maila berekotzat.

P. Uribarrenek beharrezkoa deritzo lantalde horren lanari koordinazioa ematea, gauzak elkarlanean egin daitezen. P. Goenagak ez du uste M. L. Oñederrak gaizki jokatu duenik, hor ezkutuko interesak gordetzen direla iradoki nahi izatea bezala. J. Lakarrak ez deritze ongi M. L. Oñederraren proposamenari egindako kritikei, eta pertsonekin zuzenik sartzea ez dela egoki esan du.

Eztabaida amaitzeko M. L. Oñederrak eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran. Era berean, A. Urrutiak aholkulariek erakutsiriko adostasuna dela eta, bilera-agirian espresuki erreserba jaso dadin eskatu du, alegia, M. L. Oñederrak bermatzen duela aholkulari izateko proposatutako horiekin aholkulari estatusa izan dezaten kontsultak egin dituela eta horien baietza baduela; bestela bada, bere desadostasuna gordetzen du, aktan egiten duen erreserbaren bidez.

3.3. XVIII. Barne Jardunaldietan Gramatika batzordeak aurkezturikoari egini-ko oharra. Gramatika Batzordearen 2013-2016 plangintza eta osaketa dela eta, A. Urrutiak txosten bat egin du. Euskaltzainen artean testu idatzia banatu ondoren, irakurri egin du. Banatutako idatzian batzorde horren egitekoez, eratzeko moduez eta lan prozeduraz gogoeta batzuk egin ditu. Bestalde, bere ustez, euskaldun jendeak gramatika arloan dituen eguneroko eta egiazko premiak eta Gramatika batzordeak orain arte aztertu duen problematika, aski urrun daude, eta arautze eta didaktika hutsuneak dakuski. Hortaz, lan egiteko bi plano daudela uste du, elkarren osagarri izan daitezkeenak.

Ondoren, P. Goenagak galdetu du A. Urrutiak eginiko oharra noizkoa den, hots, XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu ziren txostenei ekarpenak egiteko irekiriko

aldian aurkeztu den. Hori erantzunez, A. Urrutiak adierazi du Gramatika batzordeak prestatuko duen Gramatikaren aurkibidea eskatu zuela plangintza aurkeztu zen egunean bertan, Osoko bilkuran, eta ondoren Idazkaritzari igorritako idatzi batean. Erantzunik ez duela jaso gaineratu du. Beraz, hori jakin gabe egin zuela ezarritako epearen barruan bere ekarpena. Nolanahi ere, eskatutakoa eskuratu bitartean, ekarpena osatzeko eskubidea gordetzen zuela adierazi zuen bere sasoian Osoko bilkuran, gordetze hori errepikatu duela gaia aipatu den bakoitzean. Artean, eskaturiko informazioa ez da etorri eta Barne Jardunaldietan gai horri buruzko prozesua hasi denean, aurkezten du berea. Hortaz, eskatu du horri buruz eztabaidatzea eta aurkeztutakoari buruzko oharrek egiteko aldia irekitzea.

Horiek horrela, aurkeztutako idatziari ekarpenak uztailaren 12rako bidaltzea onartu da Osoko bilkuran.

A. Urrutiaren txostenean Euskal Herriko Unibertsitatearen webgunean, egun ere, iazko azaroaren datarekin, *Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca* nola agertzen den azaldu du, hau da, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerketa taldea balitz bezalaxe, eta horri bitxia iritzi dio, ez baita ohikoa erakunde batek beste baten lanak bereak balira bezala agertzea. Puntu hori argitu beharko litzatekeela uste du, orain arte behintzat, erakunde bien arteko harremanak onak izaten segi dezaten.

4. Eskuartekoak

4.1. J. L. Lizundia euskaltzain osoa emeritu izatera igarotzearen ondorioz hutsarte batetzeko hautagaiak. J. L. Lizundia euskaltzainak aurtengo apirilean 75 urte bete ditu eta, Euskaltzaindiaren arauetan ageri denez, emeritu egoerara igaro da. Ondorioz, hutsarte 2013ko apirileko Osoko bilkuran iragarri zen.

Arauetan ezarritik dagoenez, hutsarte iragarri eta hurrengo bi Osoko Bilkuretan aurkezten ahal dira hautagaiak. Idazkariordeak, Euskaltzaindiaren erregistroan bi hautagai aurkeztu direla adierazi du. Ondokoak dira hautagaiak, aurkezturiko data kontuan hartua; batetik, Itziar Laka euskaltzain urgazlea (2013-05-31n aurkeztua), P. Salaburuk, M. Azkaratek, B. Oihartabalek eta P. Goenagak sinatua; eta bestetik, Jabier Kaltzakorta euskaltzain urgazlea (2013-06-21ean aurkeztua), A. Arejitak, X. Kintanak, P. Uribarrenek eta A. Urrutiak sinatua.

Hautagaien curriculumak banatu ditu aldez aurretik Idazkaritzak. Nolanahi ere, norbaitek berriz eskuratu nahi balitu Idazkaritzari eskatzea iradoki du idazkariordeak. Horiek horrela, bozketa hurrengo Osoko bilkuran, uztailaren 19koan egingo dela jakitera eman da.

4.2. Euskaltzaindiari 2013ko Europar Hiritarraren saria eman dio Europako Parlamentuak. Euskaltzainburuak adierazi duenez, Europar Parlamentuak Euskaltzaindiari, euskararen eta euskal kulturaren alde egiten diharduen lanagatik, Europar Hiritarraren saria ematea erabaki du. Sariarekin batera datozen domina eta diploma urriaren 16an eta 17an jasoko ditu Euskaltzaindiak Europar Parlamentuan.

4.3. Atlasaren 4. liburukiak *Juan de Iciar* saria jaso du. Euskaltzaindiak argitaratu duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukiak saria jaso du pasa den ekainaren 11n, «Instituto Bibliográfico Manuel de Larramendi» deiturikoaren eskutik.

4.4. .eus domeinua. Urtebete oso bat ebaluazio fasean eman ondoren, ICANN erakundeak Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen .eus domeinua onartu du. Hala adierazi zen joan den ekainaren 15ean, Euskaltzaindiaren egoitzan egindako prentsurrekoan. Euskaltzaindia .eus fundazioko kide izan da sorreratik. A. Sagarna euskaltzaina izan da Euskaltzaindiaren ordezkaria eta elkarteko presidentea, aldi batean. Azken bi urteotan, J. M. Torrealdai da Euskaltzaindiaren ordezkaria eta elkarteko presidentea. Horiek horrela, biei egin duten lanagatik eskerak ematea erabaki da Osoko bilkuran.

4.5. B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren argitalpen berria. A. Urrutiak aurkeztu du auzia. Duela zenbait hilabete, Nevadako Unibertsitateak Euskaltzaindiari baimena eskatu zion Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ingeles itzulpena argitaratzeko. Euskaltzaindiak, kontratu baten bidez, baimen hori eman zion dohainik, tirada mugatu eta zehatz bat agertzeko, betiere Euskaltzaindiak itzulpen horretan eta obra oso horren aurretiko edizioetan dauzkan jabetasun eskubideak liburuan argi eta garbi agertu beharko zirela argi utzirik.

Liburua, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratu da, bai eta prentsan horren aurkezpena egin ere. Baina obra ikusita, sinaturiko kontratuan ezarritako baldintza batzuk ez direla bete ageri da, Euskaltzaindiaren eskariz Jon Artatxo legelariak egindako txostenean zehazki adierazten den bezala. Txostena Joseba Zabaleta kudeatzaileak irakurri du. Zuzendaritzak, horren argitan, Nevadako Unibertsitateari kontu eta argitasunak eskatuko dizkio, eta Bizkaiko Aldundiaren Kultura arduradunei gertaturikoaren informazioa emango.

Era berean, Osoko bilkurara hurreratzetik izan ez duten euskaltzainei Jon Artatxo abokatuak prestaturiko irizpena bidaltzea erabaki da, bai eta Osoko bilkuraren karpetan jasotzea ere.

4.6. Espainiako sari nazionalak. Urtero bezala, Espainiako Kultura Ministerio-tik eskabide bat igorri diote Euskaltzaindiari, Espainiako Literatura Sari Nazional-letarako epaimahaikide batzuk izendatzeko. Eskari hori Euskaltzaindiaren Zuzendaritzan aztertu ondoren, proposatu direnen zerrenda irakurri du euskaltzainburuak. Hona hemen:

Premio Nacional de la Letras Españolas	Aurelia Arkotxa
	Xabier Kintana
Premio Nacional de Literatura (Poesia)	Amaia Jauregizar
	Sebastian Gartzia
Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil	Mari Jose Olaziregi
	Xabier Kaltzakorta
Premio Nacional de Literatura (Narrativa)	Patri Urkizu
	Miren Billelabeitia
Premio Nacional de Literatura (Ensayo)	Juan Luis Goikoetxea
	Sagrario Aleman
Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática)	Karlos del Olmo
	Arantza Fernandez
Premio Nacional a la Mejor Traducción	Kaxildo Alkorta
	Lourdes Auzmendi
Premio Nacional de Periodismo Cultural	Goizalde Landabaso
	Felipe Juaristi

4.7. J.-B. Battittu Coyosen emaztearen heriotza. Euskaltzainburuak B. Coyos Zuberoako euskaltzainaren emaztearen heriotzaren berri eman du. Elizkizunak ekainaren 12an, Mugerren egin zirela gaineratu du eta bertan, A. Urrutia euskaltzainburuarekin batera, S. Aleman, J. L. Davant, J. Haritschelhar, P. Charritton, A. Iñigo, X. Kintana, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, P. Uribarren, X. Videgain, M. Zalbide, Xipri Arbelbide, J. Zabaleta eta E. Osa izan ziren, besteak beste. Euskaltzainburuak Osoko batzarraren izenean bere doluminak adierazi dizkio. Bere alde-tik, J.-B. Coyosek eskerrak eman ditu.

4.8. Emile Larrereren istripuaz. X. Videgainek berrikitan azaldu duenez, E. Larre euskaltzain emeritua erori eta kolpatua izan da. Aulki batean egoten da, nekatua eta mugitzeko eragozpenarekin. Medikuek, edonola ere, lasaitasuna gomendatu diote. Iparraldeko euskaltzain oso batzuek bisita egin diote aurreko egunetan eta informazio hori jaso dute.

5. Azken ordukoak

5.1. Hurrengo bilera. Euskaltzaindiaren uztailaren 19ko Osoko bilkura Akademiaren egoitzan egingo da, Bilbon, goizeko 10:00etan.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 14:45 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko uztailaren 19an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Zabaleta, Joseba, kudeatzailea eta Osa,
Erramun, idazkariordea.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B.
Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;

Beñat Oiartzabalek ahala Xarles Videgaini; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Ibon Sarasolak ahala Miren Azkarateri; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, uztailleko Osoko batzarrari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

1. Aurreko Osoko batzarraren (2013-06-28) batzar-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

P. Charrittonek esan du J-B. Coyosen emaztearen hiletan bera eta emaztea ere izan zirela, eta aktan hori eranstea nahiko lukeela. Ontzat eman da.

M. L. Oñederrak ekainaren 28ko Osoko Batzarrean irakurri zuen testua bilera-agiriari osorik eranstea eskatu du, ez baitago konforme paperean jaso denarekin. Horrela erabakitzen bada, A. Urrutiak eta X. Kintanak idatzirikoak ere eranstea eskatu dute.

A. Urrutiak onartzen du eranskin hori gehitzea, baina horrek orain arteko ohi-tura hausten duela azpimarratu du, ohiko sistema aldatzen delako.

J. L. Lizundiak esan du *Euskera* agerkarian Barne jardunaldien txostenak eta argitaratu izan direla eta horixe dela biderik egokiena testu hauek argitaratzeko.

P. Goenagak aktak egiteko bi modu direla esan du a) akta zehatz amaigabeak, eta b) akta laburtua, horretan, lehenik puntua aipatuz, eta ondoren proposamena eta erabakia emanez.

A. Arejitak esan du beste erakundeetan ere aktak holakoak izaten direla, hots, labur eta objektiboak.

J. L. Lizundiak batzar-agiriko 3.1. puntua dela eta, desadostasuna agertu du. Halaber, testu bat irakurri du ondokoa dioena: «Azalpen bi egin beharra dut: Lehenik, ekaineko aktari buruzkoa da, zeren eta Idazkaritzatik bidalitako formatutik ezin baita aldaketa proposamenik idatzi edota erantsi. Orrialde osoko testu “alternatibo” bat idatzi beharko nuke eta, ez dut, horrexetarako, astirik. 18 desadostasun ditut: batzuk nik esandakoak jaso gabe, aldaketak, zehaztapenak, erratu argitzeak edo gehitzeak dira, eta ezinezkoa da idazkariaren testu hain “oparoari”, segizio zehatza egitea, word eran ere, posible izan banu, oso zaila izango zen. Beraz, edota, batzar-agiriaren 3.1 puntuaren testua, mahai gainean geroratzen da, hurrengo bilkuran onartzeko moduan, edo, bestela, batzar-agiria nire kontrako botoarekin geldituko da. Gainera, beste modu batez esanda, neurekiko aipamen zuzenak, aktak, oker bildu dituelako».

A. Urrutiak galdetu dio M. L. Oñederrari ekainean irakurririko testua eranskin gisa argitaratzea nahi duen. M. L. Oñederrak hala egin dadin nahi duela adierazi du. A. Urrutiak eta X. Kintanak ere euren testuak aktaren eranskin gisa argitaratzea eskatu dute. Ondorioz, M. L. Oñederrak irakurririkoa, bai eta A. Urrutiak eta X. Kintanak eginiko testuak, J. L. Lizundiak proposatutakoaren arabera, *Euskera* agerkarian argitaratuko dira, Barne jardunaldietako txostenak argitaratzen direnean. Horrela argi geratuko da bakoitzak adierazi duena.

Ondoren, batzar-agiriaren testua euskaltzainek onartzen duten galdetuta, bilera-agiria ontzat eman da, J. L. Lizundiaren kontrako botoarekin.

2. J. L. Lizundia euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea: hautagaiak bozkatea

J. L. Lizundia, adinagatik, emeritu izatera iragan berri dela jakinarazi da. Hutsartea betetzeko bi hautagai aurkeztu dira; batetik, Itziar Laka; bestetik, Jabier Kaltzakorta.

Botazioa egin aurretik, bozketarako behar-beharrezkoa den quorumari buruz, hots, Arautegiaren eta Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen ondorioei buruz iritziak agertu dira. J. L. Lizundiaren iritziz, 14 boto behar dira Arautegiak eta Barne-erregelek finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko, beste euskaltzain batzuk ere bat datoz iritzi horrekin. Beste batzuen iritziz, ordea, 13 boto behar dira. Xedapenek diotena interpretatzeko orduan adostasunik egon ez denez gero, kontuan hartuko den irizpidea botoetara eraman da.

Emaitza honakoa izan da: gehiengo osoa eskuratzeko 14 boto izatearen alde 9 boto, 13 boto izatearen alde 13 eta 2 boto zuri. Kontuan izanik, zuzenean edo ordeztuak dauden euskaltzainak 25 eta bilduriko botoak 24 direla, botoak berriz zenbatu dira, emaitza berbera izanik. Azkenean, botoak jasotzeko erabiliriko kutxaren azpialdean beste boto bat agertu da. Ondorioz, emaitzaren inguruan zalantzarik egon ez dadin, bozketa errepikatzea eskatu da.

Bigarren bozketa horren emaitza ondorengo hau izan da: jasoriko boto kopurua 25; gehiengo osoa eskuratzeko 14 boto izatearen alde 7 boto; 13 boto izatearen alde 14 eta 4 boto zuri.

Hutsartea betetzeko egin beharreko botazioan beharrezkoa den gehiengo osoa zein den argitu ondoren, aurkezturiko bi hautagaietako bat izendatzeko bozketa egin da. Hona hemen emaitza: Jabier Kaltzakortak 16 boto; Itziar Lakak 9. Ondorioz, Arautegiak eta Barne-erregelek finkaturiko gehiengo osoa eskuratu duen Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso izendatu du Osoko bilkurak.

Izendapena egin ondoren, 12:00etan etena egitea eta ordu laurdeneko atsedenaldia hartzea erabaki da Osoko bilkuran.

12:15 direnean segida eman zaio Osoko bilkurari.

3. XVIII. Barne jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurtitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz.

Aurreko Osoko bilkuran, Barne-erregelak deituriko atalean, A. Urrutiak eginiko zenbait ekarpen eta hauei J. L. Lizundia euskaltzainak eginiko iruzkinak eztabaidatu gabe geratu zirenez gero, proposamen-egileek gaur aurkeztu dituzte.

Barne-erregeletako 16. artikuluari (Koordinazio bilerak) eginiko ekarpenak. A. Urrutiak 16. artikuluko lehenengo paragrafoaren bigarren lerroan «ahal delarik, aldiro...» gehitzea proposatu du. J. L. Lizundiak, bere aldetik, paragrafo berean «... arabera, gutxienez, hilean bi aldiz, ...» eta paragrafoaren bukaeran «bilduko dira» gehitzea proposatu du. Azkenean, 16. artikuluko lehen paragrafoa osorik ezabatzea erabaki da Osoko bilkuran.

Horren ondoren, 62. artikuluari eginiko ekarpenak aurkeztu eta eztabaidatu dira. A. Urrutiak eginiko proposamenak azkeneko Barne jardunaldietan zerrendaturiko zerbitzu guztiak gehitzen ditu, bai eta Barne-erregeletako eztabaidan zerbitzu batek izaniko izen osaketa ere (Azkue Biblioteka eta Artxiboa). J. L. Lizundiak, zerbitzuen atalean «ordezkaritzak» gehitzea proposatu du. Halaber, paragrafo honen amaieran «Lehenbiziko lau zerbitzuak erakundearen egoitzan kokatuko dira. *Jagonet* Donostiako ordezkaritzan eta, Hizkuntza kalitateari buruzko zerbitzua...». J. L. Lizundiak zerbitzuak kokatzeko eginiko proposamenaren harira, A. Urrutiak dio halako kontuak ez direla gehiegi zehaztu behar, kokapen geografikoak gehiegi muga ez gaitzan. P. Salaberri ere bat dator A. Urrutiaren iritziarekin. A. Sagarnak dio gaur egun kokapen fisikoa ez dela beharrezkoa. J. Lakarrak eskatu du zerbitzuei atxikiriko langileez ez ahanzte. Azkenean, A. Urrutiak 62. artikuluari eginiko eguneraketa onartu da. Halaber, A. Urrutiak idatziriko testuari J. L. Lizundiak proposaturikoa («ordezkaritzak») gehitzea ere onartu da. Zerbitzuen kokaguneari buruz eginiko proposamena, berriz, erretiratu egin du J. L. Lizundiak.

Orain arte indarrean egon den 87. artikuluari testu bat gehitzea proposatu du A. Urrutiak, «... eskuratzeko, betiere, erakundearen ahal eta baliabide ekonomikoaren arabera» hain zuzen. J. L. Lizundiak, ostera, zera gehitzea proposatu du: «eskuratzeko, betiere, salbu onartutako Aurrekontuetan murrizketak egin beharra suertatzen bada Diruzaintza, beronek, Zuzendaritzari eta osoko bilkurari kontu emanda».

J. L. Lizundiaren oharrari erantzun dio A. Urrutiak, eta, bere ustez, Bibliotekarekin ez da zertan salbuespenik egin behar. A. Arejitak ere uste du dagoen moduan aski garbi adierazirik dagoela. Horiek horrela, J. L. Lizundiak bere ekarpena erretiratu du. Ondorioz, A. Urrutiak proposatutakoa onartu da.

92. artikulua dela eta, A. Urrutiak hiru iruzkin egin ditu; batetik, 92.2; bestetik, 92.3.an lehenago onarturiko Bibliotekari «eta Artxiboa» gehitzea; azkenik, 92.6 «Artxiboaren ibilbidea atontzeko batzordeño suntsikorra». J. L. Lizundiak azken honi egin dio oharra. Azkenean, batzordeño suntsikorrarena jasotzea beharrezkoa ez dela iritzita, azken bi ekarpenak erretiratu egin dituzte egileek.

93. artikulua dela eta, A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak eginiko iruzkinak eta oharrak aztertu dira. J. L. Lizundiak 93.1 xedapenari eginiko gehitzea onartu da («batzordearen proposamenez eta Osoko bilkurari kontu emanez»). Halaber, 93.2an J. L. Lizundiak eginiko gehitzea ere onartu da («eta batzordea entzun ondoren»). Ondorioz, 93.1 eta 93.2 atalei egin dizkion oharrak erretiratu egin ditu A. Urrutiak. 93.3 xedapenari eginiko gehitzea onartu da, moldaketa txiki bat egin ondoren. Hona hemen: «Zuzendaria eta langile finkoak Euskaltzaindiaren langileak dira, ondorio guztietarako». J. L. Lizundiak 93.3ri eginiko gehitzea erretiratu du.

95. artikulua dela eta, A. Urrutiak eginiko ekarpena onartu da. Ondorioz, J. L. Lizundiak orain arte indarrean egon den xedapena bere horretan eginiko iruzkina erretiratu egin du.

Amaitzeko 96. artikuluari eginiko gehitzea aurkeztu du J. L. Lizundiak. Ekarpenak «Euskaltzainburua da agerkariaren zuzendaria» jasotzea proposatzen du, «Burua beti izango da euskaltzainburua» beharrean. Onartu da.

Barne-erregelako artikuluei eginiko oharrak eta ekarpenak eztabaidatu ondoren, XVIII. Barne jardunaldietan Gramatika batzordeak aurkezturiko plangintzari aurkezturiko ondoko hiru txosten hauek jaso eta euskaltzainen artean banatu dira:

- a) Miren Azkarate euskaltzainaren gutuna, «A. Urrutia euskaltzainak Gramatika batzordeari buruz eginiko oharrak direla eta» (3.2.2.1.).
- b) Andres Urrutia Euskaltzainak egindako idazkia «Gramatika batzordeari buruzko oharrak» deritzona (3.2.2.).
- c) Pello Salaburu, Miren Azkarate, Patxi Goenaga eta Beñat Oihartzabal euskaltzainek egindako idazkia, «Gramatika batzordeaz Andres Urrutia euskaltzainak egin duen proposamenari oharrak» goiburuduna (3.2.2.2.)

Astirik ezaz, Gramatika batzordearen inguruko kontu eta egitekoak zehazteko eztabaida iraileko Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

4. Eskuartekoak

4.1. Arabako ordezkariak lekuz aldatu da. Joseba Zabaleta kudeatzaileak azaldu du, Euskaltzaindiak Gasteizen orain arte *Círculo Vitoriano*-ren eraikinean zeuzkan bulegoak, Foru Aldundiaren erabakiz, handik kendu eta Elizbarrutiaren Seminario Zaharraren eraikinera aldatu beharko dituela. Horretarako uztailaren 31ra arteko epea eman du Diputazioak. J. L. Lizundiak protesta egin du, honezkero Diputazioak gauza bera bigarren aldiz egin duelako.

4.2. Hurrengo Batzarrak

- **Irailean:** Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko batzarra Iruñeko udaletxean egingen da, goizeko 10:00etan.
- **Urrian:** ez da Osoko Batzarrik izanen.
- **Azaroan:** Azaroren 29an Euskaltzaindiak Osoko batzarra Zarautzen bildu eta bertan omenaldia egingo zaio *Basarri* bertsolari eta euskaltzain ohorezkoari, haren jaiotzaren ehungarren urteurrena ospatzeko. Era berean, bezperan, hilaren 28an, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak hiri berean ageriko ekitaldia egingo du haren omenez.

5. Azken ordukoak

5.1. Frantses ministroaren erantzuna: X. Videgainek 2013ko maiatzaren 20an, Euskaltzaindiak euskara Ipar Euskal Herrian sustatzeko asmoz, Madame Aurélie Filippetti Kultura eta Komunikazio ministroari bidaliriko proposamenei erantzunez, Laurence Engel Kabinete zuzendariak uztailaren batean igorri duen gutunaren berri eman du. Gutunean Euskararen Akademiak eginiko proposamenak aztertu dituztela adierazten da.

5.2. P. Charritton-ek adierazi du Ohorezko euskaltzainak izendatzeko orduan, Jon Landaburu hizkuntzalaria kontuan hartua izan dadin. Hego Amerikan hizkuntza indigenen eremuan egin duen lan eskerga azpimarratu du. Halaber, gaineratu du 2012. urtean *Linguapax* saria eman ziotela.

5.3. Jabier Kaltzakorta euskaltzain hautatu berriaren etorrera. Bileraren bukaeran, J. Kaltzakorta jauna batzar aretora etorri da. Euskaltzainburuak bere izendapenaren berriaz batera, euskaltzain guztien izenean zorionak eta ongi etorria eman dizkio, gainerako euskaltzainek ere berretsiak. Euskaltzain hautatu berriak euskaltzainak agurtu eta guztiei eskerrak eman dizkie, bai eta izendapen horri daxezkion betebeharrak ahalik eta zintzoen betetzen ahaleginduko dela adierazi ere.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 13:45 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Iruñean, 2013ko irailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lizundia, Jose Luis
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B.
Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Ja-
bier Kaltzakortak ahala Adolfo Arejita-

ri; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes
Oñederrari; Beñat Oiartzabalek ahala
Xarles Videgaini; Ibon Sarasolak ahala
Pello Salabururi; Joan Mari Torreldaik
ahala Andoni Sagarnari; Patxi Uriba-
rrenek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da
Iruñeko Udaletxean, ezkerreko zuta-
bean ageri diren euskaltzainak bertan
direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskal-
tzain guztiak agurtu eta etorririkoen
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. On-
doren, quoruma badela egiaztatu eta
gero, iraileko Osoko batzarrari hasiera
eman zaio.

Hasteko, euskaltzainburuak Jean Ha-
ritschelhar euskaltzainburu ohiaren
eta euskaltzain osoaren heriotzaren
berri eman eta haren senideei Akade-
miaren doluminak bidaltzea proposatu
du. Osoko batzarrak proposamena
onartu du.

Era berean, Jabier Kaltzakorta jaunaren gutuna jaso dela jakinarazi du euskaltzainburuak. Idatzian, euskaltzain-izendapena onartzen duela eta euskaltzain oso izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela adierazten du.

Ondoren, bilera-deian ageri diren puntuak eta gaiak jorratu dira.

1. Aurreko Osoko batzarraren (2013-07-19) akta onartzea, hala erabakiko balitz

J. L. Lizundiak behin-behineko bilera-agiriko 2. orrialdeko «... Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen... finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko» zatia honela jasotzea eskatu du: «... Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen ondorioei buruz J. L. Lizundiak dio 14 boto behar direla Arautegiak eta Barne-erregelen finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko. Iritzi berekoak dira beste euskaltzain batzuek ere. Beste batzuen iritiz, ordea,...». Halaber, 3. orrialdeko «Horren ondoren...» paragrafoaren amaieran berak idatziriko ekarpenean jasotako galdera ikurrak ezabatzea eskatu du. Paragrafo honekin zein hurrengoarekin paragrafo bakarra egin dadin eskatu du. Amaitzeko, 4. orrialdean, «95. artikulua dela eta,...» hitz bat falta dela esan du, ondoko hau: «... bere horretan uzteko eginiko iruzkina...».

Era berean, 5. orrialdean, azaroaren 28an dioen tokian, 29a eta, azaroaren 27an dioen tokian, ordea, 28a azaldu behar direla esan da.

Eginiko zuzenketa guzti-guztiak onartu dira Osoko bilkuran.

2. Antroponimiaren (eta mitonimiaren) aurkezpen orokorra

X. Kintanak gaiaren premia azpimarratu eta aurkezpen laburra egin du, irudiz erabilera oso mugatua duten hitz berezi horiek irakaskuntzan, testugintzan eta entziklopedia eta dibulgazio-lanetan adibidez, kultura-hizkuntza guztietan ezinbestekoak direla gogoratuz. Ondoren, Exonomastika batzordeburuak hitza Alfontso Mujika batzordeko idazkariari eman dio, beronek proposamenaren xehetasunak eskain ditzan. Euskaltzainen artean banatu den 11 orrialdeko testuari jarraikiz, A. Mujikak oraingo zerrenda honen helburuak, lan egiteko metodologia eta hautapena egiteko irizpideak azaldu ditu, bai eta aurrera begira kontuan hartuko diren historialdi eta eremu geografikoak ere, horietatik, pausoz pauso, izenik garrantzizkoenak aztertu eta proposatzeko. Hasteko, honako hauek azpimarratu ditu:

- Antzinateko ekialdea (I) (Brontze Aroa eta Goiz Burdin Aroa): Mesopotamia (21 izen).

- Mesopotamiako mitologia: Antzinateko pertsona-izenak (II): Mediako Inperioa (K.a. 728-549) eta akemenestarren Inperioa (K.a. 550-330); Antzinateko pertsona-izenak (III): Egipto.
- Egiptoko mitologia: Antzinateko pertsona-izenak (IV): Egipto; Antzinateko pertsona-izenak (V): Judea eta Israel; Antzinateko pertsona-izenak (VI) Itun Zaharreko pertsona-izenak; Antzinateko pertsona-izenak (VII): Itun Berriko pertsona-izenak

3. Antzinatea (I): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia araugaia aurkeztea

Aurreko puntuari segida emanez, aipaturiko zerrenda horretako lehen multzoa aurkeztu du A. Mujikak, hots, Sumer, Akad, Asiria eta Babiloniako erregeena. Horien izenak transkribatzeko, orduko Mesopotamiako hizkuntza nagusiak zeintzuk ziren gogorarazi du, bai eta guregana orain arte nolako tradizioez heldu diren ere (Bibliako hebreera, greziera, latin eta espainol eta frantsesetik). Ondoren, ikerketa berrien arabera, haiekin erabiltzen zen idazkera kuneiformearen argitan, jatorrizko hizkuntza horien egiazko fonetikaz gaur dakiguna azaldu du, dibulgaziozko eta zientzia mailako lan jasoagoetarako proposamenak eginez, eta zerrendako izen konkretu batzuen berezitasunak nabarmendu ditu.

Hitza euskaltzainen esku utziz, idazkera kuneiformearen transkripzioa dela eta, M. L. Oñederrak, bokalen kasuan, lapsus bategatik, «i» bokala bi aldiz ageri dela ohartarazi du, azkena «u» dela seinalatuz. J. L. Lizundiak Siriako egoera berezia azaldu nahi izan du, hor behialako menekotasun kolonialaren indarrak frantses grafiek izandako eragina azpimarratzeko.

P. Charriton «j» grafiari Hegoaldeko batzuek ematen dioten espainol balioaren aurka mintzatu da. Euskaltzaindiak «j» grafiarako aspaldian hobetsia duen ahoske-
ra zein den gogoratu zaio.

Puntu honekin amaitzeko, oharrak, idatziz, urriaren 31rako bidaltzea erabaki da.

4. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko Gramatika batzordearen 2013-2016 aldiko plangintzari eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

Lehenago egin ziren oharrak banatu dira euskaltzainen artean. A. Urrutiak euskaltzainei jakinarazi die EHUko webgunean, ikertaldearen eremuan, agertzen dena. Izan ere, bertan Euskaltzaindiak garatzen dituen egitasmo eta batzorde batzuk age-

ri dira, EHUKo egitasmoak balira bezalaxe. Hori Euskaltzaindiaren baimenik gabe egin dela adierazi du eta arazoak ekar ditzakeela, jabetza intelektualaren aldetik.

M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik. EHUKo webgunean ageri baita taldea (grupo) Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca dela. P. Salaburuk gauza bera uste du. A. Urrutiak hori Unibertsitateko errektorearekin argitu nahi luke. Irtenbidea EHUKekin hitzarmen bat sinatzea dela uste du. P. Goenagak galdetu du hitzarmenetan ikerketen gaia nola ageri den.

Ondare intelektualak ere argitu eta zehaztu beharko litzatekeela azaldu da.

M. L. Oñederrak esan du EHU-UPVko webgunean ageri den informazio hori ikerketa merezimenduz ari dela eta ez duela esan nahi inoren ondaretik ezer kentzen denik. A. Sagarnak nahastea *grupos* hitzak sorrarazten duela uste du, eta hor *proyectos ajenos en los que participan miembros de esta universidad* gisako azalpena erantsita arazoa konponduko litzatekeela azpimarratu du.

E. Osak esan du elkarteekin, erakundeekin eta unibertsitateekin izenpeturiko lankidetzak hitzarmenetan sinatzaileek ikerketa proiektuak garabidean jartzeko aukera dutela jasotzen dela. Xedapen hori kontuan hartuz, izenpetzaileek urtez urte finkatu behar dituzte ikerketa-egitasmoak, bai eta elkarrekin argitaratuko dituzten lanak, alde bakoitzak egingo duen ekarpen ekonomikoa barne.

Ondoren, eztabaida talde-eragilearen figura eta zereginetara lerratu da.

P. Zabaletak eskatu du A. Sagarnaren testua (grupos-i buruz) eranstea. Batzorde batek ezin dezake arauemaile maila izan, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa baizik.

A. Urrutiak legegarien arteko akordioa behar dela uste du, baina, edonola ere, talde eragilea ezin dela arauemaile izan. M. Azkaratek esan du ez zaiola Euskaltzaindiari eskumenik kendu nahi izan.

P. Salaburuk lau euskaltzainek paraturiko idazkia irakurri du. Ondoren A. Urrutiak bere erantzuna ere irakurri du, argi utzirik hori bere izenean egiten duela, eta ez euskaltzainburu gisa.

P. Goenagak bi gauza adierazi ditu. Batetik, hor interes gatazka bat dagoela uste du, eta, bestetik, ez deritza zuzen euskaltzainburua moderatzaile izateari. A. Urrutiak adierazi du batzarburu izateari uzteko ez daukala arazorik.

P. Salabururen ustez, A. Urrutiaren oharrak ez dira ñabardurak, batzordearen orain arteko lana hausten dute, bai helburuetan, eta bai lan egiteko prozeduran

sartzen delako. Gainera, EGLUko eta Jagoneteko datuak batzordeari ukatu zaizkiola deitoratu du.

M. Azkaratek esan du ez dela egia batzordeak gainerako euskaltzainak informaziorik gabe eduki dituenik.

A. Urrutiak adierazi du EGLUren testuak ez zaizkiola batzordeari inoiz ukatu. Kezkagarria deritzo, bestalde, P. Salaburuk esandakoari, eta galdetu ere egin du ea batzordekideek ordu libreetan egindako gramatika behar al duen Euskaltzaindiak, ala horri begira etengabeko lanean eta lehenbailehen atera beharko dena. Diru publikoa erabiltzen den neurrian, erantzukizunez jokatu beharra dagoela gogorazti du.

Batzordearen osaketa dela eta, P. Salaburuk adierazi du Gramatika batzordeak ez duela jende berririk nahi, ez baitu ikusten horren premiarik.

A. Urrutiak esan du Gramatika batzordeak bere lanarekin segi dezakeela, baina, horrez gainera, orain arteko martxa ikusita, jendearen eguneroko premiei ere erantzun behar zaiela eta Euskaltzaindiak eginkizun hori duela. Halaber, informazioa ematea dela eta, bere sasoian Gramatika batzordeburuari abian dagoen gramatika argitalpenaren aurkibidea euskaltzainei eskuratzeko eginiko eskaria zergatik ez zaion erantzun galdetu du. Izan ere, aurkibide hori behar-beharrezkoa da zer egin nahi den zehazki jakiteko eta Osoko bilkura horren jakitun geratzeko.

E. Osak Jagonetan egoeraz informazioa eman du. Webgunean ageri diren galdetarak zein erantzunak txukuntzeko eta eguneratzeko prozesua abian dago.

P. Salaburuk adierazi du berak erabaki zuela gramatika argitalpenaren aurkibideari buruz eskatzen zitzaion informazioa ez ematea.

M. Azkaratek Gramatika batzordea urtean bi edo hiru aldiz elkartzeko denez gero, talde eragilearen lanaren garrantzia nabarmendu du. Izan ere, Gramatika batzordearen lana errazteko ezinbestekoa baita talde eragilearen ekarria.

X. Videgainek arauemailea den beste talde bat nahi du. P. Salaburuk ez dakusa hori posible, aurreikusiriko lanak eginkizun dauden bitartean.

A. Urrutiak eskatu du berak egindako proposamena banatzeko eta irakurtzeko baimena. Osoko bilkurak horrela onartu du.

A. Urrutiak irakurririko testuaren harira, P. Salaburuk adierazi du proposamen horrek egitekoak kentzen dizkiola Gramatika batzordeari, ez deritzo onuragarri, ez eta posible ere. A. Urrutiak, ordea, nahitaezkoa dakusa *Euskara Batua*ren eskuliburu-

rua izango denari ekiteari, bestea, alegia, Gramatika Batzordeak egin asmo duen hori errespetaturik ere.

P. Goenagak presakako bidean, kontuak behar bezala aztertu eta ikertu gabe eginez gero, arriskuak ikusten ditu eta EIMAk bi adibide hartu ditu hizpide («inperatiboak beti aditzaz hasten OMEN dira»). M. Zalbidek EIMA dela eta, hastapenetik izan duen eginkizuna eta egin dituen ekarpenak azaldu ditu. Izan ere, behar gorri bati erantzuten saiatu da EIMA eta sasoi bateko astakeriak bideratzeko prozedurak-eta jarri ditu abian. Halaber, askotariko materialek gutxienekoak bete ditzaten oinarriak ere ezarri ditu, besteak beste kalitatea bermatzeko prozedurak abian jarritz. Era berean, materialak aztertzen dabiltzan aztertzaileen berdintzaioak ere egin ditu EIMAk. Horiek horrela, gaur egun argitara ematen diren materialen mailak oso gora egin du azken urteetan, eta ez dute bestelako hizkuntzetan argitaratutakoen inbidiarik, berriki egin den azterketa batek erakusten duen bezala.

J. B. Coyosek, Ipar Euskal Herritik ikusita, euskara erabiltzen dutenen egunero-ko premiak hor daudela eta ez direla ahanztekoak azpimarratu du.

P. Zabaleta J. B. Coyosen kezkarekin bat dator. EGLUren lorpenen artean zalantzarik gabe gramatika-terminologia finkatzea izan dela ohartarazi du.

E. Osak adierazi du EIMA zegoen behar bat erantzuten ahalegindu dela eta Euskaltzaindiak ere erabiltzaileen (argitaletxeak, kazetariak, irakasleak eta abar) beharrei erantzuten saiatu beharko lukeela, eta hurreko Euskaltzaindia eskatzen dutela euskara-erabiltzaileek.

A. Sagarnak adierazi du behar hori sentitzen dutenek eskertzen dutela araua eta beharrezkoa ere badela. X. Videgainek, oster, zalantza-eremu bat beti irekia utzi behar dela azpimarratu du.

M. Azkaratek EGLUko hizketa estratosferan dabilen galdetu du. Halaber, oinarrizko terminologia beharrezkoa dela deritzo.

P. Goenaga Gramatika batzordeaz esandakoaz, itxia delako baieztapena, kezkatua azaldu da.

A. Iñigok Gramatika batzordeak orain arte egin duen lana miresgarria dela esan du. Nolanahi ere, uste du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle gehientzat EGLU lanak ez direla eskuliburu praktikoak. Bere iritzia ren arabera, bai irakasle horiek, bai euskal gizartea orokorrean, Euskaltzaindiak azken hamabi urte hauetan eman ez dituen gramatikari buruzko arau praktikoen edo gramatika arauemaile praktikoen baten esperoan daude. S. Alemanen arabera, askok ikusten dute gramati-

ka txiki baten beharra. Adibideak eta ereduak jarri beharko lirateke, esaten dena aringarri eta ulergarri gerta dadin.

A. Urrutiak Gramatika batzordeak aldirako programa xehatuagorik Osoko bilkurara ekar dezan proposatu du. Halaber, Euskara Batuaren eskuliburua (EBE) ere zehatzago ekartzeko konpromisoa ere hartu du. Uste du bi-biak bateragarriak direla. Nolanahi ere, koordinazioaren premia nabarmendu du eta bere burua eskaini du Gramatika batzordearen hurrengo bilkurara joateko, eta kideei adierazteko eta azaltzeko bere proposamena. P. Salaburuk ez du uste hori egingarria denik. P. Goenagak eskatu du aukera ematea beste proposamen bat aurkezteko berek dena egin ahal izateko.

J. L. Lizundiak idazkari akademiko karguaz eta Gramatika batzordeko kide batera izateaz honako hau argitu nahi du: idazkari karguaz ez dela ondorioztatzen batzorde horretako edo besteko izateko meriturik, izan daiteke beste edozein euskaltzainen maila berean. Horiek horrela, galdetu du A. Urrutiak aurkezturiko bi proposamenetatik zein den proposatzen dena.

M. Azkaratek uste du berek dena aurreikusi dutela beren programan.

P. Salaburuk, bestalde, adierazi du ezin diola batzordeari iritzirik eskatu, informazio nahikorik ez duelako A. Urrutiaren proposamenak. Horiek horrela, A. Urrutiari behin betiko txostena aurkezteko eskatu zaio. A. Urrutiak berretsi du bere eskaintza Gramatika batzordearen aurrean agertzeko eta azalpenak emateko.

Denbora aurrera doanez gero, eztabaida etetea eta hurrengo Osoko bilkuran segitzea erabaki da.

5. Eskuartekoak

5.1. Jean Haritschelharren hilberri txostena. J. Haritschelharren hilberri txostena egiteaz nor arduratuko den galdetu ondoren, Zuzendaritzak Beñat Oihartzabal euskaltzaina proposatzen du. Bileran ez dagoela eta, berari galdetzea erabaki da.

5.2. Espainiako sari nazionalak. Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Euskaltzaindiari modalitate bakoitzerako bina izen proposa dezan eskatu dio. Euskaltzaindiak bidali ditu proposamenak. Nolanahi ere, Ministerioak erabakiko du nor izendatzen duen.

5.3. Hitzarmenak

5.3.1. Editorial Iparragirre S.A.ren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren eranskina. Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan sinatu da, 2013ko

irailaren 11n. Horren bitartez Noticias Taldeak argitara ematen duen *Ortzadar* gehigarriaren testu-multzoa Lexikoaren Behatokitako baliatuko da.

5.3.2. Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko urteko hitzarmena.

Gaur Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko 2013ko hitzarmena izenpetu da, erakunde bien arteko harremana sendotzea helburu. Besteak beste, Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzko aholkularitza emango dio Iruñeko Udalari; Akademiaren argitalpenen zenbait ale eskuraziko dizkio eta kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu. Udalak, berriz, 2013 urtean 5.100 euro bideratuko dizkio Euskaltzaindiari laguntzatzat.

5.3.3. EiTB eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Urriaren batean EiTB erakundeak eta Euskaltzaindiak 2013-2016 aldirako lankidetza-hitzarmena izenpetuko dute. Horren bitartez EiTBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatuko da; kalitatezko euskara eredu estandarra, eta euskalkien aberastasuna bistartzen eta balioan jartzen lagunduko dute, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Horretarako, EiTBk Euskaltzaindiko Hizkuntza Kalitatearen Behatokiaren laguntza eta lankidetza ukanen ditu.

Lankidetza-eremuak Hiztegi Batua eta Onomastika alorra izango dira, hor erabiltzen diren toponimo, exonimo, antroponimo eta abarri begira. Era berean, hizkuntzaren gramatika eta ahoskera ere zainduko dira. Lankidetza-hitzarmen hori tarteko dela, EiTBk 18.000 euro bideratuko dizkio Euskaltzaindiari.

5.3.4. EEPren eta Akademiaren arteko lankidetza-hitzarmenaren gehigarria. Urriaren 15ean Baionan Euskaltzaindiko ordezkaritzan, EEPren eta Euskaltzaindiaren artean indarrean dagoen lankidetza-hitzarmenaren 2013ko gehigarria izenpetuko da. Horrela 140.000 euro bideratuko dizkio EEP erakundeak Euskaltzaindiari, 2013. urtean egingo dituen lanetarako.

5.4. Hurrengo bilkurak

Urriaren ez da Osoko bilkurarik izanen, urriaren 25a EAEn jai eguna da eta. Beraz, hurrengo Osoko bilkura azaroaren 29an egingen da, Zarautzen. Era berean, egun horretan Ageriko bilkura ere egingo da, *Basarri* bertsolari eta euskaltzain ohorezkoaren jaiotzaren mendeurrena gogora ekartzeko.

Azaroaren 15ean *Euskara Nafarroatik* izenburutzat dutela Euskaltzaindiak XVIII. Jagon jardunaldia egingen du Iruñean, Kondestablearen Jauregian, Jagon sailleko Sustapen batzordearen eskutik.

6. Azken ordukoak. Azken ordukorik ez da egon.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 15:00ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Zarautzen, 2013ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oiartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Gorrotxategi, Mikel, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak
ahala Jabier Kaltzakortari; Aurelia Arko-
txak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;
Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Zarauzko Udaletxeko Batzar
aretoan hasi da 10:00etan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak ber-
tan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskal-
tzain guztiak agurtu eta etorririkoen
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. On-
doren, quoruma badela egiaztatuta,
Euskaltzaindiaren azaroko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

P. Salaburuk eskatu du gaien ordena
Gramatika batzordearen plangintzari
eginiko iruzkinekin hasia, hori dagoe-
nean utziz gero, horretarako astirik ez
dela izanen pentsatuz. Euskaltzainbu-
ruaren ustez, ordea, astia bada puntu
hori bere lekuan tratatzeko, gai ordena
aldatu gabe. Horiek horrela, eguneko
gaien ordenaren arabera hasi da bilkura.

1. Osoko bilkurako (2013-09-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

M. Azkaratek 3. orrialdeko «M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik» testuaren ordeztu, beste bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik. EHUko webgunean ageri baita taldea (grupo) Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca dela». Onartu da zuzenketa.

P. Uribarrenek 3. orrialdean bere izena agertzen denez gero, eta berak bilkura horretara joaterik izan ez zuenez gero, aipamena beste bati dagokiola nabarmendu du. Bilera-agiri proposamenean jasorikoa P. Zabaletak esan zuela argitu da.

A. Iñigok 5. orrialdeko «Nolanahi ere, irakasle gehienek ez dutela usaindu ere egiten gaineratu du. Gizarteak arau praktikoak behar ditu» testuaren ordeztu, beste bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «A. Iñigok Gramatika batzordeak orain arte egin duen lana miresgarria dela esan du. Nolanahi ere, uste du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle gehienentzat EGLU lanak ez direla eskuliburu praktikoak. Bere iritzia arabera, bai irakasle horiek, bai euskal gizarte orokorrean, Euskaltzaindiak azken hamabi urte hauetan eman ez dituen gramatikari buruzko arau praktikoak edo gramatika arauemaile praktiko baten esperoan daude». Onartu da zuzenketa.

Gai honekin amaitzeko, J. L. Lizundiak 5. orrialdeko «J. L. Lizundiak bateraezintasunaren gaia aipatu du. Izan ere, bere iritziz Euskaltzaindiko idazkari kargua eta Gramatika batzordeko kidea izatea ez dira ezkongarri» testuak ez du islatzen berak esanikoa. Horiek horrela, beste testu bat proposatu du idatziz. Ondoko hau: «J. L. Lizundiak idazkari akademiko karguaz eta Gramatika batzordeko kide batera izateaz honako hau argitu nahi du: idazkari kargutik ez dela ondorioztatzen batzorde horretako edo beste baterako kide izateko meriturik, izan daiteke beste edozein euskaltzain maila berean». Azken iruzkin hau ere onartu da Osoko bilkuran.

Bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2012ko irailaren 27ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

2. Exonomastika. Antzinatea (1): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia araua onartzea, hala erabakiko balitz

X. Kintanak adierazi duenez, proposamenaz ez da oharrak jaso eta, beraz, Exonomastika batzordearen izen zerrenda horietako izen-proposamenak ontzat eman dira.

3. Onomastika: Pertsona izenen gomendioa aurkeztu

Onomastika Batzorde ahaldunduenaren burua den P. Salaberrik hirurogeita hamar orrialdeko txosten idatzia ekarri du, euskaltzainen artean banatua, horren ondoan hiru puntuko gomendioa proposatuz, pertsona-izenak formaren arabera gizonetzko ala andrazkoenak ote diren bereizteko. Ondorio horiei begira eginiko txosten luze eta mardulean, datu ugari eta xeheki dokumentatuak eskaintzen dira pertsona-izenen arloan. Hor XIX. mendetik gaur arte gertaturiko aldaketa nabarmenenak bildu, sailkatu eta aztertu dira, horien erabilera eta maiztasunari buruzko zuzentasu- eta egokitasun-irizpideak eskaintzeko helburuaz.

X. Kintanak esan du hizkuntza egitura eranskaria duten gainerako hizkuntzen antzera, euskarak ez duela genero gramatikalik bereizten, eta, horregatik, ez dagoela hitzen morfologian horiek maskulinitzat zein femeninitzat jotzeko inolako ezau-garririk. Halere, badira, hitz edo izen batzuk jendeari sexu baterako edo besterako egokiago iruditzen zaizkionak, estatistika lekuko. Bestalde, P. Salaberrik gogorarazi egin du, Espainiako legeriak argi agintzen duela pertsona-izenek garbi utzi behar dutela sexu bakoitzari nolako izena dagokion, izen berberak bietarako baliorik izan gabe. Horren arabera: –a edo –e duten hitzak eta toponimoak emakume-izentzat hartzea proposatzen da. Aldiz, bukaeran –i, –o edo –u dutenak gizon-izentzat jotzea, bai eta kontsonantez amaituak ere. Gomendioak, bestalde, hemendik aurrerako balioa izan beharko luke, baina atzeranzko eraginik izan gabe.

X. Kintanak, bestetik, esan du, berak dakiela behintzat, euskararen antzera, maskulino-femenino bereizketarik ez daukaten beste hizkuntzetan ere (suomiera, georgiera, japoniera, turkiera...) ohikoa izaten dela, naturako izenak pertsona-izentzat hartzen direnenean, horietako batzuk soilki gizonetzkoentzat eta beste batzuk soilki emakumezkoentzat izatea, eta ez dela normala izen bera sexu bietarako erabiltzea.

Irati izena ez dela zerrendan ageri esan du A. Sagarnak. Baina hobeki behaturik, badela erakutsi da. M. Azkaratek –o bukaerakoen artean *Izaro* aipatu du. P. Salaberrik, ordea, erregelak ez dituela orain artekoak galarazten gogorarazi du. J. L. Lizundiak Ama Birjina izenetan –a kentzeko dagoen ohituraz mintzatu da, adibidez, *Liemia* «*Liemi* edota *Goiuria*» *Goiuri*. Ondorioz, zeintzuk diren –a organikodunak eta, zeintzuk artikuludunak, hots, «-a»-dunak eta zerrendan, bere ustez, izen osoaz agertu beharrekoak. M. L. Oñederrak galdetu du ea noiz hasi zen gizon/emakume izenen arteko bereizketa hori. Erantzunez, M. Gorrotxategik argitu du, Franco hil ondoan hasi zela arazoa, legeak jendeari izenak jartzeko askatasun handiagoa ema-

tean. P. Zabaletak esan du *Lilia* eta *Iruñea* behintzat emakume izenak izan direla tradizioan. Proposamenari oharrak egiteko epea urtarrilaren 10erako utzi da, eta idazkariordeari bidali beharko zaizkio.

4. Gramatika batzordearen 2013-2016 aldiko plangintzari eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak onartzea, hala erabakiko balitz

Euskaltzainburuak hitza Gramatika batzordeburuari eman dio. Gramatika batzordekideek atzo bilera egin zutela azaldu du P. Salaburuk, eta hartan idazki bat prestatu eta adostu zutela. Testu hori berak irakurri du batzarrean. Halaber, irakurriko testua euskaltzainei eskuratu zaie eta Osoko bilkurako karpeteri gehitu zaio.

A. Urrutiak informazioa eskertu du. Hala ere, deitoratu egin du, bera ere, pertsonalki, euskaltzain gisa, eta aurretik, ahoz zein idatziz, hor egoteko interesa adierazi arren, hain garrantzi handiko bilera horretara deitua ez izatea.

P. Salaburuk esan du, edonola ere, batzordean A. Urrutiaren proposamen horren berri eman zuela eta gutuna denen aurrean irakurri zuela, bilduek zertan zetzan jakin zezaten. Hala ere, A. Urrutiak protesta egin du, bera ez baitzen hara deitua izan. Ondoren A. Urrutiak *Euskara Batuaren eskuliburua* paratzeko asmoz, Batzorde ahaldundu bat eratzeke proposamena aurkeztu du idatziz, aurreko Osoko bilkuretan egin duen proposamena osatuz. Testu hau euskaltzainen artean banatu eta Osoko bilkurako karpeteri erantsi zaio.

Osoko bilkuran gaur banatu diren bi dokumentuak Barne jardunaldietako materialarekin batera argitaratuko dira.

P. Salaburuk Gramatika batzordeak hasieran egin zuen proposamena eguneratu duela, egin zaizkion ekarpenak kontuan hartu dituela eta aurrerantzean Gramatika batzordeak gauza biak berak egitea proposatu du, hots, EGLU orain arte izan dena berriedazten, osatzen eta laburtzen segi eta, aldi berean, jendeak nahi lukeen gramatika txiki laburra prestatu ere. Nolanahi ere, bigarren hau lehenbiziko zeregina egin ostean egitea erabakigarria dela esan du, gauzak ondo egingo badira.

Ibon Sarasolak uste du A. Urrutia eta P. Salaburu gauza ezberdinez mintzatzen ari direla eta bi gauza diferente horiek izen bana behar dutela. Ez du ulertzen bigarren lantalde horren funtsa zertan datzan. A. Urrutiak dio Gramatika batzordeak segitu behar duela bere lanarekin, baina, aldi berean beste taldeak emaitza konkretu eta laburrago hori prestatu behar duela.

Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan ez dela aipatzen «gramatika» hitza, baina barnean -beste hizkuntzetan egindako antzeko lanak aipatzen direnean-

egiten diren erreferentzia guztiak gramatiken erreferentziak direla: hiru espainolarenak eta bat euskararena. Orain arte EGLUn egindako lana deskribatze hutsa izan dela gaineratu du Salaburuk, teknizismorik gabekoa, eta aipatzen diren erreferentziazko beste liburu horiek askoz ere teknikoagoak direla esan du. Adibide argigarri batzuk ere irakurri ditu, liburu horietatik hartuak. EGLU berrikusi eta osatu behar dela esan du, kapitulu batzuk osorik aldatu behar direla, eta orduan bakarrik egin daitekeela liburu laburragoa, eta lan hori Gramatika batzordeari dagokiola. Hala egin dela hizkuntza guztietan, eta ez duela hizkuntza horietan alderantziz egindako adibide bat bera ere ezagutzen. Galdetu du ea inork ezagutzen duen non egin den lehenik liburu laburra eta gero luzeagoa. Halaber esan du Gramatika batzordeak eskatzen duela gaia alde batera edo bestera gaur erabakitzea, luzamendu gehiagotan ibili gabe.

B. Oihartzabalek dudan ematen du A. Urrutiaren proposamenari jarraikiz lan seriosek egin daitekeen. Haren ustez, proposamen horrek ez ditu lan akademikoak behar bezala egiteko premiako baldintzak ematen. Lau euskaltzain osoren inguruan eratu batzorde berri batek, hutsetik hasiz, bizpahiru urterik barne, 2016an, Euskaltzaindiaren oinarrizko gramatika ateratzea, kapituluka euskaltzain osoei aurkeztu eta haiekin osoko eztabaidaturik, ezinezkoa iruditzen zaio. Ez behintzat lan serio bat eginik. A. Urrutiak erantzun dio, bere ustez egun Euskaltzaindiak badi-tuela moduak bi horiei eusteko, gauzak etengabe atzeratzeke. B. Oihartzabalen iritziz, gramatika labur hori ez dago definitua, eta ez du uste horrela lan egin daitekeenik. A. Urrutiak esan du bere testuan ez dela gramatika hitza aipatzen, bere proposamena zabalagoa baita eta euskara batua osotasunean hartzen duela.

P. Zabaletak esan du Gramatika batzordetik heldu den txostenak produktu sakona proposatzen duela, eta hori berez ongi dagoela, baina herritarrek bestelako ekoizpena ere behar dutela, laburra eta praktikoa, berehala kontsultatzekoa, eguneroko zalantza ohikoenak argitzeko. Bide beretik, P. Uribarrenek gaur egun ikasle, irakasle eta irakurle arruntek gidaliburu bat behar dutela azpimarratu du, gramatika bateratu eta sintetizatua, orain arteko material sakabanatuez osatua. Era berean, esan du bi proiektuak bateragarri direla, Batzorde Ahaldunduan Gramatika Batzordeko bi kide izatea eta lan bateratua egitea proposatu baita.

Eztabaidan azaldueriko adierazpen batzuk direla eta, M. L. Oñederrak hitz egiteko moduari dagokionez, errespetua eskatu du, euskaltzainburuaren kasuan batez ere. J. Lizundiak, Barne-erregelen 67.2 artikulua aipatuz, erakunde ofizialetan ohi denez, euskaltzainburua ohargile legezt eztabaidan aritzen denean, moderatzaile lana, Zuzendaritzako kide baten esku laga beharko lukeela uste du. P. Charrittonek

esan du berari ez zaiola emeritu hitza gustatzen eta bera zaharra dela, euskaltzainik zaharrena, hain zuzen. Batzuen izenak aipatu ditu euskaltzain izateko. Horretarako ez dela gaurkoa aldi egokia gogoratu izan zaio. A. Sagarnak adierazi du bera pozik legokeela zalantzazko eta oinarritzko gauza asko eskuliburu praktiko batekin argitu-ko balira, beti gramatika sakonei itxaroten egon barik.

Gaur bertan bozkatzeari dagokionez, J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67.5 artikulua dioena gogora ekarri du. Bere iritziz, gaietan agertzen dena, hots, Gramatika batzordearena soilik bozkatzea da prozedura, ondorioz, euskaltzain batek eginiko oharra bozkatzea geroratzea eskatu du. J. Lakarrak ere ez deritzo egoki gaur bozkatzeari, eta, bere aburuz, eskuliburua egiteak berez ez dakar beste gramatika sakonago bat egitea baztertzea. A. Urrutiak, bestalde, ez dakusa beharrezkoa gaur bozkatzea, bi aukera horien arteko desberdintasuna elkarriketaren bidez konpon daitekeela uste baitu. J. B. Coyosek pentsatzen du egiteko den bigarren lan horretan gramatika hitza jartzea komeni dela. Era berean, bigarren proiektu hori Gramatika batzordeko kideen parte-hartzerik gabe ez duela ikusten nabarmendu du. P. Salaburuk Gramatika batzordekideek erabakia gaur har dadin espresuki eskatu dutela azpimarratu du. Izan ere, Gramatika batzordearen lanak atzeratzen ari dira aurkeztutako proposamenari buruz erabaki garbirik hartzen ez delako.

Bozketari dagokionez, I. Sarasolak eta J. Lakarrak, bilera-agirian botazioan ez dutela parte hartuko jasotzea eskatu dute. Izan ere, prozedura horri desegoki deritote eta.

Bozkatzeko erari dagokionez, B. Oihartabalek batzordeak eginiko proposamena bozka dadin eskatu du lehenbizi, proposamena barne jardunaldietako prozeduran sartzen baita, eta horrela bozkatzen baitira batzordeen proposamenak jardunaldietan. Iritzi horren alde agertu dira P. Salaburu eta M. Azkarate ere, eta hirurek beren proposamen hori aktan jasotzea eskatu dute. Beste euskaltzain batzuek, ordea, ez dute modu hori egoki ikusi. Izan ere, haien iritziz bozketaren terminoak ez dira Gramatika batzordeak proposaturikoari bai ala ez adieraztea. Ondorioz, bozketa era honetara bideratu da: a) Gramatika orokor handia eta gramatika txikia Gramatika batzordeak egitea ala b) orain arteko batzordeak bere gramatika orokor handiarekin segitzea eta, aldi berean, beste batzorde edo lantalde ahaldundu batek euskara baturaren eskuliburua prestatzea.

Botoetara joanda, emaitzak ondoko hauek izan dira: bileran zuzenean edo ordeztuak dauden euskaltzainak 26 izan dira. Bik ez dute bozketan parte hartu (J. Lakarrak eta I. Sarasolak). Ondorioz, jasotako boto kopurua 24 izan da. Horietatik, 7

boto a) proposamenaren aldekoak izan dira eta beste 16 boto b) proposamenaren aldekoak. Jaso den boto bat baliorik gabea izan da.

5. Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia aurkeztea

E. Osa idazkariordeak 2014. urteko egutegi-proposamena aurkeztu du, bai eta 2014. urteko egutegia osatzerakoan kontuan har daitezkeen bestelako mendeurrenak eta abar. Oharrak abenduaren 16rako igorri beharko dira.

6. Eskuartekoak

6.1. Literatura Ikerketa batzordeburua izendatzea. Literatura Ikerketa batzordean sorturiko hutsartea betetzeko, Zuzendaritzak Osoko bilkurari Ana Toledo euskaltzaina proposatzea erabaki zuen 2013ko urriaren 4an eginiko bilkuran. Proposamena egin aurretik, Zuzendaritzak Literatura Ikerketa batzordeari iritzia eskatu zion. Ana Toledok onartu du izendapena.

6.2. Herri Literatura batzordeburua izendatzea. Pello Esnal Herri literatura batzordeko buruak batzordeburu izateari utzi dionez gero, Zuzendaritzak Jabier Kaltzakorta euskaltzaina proposatzea erabaki zuen, 2013ko azaroaren 20an eginiko bilkuran. Proposamena egin aurretik, ordea, Zuzendaritzak Herri Literatura batzordeari iritzia eskatu zion. Jabier Kaltzakortak onartu egin du izendapena.

6.3. Pili Artzak erretiroa hartu du. Orain arte Euskaltzaindiaren egoitzaren garbiketa bere gain zeraman Pili Artza andrearen erretiroaren berri eman da. Ondorioz, J. Zabaleta kudeatzaileak azaldu duenez, aurrerantzean zerbitzu hori langile ezinduekin lan egiten duen enpresa batekin egitea erabaki du Zuzendaritzak. Erabaki hau behin-behinekoa da eta zerbitzuaren arabera iraunkortasuna emango zaio. Abisua eman du, halaber, Euskaltzaindiaren egoitza arratsaldeetan itxirik egongo dela. Beraz, inork bertan egoteko premia edukiz gero, aurretik adierazi beharko du.

6.4. Euskararen adierazleen sistema. Euskararen egoera soziala zertan den zehatz-mehatz eta era sistematiko eta jarraituan jasotzeko tresna bat eraikitzea da asmoa, aldian aldiko egoeraren nahiz denboran zeharreko bilakaeraren berri zehatza zorroztasunez emango duena. Egitasmo hori Eusko Jaurlaritzak gidatuko du. Bi lantalde eratuko dira, horietako bat Eusko Jaurlaritzaren baitan, eta bestea Nafarroako *Euskarabidea* erakundearen pean. Euskaltzaindiak hor ordezkari bana ukatzen ditu. Eusko Jaurlaritzako lantaldean Zuzendaritzak Jean-Baptiste Battittu Coyos Jagon sailburua proposatzea erabaki zuen, 2013ko azaroaren 20an eginiko bilkuran (Coyosek ezin duenean Erramun Osa, Sustapen batzordeko idazkaria joanen da). Nafarroaren kasuan, ordea, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria proposatzea era-

baki zuen 2013ko azaroaren 20an egindako bilkuran (A. Iñigok ezin duenean, Sagrario Aleman Sustapen batzordeburua joanen da).

6.5. Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* dela-eta, Renoko University of Nevada-rekiko arazoa konpondu da. Etxepareren obra berrargitaratzearen harira, Euskaltzaindiak auzia konpontzeko proposatutakoaren berri eman du J. Zabaleta kudeatzaileak, eta Nevadako Unibertsitatearekin akordio berri bat izenpetu dela jakinarazi du.

6.6. Correo egunkariaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzahitzarmena izenpetuko da. Abenduaren 2an, goizeko 11:30ean, Euskaltzaindiaren egoitzan, Correo egunkariaren eta Euskal Akademiaren arteko hitzarmena sinatuko da. Horren bitartez, besteak beste Correo-k ekoiztiriko euskal testuak Euskaltzaindiari eskuraziko dizkio era informatikoan, Lexikoaren Behatokitako baliatzeko helburuz, Akademiak hor erabiliriko lexikoa eta sintaxia ikertzeko. Era berean, Euskaltzaindiak aholkularitza eskainiko dio Correo-ri euskarari dagozkionetan.

6.7. Liburuaren aurkezpenak

a) *Gasteizko Toponimia IV*. Azaroaren 13an, Patxi Salaberri euskaltzainak zuzentzen duen Gasteizko Toponimia egitasmoaren *Toponimia de Vitoria IV/ Gasteizko Toponimia IV (Onomasticon Vasconiae* bildumako 30. zenbakia) argitalpenaren aurkezpena egin zen Gasteizen. Euskaltzainei ale bana banatuko zaie gaur.

b) *Linguae Vasconum Primitiae*-ren edizio berria. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak Bernard Etxepareren liburuaren edizio berri bat aurkeztuko dute. Argitalpenak, euskaraz inprimatu zen lehenbiziko liburuaren faksimileaz eta gaurko euskal ortografiarako egokitzape-naz gainera, katalan, galego, errumaniera, txinera, kitxua eta arabierara eginiko itzulpenak jasotzen ditu. Argitalpen berri honen koordinazio eta hezuramitzeaz X. Kintana Euskaltzaindiko idazkaria arduratu da.

c) *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* V. liburukiaren aurkezpena. Abenduaren 12an EHHAren liburuki hori aurkeztuko da goizeko 11:00etan egoitzan.

d) *Aiarako Toponimia Nagusia* liburuaren aurkezpena. Abenduaren 16an Gasteizen aurkeztuko da Ignazio Aldekoa Kultura etxean, eguerdiko 12:00etan.

8. Hurrengo bilkurak

a) Abenduaren 20an Osoko bilkura egingo da Baionan, Euskal Museon, goizeko 10:00etatik aurrera.

- b) Egun berean, Ageriko bilkura egingen da Baionako Udaletxean, arratsaldeko 15:00etan. Bertan Jean Haritschelharren hilberri txostena irakurriko da.

9. Azken ordukoak

Ez da egon azken ordukorik.

Ondorioz, Osoko bilkura bukatutzat eman da 12:10ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Zarautzen, 2013ko azaroaren 29an

Iñaki Eizmendi «Basarri»ren jaiotzaren lehen mendeurrenean

Zarauzko Udaleko Batzar aretoan, eguerdiko 12:10ean, Euskaltzaindiak, Iñaki Eizmendi «Basarri»ren jaiotzaren lehen mendeurrena dela eta, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Pierres Charritton, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Anjel «Andu» Lertxundi, Pello Esnal eta Karlos Otegi.

Herri Literatura batzordeko Xabier Euzkitze.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Iñaki Eizmendi «Basarri»ren hainbat senide.

Batzarburu, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkatea ere izan da.

«Basarri» 1913an jaio zen, Errezilgo Granada baserrian, baina zazpi urte zituela joan zen Zarautza bizitzera. Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, 86 urte betetzear zegoela. Horiek horrela, 2013ko azaroaren 27an ehun urte bete dira Inazio Eizmendi «Basarri» bertsolari, kazetari, idazle eta ohorezko euskaltzaina jaio zela. Mendeurrena dela-eta, urte osoan zehar «Basarri»ren omenezko ekitaldiak egin

dira Zarautzen. Inguruabar horretan, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak Zarautzen.

Ekitaldia hasteko «Basarri»ri buruz paratu den dokumentalaren zatia eskaini da. Horren ondoren, Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote gaurko Ageriko bilkurari. Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzain eta Akademiaren Herri Literatura batzordeko kideak «Basarri 1931-1943» hitzaldia eman du, eta Xabier Euzkitze batzorde bereko kideak ere hainbat bertso kantatu du, ekitaldian zehar.

Bere hitzaldian, 1931. eta 1943. urteen arteko Inazio Eizmendi Manterola «Basarri»ren bizitzaren pasarte batzuk aipatu ditu Jose Mari Iriondok, eta bertsolari, kazetari eta irrati esatari bezala, berak egin eta esandako batzuk ekarri ditu gogora. Bestalde, abenduaren 17an, Auspoa bildumaren barruan, Basarri. Zarauzko berriak. 1931-1936 liburua aurkeztuko dela iragarri du.

Behin baino gehiagotan esana du Jose Mari Iriondok: «Batez ere bertsolaria zen Basarri». Zarauzko Azken Portu tabernan hasi zen bertsotan, eta 17 urte zituela, Zestoako plazan jendaurrean hasi zela ekarri zuen gogora. Ordizian bizi zen Erauskin errotariarekin aritu zen egun hartan. «Ondoren, garai hartako Euskal Herriko bertsolari on guztiekin kantatu zuen, hamazazpi urterekin hasi eta 1970eko hamarraldira arte herriz herri etengabe ibiliz. Txirrita, Saiburu, Olegario, Prantxes txikia, Matxin Irabola, Sasi aita-semeak, Nekazabal, Exkerra, Euxebio Txapel, Kepa Enbeita Urretxindorra, Zepai...». Uztapiderekin osatzen zuen bikotea ere aipatu du, jakina: «Uztapide izan zuen bertso-lagunik leialena, 1944-1945ean hasita. Biek elkar osatu eta edertzen zuten».

Bertsolari eta kazetari ofizioz, hizketarako eta idazteko trebezia handia zuen. «Kazetari bezala beroa zen, ikaragarri beroa. Ez zuen aski notizia ematea edo komentarioak egitea; bere iritzia eransten zion idazlanari. Politikoa izan balitz mitinari bikaina, seguru asko; baina partiduko gizona zen, eta horrekin nahikoa».

Hizlari gisa, «mintzalari onaren sena zuen. Bazekien hitza nola erabili, ahotsa ere egoki modulatzeko, isilaldiak egiten eta bere jarduna dramatizatzen bazekien. Maisua zen bere gudalagunei hitz egiten ere, edo eta edozein bazkalondo edo jaialdiren ondoren neurri librean hitzak errimatuz mintzatzen. Bazuen ardura bere entzulea ahoa bete hartz, erabat txundituta edukitzeko». Irratian egin zuen lanak ondo baino hobeto erakutsi zuen berak zuen abilezia.

Gerran ere, kazetari aritu zen «Basarri». «Lehenengo Ertzain eta gero Euzko Gudarostean ibili zen garaian, gudako kazetaritza-lana egin zuen «Basarri»k, bera

bezalaxe etsai askoz indartsuago baten aurka borrokan zebiltzan gudautilak animatuz». Eguna egunkarian, 1937ko apirilaren 8an argitaratu zen «Jeiki euzkoak, gora Euzkadi» idazlana irakurri zuen, horren froga gisa.

Gerra amaitu ostean preso hartu zuten, eta «trabajadoreen batailoietara» eraman zuten. 1943an libre utzi zuten, eta Euskal Herrira itzuli zen, «zazpi urte luzeko amets gaiztoa gaindituta».

Ettxera itzuli eta bertsotan hasi zen, herriz herri. «Zaletasunez eta ofizioz, idazle eta kazetari lanetan hasi zen berriz, 1946ko udazkenean, Donostiako La Voz de España, bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten zituen aldizka, jaien kontuak eta hola, baina artean ez herri kirolen konturik».

«Handik aurrera –azaldu zuen Iriondok– urte askoan idatzi zuen La Voz de España, El Diario Vasco, Zeruko Argia, Goiz-Argi, Arantzazu eta herrietako aldizkarietan. Bere azkeneko idatzia, oker ez bagaude, 1994ko azaroaren 2an bidali zuen El Diario Vascora. Urteen zamak eta osasunik ezak dena uztera behartu zuten».

Jose Mari Iriondoren mintzaldiaren ondoren, «Basarri»ren senideei oroigarri bat eman zaie. Era berean, Zarauzko Udalak Euskaltzaindiari plaka bat eman dio. Honela dio: «Zarauzko Udalak Euskaltzaindiari. Inazio Eizmendi “Basarri”ren jaiotza-ren mendeurrenean. Zarautzen, 2013ko azaroaren 27an».

Bukatzeko, Sanz Enea Kultura Etxean dagoen «Basarri»ri buruzko erakusketa, Zarauzko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean prestatu dutena, ikustera joateko gonbita luzatu eta ekitaldia bukatutzat eman da, 13:15ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Baionako Euskal Museoan,
2013ko abenduaren 20an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun eta Zabaleta, Joseba, zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Iñigori; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Batzarra Baionako Euskal Museoan hasi da 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren abenduko Osoko batzarrari hasiera eman dio eta eguneko egitaraua aurkeztu du.

1. Osoko bilkurako (2013-11-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Bidaliriko behin-behineko bilera-agiriari hainbat iruzkin eta zuzenketa egin

zaio. Ohar eta zuzenketak bilera-agiriaren 3. eta 4. aztergaiei buruz jasotakoei dagozkie. Ondorioz, gainerako atalak bere horretan onartu dira.

3. aztergaian jasotakoari lau ohar egin zaizkio. Horietako bi, P. Salaberrik egini-koak dira, eta ohar bana, B. Oihartzabalek eta J. L. Lizundiak idatzi dute.

P. Salaberrik etortzerik izan ez duenez gero, E. Osa idazkariordeak irakurri ditu hark bidaliriko oharra.

2. orrialdeko azkeneko paragrafoaren hasieran, ematen du hizkuntza eranskariez P. Salaberrik jardun zuela, hala ez denean. Hor azaltzen dena X. Kintanak esan zuela argitu da. Era berean, jende izenetan, dokumentazioa dugunetik, emakumezkoak eta gizonezkoak bereizten direla nabarmendu du. Horiek horrela, pasartea honela geratu da:

«X. Kintanak esan du hizkuntza egitura eranskaria duten gainerako hizkuntzen antzera, euskarak ez duela genero gramatikalik bereizten, eta, horregatik, ez dagoela hitzen morfologian horiek maskulinoz zein femeninoz jotzeko inolako ezau-garririk. Halere, badira, hitz edo izen batzuk jendearen sexu baterako edo besterako egokiago iruditzen zaizkionak, estatistika lekuko».

B. Oihartzabalek, bere aldetik, Onomastikako kontuez ez zuela ezer adierazi nabarmendu du. Ondorioz, «B. Oihartzabalek Frantziako legeak pertsona-izenei ez diela sexu-bereizketa ongi markatzea eskatzen azpimarratu du» esaldia ezabatzea erabaki da.

J. L. Lizundiak 3. orrialdeko bigarren paragrafoaren hirugarren lerrotik aurrera bere ahoan jarritakoa ez dagoela zuzen esan du. Ondorioz, testu zati hori honela geratu da: «J. L. Lizundiak Ama Birjina izenetan –a kentzeko dagoen ohituraz mintzatu da, adibidez, *Liernia* “*Lierni* edota *Goiuria*” *Goiuri*. Ondorioz, zeintzuk diren –a organikodunak eta, zeintzuk artikuludunak, hots, “-a”dunak eta zerrendan, bere ustez, izen osoaz agertu beharrekoak».

Segidan, 4. aztergaian jasotakoari eginiko zuzenketak aztertu dira. M. Azkaratek dio bilera-agiri proposamenean Gramatika batzordeak eginiko proposamenaren edukiaz ez dela inolako argibiderik ematen, A. Urrutiak eginiko proposamenaz, ordean, azalpen luzea jasotzen da. Ondorioz, bi bide proposatu ditu; Gramatika batzordeak eta A. Urrutia euskaltzainak proposatutakoaz testuak orekatzea, aipamen txiki batzuk mantenduz eta, bilera-agiriaren eranskin gisa, bi proposamenak jasoz; edo, bi proposamenak era orekatuan jasotzeko asmoz, Gramatika batzordeak proposaturikoa laburbiltzea. Azkenean, Gramatika batzordeak eta A. Urrutiak propo-

satutakoen gainean testuak orekatzea erabaki da, A. Urrutiak eginiko proposamena maila berera ekarri. Era berean, paragrafo horren ostean, zera gehitzea onartu da: «Osoko bilkuran gaur banatu diren bi dokumentuak Barne jardunaldietako materialarekin batera argitaratuko dira».

P. Salaburuk 3. paragrafoko lehen esaldia honela jasotzea eskatu du: «...A. Urrutiaren proposamen horren berri eman zuela eta gutuna denon aurrean irakurri zuela,... ». Horixe izan baitzen berak esanikoa. Onartu da.

Hurrengo orrialdean, «Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan... » hasten den paragrafoa osorik beste testu batengatik ordeztzeko eskatu du. Hona hemen: «Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan ez dela aipatzen “gramatika” hitza, baina barnean –beste hizkuntzetan egindako antzeko lanak aipatzen direnean– egin diren erreferentzia guztiak gramatikaren erreferentziak direla: hiru espainolarenak eta bat euskararena. Orain arte EGLUn egindako lana deskribatze hutsa izan dela gaineratu du Salaburuk, teknizismorik gabekoa, eta aipatzen diren erreferentziatzko beste liburu horiek askoz ere teknikoagoak direla esan du. Adibide argigarri batzuk ere irakurri ditu, liburu horietatik hartuak. EGLU berrikusi eta osatu behar dela esan du, kapitulu batzuk osorik aldatu behar direla, eta orduan bakarrik egin daitekeela liburu laburragoa, eta lan hori Gramatika batzordeari dagokiola. Hala egin dela hizkuntza guztietan, eta ez duela hizkuntza horietan alderantziz egindako adibide bat bera ere ezagutzen. Galdetu du ea inork ezagutzen duen non egin den lehenik liburu laburra eta gero luzeagoa. Halaber, esan du Gramatika batzordeak eskatzen duela gaia alde batera edo bestera gaur erabakitzea, luzamendu gehiagotan ibili gabe». Testua ordeztzea onartu da. Ondorioz, ondoren datorren paragrafoa ezabatu egin da.

B. Oihartzabalek bere izenean ageri den testuaren ordeztzeko beste bat jartzea proposatu du. Hona hemen: «B. Oihartzabalek dudaren ematen du A. Urrutiaren proposamenari jarraikiz lan serioak egin daitekeen. Haren ustez, proposamen horrek ez ditu lan akademikoak behar bezala egiteko premiazko baldintzak ematen. Lau euskaltzain osoren inguruan eratu batzorde berri batek, hutsetik hasiz, bizpahiru urterik barne, 2016an, Euskaltzaindiaren oinarrizko gramatika ateratzea, kapituluka euskaltzain osoei aurkeztu eta haiekin osoko eztabaidaturik, ezinezkoa iruditzen zaio. Ez behintzat lan serioak bat eginik». Onartu da testua ordeztzea.

Paragrafo berean, P. Salaberrik «beraren ustez egun...» «...bere ustez» behar duela nabarmendu du. Azken iruzkin hori ere onartu da. Hurrengo paragrafoa ezabatzea erabaki da Osoko bilkuran.

Hurrengo paragrafoaren amaieran, esaldi bat gehitzea eskatu du P. Uribarrenek. Honako hau: «Era berean, esan du bi proiektuak bateragarri direla, Batzorde Ahaldunduan Gramatika Batzordeko bi kide izatea eta lan bateratua egitea proposatu baita». Onartu da eginiko gehitzea.

Hurrengoan, M. L. Oñederrak ondoko hau gehitzea eskatu du: «hitz egiteko moduari dagokionez, errespetua eskatu du, euskaltzainburuaren kasuan batez ere». Paragrafo berean, J. L. Lizundiak honakoa gehitzea falta dela azpimarratu du: «Barne-erregelen 67.2 artikulua aipatuz, erakunde ofizialetan ohi denez, euskaltzainburua ohargile legez eztabaidan aritzen denean, moderatzaile lana, Zuzendaritzako kide baten esku laga beharko lukeela uste du». Paragrafo honi eginiko bi oharrak txertatzea onartu da.

Hurrengo paragrafoan («Gaur bertan bozkatzeari...»), J. L. Lizundiak esanikoa honela jasotzea eskatu da: «J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67.5 artikulua dioena gogora ekarri du. Bere iritziz, gaitan agertzen dena, hots, Gramatika batzordearena soilik bozkatzeko da prozedura, ondorioz, euskaltzain batek eginiko oharra bozkatzeko geroratzea eskatu du». Paragrafo berean, J. B. Coyosek «bigarren proiektu hori Gramatika batzordeko kideen parte-hartzerik gabe ez duela ikusten nabarmendu du» esaldia gehitzea eskatu du. Horiek ere onartu dira.

Bozkatzeko erari dagokionez, B. Oihartabalek eskatu du berak esandako «proposamena barne jardunaldietako prozeduran sartzen baita, eta horrela bozkatzeko baitira batzordeen proposamenak jardunaldietan» esaldia gehitzea. Paragrafo berean, bozketara eramandakoaz iruzkinak egin dituzte, P. Salaburuk, M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak. Azkenean, honela jasotzea erabaki da Osoko bilkuran: «Ondorioz, bozketa era honetara bideratu da: a) Gramatika orokor handia eta gramatika txikia Gramatika batzordeak egitea ala b) orain arteko batzordeak bere gramatika orokor handiarekin segitzea eta, aldi berean, beste batzorde edo lantalde ahaldundu batek euskara batuaren eskuliburua prestatzea».

Atal honekin honen amaieran ageri den esaldia («Ondorioz, Gramatika batzordeak...») ezabatzea proposatu dute M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak. Esaldi hori ezabatzea onartu da Osoko bilkuran.

Ondorioz, bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2013ko azaroaren 29ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

2. Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia onartzea

Euskaltzainburuak hitza E. Osa idazkariordeari eman dio, beronek datorren 2014ko batzar-egutegia, Zuzendaritzak onartua, aurkez dezan. Aurretik J. L. Lizun-

diak idatziz aurkezturiko sei ohar euskaltzainen artean banatu ondoren, irakurri egin ditu. Horietan urteko bilkura erdiak Bilboko Egoitzan egitea eskatu du. Ondoren, E. Osak Zuzendaritzaren proposamenak azaldu eta, kasu batzuetan J. L. Lizundiaren proposamen arabera adostu dira.

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia ondorengo hau izango da:

- Urtarrilaren 31ko Osoko eta Ageriko bilkurak Bilbon egingo dira. Ageriko bilkuran K. Rotaetxeren hilberri txostena irakurriko da.
- Otsailaren 28ko Osoko eta Ageriko bilkurak Donostian izanen dira.
- Martxoaren 28ko Osoko eta Ageriko bilkurak Bilbon egingo dira. Ageriko bilkuran, 2013. urtean izendaturiko urgazle berriei agiriak emanen zaizkie.
- Apirilean ez da batzarrik izanen.
- Maiatzaren 30ean, Osoko bilkura Donostian izanen da.
- Ekainaren 27an, Osoko bilkura Gasteizen egingo da. J. L. Lizundiak batzarra Olabide ikastolan egitea proposatu du, baina toki eta data horretan, ikasturtearen amaiera delako, eragozpen handiak izanen liratekeela azaldu zaio.
- Uztailaren 18an Osoko bilkura Santurtzin egingo da.
- Irailaren 26an, Osoko eta Ageriko bilkurak Nafarroan egingo dira. J. L. Lizundiak bilera Zangozan egitea proposatu du (*Nafarroa Oinez* kontuan hartuz), Nafarroako beste merindadeburuetan bai (Iruñean, Donibane Garazin, Lizarran, Tuteran eta Tafallan, alegia) baina horretan ez baitu Euskaltzaindiak inoiz batzarrik egin. P. Zabaletak Tafalla ez dela merindadeburua gogorarazi dio, baina proposamenarekin bat dator. A. Iñigok jakinarazi du Nafarroa Oinez dela eta, 2000. urteaz geroztik Nafarroako Ikastolen Federazioa eta urte bakoitzean Oinez antolatzea tokatzen zaion ikastola direla Euskaltzaindiari bertaratzea eskatzen diotenak. 2014ko Oinezi dagokionez, informatu du oraingoz ez dela eskaerarik jaso, ez Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik, ezta Zangozako ikastolaren aldetik ere. Horregatik dio, harremanetan jartzen direnean eta egiten duten eskaeraren arabera zehaztu ahal izanen dela nolakoa izaten ahal den Euskaltzaindiaren presentzia.
- Urriaren 31n, Osoko eta Ageriko bilkurak Ipar Euskal Herrian egingo dira. J. L. Lizundiak Ziburun egitea proposatu du, Gazteluzarren 4. mendeurrenkari. Data horren inguruan Munduko Lehen Gerraz jardunaldiak egiteko asmoa dagoela gogorarazi du X. Videgainek eta horregatik bestelako ospakizunak an-

tolatzeko eragozpenak gerta daitezkeela ohartarazi du, baina, edonola ere, proposamen hori aztertu eta geroago zehaztuko dela esan du. Haren galderari erantzunez, P. Charrittoni erantzun zaio Iparraldean gerra handiaz egingen dela sinposioa.

- Azaroaren 29an, Osoko eta Ageriko bilkurak Markina-Xemeinen egingo dira. Ageriko bilkuran Jabier Kaltzakortaren sarrera-hitzaldia egingo da.
- Abenduaren 19an, Osoko bilkura, Donostian, Luis Villasante Euskaren Iker-gunean egingo da.

3. Euskaltzaindiaren 2014. urteko behin-behineko aurrekontua aurkeztu

J. Zabaleta kudeatzailea gaixorik dagoenez gero, ez da gaia ukitu, eta aurrekontua hurrengo Osoko bilkurarako utzi da.

4. Ardura-uzteak

Gramatika batzordeko ia kide guztiek izenpeturik, dimisioa emanez, idatzia bidali dute Zuzendaritzara. Halaber, I. Sarasolak ere *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoa dela eta, azken urteetan izenpetu duen zuzendari kontratua 2014. urtean berritzeko asmorik ez duela adieraziz, beste idatzi bat bidali du. Horiek horrela, hitza eman zaio Gramatika batzordeburuari.

P. Salaburuk irakurririko testuak honako hau dio: «Gramatika batzordeak Euskaltzaindiari: Gramatika batzordea da Euskaltzaindiko batzorde historikoetako bat. Akademiaren estatutuek zehazten duten gisan, batzorde honen lana da Euskaltzaindiaren zeregin oinarritzko eta nagusietako bat. Hogeita hamar urte baino gehiago aritu da lanean, eta Hondarribian garai hartan agindu zitzaion lana aski modu egokian bete du. Ahalegin horren ondorioa da *Euskal Gramatika*. *Lehen urratsak* izeneko lan mardula, zazpi liburukitan banatua. Hori da euskal gizarteak gehien baloratzen duen lana, SIADECOK egin dituen azterketetan ageri den gisan.

2013ko martxoan Euskaltzaindiak egin zituen barne jardunaldietan aurkeztu zuen batzordeak hurrengo urteetan egin beharreko lanen proposamena. Proposamen hori oharrak egin zitzaizkion, eta batzordeak berriz ere aurkeztu du proposamena, moldatu ondoren, Osoko bilkuran eztabaidatzeko. Euskaltzaindiak, hala ere, ez du aintzat hartu Gramatika batzordeak mahaigaineratu duen lan egitasmo hori. Batzordeak uste du, hartu den erabakiarekin, Akademiaren konfiantza galdu duela, eta gutxietsia izan dela. Gainera, prentsatik jakin dugunez, zuzendaritzak lehendakariari berriki aurkeztutako plangintzan, ez da gramatika ere aipatzen eta bai, aldiz, gramatikarekin zerikusia duen eta euskaltzainek onartu ez duten beste proiektu bat.

Hori dela eta, behean sinatzen dugun Gramatika batzordekideek erabaki dugu batzordetik dimititzea.

Dena dela, baldin aurrerantzean Gramatika batzordearen lan egiteko modua errespetatzen bada, beti izan den gisan, prest egongo gara erraza izan ez den erabaki hau berriz ere aztertzeke».

P. Salaburuk irakurriko testua P. Salaburuk (batzordeburua), J. M. Makazagak (idazkaria), M. Azkaratek, P. Goenagak, B. Oihartzabalek, J. A. Mujikak, J. Garziak, A. Kingek, I. Lakak, I. Amundarainek eta B. Fernandezek izenpetu dute. Era berean, ondoren, C. Mounolek ere beste idatzi bat aurkeztu du horrekin adostasuna adieraziz eta dimisioa emanez.

Ondoren, I. Sarasolak hitza hartu eta A. Urrutia euskaltzainburuari bidaliriko idatzia irakurri du. Honakoa da edukia: «Jauna: honen bidez adierazten dizut ez dudala datorren urtean berrituko *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoa zuzentzen jarraitzeko kontratua. Ez dakit Beñat Oihartzabalek fedea duen Euskaltzaindian; nik, gaur egun, ez. Ez dut federik Itziar Laka gehiengo zabalez baztertzen duen Euskaltzaindian. Ez dut federik Gramatika Batzordea gehiengo zabalez desmantelatzen duen Euskaltzaindian. Zure gidaritzapean Euskaltzaindia euskaltzale elkarte bilakatzen ari da. Ezin naiz zure konplizea izan bidaia horretan».

A. Urrutiak jakinarazi du Zuzendaritzak, 2013ko abenduaren 18an eginiko bilkuran ondoko proposamenak Osoko bilkurara ekartzea erabaki zuela; batetik, I. Sarasolaren kontratuaren iraunaldia urtearen amaieran amaitzen denez gero, Zuzendaritzak I. Sarasolari gutun bat bidaltzea, batzar honen ondoan iritzia aldatuko ote duen jakiteko. Halere, bilkuran bertan I. Sarasolak bere iritzia ez duela aldatuko adierazi du; bestetik, Gramatika batzordeko kide gehienek dimisioa dela eta, adierazpen instituzional bat egitea. Zuzendaritzak prestatu duen zirriborroa X. Vi degain buruordeak irakurri du eta pantaila batean eman da.

P. Salaburuk esan du berak ez duela horretan parte hartuko. P. Zabaletak, ordea, bai. M. L. Oñederrak ez deritzo egoki adierazpenari, azken 6. puntuari izan ezik. P. Goenagak ez du uste Zuzendaritzak prestatutako adierazpena egokia denik, eta, Euskaltzaindia horretarako kondizioetan ez dagoenez gero, berak bozketari uko egiten diola. J. L. Lizundiak dio hori egitea ez dagokiola Zuzendaritzari, eta bestalde lehengo bozketa ez zela horrela egin behar, beraz, ez dator bat. B. Oihartzabalek zail dakusa iritzia aldatzea. Aho batez egiten ez bada, ez du uste adierazpen hori egitea komenigarria denik.

A. Arejitak esan du gertatua gertatu ondoren, jendea Akademiaren adierazpen ofizial baten esperoan dela, eta hor Zuzendaritzak ahalegin bat egin duela zubiak irekitzeko. X. Kintanak esan du Euskaltzaindiaren Barne-erregelen 67.7 artikulua-ren hauste larria gertatu dela, egileek horren damu edo azalpenik ez dutela eman eta horrek eskandalu nabarmena sorrarazi duela euskal gizartean. Horren aurrean jendea azalpen bat zor zaiola. X. Videgainek ere azpimarratu du esfortzu bat egin duela Zuzendaritzak jada gizartean hedatua dagoen istilua bakebidera ekartzeko.

B. Oihartabalek esan du berdintasuna legezko mailari dagokiola; haatik, lan-tzen diren gaiei edo egiten duten lanei dagokielarik, desberdinak izan daitezkeela euskaltzainak, gehienetan bakoitzak bere espezialitatea baitu. Haren ustez, orain arte hori kontuan hartua izan da, eta ez litzateke errealista orain, lanak antolatze-rakoan, hori hala ez balitz bezala egitea.

J. Lakarrak esan du berak ez zuela botaziorik nahi. Eskerrak eman dizkio Zuzen-daritzari bere borondate onagatik. Zubia, bere ustez, adierazpena litzateke, baina laburra eta garbia, arazoa konpontzeko asmoz egina.

Andoni Sagarnaren ustez, ezin atera daiteke Osoko bilkurak testu bat berretsi gabe. Gogoan hartu behar da aurreko Osoko bilkuran hartu zen erabakia oraindik indarrean dela. P. Goenagari gustatuko litzaioke batzordeño bat egitea Zuzenda-ritzaren eta batzordearen artean. Adierazpen berria egiteko prozeduratzat, Zuzenda-ritzaren proposamenaren testua zatitu, moztu, osatu eta atalka berrosatzea ikusi da egoki. Azkenean, perpausez perpaus, guztien parte hartzearekin, adierazpen berri adostua moldatu da, hedabideen aurrean publiko egiteko.

Ondorioz, Euskaltzaindiaren adierazpen instituzionala era honetara geratu da: «Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak, 2013ko abenduaren 20an Baionako Euskal Museoa bildurik, ondoren datorren Adierazpen ofiziala egitea erabaki du:

1. Osoko bilkurak Zuzendaritzari dei egiten dio Euskararen Akademiaren ba-ruan gogoeta aldia ireki dezan, Gramatika batzordea barne, guztien arteko lankidetzaren areagotzeko eta horretarako egutegia finkatzeko.
2. Euskaltzaindiaren ustez, batzorde guztiak dira balio berekoak eta euskaltzain oso guztiak mailakideak. Guztion artean egiten (eta egingo) dugu Euskal-tzaindia.
3. Osoko bilkurak gogorarazi nahi du azken egunotan gertatu diren tirabirak eta esamesak ez direla mesedegarri Euskaltzaindiarentzat, euskararentzat eta eus-kal kulturarentzat. Artean ere desadostasunak izan direnean, elkarriketaren bidez gaingitu dira».

5. Euskaltzaindiaren Historia egitasmoak emanikoa aurkeztu

J. L. Lizundiak, berak hasitako *Euskaltzaindiaren Historia* egitasmoa geroratu arte eginiko aurrelana aurkeztu eta azaldu behar zuen, baina gaurko batzarra hasieran uste baino gehiago luzatu denez gero, astirik ezagatik, urtarileko batzarrerako atzeratzea erabaki da.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzaindiaren ordezkaria Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeetiko Harremanetarako Aholku Batzordean. Lau urterik behin berritzen den Aholku Batzorde honetarako, Sagarrio Aleman euskaltzain eta diruzaina izendatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2013ko abenduaren 3an eginiko bilkuran.

6.2. Premio Nacional de Poesía Joven «Miguel Hernández». Udaberrian sari hau abian jartzeko asmorik ez zeukan Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, baina azkenean, horretarako ere diru apur bat izan duela eta, antolatu egin da, eta Euskaltzaindiari eskatu dio epaimahaian Akademia ordezkatzeko duen pertsona izendatzea. Iñaki Mendizabal Elordi proposatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2013ko abenduaren 3an Gasteizen eginiko bilkuran.

6.3. Euskaltzaindiaren eta HABE erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmena. Bi erakundeon zeregina aitortzeaz gain, elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

2009ko apirilaren 23an izenpeturiko hitzarmenari segida emanez, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren eta HABE erakundeko HABE Liburutegiaren artean lankidetzaren egitasmoak garatzeko konpromisoa berresten da. Lankidetzaren hau ikerketaren egitasmoak ahalbideratzen, barneratzen dituzten funtsen zabalkundea egitera eta funtsen trukea segurtatzera bideratuko dira, bereziki.

Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia elikatzeko asmoz, HABEk argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz baliatzeko adostasuna erakusten da, HABE Aldizkarian sortutakoaz batez ere.

6.4. Euskaltzainei eskuraziko zaizkien argitalpenak

– Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak argitaraturiko Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio berria, euskarazko testuaz gainera (faksimilea eta gaur-

- ko ortografiara egindako egokitzapena) galizierara, katalanera, errumanierara, txinerara, kitxuara eta arabierara egindako itzulpenekin.
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V. liburukia* (Paper edo CD euskarrian).
 - *Aiarako Toponimia Nagusia*.
 - *Erlea 7*, literatur aldizkaria.
 - *Euskera* aldizkaria ere, hots, zenbaki arrunta eta ikerketa zenbakia, postaz bidaliko da.

Zein liburu jaso nahi duten jakiteko asmoz, Argitalpen zerbitzutik ohar bat igorriko zaie euskaltzainei. Eskaturiko liburuak urtarilean Bilbon egingo den Osoko bilkuraren ondoren banatuko dira.

6.5. Hurrengo bilkurak. Urtarrilaren 31n Osoko eta Ageriko bilkurak (Karme Rotaetxeren hilberri txostena) egingo dira Bilbon, Akademiaren egoitzan

6.6. Josu Zabaletak Espainiako 2013ko Itzulpen Sari Nazionala irabazi. Batzarrean jakinarazi denez, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2013ko Itzulpen Sari Nazionala eman dio Josu Zabaleta Kortaberria idazle eta euskaltzain urgazleari orain arte itzulpengintzan egindako lanengatik. Zorionak bidaltzea erabaki da.

7. Azken ordukoak

Ez da egon azken ordukorik.

Ondorioz, Osoko bilkura bukatutzat eman da 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Baionan, 2013ko abenduaren 20an

Jean Haritschelhar (1923-2013), hilberri txostena

Baionako Herriko Etxeko Batzar aretoan, arratsaldeko 15:00etan, Euskaltzaindiak, Jean Haritschelhar zenaren omenezko hilberri txostena irakurtzeko, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Pierres Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarra, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Erramun Baxok.

Euskaltzain urgazleak: Xipri Arbelbide, Jon Casenave eta Patri Urkizu.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Jean Haritschelharren hainbat senide.

Batzarburu, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Jean-René Etchegaray Baionako lehen auzapezordea ere izan da.

Jean-René Etchegaray Baionako Udalaren lehen auzapezordearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren erdal eta euskal mintzaldiek hasiera eman diote ekitaldiari, eta ondoren Beñat Oihartzabalen txanda izan da, berak prestatu baitu hilberri txostena.

Euskera. 2013, 58, 1. 259-261. Bilbo
ISSN 0210-1564

Jean Haritschelhar Duhalde Baigorri jaio zen, 1923ko maiatzaren 13an eta Biarritzen hil zen, 2013ko irailaren 1ean. Idazlea, euskaltzalea, euskaltzaina, hogeita lau urtez euskaltzainburuorde eta hamasei urtez euskaltzainburu izan zen.

Haren bibliografia akademikoa oso zabala izanik, Pierre Topet Etxahun koplagileaz egindako doktore ikerketa azpimarratu behar da, duen garrantziagatik. Hala-ber, Euskaltzainditik eta unibertsitatetik at egindako lanak ere gogoan izan behar dira, hala nola, Herria aldizkariko kolaborazioak, Baionako Euskal Museoan edo euskararen alde egindako beste zenbait.

Beñat Oihartzabalek J. Haritschelharren heriotzak jendeak zion begirunea azaleratu zuela azpimarratu du: «Berehala, udazkenean lau bazterretan hostoak bezala, hedatu zen berria Euskal Herrian gaindi, euskaltzale guziek etxekoekin bat egiten zutela haien nahigabea». Hileta egunean ere, «mundu bat bildu zen Baigorri. Hango eliza, mukuru bete zuten azken agurra egin nahi zioten Euskal Herriko hiru kantoietarik jin euskaltzaleek. Orok garbi zeukaten zerbitzari berezia galdua zuela euskarak, eta euskaldun guziak batzen gintuen norbait itzali zela. Ehorzketa haietan izan zirenek ez dukete ahanztekoa samintasunez eta bihotz berotasunez bete arratsalde hura».

«Euskaldun guziak batzen gintuen» gizonaren biografia errepasatu du ondoren. Bere hastapenak eta lehen ikasketak aipatu ditu, gazte denboran gerra ezagutu zuela gogorarazi: «Nola duda gertakari haiek orok barne-barneraino hunkitu zutela? Ondoko hamarkadetan erakutsiko zuen bakezaletasunak gaztean ikusi dorpekeria haietan zukeen oinarri».

Ikasle eta irakasle bezala egin zuen ibilbidea gogoan izan zuen B. Oihartzabalek, eta, besteak beste, Pierre Topet Etxahun koplagileaz egin zuen lana azpimarratu zuen. «Hogeita hamabost urteak iraganik –esan zuen– Ageneko lizeoan zelarik, hurbildu zen lehen aldikoz euskal gaietara, zeharka bezala gainera, irakasle lagun batek Ageneko auzitegian Barkoxeko koplari birigarro bati zegozkion auzi-paperak bazirela jakinarazi ondoan. Paper haiek eskuztatuz egin zuen Pierre Topeten ezagutza Jean Haritschelharrek, bai eta molde horretan bere lehen aitzur ukaldiak eman euskalaritzako alorrean».

Etxahunez idatzi tesiaz honako hau esan du: «Haritschelharren ikerketari esker agerian ezarria izan zen, molderik argienean eta zehatzenean, koplari haren originaltasuna eta indarra, XIX. mendeko herri literaturaren testuinguruan behar bezala kokatzen zelarik. Ereduzko lan horrengatik, eta ondotik egindakoengatik, Euskal Herriko Unibertsitateak Doctor Honoris causa eginen zuen geroago, 1988an».

B. Oihartzabalen esanetan, 1960ko hamarkadaren lehen urteetan «sartu zen osoki Iparraldeko euskalaritza biziartzaren duten elkarte edo egitura garrantzi handienekoetan». Hala, *Gure Herria*, Euskal Museoan, IKAS-en. Eta Euskaltzaindian. Izan ere, 1962ko uztailaren 27an Euskaltzaindiak euskaltzain oso hautatu zuen, «Lafittek bereziki akuilaturik sartu zen Euskaltzaindian», Oihartzabalen hitzetan. Urte hartan, *Gure Herria* aldizkari idazkari nagusi eta Museoko buru egin zuten.

«Handik aitzina, Haritschelhar erabat ariko zen lanean euskararen eta euskal kulturaren alde». Euskal Museoan, Unibertsitatean, IKER ikergunean... lan esker-egin egin zuen egon zen leku guztietan.

Euskaltzaindian, zer esanik ez. 1966. urtetik 1988ra bitartean euskaltzainburuorde izan zen eta 1989an izendatu zuten euskaltzainburu, Luis Villasantek ordura arte beteriko lekua hartuz. 2004ko abendura arte izan zen euskaltzainburu. B. Oihartzabalek esan duenez, «1988an euskaltzainburugora helduan, aitzineko urteetan doidoia abiatu hats luzeko ikerketa proiektu handi batzuen akuilatzea izan zuen helburu, hala nola Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak, Hiztegi Batua, Euskal Hizkeren Hizkuntz Atlasa, hastetik 1995 arte kudeatu zuena, Onomastikako lehen zerrenda sistematikoak, eta Literaturaren Hiztegia. Euskaltzaindiaren batzordeko antolamenduaren bidez, lan garrantzitsua egin zuen urte haietan Euskaltzaindiak, eta erran daiteke gaur egun ere, orduan erein ziren haziak ekarri uztari esker egiten dituela parte on batean bere oinarritzko lan akademikoak gure erakundeak».

Hala, bada, Jean Haritschelharrek egindako lanari jarraipena ematea besterik ez dago: «Euskarak gure hemengo lurraldean legezko ezagutzarik izan gabe partitu da Jean, mundu honetarik, guri dagokigu orain, aspaldi hartua zuen xede haren burutuan ateratzea».

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak Jean Haritschelharren heriotzaren inguruabarrean hedabideetan argitaratutakoekin, bai eta jasoriko dolumin idatziekin osaturiko oroigarria eman die senideei, ekitaldia bukatutzat emanez, arratsaldeko 16:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria



Euskaltzaindiaren *arauak*

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindiaren araugintza 2013an

Exonomastika

Toponimiaren araugintzari bukaera emateko, astronimia lantzen hasi zen 2012an Exonomastika batzordea, eta 2012ko abenduan onartu zuen Euskaltzaindiak astroen izenen lehen atala: planetak eta planeta nanoak.

2013ko lehen hilabeteetan, arau horren hurrengo atalak landu ziren, eta 2013ko urtarrileko, otsaileko, martxoko eta maiatzeko Osoko bilkuretan onartu ziren. Astroen izenak arauak (173. araua) 335 astro-izen biltzen ditu. Zerrendaz gainera, atal bakoitzean izendapenerako irizpideen berri zehatza ematen da. Honela antolatuta dago araua:

1. Planetak eta planeta nanoak

- 1.1. Planetak

- 1.2. Planeta nanoak

2. Sateliteak

- 2.1. Lurraren satelitea

- 2.2. Marteren sateliteak

- 2.3. Jupiterren sateliteak

- 2.4. Saturnoren sateliteak

- 2.5. Uranoren sateliteak

- 2.6. Neptunoren sateliteak

- 2.7. Plutonren sateliteak

3. Izarrak eta konstelazioak

- 3.1. Izarren izendapena. Irizpidea
- 3.2. Eranskina: alfabeto grekoaren letren izenak
- 3.3. Izarrik distiratsuenetariko batzuk
- 3.4. Konstelazioak eta asterismoak
- 3.5. Zodiakoko konstelazioak eta astrologiako zeinuak
- 3.6. Konstelazioen izenak euskaraz adierazteko irizpidea
- 3.7. Konstelazioak (88 konstelazio ofizialak)
- 3.8. Asterismoak

4. Nebulosak eta galaxiak

- 4.1. Nebulosak
- 4.2. Nebulosa eta galaxietan izen berezia eta izen generikoa lotzeko moduari buruzko irizpidea
- 4.3. Izen berezia duten nebulosa nagusietako batzuk
- 4.4. Galaxiak
- 4.5. Izen berezia duten galaxia nagusietako batzuk

5. Asteroideak, kometak, izar iheskorak eta beste

- 5.1. Asteroideak
- 5.2. Irizpidea
- 5.3. Asteroide nagusiak
- 5.4. Kometak
- 5.5. Izendatzeko irizpidea
- 5.6. Kometa ezagun batzuk
- 5.7. Izar iheskorak (meteoro-zaparradak)
- 5.8. Izar iheskorak izendatzeko irizpidea
- 5.9. Izar iheskor ezagunenetariko batzuk
- 5.10. Eguzki-sistemako beste objektu-multzo batzuk

Arlo horietako bakoitzean, izendegiaz gainera (astro-izenen zerrenda eleaniztunak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa), izen horien atzean dauden irizpideak ere zehaztu dira, zerrendetan ageri ez diren bestelako astro-izenekin nola joka litekeen erakustearren.

Hala, adibidez, arauturik gelditu da Pluton planeta nanoaren sateliteetako bat Karon dela euskaraz (Charon frantsesez eta Caronte gaztelaniaz), edo zodiakoko konstelazioen izenetako bat Pisces dela eta ez *Piscis*, edo Pertseidak izar iheskorak aipatzeko badela beste izendapen bat tradizio kristauan: Done Laurendiren malkoak.

Astro-izenez gainera, bi eranskin osagarri ere ematen dira arauan: planetetako jatorri-adjektiboen zerrenda –planeta-izenekin batera ematen dira– eta alfabeto grekoaren letren izenak, izarrak izendatzeko erabiltzen direnez erabilgarriak gerta baitaitezke.

Arau horrekin oinarritzko toponimia amaiturik, kanpoko pertsona-izenak lantzeari ekin zion Exonomastika batzordeak 2013an. Iraileko Osoko bilkuran aurkeztu zuen egitasmo zehatza Exonomastika batzordeak, eta lehen araugaia ere aurkeztu zuen:

Antzinatea (I): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia. Irizpideak eta izen-zerrendak.

Azaroko Osoko bilkurak onartu zuen araugaia, eta arau bihurtu zen. Hala ere, ez zen 2013an argitaratu, beste atal batzuekin batera argitaratzeko delako.



Irizpenak eta txostenak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Onomastika

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Zumelzu / Zumeltzu

Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordeko idazkariak

Mikel Gorrotxategi Nieto, Secretario de la Comisión de Onomástica

ZIURTATZEN DU:

Ofizialki *Zumelzu/Zumeltzu* deitzen den Gasteizko kontzejuaren euskarazko izendapena *Zumeltzu* dela, herri izenen euskal forma finkatzen duen Euskaltzaindiaren arautegia-
ren arabera.

Eta ziurtagiri hau egiten du, hala jasota geldi dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2013ko azaroaren 13an.

CERTIFICA:

Que la denominación del concejo de Vitoria-Gasteiz llamado oficialmente *Zumelzu/Zumeltzu* es en euskera *Zumeltzu*, según la normativa de la Real Academia de la Lengua Vasca que establece la forma eusquérica de los nombres de las poblaciones.

Y para que así conste y a los efectos oportunos, expide este certificado en Bilbao, a 13 de noviembre de 2013.

O. E. / Vº Bº

Patxi Salaberri Zaratiegi
Onomastika batzordeko burua /
Presidente de la Comisión
de Onomástica

Euskera. 2013, 58, 1. 273-273. Bilbo
ISSN 0210-1564



Hitzarmenak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindiak 2013. urtean zehar hainbat lankidetza-hitzarmen sinatu ditu

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak

Otsailaren 7an, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiek eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena izenpetu dute euskal onomastikaren eremuan elkarrekin aritzeko. Hitzarmena, Mario Iceta Bilboko gotzainak, Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak, Miguel Asurmendi Gasteizko gotzainak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute.

Hitzarmenaren xedea euskal deituren grafia finkatzea da. Horretarako, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiei dagozkien parroketako sakramentu liburuetakoko deituren aldaerak erabiliko dira iturri gisa. Aipatu deiturak datutegietara atera dira eta Elizbarruti bakoitzak bereak ditu ikusgai bere webgunean, eta Irargiren webgunean hirurenak, hiru Elizbarrutiek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Departamentuarekin izenpetu duten hitzarmenari esker. Sail honetako liburu zaharrenak XV. mendeak dira eta bertan, besteak beste, gure arbasoen euskal deitura asko jasotzen dira. Denboran zehar deituren idazkera bera aldatzeaz gain, gaztelaniazko grafia erabili izan da berauek idazteko garaian, eta, horren ondorioz, deiturak, sarritan, itxuraldaturik ageri dira.

1998an Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlaritza eta Madrilgo Justizia Ministerioarekin batera, euskal deiturak arautzeko eta normalizatzeko asmoz, liburu bat argitaratu zuen. Hura osatu eta hobetu nahian, orain, bigarren edizio bat prestatzeari ekin nahi dio Euskaltzaindiak. Argitalpena ahalik eta osatuena izan dadin, deiturek mendeetan zehar izan dituzten aldaerak bildu

nahi ditu Euskaltzaindiak, egungoak zein historikoak, gizabanakoei zein ikertzaileei edota instituzioei baliagarri gerta dakizkien. Era berean, arauzko idazkerak, bilaketak eta aurkibideak garatzeko balioko du, herritarren bilaketak eta ikertzaileen lana erraztuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Elizbarrutiek eta Euskaltzaindiak izenpetu duten hitzarmenaren arabera, bi epetan gauzatuko da lan hau: lehenengoan, hiru Elizbarrutiek 1700. urtera arteko deituren erlazioak emango dizkiote Akademiari arautu ditzan; Euskaltzaindiak, berriz, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegi bana emango die Elizbarrutiei. Lan hori amaitutakoan, bi aldeei ongi iritziz gero, 1700etik 1900 arteko deituren azterketa egingo da. Sinatu den hitzarmenean aurreikusi denez, lehen zatia dagozkion lanak, 2013-2014 epean egingo dira.

UZEI

Martxoaren 6an, UZEIren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatu da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. UZEIren izenean Jon Etxabe presidenteak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Euskaltzaindiaren eta UZEI elkartearen arteko harremana 1986an hasi zen, eta hainbat eginkizunetan gauzatu da: hiztegi gintzan (Hiztegi Batuaren presaltaneko fase guztietan eta batzorde eta lantaldeetako kide gisa) eta corpus gintzan (XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoaren osaera-fase guztietan eta Lexikoaren Behatokia). Hala, bada, martxoan sinatu den lankidetza-hitzarmenaren bidez, bi erakundeok aipatu elkarlana indartu eta areagotu nahi dute, betiere euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatze asmoz.

Bost urteko iraupena izango duen hitzarmenak jasotzen duen lege, bi erakundeon arteko elkarlana euskararen corpusa eguneratzeko, mantentzeko, gizarteratzeko eta erabiltzaileen beharretara egokitzeko proposatzen diren egitasmoen inguruabarrean gauzatuko da. Horiek horrela, bi erakundeek berariaz adostu dute, XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa

(ECE), Hiztegi Batu Oinarriduna (HBO), Lexikoaren Behatokia (LEBE) eta Hiztegi Batuko lantaldean lankidetzan aritzea.

Nafarroako Gobernua

Apirilaren 10ean sinatu da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetzatza-hitzarmena. Akademiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du, eta Euskarabidearen izenean Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak.

Lankidetzatza-hitzarmenak urteko lan arloak zehazten ditu. Hala, hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurtengo 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan egiten dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko. Era berean, Nafarroako Gobernuak bestelako konpromisoak hartu ditu: Akademiaren Hiztegi Batua osatuko duela, Nafarroako euskalkietako hitzak sartuz; hizkuntza kalitateko zerbitzua abian jartzen lagunduko duela; eta Akademiak eskatutako testuak gaztelaniatik euskarara itzuliko dituela. Euskarabideko langileak arituko dira zeregin horretan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 foru legean, esaten da Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Foru lege berean, arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan izan behar duen jardura ere, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

AEK

Apirilaren 17an, AEK-k eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzatza-hitzarmena sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. AEKren izenean Mertxe Mugika koordinatzaile nagusiak sinatu du, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eñaut Mitxelena AEK-k

kaleratzen duen *Aizu!* aldizkariaren zuzendaria eta Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria ere ekitaldian izan dira.

Hitzarmen horrek AEKren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sendotzea du helburu, eta euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

Besteren artean, hitzaermen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoa, *Aizu!* aldizkarian sortutakoa batez ere, Akademiaren eskuetan jarriko du AEK-k. Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta linguistikoki anatatua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabidek euskaraz ekoiztutako berriak –ahozkoak nahiz idatzizkoak– hartzen ditu oinarritzat, zurrupatuz eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia, UZEI, Elhuyar eta EHUKo Ixa taldearekin garatzen ari da.

Eusko Ikaskuntza

Ekainaren 13an, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetza-hitzaermina sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egotzan. Eusko Ikaskuntzaren izenean Iñaki Dorronsoro lehendakariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria eta Rosa Miren Pagola Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordea ere izan dira ekitaldian.

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak, erakunde bakoitzaren izaera eta helburuen barnean, bien arteko lankidetza-proiektuak sustatu eta garatu nahi dituzte euskal hizkuntzaren eta kulturaren esparruan. Testuinguru horretan, elkarrekin ikerketak gauzatu nahi dituzte hizkuntza eta kultura izaerako gaietan, bai eta hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arteko harremanak sendotzea xedetzat duten egitarauen inguruan ere.

Horiek horrela, bi erakundeon arteko lankidetza euskal hizkuntzaren eta kulturaren eremuan gauzatuko da, bai eta hizkuntzaren, kulturaren eta gi-

zartearen arteko harremanak sendotzea xedetzat duten egitarauen inguruarbarrean ere.

Euskal Kultur Erakundea

Ekainaren 19an, Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetz-hitzarmena sinatu dute Baionan, Euskaltzaindiaren ordezkaritzan. Euskal Kultur Erakundearen izenean Pantxoa Etxegoin zuzendariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Haiekin batera hauek izan dira ekitaldian: Terexa Lekunberri EKEko Etnologia eta Kultura Ondare Immateriala Sailekoa, eta Xabier Kintana eta Jean-Baptiste Coyos, Euskaltzaindiko idazkaria eta Jagon sailburua, hurrenez hurren. Piarres Xarriton euskaltzaina ere izan da.

Hitzarmen horrek Euskal Kultur Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko harremana indartu eta beste eremu batzuetara ere eramatea du helburu. Oro har, bi erakundeok lankidetzan arituko dira, euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak areagotzeko asmoz.

Euskal Kultur Erakundea 1990. urtean sortua izan da, euskararen eta euskal kulturaren alde ari diren elkarteek bultzaturik eta erakunde publikoek lagundurik, hala nola Estatua, Akitaniako Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilua, eta euskal kulturaren aldeko Herrien Sindikatua, gaur egun iparraldeko 146 herrik osatzen dutena. Bere helburu nagusia euskal kulturaren garapena eta hedadura sostengatzea da.

Kultur arloan diharduten elkarteak laguntzen ditu, edota haiekiko elkarlana bultzatzen du. Gaur egun, 140 elkarte dira Euskal Kultur Erakundeko kide.

Editorial Iparragirre

Irailaren 11n, Editorial Iparragirrek eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetz-hitzarmena sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Editorial Iparragirrerren izenean Iñaki Alzaga presidenteak sinatu du, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Bingen Zupiria eta

Joseba Santamaria *Deia* eta *Noticias de Navarra* egunkarietako zuzendariak eta Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria ere ekitaldian izan dira.

Hitzarmen horren ondorioz, *Ortzadar* gehigarriaren euskarazko testu-masa osoa Akademiaren eskuetan jarriko da, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz. *Ortzadar* Editorial Iparragirrek editatzen du, eta Noticias Taldea osatzen duten lau egunkariak –*Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Navarra* eta *Noticias de Alava* egunkariak– zabaltzen dute.

Ez da hau Euskaltzaindiak eta Iparragirrek sinatzen duten lehen hitzarmena. Izan ere, 2010eko otsailean, bien arteko lehena izenpetu zuten, eta, besteren artean, *Deia* egunkariak euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jartzeko konpromisoa hartu zuen, Lexikoaren Behatokia egitasmoa garatzeko. Bestalde, urte bereko ekainean, helburu bera zuen hitzarmena sinatu zuen Akademiak, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariarekin.

Orain, 2010ean Editorial Iparragirrerekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren eranskin gisa, *Ortzadar* gehigarriaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko dute.

Iruñeko Udala

Irailaren 27an, urtebeteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Enrique Maya alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute. Iruñeko Udaletxean egin du Euskaltzaindiak iraileko osoko bilkura. Hori dela-eta, hitzarmenaren sinaduran, euskaltzainburua ez ezik, gainerako euskaltzainak ere izan dira. Iruñeko Udaleko zinegotziak ere joan dira ekitaldira.

Hitzarmen horren helburuak honako hauek dira:

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritzen ahalko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.
- Euskaltzaindiak ematen jarraituko du hala herritarrek eskaturiko hizkuntzaren inguruko argibideak eta aholkuak nola txostenak eta egiaz-

tagiriak, bai bere bulego nagusietatik bai Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkartzatik.

- Kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da elkarlanean.
- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio bakoitzaren hamar ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere hitzarmen honen esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira. Argitalpen horiek Iruñeko liburutegi publikoetara bidaliko dira.

EITB

Urriaren 1ean, lau urteko iraupena izango duen lankidetza-hitzarmen berria sinatu dute Maite Iturbe Euskal Irrati Telebista (EITB) erakundeko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, EITBren Bilboko egoitzan.

Hitzarmen horren bidez, EITBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuen ildotik. Horrela bada, EITBko hedabideek kalitatezko euskara eredu estandarra zabaltzen eta finkatzen lagunduko dute. Aldi berean, euskalkien aberastasuna bistaratzen eta balioan jartzen ere lagunduko dute hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Irizpideak, EITBren estilo liburuan zehaztuta egongo dira. Honenbestez eta hau guztia aurrera eramateko, EITBk Euskaltzaindiko Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokiaren laguntza eta kolaborazioa izango du.

Bi erakundeen arteko lankidetza esparru hauetan gauzatuko da:

- Hiztegi Batuaren eta Onomastikaren alorrean, bereziki EITBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarrei lotuta.
- Hizkuntzaren gramatika.
- Ahoskerari buruzko arauak eta jarraibidea, hizkuntzaren ebakera zuzena zaindu eta fonetika hutsak saihesteko.

Euskararen Erakunde Publikoa

Urriaren 15ean, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzatza-hitzarmena sinatu dute Baionan, Euskaltzaindiaren ordezkartitzan. Euskal Kultur Erakundearen izenean Frantzia Maitia presidenteak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

2008. urteko urtarrilaren 24an, Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmen orokor bat izenpetu zuten, bi erakundeen arteko lankidetzatza garatzeko eta egituratzeko. Hitzarmen orokor horrek Euskal Kultur Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren nondik norakoa zehazten zuen, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen. Bestalde, urtero, hitzarmen orokorrari lotutako urteko gehigarri bat izenpetzen da, urteko lanak elkarrekin zehazteko.

Hortaz, urriaren 15ean 2013rako gehigarria izenpetu dute EEPk eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen gehigarri horrek, bi erakundeen 2013. urteko lankidetzaren nondik norakoak, bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta diru-laguntza zehazten ditu.

Hauek dira 2013. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskaltzaindiak lan hauek argitaratuko ditu 2013an: *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)*. Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos; Ernest Daudet: «*Amodiaren martirra*» Dolores, emazte bat berthutez bethea. Prestatzailea: Xabier Alzibar; *Kultura eskubideen oinarri etikoak*. Autorea: P. Xarriton.
- Euskaltzaindiak EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egingo du.
- Euskaltzaindiak aholku emango dio EEPri, toponimoen grafia egokiari buruzko gaietan.
- Euskara teknikariei formakuntza ikastaro bat emango dio Euskaltzaindiak.
- IGNeko toponimoen normalizatze lanaren emaitzak publiko egitea. Alegia, IGNeko toponimoen arautze lanen berri emanen dute Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskaltzaindiak.

- IKAS pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2013an araberrako prozedura egoki bat jarriko dute abian, IKAS pedagogia zentroarekin elkarlanean

El Correo egunkaria

Abenduaren 2an, *El Correo* egunkariak eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena izango duen lankidetz-a-hitzarmena sinatu dute, Bilbon, Akademiaren egoitzan. *El Correo*ren izenean Juan Carlos Martínez zuzendariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hitzarmen horren bitartez, *El Correo*ak eta Euskaltzaindiak lankidetzarako proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte euskararen eta euskal kulturaren esparruan.

Bi erakundeak elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizazioarekin zerikusia duten proiektuak egiteko, Euskaltzaindiak euskararen inguruan ezartzen dituen arauak hedatzeko, eta arau horiek komunikabi-deetara egoki transmititzeko.

Bestalde, hitzarmen horren ondorioz, *El Correo* egunkariak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu 2013. urtean euskaraz argitaratu dituen testu guztiak, eta orobat, hitzarmenak indarra duen bitartean euskaraz sortuko dituen guztiak. Testu horiekin, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatuko du. Egitasmo hori UZEI, Elhuyar eta EHUKo Ixa taldearekin egiten ari da Akademia.

HABE

Abenduaren 13an, euskararen ezagutzan, erabileran eta sentsibilizazioan eragiteko, eta hainbat ikerketa bultzatzeko asmoz, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeak (HABEk) eta Euskaltzaindiak lankidetz-a-hitzarmena sinatu dute. HABEren izenean Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak sinatu du, HABEko

presidente den heinean, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Akordioak jasotzen dituen gaien artean, HABEk Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak erantzunak emango edota bideratuko ditu.

Indarrean dagoen hitzarmenari segida emanez, Euskaltzaindikiko Azkue Biblioteka eta HABE erakundeko HABE Liburutegiaren artean lankidetzatza-egitasmoak garatzeko konpromisoa berresten dute bi aldeek. Lankidetzatza hau ikerketa-egitasmoak ahalbidetzera, barneratzen dituzten funtsen zabal-kundea egitera eta funtsen trukea segurtatzera bideratuko da, batez ere.

Horretaz aparte, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeke asmoz, HABEk argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz, HABE aldizkarian sortutakoaz batez ere, baliatzeko adostasuna erakusten dute.

Berriak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2013ko albisteen kronika

Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira

Urtarrilaren 17an, Bilbon, EHUKo Bizkaia Aretoan, Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu ziren. Ekitaldian sariok antolatzen dituzten bi erakundeek ordezkariak izan ziren: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria; eta UPV - EHUrean, Iñaki Goirizelaia errektorea eta Xabier Etxaniz Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea.

Hauek izan ziren sarituak:

- Zientzia Esperimentalak: Hutsik geratu zen.
- Ikasketa Teknikoak: Arantxa Otegi Usandizaga. Tesia: «Hedapena informazioaren berreskurapenean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta antzekotasun semantikoaren ekarpenak».
- Osasun Zientziak: Karlos Ibarguren Olalde. Tesia: «Helduen ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdien analisisa Euskal Autonomia Erkidegoan».
- Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak: Iñaki Lazkano Arrillaga. Tesia: «Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman».
- Giza Zientziak: Larraitx Zubeldia Arruabarrena. Tesia: «Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa».

Euskera. 2013, 58, 1. 289-303. Bilbo
ISSN 0210-1564

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak «Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria» sortu zuten, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz. Sari hauen bitartez, UPV/EHUK eta Euskaltzaindiak euskarazko tesien ekarpen bikoitza goraipatu nahi dute, batetik jakintzaren arloa zabaltzen laguntzen dutelako, eta bestetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere guztiz lagungarriak direlako. Bi urterik behin deitzen dira.

Hauek izan ziren III. Koldo Mitxelena Sarietako epaimahaikideak:

- Zientzia Esperimentalen jakintza-arloan: Txema Ezpeleta eta Jacinto Iturbe.
- Osasun Zientzien jakintza-arloan: Alberto Loizate eta Inmaculada Gerrikagoitia.
- Giza Zientzien jakintza-arloan: Julian Maia eta Miren Azkarate.
- Gizarte Zientzien jakintza-arloan: Josi Basterretxea eta Patxi Juaristi.
- Ikasketa Teknikoen jakintza-arloan: Lauren Etxepare eta Jose Ramon Etxebarria.

Maite Insaustik (epaimahaiburu), Xabier Kintanak (epaimahaiko burorde) eta Jesus Mari Makazaga Euskara Zerbitzuaren zuzendariak ere osatu zuten epaimahaia.

Eusko Legebiltzarreko presidenteak Euskaltzaindia hartu du

Urtarrilaren 22an, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentek Euskaltzaindiko Zuzendaritza hartu zuen Eusko Legebiltzarrean, eguerdian. Akademiaren Zuzendaritzak ohiko bilkura egin zuen Legebiltzarrean bertan, goizean, eta horren ondoren egin zen bilera presidentearekin. Akademiaren izenean hauek izan ziren: Andres Urrutia euskaltzainburua; Xarles Videgain burordea; Xabier Kintana idazkaria; Sagrario Aleman diruzaina; Adolfo Arejita Iker sailburua; Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua; Joseba Zabaleta kudeatzailea; eta Erramun Osa idazkariordea.

«Milaka argi Nafarroan» kanpaina aurkeztu du IKAk Euskaltzaindian

Urtarrilaren 21ean, «Milaka argi Nafarroan» izeneko kanpaina aurkeztu zuen Bilbon IKAk. Euskaltzaindiaren egoitzan emandako prentsurrekoan, Sagrario Aleman, Joxerra Olano eta Xabier Martinez de Lezea IKA euskaltetikiko arduradunek azaldu zituzten kanpaina horren ezaugarriak. «Nafarroa Garaiko euskaldunak non dauden agerian utzi nahi dugu –adierazi zuten–. Horretarako, euskaldun guztiak, Nafarroa Garaikoak izan edo Nafarroa Garaitik kanpokoak izan, elkarri mezuak bidaltzen jarri nahi ditugu, euskaldunen arteko katea sortzeko».

Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak testuak eraikitzekeko estrategiez jabetzeko ikastaroa antolatu dute

Mondragon Unibertsitateak (MU) eta Euskaltzaindiak testuak eraikitzekeko estrategiez jabetzeko ikastaroa antolatu zuten 2012-2013 ikasturtean. Ikastaroak 2012an kaleratutako *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua izan zuen abiapuntu. Liburu hori Euskaltzaindiak argitaratu zuen, Akademiaren Corpus batzordeak landu, eta Pello Esnal batzordekideak koordinatu. Esnalek berak eman zuen ikastaroa, bi egunetan: otsailaren 13an eta 25ean.

Euskara kalitatez erabiltzea erronka garrantzitsua da Mondragon Unibertsitateko irakasle, langile eta ikasleentzat. Kezka horri erantzunez, urteetan zehar euskararen kalitatea hobetzeko ikastaroak antolatu dira hainbat adituren eskutik eta alor desberdinak jorratu izan dira: euskara zientifiko-teknikoa, Euskaltzaindiaren arauak, hizkuntza-baliabideak Interneten, e.a. Dinamika horri jarraituz, euskarazko testuak ekoizten dituzten irakasle eta ikertzaileen artean Unibertsitateko testuak sortzeko idazkeran sakondu beharra sumatzen zen eta Unibertsitateko arduradunek egoki ikusi zuten Pello Esnalek *Hitz-ordena: erabilera estrategikoa* bere liburuan oinarritutako ikastaroa izatea.

Guztira 13 irakaslek eman zuten izena ikastaroan, eta MUko hiru fakultateko irakasleek parte hartu zuten, Enpresagintza, Goi Eskola Politeknikoa

eta Humanitate eta Enpresa Zientzien (HUHEZI) fakultateetako irakasleek hain zuzen ere.

Euskaltzaindiak 14 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu

Otsailaren 22an, Euskaltzaindiak Bilbon egin zuen osoko bilkuran, 14 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen.

Akademiaren batzorde akademikoetan lanean ari diren pertsonak izendatu ziren. Guztiak ziren batzorde horietako kide, gutxienez 2005. urtetik. Hauek ziren euskaltzain urgazle berriak: Iñaki Aldekoa, Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

2013ko Azkue Literatura Sariak banatu dituzte Euskaltzaindiak eta BBK-k

Martxoaren 6an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Akademiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu ziren. Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Hauek izan ziren 2013ko saridunak:

- A mailan, narrazioan: lehen saria, *Mundiala!*, Maddi Aiestaran; bigarren saria: *Zintzoa izateko ipuina*, Olatz Bereziartua; hirugarren saria: *Martinaren ibilbidea*, Anne Agirre.
- A mailan, olerkian: lehenengo saria: *Egunsentia*, Lorea Azpiazua; bigarren saria: *Ezer ez da betiko*, Naia Ordorika; hirugarren saria: *Parkea*, Aiora Amenabar.
- B mailan, narrazioan: lehen saria: *Janis Joplin, sudur gorriak eta arrautza frijituak*, Lourdes Ondaro; bigarren saria: *Lagun minak*, Markel Txasko; hirugarren saria: *Egunari beldur*, Ane Saiz.

- B mailan, olerkian: lehen saria: *Lehertu, atertu, desertu*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Amaraunak*, Inhar Esnaola; hirugarren saria: *Itzaldtu*, Maialen Akizu.

Azkue Sarien helburu nagusia idazle gazteak literatura mundura erakar-tzea da. Edizio honetako epaimahaikoak hauek izan ziren:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 16an, II. Libürüaren Egüna festan izan zen Euskaltzaindia, eta saltokia jarri. Akademiak Zuberoarekin lotura duten argitalpen batzuk eramán zituen, eta baita azken nobedadeak ere. Edizio honetako gai nagusia emakumea eta literatura izanik, gai honen inguruan ekitaldi ugari egin ziren egun osoan zehar. Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain urgazleak olerki batzuk irakurri zituen, eta mahai-inguru batean hartu zuen parte. Jean-Baptiste Coyos eta Jean-Louis Davant euskaltzain osoak Libürüaren Egü-nean izan ziren, eta Andres Urrutia euskaltzainburua ere Maulera joan zen.

Apirilaren 1ean, Sarako Idazleen Biltzarrean, honako hiru liburuak aur-keztu zituen Euskaltzaindiak: *Jon Mirande, olerkaria*, Txomin Peillenena; *Antoine D'Abbadie, Abbadiatz*, Jean-Louis Davantena; eta Gratien Adema «Zaldubi»ren *Gaineratekoen bilduma*, Henri Duhauk prestatua.

Bestalde, Euskaltzaindiak parte hartu zuen Bilboko Liburu Azokan. Maiatzaren 31tik ekainaren 9ra bitartean Areatzan egin zen Azokan, salto-kia jarri zuen Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai. Era berean, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren laguntzarekin antolatu zen «Euskal emakume idazleak» izeneko erakusketan parte hartu zuen Akademiak.

Horretaz gain, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Ga-lega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Madrilgo Liber Azokan izan zen

urrian, hilaren 2tik 4ra. Aipatu hiru erakundeok erakustoki berean izan ziren. Eta, urtero bezala, Durangoko Azokan izan zen Akademia. Abenduaren 5etik 8ra bitartean egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan kaleratutako liburuak izan zituen salgai.

Nafarkariaren zenbaki guztiak Euskaltzaindiaren webgunean

Nafarkaria, *Euskaldunon Egunkariaren* Nafarroako gehigarriaren ibilbide osoa, hots, bizirik iraun zuen bitartean kaleratu ziren 547 zenbakiak, sistematizatu eta digitalizatu ditu Euskaltzaindiak, eta bere webgunean kontsulta daitezke. Lana, Nafarroako Gobernuaren eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker burutu da.

1991ko abenduaren 6an kaleratu zen lehenbizikoz *Nafarkaria*, *Euskaldunon Egunkariaren* Nafarroako gehigarria. Geroztik ostiralero ikusi zuen argia, harik eta 2002ko uztailaren 26an, larritasun ekonomikoak itota, desagertu zen arte.

2011rako sinatu zuten hitzarmenean, Akademiak eta Gobernuak *Nafarkaria* digitalizatzea eta Interneten kontsultagai jartzea adostu zuten. Halaxe egin zen, eta lan horren fruitua da 2013ko apirilean sarean jarri zena.

«Herri Literatura Jardunaldietako Antologia» atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

Maiatzaren 31n, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu zuen Interneten, «Herri Literatura Jardunaldietako Antologia» izenekoa. Bertan, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak antolatu dituen herri literaturari buruzko jardunaldietako ekarpenik mamitsuenak bildu dira. Horietako bi –Antonio Zavalak eta Bernardo Atxagak 1994an eta 2005ean eman zituzten hitzaldiak– lehen aldiz argitaratu ditu Akademiak. Are gehiago, Atxagarena argitaratu gabea zen eta lehenbiziko aldiz jartzen zen publikoaren eskura.

Pello Esnal batzordeko idazkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak egin zuten atal berriaren aurkezpena, Donostian.

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren irakurketa jarraitua

Ekainaren 20an, Bilbo Zaharra Forumak antolatutako Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren irakurketa jarraitua egin zen Bilboko Arriaga Antzokian, goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara. Klasikoen Irakurraldia egitasmoaren seigarren edizioa izan zen. 2008an Axularren *Gero* irakurri zen, 2009an Mogelen *Peru Abarca*, 2010ean Jon Miranderen *Haur besoetako*, 2011n Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* eta iaz Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*.

Euskaltzaindiaren aldetik, urtero bezala, kide batzuk parte hartu zuten. Goizeko 8:00etan, liburuaren lehenengo hitzak Bernardo Atxagak berak irakurri zituen, eta ondoren 400 lagun inguruk pasarte bana irakurri zuten, txandaka, horien artean Andres Urrutia, Xabier Kintana, Adolfo Arejita eta Jose Luis Lizundia euskaltzainak zirela. Egunean zehar, euskaltzain urgazle batzuk ere izan ziren irakurketan.

Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldi elektronikoa

Ekainaren 28an, Euskaltzaindiak Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldia aurkeztu zuen Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean. Bertsio berriak, guztira, ia 3.000 sarrera berri –sarrera nagusi eta azpisarrera– ditu. Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ibon Sarasola egitasmoaren zuzendariak; eta Gabriel Fraile teknikariak. Eurekin batera, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea izan zen.

OEHren lehen bertsioa paperean argitaratu zen. Azken liburukia –hamaseigarrena– 2005ean kaleratu zen, eta handik lau urtera, 2009an, hiztegi osoaren oinarritzko bertsio elektronikoa sarean jarri zen. 2011n, bigarren argitaraldia eskaini zuen Akademiak eta 2013an hirugarrena. Bigarren ar-

gitaraldian, hasierako bost liburukien berrikuspen sakona egin zen, eta testu zahar batzuetako lekukotasunak gehitu ziren (Lazarragaren eskuizkribua garrantzizkoena izan zen). Hirugarren argitaraldian, berriz, gainerako hamaika liburukien berrikuspena egin zen.

Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso

Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. Uztailaren 19an, Bilbon egin zen Osoko batzarrean, Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko bozketa egin zuen Akademiak. Kaltzakortak, Euskaltzaindiaren Arautegiak eta Barne-erregelak agintzen duten gehiengo osoa lortu zuen.

Kaltzakortaren hautagaitza Adolfo Arejita, Xabier Kintana, Patxi Uribarren eta Andres Urrutia euskaltzainek aurkeztu zuten.

Euskara ikasteko deia

Euskaltegien sareak antolatutako «Zatoz euskaltegira!» kanpaina burutu zen irailean, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hiru agerraldi egin zituzten: irailaren 11n, euskaltegietako eta hezkuntza arloko eragile asko izan ziren: bate-tik, AEK, IKA, Batuz, Elkarlan, Deustuko euskal irakasleagoa, Aurten bai, Maizpide eta udal euskaltegietako ordezkariak; eta bestetik, Koldo Tellitu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa), Mikel Ormazabal (Kristau Eskola), Lurdes Imaz (EHIGE) eta Patxi Olabarria (ERKIDE-Irakaskuntzako koordinatzailea) hezkuntzako eragileak. Arantza Aurrekoetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea eta Joseba Erkizia HABeko zuzendaria ere izan ziren ekitaldian.

Bigarren agerraldian, irailaren 18an, lan arloko eragileak mintzatu ziren Hauek izan ziren: Erkide Kooperatiben Federazioa; ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak; eta Ahize-AEK, Ekilore, Emun eta Artez hizkuntz aholkularitza enpresak.

Azkenik, irailaren 26an, hirugarren agerraldi publikoa egin zen. Aurreko bietan bezala, Euskaltzaindiaren egoitzan batu ziren eragile asko eta euskara ikasteko eta euskaltegietan izena emateko deia zabaldu zuten.

Ekitaldian euskaltegien sareak, eta euskalgintzako eta alderdi politikoen ordezkariak izan ziren, eta baita kirolariak edo kultura arloko ordezkariak ere. Besteak beste, Jose Angel Iribar, Rafa Rueda, Toti Martinez de Lezea, Maider Unda, Alex Txikon, Mikel Losada, Galder Perez, Mertxe Mugika, Igone Etxebarria, Ordizia Errugbi taldeko jokalaria, Lorea Bilbao, Josu Larrea, Lourdes Auzmendi, Alfonso Gil, Pili Robles, Jon Salaberria, Beatriz Marcos, Paul Bilbao, Asier Muniategi eta Mikel Irizar izan ziren.

Guztion izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza, eta euskara eta euskal kultura ezagutzeko deia luzatu zuen. Besteren artean, arrazoi honengatik: «Hizkuntza baten inguruak ezagutzea horixe baita, hain zuzen ere, berak eramaten duen ikuskera horren jabea egitea. Irribarre zein negar, neke eta pozak, haserre eta adiskidantzak, alaitasuna eta tristura... labur esanda, giza seme-alaba orori dagozkion sentimenduak eta horiek ere zure hizkuntzan, zure inguruko hizkuntzan, hur-hurrekoz duzun horretan jasoko dituzu. Halakoak nork bere hizkuntzan adieraztea liluragarria eta xarmagarria ere bada. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak».

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urrian zehar, «Eraldatutako ondarea» izenburupean, 2013ko Ondarearen Europako Jardunaldiak egin ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuak. Euskaltzaindiak «Gure hizkuntza eta literatura berreskuratuz» izeneko hitzaldi zikloa eta «Liburuen bizitza eta iraupena» erakusketa antolatu zituen.

Akademiak urriaren lau egunetan hartu zituen Jardunaldiak: hilaren 8an, 15ean, 22an eta 29an. Lau gai desberdin jorratu ziren hitzaldietan: Bizkaiko toponimoak, Bonaparte printzearen euskalkien mapa, Euskal Herriko kantak eta Axular eta Gero (1643) liburua. Hizlariak Mikel Gorrotxategi, Aritz Abaroa, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregiar, Jabier Kaltzakorta

eta Xabier Kintana izan ziren. Azkue Biblioteka bisitatzeko aukera ere izan zen, Pruden Gartzia eta Josune Olabarriaren eskutik.

Erakusketari dagokionez, urriaren 1etik 31ra egon zen zabalik, Euskaltzaindiaren aretoan. Hainbat libururen aleak erakutsi ziren, garai desberdinetakoak eta kontserbazio-egoera desberdinetan.

Tuteran, Nafarroa Oinez festarekin bat

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin zuen Euskaltzaindiak. Urriaren 4an, Tuteran, 2013ko Nafarroa Oinez antolatu zuen Argia ikastola bisitatu zuten euskaltzainek.

Bisitaren ostean, Akademiaren Zuzendaritzak bilera egin zuen. Bisitak iraun bitartean, Euskaltzaindiak Nafarroako ikastolei, eta oro har, euskalgintzari, atxikimendua adierazi zien.

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkari-tza lekuz aldatu da

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkari-tza lekuz aldatu zen 2013. urtean, eta Gasteizko Apaizgaitegian kokatu. Bertan Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoan lan egiten duen taldea ere kokatu da.

Hau da helbide berria:

Pedro Asua, 2 - 2. solairua. 01008 Gasteiz.

Telefono zenbakia : 945 23 36 48.

Helbide elektronikoa: gasteizordez@euskaltzaindia.net

2013ko Xalbador Eguna

Xalbadorrekin batera, Basarri izan zuen gogoan 2013ko Xalbador Egunak. Urriaren 11tik 13ra Urepelen egin zen festaren goiburua «Xalbador eta Basarri» izan zen. Urriaren 11n, Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuen,

eta 12an *Xalbadorren itzalean*, *hamar urte* Joxemari Iriondok idatzitako liburua aurkeztu zen. Sebastian Lizaso, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe II, Amets Arzalluz eta Joxe Luis Gorrotxategi bertsolariak Urepelen izan ziren.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ere hitzaldia eman zuen Urepeleko eskoletan, euskararen gaur egungo egoerari buruz Hegoaldean, Nafarroan eta Iparraldean.

Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatzen dute Xalbador Eguna eta urtero, Xalbadorri ez ezik, beste artista bati ere egiten diote gorazarrea. 2013an Basarri bertsolaria izan zen aukeratua. Antolatzaileek adierazi zuten, «Inazio Eizmendi Basarri bertsolariaren jaiotzako mendeurrena betetzen da aurten, 1913ko azaroan sortu baitzen. Xalbadorren bertsu laguna izan zen aldi batean, eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrietako plazetan elkarrekin kantatu zuten. Horregatik, biak batera omendu nahi ditugu aurten».

Urepeleko Herriko Etxearen, Euskaltzaindiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasun eta babesa izan zuen 2013ko Xalbador Eguna.

Euskaltzaindiaren ordezkari-tza Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan

Azaroaren 21ean, Euskaltzaindiak Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan parte hartu zuen, Estrasburgon. Parlamentuaren osoko bileraren baitan egin den talde artekoaren bileran aritu ziren, Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xarles Videgain buruordea.

Izaskun Bilbao eurodiputatuaren ekimenez, euskararen munduko zenbait eragilek eta agintarik osatutako ordezkari-tzaren agerraldia izan zen Europar Parlamentuan. Guztien artean, euskara biziberritzeko eta hizkuntza gutxitu baten hiztun kopurua handitzeko egin den lana aurkeztu zuten.

Euskaltzaindiko kideekin batera, Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Xabier Epaltza, Euskara Kultur El-

kargoaren presidentea; eta Allende Boutin, Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan ziren.

Agerraldian, Euskal Erkidego Autonomoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian dauden politikak eta emaitzak alderatu ziren. Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen biziraupena bermatzeko, hiru alderdi aipatu zituzten hizlariak: legeko babesa, hiritarren atxikipena eta hizkuntza politikaren engaiamendua.

Euskaltzaindiaren buruak eta buruordeak erakundearen historia, ibilbidea, nortasuna, egitasmoak eta erronkak, besteak beste, izan zituzten hizpide.

Euskararen egoeraz ere aritu ziren, eta euskara batuaren garrantzia aldarrikatu zuten: «Euskararen batasun prozesua izan da, hizkuntzaren aitorten ofizialarekin batera, euskara bera berreskuratzeko eta biziberritzeko oinarritzko faktorea».

Erakunde eta elkarte askoren lanari esker, gaur egun euskara sona handiko hizkuntza dela baieztatu zuten, eta babes sozial zein instituzional handia duela gaineratu. «Berreskuratze eta modernizatze prozesu honetan –esan zuten– Euskaltzaindiaren eginkizuna ezinbestekoa izan da».

***Linguae Vasconum Primitiae* beste sei hizkuntzatan irakur daiteke**

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio berri bat aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak. Jatorrizko testuaz gain, katalan, galiziera, errumaniera, arabiera, kitxua eta txinerazko itzulpenak ditu edizio berriak. Ekitadi berean, gainera, Jean Haritschelhar zena gogoan izan zuten.

Ekitaldian hauek mintzatu ziren: Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana Akademiako idazkari eta edizioaren arduraduna. Amaieran, Xabier Kintanak euskaraz irakurri zuen *Kontrapas* poema. Liburua beste hizkuntzetara itzuli duten itzultzaileak ekitaldian izan ziren eta irakurraldia osatu zuten. Joan

Martí katalanez aritu zen, Manuel González galegoz, Delia Mihaela Cristea errumanieraz, Fang Xiao txineraz, Shaalan Hares arabieraz, eta, kitxuarako itzultzaileak bertaratzerik izan ez zuenez, Verónica Yuquilema, Mondragon Unibertsitateko ikasleak hizkuntza horretan irakurri zuen.

Horrezaz gainera, Mikel Morris, Kar mele Jaio, Julia Brade, Simon Lambert eta Giovanni Zanonen bideoek aukera eman zuten *Kontrapas* entzuteko ingelesez, gaztelaniaz, alemanez, frantsesez eta italieraz. Amaitzeko, Xabier Leteren eta Erramun Martikorenaren ahotsak entzun dira, haiek testu horretaz egindako musika-egokitzapen ezaguna kantatzen.

«Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean» ikastaroa Baionan

Abenduaren 9an, «Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean» izeneko ikastaroa egin zen Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan. Euskaltzaindiak eta EEPk elkarlanean antolatu zuten, eta Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak, eta Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Paskual Rekalde eta Felix Mugurutza batzordeko kideek eman zuten.

Herrietako toponimia ikertu, finkatu, erabili eta zaintzeko ikastaroa izan zen, eta bereziki euskara, hirigintza eta kultura alorreko teknikariei zuzenduta egon zen.

Patxi Salaberrik «Euskaltzaindia eta onomastika lanak» mintzaldia eman zuen, gai hauek jorratu zituelarik: onomastika arautzearen beharra; euskal toponimiaren ikerketa eta normalizazioaren historia; Euskaltzaindiaren ardua eta lana onomastika alorrean; onomastikaren normalizazioa eta onomastika euskararen normalizazioan.

Patxi Galék «Toponimia ikerketen oinarri teorikoak» gaiaz hitz egin zuen. Besteak beste, toponimia zergatik ikertu behar den, berau arautzeko irizpide orokorrak edota toponimia ikerketa baten urrats nagusiak aipatu zituen.

Mikel Gorrotxategi «Toponimia ikerketak gauzatzeko prozedura eta ikerketaren pausuak» gaiaz aritu zen, eta ikerketa baten helburuak zein garapena izan zituen mintzagai.

Paskual Rekaldek «Administrazioen eginbearra» gaia jorratu zuen. Akademiaren eta Administrazioaren eginbearraz mintzatu zen.

Azkenik, Felix Mugurutzak «Onomastikaren zabaltzea» gaiaz hitz egin zuen. Ikerketen emaitzak ezagutarazteko, erakusketak egin, edota mapen eta fitxa didaktikoen bidez zabal daitezkeela azpimarratu zuen.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V. liburukiaren aurkezpena

Abenduaren 12an, Bilbon, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V.* liburukia aurkeztu zuen Euskaltzaindiak. Aurreko laurak bezala, EHHA-ren bosgarren liburukia Laboral Kutxaren babesarekin argitaratu zuen Akademiak. Bosgarren liburukiak euskararen morfologia jorratzen du, izenaren morfologia zehazki eta parterik handiena deklinabideak hartu du.

Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainbu-ruak; Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailbu-ruordeak; Ana Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagu- siak; Pello Ugalde Laboral Kutxako Lurralde zuzendariak; Adolfo Arejita EHHA-ren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain egitasmoaren ardu- radun teknikoak.

Liburukia mugatzailearekin abiatzen da. Mugatzaile neutroa, -a, erans- tean euskal izenetan gertatu ohi diren aldaketak, bokalen aldetik eta into- nazio aldetik, erakusten da. Ondoko mapa-erantzutegietan, izen kategor- ia-ko hitz hautatuei mugatzailea eta deklinabide-atzizkiak erantsirik, jaso diren erantzunak biltzen dira, eta azken partean konparazio egiturak, zenbakiak, ordinalak eta orduak.

Galdeketo-ko izenak, oin-hitzaren amaierako bokal, diptongo edo kontso- nante ezberdinen arabera hautatuak dira. Amaiera bereko bi hitz hautatu dira, biziduna eta bizigabea: «alaba»-«eliza», «seme»-«etxe», «idi»-«herri», «asto»-«itsaso»-«zulo», «katu»-«negu», «zelai», «hodei», «behi», «gizon», «oi- lar», «sagar», «ahuntz» eta abar. Izen berezien morfologia ere kontenplatu da, bai pertsona-izenena, bai toki-izenena: Maritxu, Madalen, Bilbo, Baiona.

Erlea aldizkariaren 7. zenbakiaren aurkezpena

Abenduaren 19an, Euskaltzaindiak argitaratzen duen eta Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berria, zazpigarrena, aurkeztu zen Bilbon, Akademiaren egoitzan. Besteren artean, erbestea eta loreak, hutsuneak eta antologiak, dira zenbaki horren protagonista.

Bernardo Atxaga zuzendariarekin batera, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jokin Azkue Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak aurkeztu zuten aldizkaria.

Erlea 7 honetan partaide izan dira: Lorenzo Rojo, Karmele Jaio, Jon Benito, Jose Manuel Bujanda, Garbiñe Biurrun, Mari Romero, Alberto Barandiaran, Koldo Izagirre, Kepa Altonaga, Asun Garikano, Mikel Urdangarin, Kepa Altonaga, Estibalitz Ezkerra, Aritz Galarraga, Jacinto Iturbe, Lourdes Otaegi, Miguel Sanchez-Ostiz, Juan Ignacio Pérez, Jabier Kaltzakorta, Luzien Etchezaharreta, Joxemari Iturralde, Iñaki Sarriugarte, Pepe Altair, Harkaitz Cano, Mikel Urdangarin, Xabier Elorriaga eta Joseba Luzuriaga.

Azala Karen Amaiaarena da. Argazkiak eta ilustrazioak Ernesto Valverdek, Mikel Valverdek, Jose Ramón Urtasunek eta Zaldieroak egin dituzte. Zaldieroaren komikia, «Urrezko liburutegia» eta «Foroa - azkenaldiko liburak» ohiko atalak ere bildu zituen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berriak.

Ana Toledo eta Jabier Kaltzakorta, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura batzordeetako arduradun berriak

Abenduan, Euskaltzaindiak Literatura arloko bi batzordeetan arduradun berriak izendatu zituen. Hala, Ana Toledo da Literatura Ikerketa batzordeko arduradun berria, eta Jabier Kaltzakorta Herri Literatura batzordekoa.

Iraillean hil zen Jean Haritschelhar. Egindako izendapenarekin, berak utzitako hutsunea bete zuen Ana Toledo euskaltzain osoak.

Jabier Kaltzakorta, berriz, Herri Literatura batzordeko arduradun izendatu zuen Akademiak.



Omenaldiak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2013an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Sarako Idazleen Biltzarrak Jean Haritschelhar omendu zuen

Euskaltzain, euskal ikasketen sortzaile, idazle... Jean Haritschelhar euskaltzain emeritu eta euskaltzainburu ohia omendu zuen 2013ko Sarako Idazleen Biltzarrak. Apirilaren 1ean egindako ekitaldian, bere bizitza osoan burutu duen lanagatik omenaldia jaso zuen eta horrela adierazi zuen Jean-Michel Garat Biltzarraren sortzaileak: «Lan ona eta interesgarria izan da, ez bakarrik hizkuntzarentzat, euskararentzat, baita kulturarentzat ere».

Orain 30 urte, Biltzarraren lehenengo edizioan izan zen Jean Haritschelhar.

Omenaldi hau jaso eta bost hilabete geroago, irailaren 1ean, hil zen Jean Haritschelhar, 90 urte zituela.

Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobela saritua

Ramon Saizarbitoria idazle eta euskaltzain urgazlearen *Martutene* nobelak (Erein, 2012) hainbat sari irabazi zuen 2013. urtean. Apirilean, Espainiako Kritikaren Saria eman zioten, euskararen arloan, narratibaren atalean. Hil berean, 2012ko 111 Akademiaren Saria ere jaso zuen.

Urrian, aldiz, Euskadi Literatura Saria irabazi zuen, euskarazko narratiba alorrean. Kasu honetan, epaimahaikideek haxe azpimarratu zuten: «Afektibotasuna, gizartea eta literatura dira lan handi honen hiru ardatzak».

Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma Karmel aldizkariko Julen Urkizari

Julen Urkiza idazle eta *Karmel* aldizkariko zuzendariak Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma jaso zuen ekainaren 6an, Areatzan egindako ekitaldi batean. Urkizak Gonzalo Olabarria Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendariaren eskutik jaso zuen saria. Ana Urkiza idazleak eta Asier Muniategi liburu azoken antolatzaileak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Azokaren izenean, Ana Urkizak gorazarre-hitzak izan zituen Julen Urkizarantz eta *Karmel* aldizkarian egindako lana goraipatu zuen. Hala, aldizkaria idazleen topaleku bihurtu duela esan zuen. Izan ere, euskal kulturaren inguruko pertsona askok parte hartu du aldizkarian, bai idazle ezagunak, baita hasiberriak ere, eta hori, Ana Urkizaren esanetan, Julen Urkizaren meritua izan da. Idazle horietako batzuk ekitaldian izan ziren, besteak beste, Andres Urrutia, Patxi Uribarren, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Juaristi edota Miren Agur Meabe.

Arantxa Urretabizkaia Bilboko Liburu Azokaren Zazpi Kale saria jaso du

Arantxa Urretabizkaia idazle eta euskaltzain urgazleak Zazpi Kale saria jaso zuen ekainaren 6an, *3 Mariak* eta *Las tres Marías* liburuengatik. Bilboko Udalak, Liburu Ganbarak eta Liburu Azokak ematen duten sari hau Sabin Anuzita Udaleko Euskara zinegotziaren eskutik jaso zuen Urretabizkaia. Idazleak eskerrak eman, eta *3 Mariak* nobelak satisfazio handiak eman dizkion liburua dela esan zuen.

Juan de Yciar saria Euskaltzaindiari, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* argitalpenagatik

Euskaltzaindiak garatzen duen Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoaren argitalpena saritua gertatu zen Argitaratze-kalitatearen «Juan de Yciar» sariarekin.

«Instituto Bibliográfico Manuel de Larramendi»-k antolatzen duen sari hori, 2012. urtean argitara eman zuen EHHA bildumaren IV. liburukiaren argitalpenagatik jaso zuen Akademiak.

Lau alor edo modalitatetan eman ziren sariok: Artea, Haur eta Gazte Literatura, Lan orokorrak eta Dibulgaziokoak. Euskaltzaindiaren *Euskara-ren Herri Hizkeren Atlasaren* IV. liburukia lan orokorren sailean izan zen irabazle. Sari bikoitza izan zen: argitaratzailea, Euskaltzaindia, eta inprimatzailea, MCC graphics.

Ekainaren 11n izandako ekitaldian, Adolfo Arejita, EHHA egitasmoaren zuzendari akademikoak eta aipatu inprimategiko ordezkariak jaso zituzten sari agiriak, Leopoldo Zugaza «Manuel de Larramendi» Bibliografia Institutuko buruaren eskutik.

Ana Etxaideri omenaldia, Nafarroako Unibertsitatearen Euskal Katedraren 50. urteurrenean

Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak 50 urte bete zituen 2013an. Urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi egin ziren azaroan zehar. Azkena, hilaren 27an, urte askoan Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren zuzendari izandako Ana Etxaide irakasle eta ohorezko euskaltzainari omenaldia izan zen.

Ekitaldia *Duguna* dantza taldearen emanaldiarekin hasi zen. Ondoren «Impulso a la cultura vasca en el siglo XXI» izenburupean, mahai-inguru bat egin zen. Bertan, Andres Iñigo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak hartu zuen parte. Berarekin batera, hauek izan ziren: Maximino Gómez, Euskarabidearen zuzendari kudeatzailea; Aizpea Goenaga, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria; Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako presidentea; Susana Irigaray, Jose Miguel Barandiaran Fundazioko idazkaria; Michel Duvert, Baionako Museoko Adiskideen Elkarteko presidentea; eta Mari Mar Larraza, Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrako zuzendaria.

Ondoren, Ana Etxaideri omenaldia egin zitzaion, Manuel Casadoren eta Asier Barandiaranen eskutik. Amaitzeko, Jesus Guridiren abestien errezital

bat eskaini zuten Nerea Berraondo mezzosopranoak eta Maite Ascunce piano-jotzaileak.

Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra 1963ko azaroan sortu zen, garai hartan Filosofia eta Letretako dekanoa zen Antonio Fontanen ekimenez. Hilabete batzuk geroago, 1964ko otsailean, José Miguel Barandiaran euskal arkeologo eta etnologoaren eskutik abiatu zen. 70eko hamarkadaren erditik aurrera, Ana Etxaide euskal filologoak Katedraren zuzendaritza hartu zuen, euskalkiak berreskuratzeko beste lan ildo bati ekin zion eta euskal hizkuntzalaritza ikasketa plangintzetan sartu zuen.

William Douglassk Durangoko Azokaren Argizaiola saria jaso du

William Douglass antropologo eta ohorezko euskaltzainak jaso zuen 2013ko Durangoko Azokaren Argizaiola saria. Abenduaren 6an jaso zuen, Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentearen eskutik. Euskal kultura ikertu eta zabaltzeagatik eman zioten saria.

Durangoko San Agustin Kultur Gunean egindako ekitaldian, Renoko ikertzaileak hainbat lagun izan zuen ondoan, besteak beste, Miel Anjel Elustondo, Bernardo Atxaga, Xabier Amuriza edota Josu Camara. Douglassen Aulestiko lagunak ere taulara igo ziren.

William Douglass Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko euskal immigrazioaren aditurik garrantzitsuenetarikoa da. Renoko Basque Studies Programaren sortzailea izan zen, eta hiru hamarkadaz bertako zuzendari gisa jardun zuen, 2000. urtean erretiroa hartu zuen arte.

Espainiako Itzulpengintzako Sari Nazionalea Josu Zabaletari

2013an, Josu Zabaleta Kortaberria itultzaile eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen Espainiako Itzulpengintzako Sari Nazionalea, euskarara egindako itzulpenengatik. Epaimahaiaren arabera, «euskarazko itzulpengintzan

aitzindaria izan da eta hizkuntza literarioak eta poetikoak sortu eta garatu ditu». Sari hau Espainiako Kultura Ministerioak ematen du.

Besteak beste, Leonardo Sciascia, Pier Paolo Pasolini, Margueritte Yourcenar eta Pirandello idazleen lanak itzuli ditu Zabaletak.

Josu Zabaletaren hautagaitza Euskaltzaindiak proposatutako Miren Lourdes Auzmendi epaimahaiko kideak aurkeztu zuen.



Hilberri txostenak

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Jean Haritschelharren hilberria (1923-2013)

OIHARTZABAL, Beñat
Euskaltzain osoa

Jean Haritschelhar irailaren 1ean zendu zitzaigun. Berehala, udazkenean lau bazterretan hostoak bezala, hedatu zen berria Euskal Herrian gaindi, euskaltzale guziek etxekoekin bat egiten zutela haien nahigabea. Ez zen ustekabeko joatea, baitziren zenbait egun jadanik jakin zutela denek, jakin zuela Jeanek berak ere, osoki nagusitu zitzaiola bizia arrobatzen bezala duen odol minbiza. Eta handik laster eramanen zuela herioak. Hala gertatu zen. Asteartearekin eman zioten medikuek diagnostikoaren berria. Ondoko igandean zortzi utzi gintuen, arte horretan ikusten izan zitzaizkion adiskide eta lagunak, beti bezala, ele goxoekin eta irriño ezti bat ezpainetan, errebitzen zituela. Denek ezagutzen genion gorputz azkar handi hura arras ahuldurik, haatik: kraskaturik. Burua azken mementoraino beti argi, halere. Argi eta, ezinean ere, zut. Beste bizi baten esperantzak ematen bide duen gogo jabaltasuna erakutsiz.

Ortzegunarekin, mundu bat bildu zen Baigorriin. Hango eliza, mukuru bete zuten azken agurra egin nahi zioten Euskal Herriko hiru kantoietarik jin euskaltzaleek. Orok garbi zeukaten zerbitzari berezia galdua zuela euskarak, eta euskaldun guziak batzen gintuen norbait itzali zela. Ehorzketa haietan izan zirenek ez dukete ahanztekoa samintasunez eta bihotz berotasunez, biak nahasirik, bete arratsalde hura.

Egun, Euskaltzaindiak bere gisako azken adioak erraten dizkiolarik, erran gabe doa ohore dela enetzat gure akademiaren ohitzari jarraikiz, hil izan den euskaltzain horren hilberria, gure liburuetan geldituko dena, zuen aitzinean

Euskera. 2013, 58, 1. 315-325. Bilbo
ISSN 0210-1564

irakurtzea, non eta hemen, Baionako Herriko Etxean, berak, nik uste, gus-tukoa izan zukeen bezala, euskaltzainen aurrean, Iparraldeko lagun eta adis-kide euskaltzaleen aitzinean, eta, bistan da, etxekoak ere ondoan ditugula.

Jean Haritschelhar 1923ko maiatzaren 13an sortua zen, Baigorriin, bi haur izan zituen familia batean: Jean, semea, eta, hiru urtez zaharragoa, Denise, alaba. Aita, Arño, mugazain eta errientsa batzuen semea, jostuna zen, «sastrea» Baigorriin erraten den bezala. Ama, berriz, Iholdiko Moxoe-neko alabetarik bat, laborari mundutik heldu zen. Iholdin 1919an ezkondu ziren, Arño gerlatik sartu eta berehala.

Gogo jar dezagun urte haietako Baigorriin. Orain baino jendetsuagoa zen: hiritto aire bat erakutsi nahi zuen karrika luze patartsu bat, saltzaileek, ofizia-leek eta funtzionario ttipiek egiten zuten bizi mugimendutsu batekin, merka-tu egunetan bereziki, kartierretako eta haraneko beste herrietako laborariak hara biltzen zirelarik. Karrikan zuten haritschelhartarrek etxea, behereko karrikan, hots, herritarrek «karrika gaixto» deitzen duten hiriko partean¹. Gerla Handia erraten zioten guda hura bururaturik, handik bost urtetara sor-tua baitzen Jean, suma dezakegu zerika zen haren haurtzaroko gizarte giroa. Hemendik zenbait egun hasiko da lehen Mundu gerlaren mendeburua. Ger-takari guti azken mendeetan, Iparralde honetako izaera, arima kasik erran daiteke, hain barna markatu duenik. Aski da Antxuberrok edo Zerbitzarik *Eskualduna* astekarian idatzi gerlako kronikak edo *Piarres* eleberria irakurtzea ohartzeko zein barna sartua zen frantses nazionalismoa, itxurarik gordinene-tan batzuetan, Iparraldeko euskaldun anitzen gogo-bihotzetan eta ikusmol-deetan; eta ez gutiago, euskarari eta euskaldungoari guziz atxikiak ziren Saint-Pierre, Elissalde, edo Barbier bezalako euskaltzainen artean ere.

Jeanek, bada, ideologia horretaz emokatua zen gerlaondo hartan iragan zuen haur denbora. Pentsatzekoa da, bai eskolako irakaspenetan, bai hama-

¹ Ikus J. Haritschelhar, *Ponttokeriak*, Elkar, Baiona, 8. orr. Jean Haritschelharren aitak ordukotz Ponttoenea deitzen zen etxean jarri zuen bere jostun lantegia. Jeanek berak kontatua da *Pontto* izenak, *Herria* astekariko bere kroniketan izengoiti gisa hainbeste urtez baliatu izan duenak, *Ponthieu* frantses deituran duela etorkia, baigorriarren aho-ezpainetan gisa hartara aldatua eta egokitua izan baitzen. Alabaina, bi mendeen junturan deitura horretako ingeniari bat, burdinbi-deetan ari izan zena, etxe horretan bizi izan zen. Aitzinean, Azkaratenea zen etxearen izena.

lauko gerla trantxadetan egina zuen aitaren solasetan ere, aurkitu zituela gerla-su haren ilintiak, biziak oraino. Hauek osoki itzali baino lehen, beste gerla berri batzuk piztu ziren, haatik, are handiagokoak, eta Euskal Herria are hurbilagotik hunkitu zutenak, lehenik mugaz alde batean, eta berehala bestean ere. Jean, haurtzaroa uzten zuelarik, harrapatu zuten. 1943. urtea: ez zatekeen ez hura urterik hoberena gizon gazte batek hogeitun urteen adin mugaren iragateko. Okupazioaren denbora zen, eta Euskal Herriko mugetan jarriak ziren aleman soldaduak. Kanoi hotsak isildu ondoan, bere gaztelarazko estudioen kariatara, Espainian gaindi bidaia bat ere egin baitzuen Haritschelharrek, hango gerlaren ondorio lazgarriak ere ikusi ahal izan zituen, zaharrean ere gogoan atxiki zituenak. Nola duda gertakari haiek orok barne-barneraino hunkitu zutela? Ondoko hamarkadetan erakutsiko zuen bakezaletasunak gaztean ikusi dorpekeria haietan zukeen oinarri.

Bakea jitearekin, soldadugoa eginik, Jeanek gaztelarako lizentziako estudioak abiatu zituen, eta Saint-Cloud-eko Irakasle Goi-Eskolan sartu, gisa horretan, 1950ean, gaztelarako irakaskuntzako gaitasun agiria, eta, 1952an, gaztelarako agregazioa, erdietsiko baitzituen.

Haren irakasle ibilbidea garai hartako Frantzian bultzatzen zen *elitismo errepublikano* deitu ereduari darraio. Goiz-goizik ohartu zatekeen Baigorriko Eskola publikoko errienta, sastrearen semea hartze onekoa zela. Irakasle izateko bidean jarri zuen, beraz, familiaren partetik poxelurik kausitu gabe seguraz ere, Jeanen amatxi ere, Gaxuxa Chimits, sortzez larzabaldarra eta bera ere errient alaba, errientza izana baitzen, Baigorriko inguruetan hain zuzen, Ezterenzubin lehenik eta Urdozen gero. Irakaskuntzako bide hartan sartzeko, haatik, lehen mailako eskola bukatu, eta zertifikata, Frantziako orduko oinarritzko eskola diploma, eskuratu, 12 edo 13 urtetan, herritik joan beharra zuten baserrialdeetako haurrek. Euskal Herriko ikastetxe publikoetan barnetegirik ez baitzen, eta askaziak baitzituzten haritschelhartarrek Landesetan, Jeanek Akizera joan behar izan zuen orduan, Mont-de-Marsanera geroago. Ez da harritzeko beraz, denbora hartan, lehenago Otsobiri ere gertatu bezala², euskara etxeko mintzaira izanagatik, haren non-nahi erabil-

² Ikus «Oxobi», J. Haritschelharren aitzinsolasa, in *Oxobiren lan orhoitgarri zonbait*, Gure Herria, Baiona, 1966, 8. orr.

tzeko aisetasuna doi bat herdoildu baitzitzaion. Katixima ere frantsesez ikasi behar izan zuen, amatzik hala nahi ukanik³. Dena den, eskola denborako urruntze horiengatik, ez zuen sekula herriarekilako lokarria eten. Pilotari ederra ere izan zen, ondoko urteetan luze jokoko txapeldun izateraino. Dakigun bezala, bizi guzian atxiki zuen pilotarentzat zaletasun berezia.

Goi-mailako irakasle eskolatik atera baino lehen ezkondu zen Jean Haritschelhar, 1949an, Parisen ezagutu zuen Colette Neveu izeneko paristar batekin. Denise haren arrebaren laguna baitzen hau, honen bitartez elkar ezagutu zuten. Hiru haur sortuko ziren ondoko urteetan ezkontza horretarik.

Jeanek, agregazioa eskuratu ondoan, irakasle postua Arroixelan edo Agenen izateko hautua izan zuen. Agen hautatu zuen, eta, ez irudika, hautu horrek osoki aldatu zuen beharbada haren bizi ibilbidea. Alabaina, irakasle formakuntza klasikoari jarraikiz, ordu arte, Jean ez zen batere sartu euskal ikasketetako gaietan. Jakin zukeen, seguraz ere, Bordeleko unibertsitatean, euskarako katedra bat sortua izan zela 1948an, eta hartan zegoela R. Lafon, baina urrun ziren euskal gaiak haren ikerlanetarik. Bere unibertsitateko ikerketa diplomaren eskuratzeko egin zuen azterlanak ez zuen loturarik izan euskal gaiekin, Gustavo Becquer espainol idazle erromantikoaz egin baitzuen.

Aski berant, hogeita hamabost urteak iraganik, Ageneko lizeoan zelarik, hurbildu zen lehen aldikotz euskal gaietara. Garai hartan, Jean osoki analfabetoa zen euskaraz. Ordea, irakasle lagun batek Ageneko auzitegian Etxahun, Barkoxeko koblakariaren auzi-paperak bazirela jakinarazi ondoan, dokumentu haiek eskuztatuz egin zuen Pierra Topeten ezagutza, bai eta molde horretan bere lehen aitzur ukaldiak eman euskalaritzako alorrean⁴.

³ J. Haritschelharrek oroitzapena ez zuen ahantziko. Garai hartan, baigorriar haurretan bakarra izan zen katixima frantsesez ikasi zuena.

⁴ 1960an argitaratu zituen J. Haritschelharrek bere lehen hiru ikerlanak. Hiruek Etxahun zuten ikergai:

«Deux chansons perdues d'Etxahun-Barkoche», *Gure Herria*, 1960, 2-8.

«Etxahunen mandoa : ichtorio zahar bat jauntzi berrietan », *Gure Herria*, 1960, 221-224.

«Etxahun et Chamisso», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, XVI, 1960, 71-83.

Ez dut Haritschelharrek Etxahunez idatzi tesiaren aurkezpena egin beharrik hemen. Orogen jakinean da zer lan den⁵. Orduko tesiak bi partetan egiten baitziren Frantzian, bi liburu gotorretan argitara eman zen ikerlan hura: alde batetik, tesi nagusia erraten zitzaiona, hartan Etxahunen bizia eta haren koblen literatur ikerketa kausitzen baita⁶, eta bestetik, tesi osagarria, honetan Etxahunen koblen argitalpen kritikoa eta frantseserako itzulpena⁷ kausitzen baitira. Haritschelhar baino lehenago, XX. mendeko euskalari batzuk, hala nola Lhande, Dassance –Eskualtzaleen Biltzarreko orduko burua– edo Larrasquet, ohartu ziren Etxahunen koblen balioaz. Halarik ere, Haritschelharren ikerketari esker agerian ezarria izan zen, molderik argienean eta zehatzenean, kobleri haren originaltasuna eta indarra, XIX. mendeko herri literaturaren testuinguruan behar bezala kokatzen zelarik. Ereduzko lan horrengatik, eta ondotik eginikakoengatik, Euskal Herriko Unibertsitateak *Doctor Honoris causa* eginen zuen geroago, 1988an⁸.

1950eko hamarkadako azken partean, R. Lafonekin harremanetan jarri zen Haritschelhar, eta honek sustatu euskal ikerketen bidean sartzera. Hari esker, Ageneko lizeoko irakaskuntza utzi ahal izan zuen, orduan, CNRSen kontu, hiru urtez aritzeko bere tesi lanaren aitzinarazten. Bide beraz, Iparraldeko beste euskalariekin harremanetan jarri zen. 1960ko hamarkadako lehen urteetan sartu zen osoki Iparraldeko euskalaritza biziartzaren duten elkarte edo egitura garrantzi handienekoetan: 1961ean *Gure Herria* aldizkari idazkari nagusi egin zuten, 1962an, Baionako auzapezak Euskal Erakustokiko zuzendari izendatu zuen; IKAS pedagogia elkarteko administrazio kontseiluan ere sartu zen orduan. Urte horretan berean euskaltzain ere egin zuten. Alabaina, 1962an, Lafittek bereziki akuilaturik, sartu zen Eus-

⁵ Ikus P. Lafittek bi liburuez egin zuen kritika aurkezpena, in *Bulletin du Musée Basque*, 50, 1970, 202-206.

⁶ *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, Société des Amis du Musée Basque, 1969, 583 (+XVI orr.).

⁷ *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, *Euskera*, 14-15, Euskaltzaindia, Bilbo, 1969-1970, 710 orr.

⁸ J. Haritschelharren bibliografiaren parte gehiena haren omenez egin zen liburuan argitaratu zen; ikus *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Iker 21, Euskaltzaindia, Bilbo, XIII-XLIX. Halere, azken zazpi urteetako lanak ez dira bilduak zerrenda hartan.

kaltzaindian, Otsobik utzi aulkian jarririk. Ez zuen gordetzen gero ere Haritschelharrek, Lafitte izan zuela beti bide erakusle euskara gaietan. Hil zenean, Gehexan Ponttok bere gisako omenaldia egin zion *Herria* astekarian, honela bururatzen zuelarik *Aitatxi* izenburu gisa zekarren bere solas laburra: *gaur zordun nago, zor baitautzut dudan euskararen amodioa, zor ere euskaltzaletasuna. Har-azu, otoi, ene esker onezko emaitza*⁹. Uste dut prezatuko zuen Jeanek, egungo haren hitz haiek gogora genitzan, eta Lafitterenganako haren esker ona oroitaraz.

Handik aitzina, Haritschelhar alde bat ariko zen lanean euskararen eta euskal kulturaren alde. Iduri zait, hastean, idazten ari zen tesiaz landa, museo kudeaketa izan zuela lehentasuna bere lanetan. 1962an, Jean Ithurriagueren ondotik, zuzendari kargua harturik, bi urteren buruan *Bulletin du Musée basque* delakoa, hogeitazko geldialdi baten ondotik, birsortu zuen. Anitzek badakite hemen, adin batekoek bederen, zein ximenki egiten zituen artikuluen argitalpenari zegozkion lan xeheak.

Hogeita sei urtez egon zen zuzendari kargu horretan. Ez ditut aipatuko hemen kontserbatzaile gisa egin zituen lanak. Haatik, haren museoko egitekoetarik kanpo ziren bi ardura, bere baitarik beregain hartu zituenak, gogoratu nahi nituzke. Lehenik, horretarako erakunde berezirik ez izanik, euskarari eta Euskal Herriari buruzko dokumentazio eta liburuen biltzeko egin zuen lan handia. Lan horri esker, zenbait urte barne, euskal testuez eta literaturaren historiaz arduratzen ziren ikertzaile guzientzat ezin baztertuzko bilgune eta ikerleku bihurtu zen Baionako euskal erakustokia. Bigarrenetik, euskal kulturak, ez Hegoaldean, ez Iparraldean, nehon neholako leku ofizialik ez zuelarik, baina gerla ondoko etsialdiaren edo nekezien ondotik emeki berpizten ari zen urte haietan, Haritschelharrek etxe hura euskal kulturaren aterpe eta bil-leku bihurtarazi zuen. Han zuten beren helbidea, egoitza berezirik ezin izan zezaketen euskal kulturako elkarteek, hala nola, Eskualtzaleen Biltzarrak, IKASek, hastapeneko Seaskak edo Iparraldeko euskaltzainak biltzen zituen elkarteak, baita beste anitzek ere. Han egin ziren, bereziki, 70eko hamarkadako urte beroetan, mila hitzaldi, maiz gai

⁹ G. Pontto, *Aitatxi*, in *Herria* 1985/02/28koa. Ikus, halaber, *Ponttokeriak*, Elkar, Baiona, 1995, 145-146.

minberatsuak erabiliz, hor egin ziren, adibidez, Udako Euskal Unibertsitatearen aitzindari izan ziren Baionako euskal asteak, urte batzuetan hain kalapitatsuak izan zirenak.

1969an defendatu zuen bere tesia¹⁰, Bordelen, eta berehala R. Lafonen segida hartu euskararen katedran. Unibertsitatean ere, erran gabe doa euskararen alde jokatzeko bost eginahalak egin zituela, ahal bezainbat jende euskal ikasketetan ikerketen egitera bultzatuz. Iparraldeko euskalari andana bat izan gara gisa horretan harekin doktoretzako ikasketak egin ditugunak.

Jean Haritschelharrek, katedra eta irakasle postua Bordelen izanagatik, argi zuen Frantziako euskal ikasketek Baionan izan behar zutela gune nagusia. 80ko hamarkadako lehen urteetan agertu zitzaion horra buruz joateko parada. Alde batetik, Baionan unibertsitate aldaxka bat eratu baitzen aitzineko urteetan, erdietsi zuen Bordeleko unibertsitateak onetsi zezan, han, euskal ikasketetako unibertsitate diploma baten sortzea, eta berak, euskalaritzako zenbait jenderen laguntzarekin antolatzea. Handik, zenbait urteren buruan, Haritschelharrek unibertsitatea utzirik, gobernuak Frantziako herrialdeetako hizkuntzentzat unibertsitate ziklo guzien irekitzea onartu zuenean, oinarriko egitura bat jadanik bazen, eta nehorik ez zuen dudarik izan, aitzineko urteetan gertatu bezala, euskara irakaskuntza, ez Bordelen edo Pauen, baizik ere Baionan, antolatu behar zela.

Beste aldetik, bazekien, unibertsitate irakaskuntzarik nekez era zitekeela ikerketa gunerik ondoan izan gabe. Horregatik, urte bertsuetan, Frantziako Ikerketa erakunde nagusiak, CNRS delakoak, unibertsitatearekilako lotura antolamoldea berriztatu zuenean, erdietsi zuen euskal ikerketako gune berezi bat Baionan sor zedin. Denborarekin, azkartuz joan zen hau ere, azkenean aspaldi honetan IKER deiturarekin ezagutzen dugun egitura sortuko baitzen. Nahiz 1986an utzi zuen unibertsitate postua, aurten arte, kasik sekula huts egin gabe, parte hartu izan du laborategi horretako bilkuretan, oraingo ikerlari gazteek egiten zituzten lanez bere estimua eta interesa erakutsiz.

Erakustokiko zuzendaria eta unibertsitariora aipaturik, bistan da, modu berezi batean aipatzekoa dudala, hemen, Jean Haritschelhar euskaltzaina.

¹⁰ Defentsa 1969ko uztailaren 8an, Bordeleko unibertsitatean egin zen.

1962an akademian onarturik, 1966an egin zuten euskaltzainburuorde eta 22 urtez egon zen kargu horretan Luis Villasanteren ondoan, Iparraldeko goiti-beheitien ardura harturik bereziki. Ondotik, lehenburuaren segida hartu zuen, euskaltzainburu izanik, 16 urtez, 1988tik 2004 arte. Orotara, beraz, 38 urtez izana da Euskaltzaindiko burugo karguetan. Denek dakigu zein urte garrantzitsuak garai hori euskararen historian.

Lehenik, 20 urtez edo, euskararen batasunaren oinarriak finkatu ziren. Urte zailak, hastean. Euskaltzaindian berean ere denek ez baitzuten begi onez ikusten batasunaren arazoari, euskal idazle zenbaiten artean bereziki, arrazoizko konponbidea aurkitzeko hasia zen mugimendua. 1968 eta 1978 arteko hamarkadan, Arantzazuko eta Bergarako biltzarretan finkatu ziren oinarritzko arauak, ortografiari eta morfologiari zegozkionak, eta laster 1984an, Iruñekoan, joskerari zegozkionak. Hastean, behintzat, ez zuten Hegoaldeko euskaltzain guziek bat egin Mitxelenak Arantzazun aurkeztu zuen txostenarekin, eta Iparraldeko euskaltzainen boz guziak behar izan ziren euskara batuaren arauen onartzeko. Haritschelharrek, Lafitterekin beti eskuz esku ari izanez, eginahalak egin zituen orduan –Epherre, Iratzeder, Larzabal, Lafon, eta, honen ondotik Davanten, sustenguariekin– Euskaltzaindiak batasunaren bidea finka ahal zezan¹¹.

Erran gabe doa, haatik, ez zuela horregatik ukatu Iparraldeko tradizioa, eta hari atxikia egon zela, komeni zen guzietan erabiltzen zuelarik, *Herria* astekarian berrogeita bost urtetan edo, aste guziez idatzi zituen telebista kroniketan edo Gehexan Ponttoren lerroetan ikus daitekeen bezala.

1988an euskaltzainburugora heltzean, aitzineko urteetan doi-doia abiatu hats luzeko ikerketa proiektu handi batzuen akuilatzea izan zuen helburu, hala nola *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak*, *Hiztegi Batua*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a, hastetik 1995 arte kudeatu zuena, Onomastikako lehen zerrenda sistematikoak, eta *Literaturaren Hiztegia*. Euskaltzaindiaren batzordekako antolamenduaren bidez, lan garrantzitsua egin zuen urte haietan Euskaltzaindiak, eta erran daiteke gaur egun

¹¹ Horretaz eta Euskaltzaindian egin gainerako lanez, ikus J-L. Lizundia, «Haritschelhar 38 urte zuzendaritzan», in *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Iker 21, Euskaltzaindia, Bilbo, 2008, XLI-XLIX.

ere, orduan erein ziren haziei esker egiten dituela parte on batean bere oinarrizko lan akademikoak gure erakundeak.

Atlasaren batzordeburu izan bazen, eta gramatika batzordearen kide ere, literatura ikerketa zuen Jean Haritschelharrek bere gustuko ikergai nagusia. Hartaz egina zuen bere doktore tesia, eta literatura ikerketaren batzordeko buru izan zen azken eguna arte. Halaber, sail horretan egin izan ditu azken urte hauetako bere ikerketa lanak. Gogoan dugu eri handi zelarik erietxean haren ikusten izan ginen zenbait laguni nola aipatzen zigun orduan gogoan erabiltzen zuen proiektu bat: Bernart Etxeparez liburu baten egitea. Berak holakorik egiteko aski indar ez zuela izanen ongi jakinagatik, bazioen halere, kinka hartarik ateratzen bazen, gogotik bultzatuko eta gidatuko zuela holako lana: bazela segurki erratekorik. Liburuaren atal nagusiak ere buruan zituen.

Euskalaritzako lanetan bereziki ibili bada Jean Haritschelhar, baigorriar gisa zerbait gehiago egin nahi izan zuen doi bat lokartua eta garaiko gizarte berrikuntza askotarik baztertua iruditzen zitzaion bere sorlekuarentzat. 1970ean auzapez hautatu zuten herritarrek, eta berriz ere handik sei urteren buruan. Ez zen erraza. Bordelen zuen bere irakasle postua, usu euskaltzainburu orde gisa Hegoaldera eta bereziki Bilbora joan beharra zen, bestalde Angelun bizi zen. Aste hondarretan baizik ez zitekeen joan Baigorriara, astegunetan, berriz, nekez. Beharrik, laneko, kudeantzako, eta administrazio barnebideetan ibiltzeko zuen ahalmen handiari esker, gogotik ari zen auzapez gisa zegozkion zereginetan. Garai hartan, haatik, Iparraldeko giroa aldatzen hasia zen, euskaldun gazte batzuen asaldadura gero eta biziago baitzen, eta, horren aitzinean, anitz agintariren jarrera gero eta zurrunago. Baigorriara ere hedatu ziren lipiztak. Bazterrak harro, gogoak bero. Azkenean, ustekabeko gertakari ezinago hits batzuek kolpez moztuko zuten Jeanen auzapez ibilbidea. 1979an, zapartatu ez zen lehergailu bat auto batetik kentzen ari zirelarik, Iparretarrek taldeko bi gaztek beren buruak xehakatu zituzten. Erran beharrik ote? Jean Haritschelharrek ez zuen deus ikustekorik, ez egitate horrekin, ez erantzukizuna zuen taldearekin, ez holako borrokabideak sustatzen zituen pentsamoldearekin. Halere, hiletarik bat baigorriarra izanik, ehorzketa mezara joatea gizatasunezko eginbidea iruditu zitzaion. Hala egin zuen. Beldurra nagusi eta gezurra merke ziren egun haie-

tan, ordea, agertze horretaz baliatu ziren, auzapeza gertakari hits horrekin lotzeko, eta haren gaitzesteko. Hori ikusirik, Haritschelharrek bere kargua utzi nahiago izan zuen. Dudarik ez da mingarri gertatu zitzaiola bidegabeke-
ria hori.

Hilberri honetako azken hitza ematean gizona bera gogoratu nahi nuke. Gutiz gehienek ezagutu dugu hemen, franko hurbiletik zenbaitek. Gorputz larria, lepo-bizkarrez eta gerruntzez zabala. Gizon gotorra. Azkarra, antzez eta izatez. Agenen bizi zen garaiko argazkietan jadanik burusoildurik ager-
tzen zaigu, guk beti ezagutu dugun bezala, begiak gerizatzen zizkioten be-
taurrekoen gainean bekoki luzea, aurpegia eta burugaina biribilean biltzen
zizkiona. Behako zuzena bi begietara heldu zitzaizuna, begitarte gozatzen
zion irriño baten keinuarekin, usu, ezpainetan. Non-nahi, bere lekua ba-
zuen, non-nahi bere lekuan zen: hala Madrilen erregearen jauregian, nola
mendialdeko artzainaren etxe xumean. Berezkoa zuen jendekintasun hori
ez zitzaizun beti lehenbizikoan agertzen, hastean urrun zinduzkan halako
uzkur batengatik; haatik, laster nabaritzen zenuen harekin solasean ari-
tzearekin.

Ezin egokiago kudeatzen eta gidatzen zituen lanak eta bilkurak, berezko
laderia batekin. Euskaltzainek, unibertsitateko lankideek, beste elkartee-
tan haren kide izan direnek, denek gogoan atxikiko dugu nola gizabidetsu-
ki eta lañoki eramaten zituen biltzarrak. Bazkal tenorea jina zenean, haatik,
luzamendu guti bilkuren bururatzeko. Jeanentzat, alabaina, egiteko bakoi-
tzak bere ordua zuen, eta ez zitzaion gutiago zaintzekoa sabelari zegokiona.
Orok dakigunaz, bazkari lagun hauta zen, mama gorri gozo batek lagundu
janari onen prezatzen zekiena, are gehiago, ondotik, lagunarte onean, ziga-
rro-puru eder baten bafadek Armagnac xorta ferekatzen zutelarik.

Izariz, kudeaketa kontuetan, indarrak eta bere jakitatearen eta ahalen
mugak ongi neurtuz eta aitortuz, buruz eta zuhurtziaz, hots, jokatzeko ohi
bazen Jean, norabidea erakusten zuten, edo munta zuten gauzetan, ausartzia
ez zitzaion falta, beti urrunera, goratik, eramaten zuelarik behakoa, halako
ezin histuzko baikortasunarekin. Baikortasun hori, aitor dut, ulergaitz iru-
ditzen zitzaidan batzuetan niri, bereziki Iparraldeko euskararen kontuetara
ginderamatzalarik solasak. Berantean jabetu naiz, etsi bat harturik, geldirik

ez egoteko, eta aitzina joateko biderik egokiena dela hura. Haize kontra joanik berdin. Haize kontra joanik, bereziki. Ezen, bazekien, errana ere zuen, euskarak gure hemengo lurraldean zor zitzaion legezko ezagutzarik hartu gabe partituko bide zela mundu honetarik. Ondikoz, hala gertatu da.

Milesker, Jean, Euskaltzaindian eta Euskaltzainditik kanpo, euskararen onetan, egin dituzun mila lan eta zerbitzuez. Milesker, utzi diguzun oroitzapenaz. Segur izan zaitez partekatzen genituen esperantzak biziaraiziko ditugula. Baikortasunez.



Karmele Rotaetxe Amusategiren hilberria (1932-2013)

ALTZIBAR, Xabier
Euskaltzain urgazlea

2013ko maiatzaren 1ean utzi gintuen Karmele Rotaetxek, 7 hilabeteko gaixotasun larri eta mingarri baten ondoren. 2011tik bizkarreko minez, biriketako minbizia zuela jakinda heriotzari aurre egin zion, adorez, laurogei eta hainbat urte zituela. Udaberria jaiotzen ikusiko ez zuela esan arren medikuek, heriotzarekin borrokatu zen eta iragarpenek ziotena baino hilabete gehiago iraun zuen, burua beti oso. Azken egunetan Bilboko Guimon klinikan egon zen, ondo zainduta. Senarra –Jose Miguel Rincón–, senitarteko eta lagun ugari izan zituen ondoan.

Maiatzaren 6an Karmeleri azken agurra egiteko bildu ginen Bilbon, Abandoko San Bizente Martiriaren elizan, senitartekoak, lagunak eta Euskaltzaindiko nahiz unibertsitateko jendea, osteka. Karmelek berak aurretiaz zehatz-mehatz banandua zuen euskararen eta gaztelaniaren partea bere hilmezan. Fededuna zen, eliza katolikoaren hierarkiaren jokabidearekin ados ez zen arren. Bizkaiko Derio herriko kanposantuan datza hobiratua.

Karmele oso ezaguna zen Bilbon eta euskararen mundu akademikoan. Zuetariko askok nik baino hobeto ezagutu zenuten alderdi askotan. Hark berak eta Euskaltzaindiak eskatuta, ohore zait haren hilberri txosten hau zuen aurrean irakurtzea. Eskerrak zor dizkiet Karmele zenari berari eta Jose Migel alargunari, eman didaten argitasunengatik; baita Anjel Zelaieta, Xabier Kintana, Lutxi Alberdi, Josune Olabarria, Patxi Goenaga eta Battittu Coyos-i ere, eskaini dizkidaten xehetasun batzuengatik. Jose Migel Rincón alargunari, gainera, zordun gatzaizkio guztiok Karmeleri emaniko laguntza

Euskera. 2013, 58, 1. 327-342. Bilbo
ISSN 0210-1564

erreal eta babes moralagatik, beti gogorarazten baitzion bere eginkizuna ikertzea zuela, profesional eta euskaldun gisa.

Bilbon jaio zen Karmele, II. Errepublikako urteetan. Aita, Fidel Rotaetxe, administraria zen, Manu Sotaren idazkaria gerraurrean. Aitaita, aitaren partetik, Zeanuriko baserri batekoa zen. Ama, Juanita Amusatagi, Enkarterrikoa, irakaslea ogibidez. Oso diziplinatua omen zen ama. Aitabitxi Manu edo Imanol Sota izan zuen, antzerkigile abertzale aipatua eta euskaltzain urgazle izendatua 1957an. Karmelek ahizpa bat izan zuen —duela bost bat urte zendua—, haren partetik bi iloba, eta neba bat, oraindino bizi dena.

Ume zela, Karmelek 1936ko gerra ezagutu zuen Bilbon. Aita errefuxiatuen arduraduna izan zen. Bilbo faxisten eskuetan jausi baino lehen, familiako guztiek azkenetariko itsasontzi batean alde egin zuten eta Bordele inguruan jarri bizitzen. Han eman zuen Karmelek ume eta gazte-denborako parte bat. Han hasi zen ikasten, eskola publikoan, eta gero batxilergoa egin zuen Bordeleko lizeo batean, frantsesez. Frantziako hezkuntzak kritikoa izaten erakutsi zion, elkarrizketa batean A. Zelaietari adierazi zionez (*Euskaldunon Egunkaria*, Bizkaia, 2001/02/25).

Bilbora itzuli zen nebarekin aititaren etxera, eta ostera ere batxilerra eta Estatu-azterketa edo *errebalida* egin behar izan zituen sei urtez. Batxilerra Unamuno institutuan ikasi zuen, eta *errebalida*, berriz, Valladoliden, eta ez edozelan gero!: 40 ikasletatik 20 aurkeztu eta bik bakarrik gainditu *errebalida*, bietatik bat Karmele Batxiler ikasketak amaituta, familiari lagundu behar eta unibertsitateko karrera ikasteko dirurik ez zuela-eta, lanean hasi zen. Takigrafia eta mekanografia ikasi eta zuzendaritza-idazkari lanpostua eskuratu zuen General Electrica-n, Bilboko bulego batean, eta gero Etxebarriko Laminaciones en Bandas-en. Langile fina zen, mailaz maila igotzen ari zen, ugazabak poz-pozik ziren harekin. Gero *au pair* egon zen Londresen eta ondoren Gizarte-Laguntzaile karrera —Bilboko Gotzaindegiaarena— hasi zen ikasten. Eta oso ondo zebilen, baina azken urtean kanpora bota zuten: moja irakasle batek entzun ei zuen «que no era española». Diktaduraren zapalke-ta dastatuko zuen 1958an edo 1959an ere Larrinagako kartzelan hiru astez, isuna ez ordaintzeagatik: Julen Madariagaren bidaia-bulegoa itxia zela iragartzen zuen kartela ikusita «¡Qué sinvergüenzas!» esan eta inguruan kale-

ko jantziekin zeuden poliziek atxilo eramane. Zorionez, aita harreman onak zituen eta laster atera zen.

Neska gazte alaia, festazalea, koketa, apaina eta ederra zen Karmele, begi berde distiratsuekin. Ballet klasikoa ikasten zuen Olaetatarrekin; Lurdes Olaeta lagun mina zuen. Musika klasikoa ere beti izan zuen gogoko. Uda partean, Bakion egoten zen: Madariagatarren lagun ziren Rotaetxetarrak, Esther Madariaga lagun mina zuen. Valentzian oporretan zela, Jose Migel ezagutu zuen, geroago haren senarra izango zena. 1957 ingurutsua zen eta 25-26 urte izango zituen Karmelek.

Euskarak eta irakaskuntzak aldatu zuten Karmeleren bizitza. Gurasoak euskaldunak ez izan arren, euskara maite izaten erakutsi zioten. General Electrica-n zegoela hasi zen euskara ikasten Tere Egileor lagunarekin, baina batez ere Xabier Peña izan zen euskara irakatsi eta maitatzen irakatsi ziona. Eskolak hiru aldiz aldatu behar izan zituzten lekuz; poliziak ikasleen fitxak eskatzen zituen, euskaltzale guztiak fitxatuta zeuden. Mendira osterak egiten zituzten eta giro horretan ezagutu zuen Alfontso Irigoien; gero San Anton Orfeoian eta Euskaltzaindiaren egoitzan ere elkar ikusiko zuten, eta lagunak egin ziren. Bizkaiko Muxika herrian ere bi uda eman zituen Karmelek Enbeitatarren etxean, euskara praktikatzeko. Aste Santuko oporretan Gernikan izaten zen, han lagunak zituen eta. Karmelek bere ahaleginez ikasi zuen euskara, diktadurapeko urte gaitzetan. Euskaldundu zen buruz eta bihotzez; harrezkero euskararen irakaskuntzan eta ikerkuntzan eman du bizitza osoa, eta horretan langile nekaezina izan da hil arte.

Euskararen etorkizunaz arduratuta bizi izan zen. Ilusio handia jarri zuen euskararen indartzean; Euskal Herriaren burujabetza osoa lortzeko tresnatzat zeukan euskara, eta ardura eza aurpegiratzen zien jeltzaleei; zalantzatik esperantzara igaro zen Estatutuaren ondoren, 1980 inguruan, ikusirik hizkuntza politikaren helburua euskalduntzea zela; geroago, ordea, etsitu samar zegoen, ohartuta inbertsio handiak eginda gero hizkuntzaren ezagutzen aurreratu zela, baina erabilpenean ez. Bestalde, minduta zegoen munduan euskaldunen ospea histua zela ikusirik eta bere burua agertu zuen prentsan hilketen aurka.

* * *

